³ “Gramatikalizazioa ikerlerro garrantzitsuenetarik egin zaigu azken hamarkadetan, nahiz aspalditik nola edo hala beti izan den diakronistaren jardunean, batez ere alderdi gramatikalaren historiaz arduratuen artean. Gurean pankronia dela, bestelakoak direla, morfologia eta sintaxi diakronikoak ez dira inolaz ere alor garatuenak, ordea, eta enparatuetan bezala hemen ere sinkronistek —batez ere ortodoxoenek (eta ia berdin du zein ortodoxiaren zaleek)— ez dute oso gogoko gramatikalizazioa. Zergatiak azaltzeak luze joko luke —eta gehiago dagokie (hala baderitze) sinkronistei eurei diakronista honi baino—, baina esan dezagun ez dutela horren beharrik ikusten, ustez zeinek bere alorrean badutela (fonologoak fonologian, morfologoak morfologian, sintaxilariak sintaxian eta are pragmatikalariak berean) hori baino hoberik” (Lakarra 2016: 177).

papers) on the structure of the Proto-Basque root is the idea that many properties of the modern language —even though attested from the first written records— might in fact be relatively recent: starting from the structure of the root, through nominal and verbal morphology and all the way to the word order. Apart from pushing the reconstruction of the previous stages of the language further in time than Mitxelena managed to do, many of the hypotheses proposed by Lakarra changed the way some facts of Basque grammar actually attested in texts are looked at: irregularities or marginal though surprising constructions, which used to be mostly ignored, gained interest as possible traces of a type of language that Basque might have been sometime (Lakarra 2005).

As an illustration of the recent advances in the domain of the diachrony of various phenomena related to clausal morphosyntax, the following works can be mentioned:

- Several proposals by Lakarra (among others, 2008; 2013; 2016) are directly related to syntax: for example, the archaic coordinating construction (first studied in Lakarra 1983a), or the idea that the proto-language had serial verbs (and consequences of the grammaticalization of one of them, e.g. **nin* ‘give’ becoming dative marker), in general, the canonical form of the Proto-Basque root, and especially with reference to grammatical morphemes.
- Manterola (2012, 2015) studied the grammaticalization of definite (*-a*) and indefinite (*bat*) articles in Basque, taking into account language-internal but also factors related to language contact.
- The grammaticalization of auxiliary verbs and several verbal periphrases, and the evolution of the tense-aspect-mood system is treated in Mounole (2008, 2011). Shifts in valency of some classes of verbs and changes in alignment were studied in Mounole (2011, 2013) and Creissels & Mounole (2017). Resultatives are also analyzed in Krajewska (2012b, 2013).
- Dative agreement was studied from different perspectives in Mounole (2015) and Ormazabal & Romero (2017).
- As for the origin and changes in functions of various case markers, the following should be mentioned: ablative in Lakarra (1984b), instrumental in Igartua & Santazilia (2013), partitive in Ariztimuño (2014), local cases and genitive in Lakarra (2016).

- The Linschmann-Aresti law (the distribution of regular and emphatic genitive pronouns) is treated in Rebuschi (1995) and in Martínez-Areta (2015).
- As mentioned earlier, the topic of Proto-Basque clause-level word order has received some attention: Trask (1977), Gómez & Sainz (1995) and various papers by Lakarra. The order of verb and object in old texts is analyzed by Martínez-Areta (2011), who also mentions the variation in word order inside the noun phrase (genitives and relational marker). The change in word order in questions is analyzed by Aldai (2011).
- Rebuschi (2008) deals with exclamative constructions.

However, if we move up to relations between clauses, much less has been done. In general, considering the last 40 years or so, only the following works can be listed:

- Oyharçabal (1987) studied various types of relative, temporal and conditional clauses, and even though his goal was not to describe their history, he included many valuable observations about older stages of the language too.
- Rebuschi (2003, 2009a,b) studied free relatives and correlatives, taking into account also the data from old texts.
- The order of relative clause and noun, first mentioned by de Rijk (1980), is briefly described in Martínez-Areta (2011).

The scarcity of works on historical syntax in general, and on inter-clausal relations in particular is the main motivation for the present thesis: I will demonstrate here that there are many topics related to the historical syntax of Basque which have not been fully explored. The primary goal I pursue here is to add to the understanding of the history and prehistory of complex constructions, and especially subordinate clauses.

1.2 Overview of the thesis

1.2.1 Approach to language and language change

In this section I will very briefly explain the approach to language and language change adopted in this thesis by making reference to the most important ideas which serve as background of the discussions.

In general, the way of looking at grammar adopted here draws heavily from usage-based approaches to language (Bybee 1985; Langacker 1987; Tomasello 2003; Beckner *et al.* 2009; Bybee 2010), and constructionalist approaches in particular (Croft 2001; Goldberg 2003, 2006; Traugott 2014). As put by Bybee & Beckner (2011: 827):

Usage-based theory takes language to be an embodied and social human behavior and seeks explanations in that context. As the name indicates, this theoretical perspective incorporates the basic insight that usage has an effect on linguistic structure. It thus contrasts with the generative paradigm's focus on competence to the exclusion of performance and rather looks to evidence from usage for the understanding of the cognitive organization of language. Thus usage patterns, frequency of occurrence, variation, and change are all taken to provide direct evidence about cognitive representation.

In constructionalist approaches grammar is seen as a network of constructions –pairings of form and meaning–, which differ in various properties: e.g. level of schematicity (concrete vs abstract), productivity (fully productive vs restricted), and compositionality (compositional vs idiosyncratic meaning). This approach has proved fruitful in explaining the past of languages (Traugott & Trousdale 2013; see also, for instance, the volume edited by Barðdal *et al.* 2015), also in the reconstruction of syntax (Barðdal & Eythórsson 2012).

On the other hand, though, the analyses presented here are meant to remain theory-neutral, following ideas expressed by Haspelmath (2011) or Dryer (2006), who advocate a “framework-free” approach to the study of language, or describing languages in their own terms, as all frameworks (“a sophisticated and complex metalanguage for linguistic description that is intended to work for any language” Haspelmath 2011) are likely to distort the view of a language. To my knowledge, such ideas are not frequently explicitly invoked in diachronic studies, but they are implicitly present in most “traditional” works in historical linguistics (especially those which have philology as departure point).

In this thesis language is seen as a historical product, and thus I believe that an important kind of explanation in linguistics refers to the way the grammar was

shaped in the past (see, among others, Bybee 1988; Heine 1997a; Creissels 2006). In language change, different forces play a role, some changes might be motivated functionally, but some patterns in grammar might rather be by-products of changes which occurred in a rather mechanical fashion with no direct functional motivation (Creissels 2008; Cristofaro 2012).

As far as kinds of change are concerned, it is useful to distinguish two classes: (a) changes that affect features of an existing construction –form or meaning–, called “constructional changes” in Traugott & Trousdale (2013), and (b) cases where a new construction is created (“constructionalization” in Traugott & Trousdale 2013).

Grammaticalization, which will be frequently discussed in this thesis, falls into the second class, and its most relevant characteristics, as claimed in Bybee *et al.* (1994), are source determination, unidirectionality, retention of earlier meaning, semantic and phonological reduction and layering.

With reference to other kinds of changes in syntax, the approach put forward in Harris & Campbell (1995) –who propose that there are only three general mechanisms of syntactic change: reanalysis, extension and borrowing– will be particularly useful.

1.2.2 Corpus methodology

The starting point for discussions in this thesis are qualitative and quantitative analyses of the textual data available. As such, what I am doing here might be labeled corpus driven study of language.⁴

Corpora constitute an essential tool for historical linguists (Rissanen 1989, 2009). As observed by Hilpert & Gries (2016) the first kind of corpus studies is based on hypothesis testing. Another way to work with texts involves what Hilpert & Gries (2016) call exploratory, bottom-up approaches, where texts are studied in order to discover patterns in data not necessarily anticipated or expected.

Without reaching methodological sophistication of studies such as Hilpert & Gries (2008) or Hilpert (2013), the analyses carried out in this thesis are mostly driven by a similar general idea: the goal is most of the time to explore what is hidden in texts, rather than to approach them with preconceived ideas about what they might contain. Also, given that the study of Basque diachronic syn-

⁴As put by Teubert (2005) in his “Corpus linguistics in 25 theses”, “While corpus linguistics may make use of the categories of traditional linguistics, it does not take them for granted. It is the discourse itself, and not a language-external taxonomy of linguistic entities, which will have to provide the categories and classifications that are needed to answer a given research question. This is the corpus-driven approach”.

tax is at best in its infancy, it seems that it is too early for a strictly top-down hypothesis-driven kind of research in this area.

In what follows, I will explain several different points regarding the choice, use and analysis of texts in this thesis.

Each analysis presented here is based on a corpus, which consists of samples coming from different areas of the Basque Country. As for the time depth, the starting point are the oldest Basque texts and the end point the 19th century or 20th century, depending on the construction under study. As far as genre is concerned, the nature of early Basque written production does not really allow for controlling for this factor. However, when dealing with word order prose was preferred over poetry to avoid problems related to metrics.

As for sources, only texts for which electronic transcriptions are available were chosen, as it was not feasible to transcribe all the relevant material. Most texts come from *Klasikoen Gordailua* online corpus, but some were taken from other sources.⁵ Aware of the problems that many texts from *Klasikoen Gordailua* have, I sometimes checked the sources in order to correct them. Nevertheless, while probably inappropriate to study other aspects of language (e.g. many topics in morphology), these transcriptions are good enough to work on syntax.

Because of the particularities of each construction,⁶ it was not possible to work on one corpus, and three separate set of texts were chosen: one for relative clauses, one for the relational marker and genitive, and one for the marker *bait-*. These texts (or fragments) were analyzed exhaustively, both in qualitative and quantitative manner. All the relevant examples were extracted from texts and stored in a database. This process was mostly carried out manually, except where an initial rough search could be done using a regular expression (e.g. with the prefix *bait-* and its variants). Apart from texts from the main corpora, when necessary or interesting, many other sources —especially, belonging to the earliest periods— were also taken into account.

Regarding the quantitative analysis, no statistical analysis has been carried out because, given the particularities of Basque corpus (which is neither repre-

⁵ This results in certain inconsistency in examples because some are given in original spelling, and the ones from *Klasikoen Gordailua* are in modern spelling. Another consequence of using *Klasikoen Gordailua* is that page numbers are not specified in examples (they are not provided in transcriptions in this corpus, and for consistency I have not specified them when quoting other sources).

⁶ For instance, the relational marker is much more frequently employed than relative clauses. Because of that, the corpus for the suffix *-ko* also comprises some early texts that contain too few instances of relative clauses to be included in the main corpus used for the study of relative clauses. Apart from that, since the geographic extension of *bait-* is limited to eastern and northern texts, the corpus for this prefix was compiled taking into account only texts from these areas.

sentative nor balanced), it could obscure the results rather than help to interpret them.⁷

Finally, as mentioned, texts from various areas of the Basque Country are analyzed. In order to avoid anachronisms with reference to dialects (e.g. the question whether it makes sense to talk about the Roncalese dialect in the 17th century), purely geographic labels are usually employed to classify texts: Alava, Biscaya, Guipuscoa, High and Low Navarre, Roncal Valley, Labourd and Soule. When northern areas are mentioned, the French part of the Basque Country is meant, and the Spanish ones are labeled as “southern”. Western areas comprise Biscaya, Alava and western Guipuscoa, central regions are the remaining parts of Guipuscoa, Navarre and Labourd, and, finally, eastern areas comprise Soule and Roncal Valley.

1.2.3 Constructions under study

The departure point of this thesis are two striking aspects of Basque grammar: (1) the postnominal equivalent of the more usual prenominal relative clause, which somehow does not fit very well with the overall head-final preferences of the language, and (2) the morpheme *bait-* which, is curious when compared to the more usual suffixing morphology. The main motivation for focusing on these constructions is that irregular features of the language tend to be more revealing about its past than regular ones (cf. Meillet 1970 [1925] for the comparative method).

On the whole, thus, the thesis deals with two major topics. The first is the variation in word order of nominal modifiers: relative clauses and phrases with the relational marker *-ko* or genitive suffix. The second concerns subordination, and, in particular, changes in the use of various relative constructions and the functions of the subordinator *bait-*.

In the following sections I will introduce in more detail the constructions under study and provide an outline of the thesis.

1.2.3.1 Relative clauses

Chapters 2 and 3 deal with several different relative clause constructions and various questions related to their diachrony.

⁷ Such analysis could be added in the future, but before that additional research into statistical methods that could be applied to a corpus with these characteristics is necessary. Most methods in quantitative historical linguistics were developed while working on a richly documented language such as English. Less has been done to develop procedures for small corpora (but see, for example, Hinneburg *et al.* 2007).

In Basque, gap strategy is the most common type of relative clause. Two constituent orders are available: prenominal (1), which is the default in modern Basque, and postnominal (2). In these constructions, relative clause is embedded, the verb comes usually in clause-final position, and it is marked with the subordinator *-en*. Basque also makes use of appositive relative (3), in which a headless gapped relative is attached to a determined noun phrase. Non-finite relatives are also possible: the verb is an adjectival participle (4-b), or an adverbial participle (*-ta* or *-rik*, (4-a)) followed by the relational marker *-ko*. Finally, we have pronominal *zein* relatives (5). In this construction the constituent relativized is pronominalized, most frequently by means of *zein* ‘which’.

- (1) [gizon-ek erran dukeite-n] hitz alfer guzi-a-z
 man-ERG.PL say AUX.3PL>3SG-SUB word vain all-DET-INS
 ‘all the vain words people can say’ (LeizTest)
- (2) arbore [fruktu on-ik egi-ten ez-tu-en] guzi-a
 tree fruit good-PART make-IPFV NEG-AUX.3SG>3SG-SUB all-DET
 ‘every tree which does not produce good fruit’ (LeizTest)
- (3) zuhaitz alferr-a [fruitu-rik iasai-ten ez-tu-en-a]
 tree lazy-DET fruit-PART give-IPFV NEG-AUX.3SG>3SG-SUB-DET
 ‘a lazy tree which does not give fruit’ (Ax)
- (4) a. Emazte [iguzki-a-z inguratu] bat
 woman sun-DET-INS surround one
 ‘a woman surrounded by the sun’ (LeizTest)
- b. [Espiritu Saindu-a-k eman-ika-ko] grazia-z
 ghost holy-DET-ERG give-PART-RM grace-INS
 ‘by the grace given by the Holy Ghost’ (Pouv)
- (5) gizon zuhur bat-en pare [zeiñ-ek bastitu bai-duke bere
 man wise one-GEN like which-ERG build SUB-AUX.3SG>3SG his
 etxe-a harri-a-ren gainean]
 house-DET rock-DET-GEN on
 ‘like a man who built his house on the rock’ (Harand)

The main goal of chapter 2 is to describe the use of these constructions in a corpus of texts. I pay special attention to the postnominal construction, which has not received much attention in Basque linguistics. Other constructions serve primarily as points of comparison to assess similarities and differences between the prenominal and postnominal variants. On the other hand, I also describe the evolution of the whole relativization system of the language. Finally, also the *zein* relative clause –traditionally viewed as a calque from Romance– is also treated in considerable detail. The analyses carried out in this chapter are meant

to serve as a basis for answering the questions posed in the next one: whether the postnominal RC is older than the prenominal one, and how the construction with interrogative pronouns developed.

1.2.3.2 The relational marker *-ko* and genitive

The relational suffix *-ko* and genitive are treated in chapter 4. The suffix *-ko* derives adjectival modifiers from a wide range of phrases:

- Adverbs and adverbial phrases: for example, local-case-marked nouns (*etxera* ‘to the house’ > *etxerako bidea* ‘road home’), adverbs and postpositions (*beti* ‘always’ > *betiko aitzakia* ‘the usual excuse’ or *literaturari buruz* ‘about literature’ > *literaturari buruzko liburua* ‘a book about literature’) or nouns marked with instrumental (*zurez* ‘of wood’ > *zurezko etxea* ‘wooden house’).
- Bare nouns: *etxe* ‘house’ > *etxeko lana* ‘homework’.
- Determinerless NPs: *ospe handi* ‘great fame’ > *ospe handiko gizona* ‘a man of great fame’.

Apart from that, it is also used as destinative case marker (e.g. *bihar* ‘tomorrow’ > *biharko* ‘for tomorrow’).

The modifier holding the relational marker, similarly to the genitive (illustrated with a genitive pronoun in (6-b) and (7-b)), is usually placed before the noun (6), but, especially in older texts, the reverse order of constituents is also attested (7).

- (6) a. *egia-z-ko jangoiko-a*
truth-INST-RM god-DET
‘the true god’
- b. *gure aita*
our father.DET
‘our father’
- (7) a. *jangoiko egia-z-ko-a*
god truth-INST-RM-DET
‘the true god’
- b. *aita gure-a*
father our-DET
‘our father’

The main objective of this chapter is to describe the word order variation in texts. Particular emphasis is put on the relational marker, but genitive is briefly treated

as well. However, since the understanding of the contexts in which the relational marker is used is relevant to the analysis of word order, its various functions and changes in the way it was used are first described. A further question, similarly as with postnominal and prenominal relatives, is which of the orderings is older, and how the presence of the other might be explained. Finally, the three cases of word-order variation are put together, in order to see if they are might be considered interrelated phenomena, or rather independent changes.

1.2.3.3 The prefix *bait-*

Chapter 5 deals with one of the few Basque grammatical prefixes, the morpheme *bait-*, which is found in the following constructions:

- (i) As subordinator it can be used together with a clause-initial conjunction or pronoun in relative clauses, adverbial clauses (8) and correlatives (9).

(8) Erra-ten da mortale-a, zeren ill-zen *bait-tu*
 say-IPFV AUX.3SG mortal-DET because kill-IPFV bait-AUX.3SG>3SG
 arima
 soul

‘It is called mortal because it kills the soul.’ (BerD)

(9) Nor-i ere pot egin-en *bait-traukat*, hura da
 who-DAT PART kiss make-FUT bait-AUX.1SG>3SG<3SG this be.3SG

‘Whoever I will kiss, he is the one.’ (LeizTest)

- (ii) On its own it can mark relative (10), reason (11), result and complement clauses.

(10) Anaya, igori-co darauat *goutum-bat*, [jaun-a-c
 brother send-FUT AUX.1SG>3SG<2SG letter-one lord-DET-ERG
 eman *bay-taraut* galcerdy ceta-z-ko bat-en
 give bait-AUX.3SG>3SG<1SG sock silk-INS-RM one-GEN
 barnean]
 inside

‘Brother, I will send you a letter which the lord gave to me inside a silk sock’ (SeinichGut)

(11) Ondorioz, ezin izan dute arrain-a bere prezio-an
 as.result cannot be AUX.3PL>3SG fish-DET its price-INES
 saldu, sardina fite gal-tzen *baita*
 sell sardine quick lose-IPFV bait.AUX.3SG

‘As a result, they could not sell the fish at their price because sardine goes bad quickly’ (Herria)

- (iii) It also shows up on verbs in independent clauses, with functions related to the organization of discourse.
- (iv) It also surfaces in some other places of Basque grammar, e.g. as suffix on indefinite pronouns.

The first goal of this chapter is to study the functions of the marker on a corpus of Basque texts and describe changes observed. Two processes will be of special interest: for one thing, the development of the reason meaning of the prefix, which is the most frequent function of *bait-* in modern Basque, and, for another, the disappearance of the type of clauses where *bait-* is used with a conjunction or pronoun. Secondly, the chapter addresses the question of the diachronic relations between the various functions of the prefix, and the problem of its grammaticalization; in particular, the goal is to clarify the diachronic relationship it has with the affirmative particle *bai* ‘yes’.

1.2.4 Objectives

The main objectives of the thesis are the following:

- (i) The first goal is a qualitative and quantitative analysis of the constructions listed in the previous section in a corpus ranging from the earliest texts to the 19th or 20th century.
- (ii) The second goal is try to answer –on the basis of the results of the corpus study– several questions which go beyond textual evidence and into the domain of linguistic reconstruction.

In addition, the thesis tackles the following more general questions:

- (i) Does Basque corpus allow for the study of historical syntax, or is it too limited and too recent? What kind of problems are caused by the character of the data available, e.g. the fact that most texts are religious prose and often translations?
- (ii) To what extent is the influence of Romance languages visible in syntax? Several constructions treated here were traditionally considered calques, but can evidence –or, at least, good arguments– in favor of (or against) that be found? What insights can we gain when the development of these constructions is studied from within the language? Or when we combine both perspectives?

- (iii) Are Basque diachronic syntax and syntactic reconstruction feasible? Is it possible to explain the development and change of the constructions analyzed here?

2 Perpaus erlatiboak

2.1 Sarrera	2.4 Erlatibo jokatuabeak
2.1.1 Aztergai diren egiturak	2.4.1 Erlatibizatzen den argumentua
2.1.2 Ezaugarriak	2.4.2 Hitz-ordena
2.1.3 Corpusa	2.4.3 Ardatzaren semantika
2.2 Izen osteko eta izen aurreko erlatiboak	2.4.4 Perpausaren luzera
2.2.1 Lekukotasunak	2.4.5 Erlatibo jokatuabeak: ondorioak
2.2.2 Ezaugarri gramatikalak	2.5 <i>Zein</i> erlatiboa
2.2.3 IAko eta IOko erlatiboak: ondorioak	2.5.1 Lekukotasunak.
2.3 Erlatibo aposatuak	Maiztasuna
2.3.1 Posizioa perpaus nagusian	2.5.2 Izenordainak
2.3.2 Kasu-komunztadura	2.5.3 Menderagailua: <i>-en/bait-/zero</i>
2.3.3 Aposatuak noiz erabiltzen diren	2.5.4 Erlatibizatzen den argumentua
2.3.4 Maiztasuna	2.5.5 Murrizgarritasuna
2.3.5 Erlatibizatzen den argumentua	2.5.6 Ardatzaren semantika
2.3.6 Murrizgarritasuna	2.5.7 Perpausaren luzera
2.3.7 Ardatzaren semantika	2.5.8 <i>Zein</i> erlatiboak: ondorioak
2.3.8 Erlatibo hautsiak	2.6 Summary and conclusions
2.3.9 Perpausaren luzera	2.6.1 Frequencies
2.3.10 Erlatibo aposatuak: ondorioak	2.6.2 Grammatical properties
	2.6.3 Remaining questions

2.1 Sarrera

Kapitulu honetan ikuspuntu diakronikotik deskribatuko ditut egitura erlatiboak. Euskarak duen erlatibo ohikoena *-en* menderagailua duen izen aurreko egitura bada ere (1), beste hainbat aukera daude: bere ispilu-irudia den izen osteko erlatiboa (2), erlatibo aposatua (3), partizipio adberbialekin edo partizipio hutsarekin egindako erlatibo jokatuabea (4) eta *zein* izenordainarekin egindakoa (5).

- (1) [gizonek erran dukeiten] *hitz alfer guziaz* (LeizTest)¹
- (2) *arbore* [fruktu onik egiten eztuen] *guzia* (LeizTest)
- (3) *zuhaitz alferra* [fruiturik iasaiten eztuena] (Ax)
- (4) a. [Espiritu Sainduak emanikako] *graziaz* (Pouv)
b. *Emazte* [iguzkiaz inguratu] *bat* (LeizTest)
- (5) *gizon zuhur baten pare* [zeiñek bastitu baiduke bere etxea harriaren gainean] (Harand)

Horietaz gain, *bait-* menderagailuaren bidez eratutako erlatiboak ere baditugu

- (6). Horiek, hala ere, *bait-* aurrizkiari eskainitako kapituluan aztertuko ditut.
- (6) Anaya, igorico daraut *goutumbat*, [jaunac eman baytaraut galcerdy cetazko baten barnean] (SeinichGut)

Hainbat egitura kontuan hartzen badituz ere, ikuspuntu diakronikotik interes gehien dute, nire ustez, izen osteko erlatiboek eta *zein* erlatiboek, eta horiei leku gehien eskainiko diet. Horiek egoki deskribatzeko, halere, beste egitura batzuekin konparatzea komeni da: batez ere izen aurreko erlatiboarekin, baina baita euskarak dituen gainerako erlatibizazio-baliabideekin ere. Horiek horrela, erlatibizazioa bere osotasunean ere deskribatuko dut, egitura bakoitzaren funtzioak eta ezaugarriak zehazteko. Erlatibo horien erabileran gertatu ziren aldaketak ere aztertuko ditut.

Izen osteko erlatiboa, gutxien ikertu den erlatibo-mota izanik ere, azken urteetan aitzineuskarari buruzko hainbat lanetan (Lakarra 2005, adibidez) iradokitzen da izen osteko erlatiboa izen aurreko aldaera baino zaharragoa izan daitekeela, eta izen aurreko egitura garatzea euskarak pairatu bide zuen aldaketa tipologikoarekin lotzen da. Izen osteko egiturari buruzko ikerketa diakronikorik eza eta Lakarraren iradokizun horiek ikerketa honen inspirazioa izan direla esan dezaket: aipatutako lan horietan izenaren eskuinean agertzen diren erlatiboak existitzen direla baino ez da esaten, testuetako lekukotasunak sakonean aztertu gabe. Nire ustez, “zein da zaharragoa” eta “zergatik sortu zen bestea” galderak erantzuten saiatu baino lehen, ezinbesteko da testuek esaten digutena aztertzea. Kapitulu honetan hutsune hori betetzen saiatuko naiz.

Izenordain galdetzaileekin egiten den erlatiboaren kasua zentzu batean antzekoa da: bere erabilera ez da asko aztertu, testuetan erruz agertu arren. Gramatikan, kontuan hartzekotan, gehienetan gaitzesteko asmoz aipatu ohi da, egituraren ezaugarri gramatikalez arduratu gabe.

¹ Perpaus erlatiboei eskainitako ataletan adibideetan letra etzanaz markatzen da erlatiboaren ardatza edo modifikatzen den izen-sintagma, eta perpaus erlatiboa kortxeteen artean dago.

Kapitulu honetako azterketa hurrengoan egingo diren galderei erantzuteko oinarria izango da, horretarako baliagarri izan daitezkeen datuak bilduko baitira. Bi galdera interesatzen zaizkit bereziki. Batetik, zein den zaharragoa: izen aurreko erlatiboa ala izen ostekoa; eta, bestetik, *zein* erlatiboa nola sortu zen, edo mailegua den ala ez.

Lehenengoari dagokionez, funtsean, nire proposamena hau izango da: izen osteko erlatiboak erlatibo aposatuetatik sortu ziren, berranalisiaren bidez. Horren aldeko argudioetako bat da kapitulu honetan erakutsiko den erlatibo aposatuek eta izen ostekoek ezaugarri batzuetan duten antzekotasuna. Izen aurreko egiturari dagokionez, aldiz, nire ustez, izen ostekoa baino zaharragoa da. Zehatzago, argudiatuko dut *-en* menderagailuaren jatorria dela perpaus-kateetan agertzen zen azken aditza (**non* ‘joan’ edo **den* ‘finish’ izan zitekeena), eta perpausen lotura hasieran lausoa tinkotuz gero sortu zirela *-en* menderagailua duten erlatiboak.

Bigarren galdera dela eta, saiaturik naiz erakusten *zein* erlatiboaren garapenean hizkuntza erromantzeen eragina kontuan hartu behar bada ere, egituraren ezaugarri guztiak ezin direla ukipenaren bidez azaldu eta euskararen barneko faktoreak aztertzea ezinbesteko dela. Zehatzago, Lakarrak (2017) proposatutako *zein*-en etimologia onartuta *-zein* < **ze(r) din-*, izenordaina egitura korrelatiboan sortu zela proposa daiteke (*hain zuri zein elurra* motakoetan). Egitura hori izan zitekeen *zein* erlatiboa sortzeko oinarria, erromantzeen eragina areagotu zenean korrelatibo hori “berrerabili” baitzen inguruko hizkuntzek dituzten erlatiboen antzeko baliabide bat sortzeko.

Kapituluaaren egitura honakoa da: sarrera honen gainerako ataletan aztergai ditudan egiturak eta ezaugarriak definituko ditut eta, azkenik, erabili dudan *corpusa* ere zehaztuko dut. Ondoren bost egitura deskribatuko ditut: izen aurreko eta izen osteko erlatiboa (2.2. atala), erlatibo aposatuak (2.3), erlatibo jokatuga-beak (2.4) eta *zein* erlatiboak (2.5). 2.6. atalak emaitza garrantzitsuenak biltzen ditu.

2.1.1 Aztergai diren egiturak

Perpaus erlatiboa izen-sintagma bati buruzko informazioa gehitzen duen mendeko perpausa da, perpaus horren barruan perpaus nagusiko IS horrek (“ar-

datzak”) zein funtzio duen zehazten duena.² Euskarak egitura batzuk erabiltzen ditu horretarako, eta hauek dira horiek bereizten dituzten ezaugarri nagusiak:

- Egitura txertatua ala aposatua den. Txertatuan erlatiboak eta ardatzak IS konplexua osatzen dute; aposatuan, aldiz, bereiz dauden bi IS ditugu, eta intonazioan eten bat dago bien artean.
- Ardatzarekiko posizioa finkoa ala aldakorra den: erlatiboa izenaren ezkerrean edo eskuinean, edo bietara agertzen den.
- Perpaus erlatiboan erlatibizatzen den IS (IS_{rel} aurrerantzean) tratatzeko modua: sintagma hori isiltzen den ala izenordainaren bidez adierazten den. Isiltzen denean, erlatiboan duen funtzioa testuingurutik atera behar da. Adibidez, *ikusi duen mutila* anbigua da: *mutilak ikusi du* edo *mutila ikusi du* perpausa egon daiteke horren atzean. Izenordaina dugunean, horrek zehazten du funtzioa: *mutila zeinek ikusi duen* edo *mutila zeina ikusi duen*.
- Perpausa jokatua ala jokatugabea den.

2.1. taulak erlatiboen ezaugarri horiek laburbiltzen ditu. Hurrengo azpiataletan zehatzago deskribatuko ditut egiturak.

2.1. taula. Tesi honetan aztertuko diren egiturak (IA – izen aurreko erlatiboa, IO – izen osteko erlatiboa, jokatug. – partizipioekin egindako erlatibo jokatugabea, AP – aposatua, *bait-* – *bait-* aurrizkia soilik duten erlatiboa, *zein* – izenordainekin egiten diren erlatiboa).

Ezaugarria	IA	IO	Jokatug.	AP	<i>bait-</i>	<i>zein</i>
Txertatua	+	+	+	-	-	-
Posizio finkoa	-	-	-	+	+	+
IS_{rel} isiltzea	+	+	+	+	+	-
Jokatua	+	+	-	+	+	+

2.1.1.1 Izen aurreko eta izen osteko erlatiboak

Egitura horietan mendeko perpausaren IS_{rel} isiltzen da: (7)-n *gizonak lur asko dauka* > [*lur asko daukan*]. Aditz jokatua mendeko perpausaren azken posizioan doa eta *-en* menderagailua darama. Ardatzak eta erlatiboak izen-sintagma konplexua osatzen dute; IS horri determinatzailea eransten zaio. Erlatiboa ardatzaren ezkerrean (7) edo eskuinean (8) joan daiteke.

² Andrews-en (2007: 206) definizioaren bertsio bat da hori. Andrewsek modu honetan definitzen ditu perpaus erlatiboak: “A relative clause (RC) is a subordinate clause which delimits the reference of an NP by specifying the role of the referent of that NP in the situation described by the RC”. Definizio horrek, hala ere, kanpoan uzten ditu erlatibo ez-murrizgarriak, eta hemen bai murrizgarriak, bai ez-murrizgarriak ikertu nahi ditut.

- (7) a. [[lur asko daukan] *gizon*]a
 b. [[ERLATIBOA] IS]-DET
- (8) a. [*gizon* [lur asko daukan]]a (Land)
 b. [IS [ERLATIBOA]]-DET

Tesi honetan, (7) motako egitura “izen aurreko erlatiboa” (IAko) deituko dut; (8), berriz, “izen ostekoa” (IOko). “Eskuineko” eta “ezkerreko erlatiboa” izendapenak erabiltzen dira askotan, baina, nire ustez, nahasgarri gertatzen dira, ez baitago beti oso argi eskuinean (edo ezkerrean) zer dagoen, erlatiboaren burua ala perpaus erlatiboa bera.

Adibideak biltzeari dagokionez, IA/IOko erlatiboen kasuan, ardatz izen osoa dutenak bakarrik hartu ditut kontuan (*etorri diren guztiak* edo *etorri dena bezalakoak* ez). Bestalde, kanpoan geratu dira *-en bezala* edo *-en arte bezalakoak*, horiek erlatiboekin diakronikoki lotuta badaude ere, bestelako funtzioak hartu dituztelako.

2.1.1.2 Erlatibo aposatuak

Erlatibo aposatuetan ardatzik gabeko erlatiboa (edo “erlatibo librea”, hurrengo adibidean *çeruetan zagoçana*), IS determinatuari eransten zaio:

- (9) a. *aita gurea* [çeruetan zagoçana] (Kap)
 b. [IS-DET] [erlatiboa-DET]

Aurreko egituran ez bezala, bi izen-sintagma ditugu hemen: ardatza eta erlatiboa. Askotan elkarren ondoan agertzen badira ere, sintaktikoki bereiz daude eta intonazioan eten bat dago bien artean. Batzuetan tartean perpaus nagusiko parte bat ere egon daiteke, bi sintagma bereiziz.

2.1.1.3 Erlatibo jokatugabeak

Hurrengo erlatibo-mota partizipio-perpausez osaturiko egiturak dira. Partizipioaren forma dela eta, lehen aukera gehienbat ekialdeko hizkeretan erabiltzen den partizipio hutsa (*-ko* gabekoa) da (10). Bigarrena *-(r)ik* edo *-ta* partizipio adberbialak dira, *-ko* atzizkia gehituta (11). Hitz-ordenari dagokionez, erlatibo jokatugabeetan bi aukera ditugu: izenaren aurrean edo ostean joan daiteke perpausa. Hemen partizipio-perpauzak aztertuko ditut, eta bereziki partizipio adberbialen gainean eraturakoak.

- (10) *tenple* [eskuz egin] *haur* (LeizTest)
- (11) a. [urrez edo cilharrez eguinicaco] *figurac* (Mat)
 b. [Emakumiak engainautako] *gizon senduen* artian (frBart)

2.1.1.4 *Zein* erlatiboak

Zein erlatiboan (12), mendeko perpausean agertzen den izenordain erlatiboak erreferentzia egiten dio perpaus nagusiko izen-sintagma bati. Izenordain horrek mendeko perpausean dagokion kasu-marka hartzen du, eta, hizkeraren arabera, ardatzarekin numero-komunztadura egiten du, (12-b)-n bezala. Normalean *zein* galdetzailea erabiltzen da funtzio horrekin (nahiz eta beste izenordain batzuk ere noizean behin agertzen diren). Horregatik deituko diot “*zein* erlatiboa” egitura-ri. Erlatibo aposatuen kasuan bezala, hemen ere bereiz dauden bi izen-sintagma ditugu, eta normalean elkarren ondoan agertzen badira ere, ez da nahitaezkoa. Mendeko perpausean dagoen aditzak gehienetan menderagailua darama (-*en* edo *bait*-), baina menderagailurik gabeko perpausak ere aurkitzen dira, gehienbat testu zaharretan.

- (12) a. Eta adoratzen zuten hura *lurreko habitant guziek*, [zeinen izenak ez-paitirade eskribatuak] (LeizTest)
b. Dagoz lurrean barruan, *lau leko* [zeinzuei bean dagozalako deresten infernuak] (ZubDot)

2.1.1.5 *bait*-erlatiboak

Euskarak duen azken erlatibo-mota *bait*-aurrizkia duten perpausak dira (13). Erlatibo aposatuen antza dutela esan daiteke: bi sintagma ditugu eta mendeko perpausa ez dator beti ardatzaren ondo-ondoan. Aposatuetan -*en* menderagailua duen erlatibo librea eransten zaio IS bati, hemen, aldiz, *bait*-menderagailua duen perpausa dugu. *Zein* erlatiboetan ere *bait*-ager daiteke, baina izenordain erlatiboarekin batera; *bait*-erlatiboetan ez dago izenordainik.

- (13) a. Anaya, igorico daraut *goutumbat*, [jaunac eman baytaraut galcerdy cetazko baten barnean] (SeinichGut)
b. Oliadura da *sakramentu bat* [Kristo gure jaunak ordenatu baitu herien-dako ilzeko peligroan daudenean errezebi dezaten] (BerD)

Era horretako perpausek interpretazio batzuk izan ditzakete, erlatiboaz gain, kausala edo osagarria, adibidez. Beste horiekin batera ikertzea komeni dela uste dut, eta horregatik *bait*-aurrizkiari eskainitako partean aztertuko dira erlatibo horiek (5.4.1. atalean).

2.1.2 Ezaugarriak

Atal honetan perpaus erlatiboak deskribatzeko erabili ditudan ezaugarri nagusiak labur zehaztuko ditut. Horietaz gain, egitura bakoitzaren ezaugarri bereziak ere aztertu dira; horiek dagokien tokian aurkeztuko dira.

2.1.2.1 Ardatzaren eta perpaus erlatiboaren ordena

IA/IOko erlatiboetan eta erlatibo jokatu gabeetan ardatzaren eta erlatiboaren hurrenkera aldakorra da. Izen osteko ordena dugu erlatiboa izenaren eskuinean agertzen denean eta izen aurrekoa, berriz, izenaren ezkerrean denean.

Zalantzarik sortzen ez duten adibideak bakarrik kontuan hartu dira estatistikak ateratzeko. Batzuetan ezin da jakin IOko erlatiboa ala erlatibo aposatua dugun: izenak *-a* itsatsia duenean, edo izena mugagabe denean eta erlatiboa absolutiboan eman denean. Adibidez, (14) perpausa IOko erlatibo bezala uler daiteke (14-a), edo egitura aposatu bezala (14-b). Horrelako erlatibo anbiguoak ez ditut IOko erlatibotzat joko, aposatutzat baizik.

- (14) Gure aita ceruetan çaudena (Mat)
- a. [Gure aita [ceruetan çauden]]a
 - b. [Gure aita] [ceruetan çaudena]

2.1.2.2 Erlatibizatzen den argumentua

Erlatibizatzen den argumentuaz hitz egiten denean, IS_{rel} -k mendeko perpausuan duen funtzioari egiten zaio erreferentzia. Horrela, *etorri den gizonak kafea eskatu du* perpausuan subjektu iragangaitza erlatibizatzen da eta *ikusi dudana elefanteak alde egin du* erlatiboan, objektua.

Azalpenak laburtzeko, gehien erabiltzen diren erlatibo motei horrela deituko diet: A-erlatiboa (subjektu iragankorra erlatibizatzen denean), S-erlatiboa (subjektu iragangaitza), O-erlatiboa (objektua) eta L-erlatibo (leku-kasuak).

Egitura bakoitzeko, beraz, helburua izango da zein argumentu erlatibiza daitezkeen zehaztea. Bestalde, egituren arteko aldeak hobeto ikusteko, argumentuen proportzioak aztertuko ditut, posible baita bi egituretan aukera berdina izatea, baina maiztasun ezberdinarekin.

Keenan eta Comrie-ren (1977) arabera, hizkuntza askotan ezin da argumentu sintaktiko guztiekin perpaus erlatiboa sortu, baina hizkuntza guztietan inplikazio hau errespetatzen dela argudiatu zuten:

- (15) subjektua > objektu zuzena > zehar objektua > zehar-kasuak > genitiboa
> konparaketaren objektua

Hierarkia unibertsal horrek (*Accessibility Hierarchy*) posizio sintaktikoak (subjektua, objektua...) erlatiboak sortzeko erraztasunaren arabera ordenatzen ditu: ezkerrean daudenak errazago erlatibizatzen dira eskuinean daudenak baino. Erlatibizazio-estrategia batek ez du zertan posizio guztiekin erlatiboa sortzeko aukera eman, baina ezin du hierarkiaren parte bat “saltatu”; adibidez, subjektuak eta zeharkako objektuak bai, baina objektu zuzenak ez. Halere, subjektuak hizkuntza guztietan erlatibiza daitezke.

Ikusiko dugun moduan, euskarak egitura-mota batzuk ditu:

- Hierarkiaren ezkerreko aldea (ergatiboa eta absolutiboa) bakarrik erlatibizatzen duten erlatibo jokatuak.
- Ezkerreko aldea gehienbat, baina beste batzuekin ere posible direnak: IA-koak, IOkoak, aposatuak (IAkoak aukera gehiago ematen ditu, halere).
- Hierarkia osoa hartzen duen *zein* erlatiboa.

2.1.2.3 Erlatibo hautsiak

IA/IOko erlatiboetan eta aposatuetan *-en* menderagailua daraman aditza perpausaren azken kokagunean egoten da normalean. Beste osagai guztiak aditzaren aurretik doaz, perpaus askeetan erabiltzen den hitz-hurrenkerari jarraiturik.³ Hala ere, batzuetan beste ordena bat aurkitzen dugu, eta erlatiboaren parte bat aditzaren ostean doa, (16)-n bezala. Gerta daiteke halaber erlatiboaren bi zatien artean ardatza edo determinatzailea agertzea. “Erlatibo hautsiak” deituko diet osagaien ordena berezi hori duten perpausari.⁴ Adibideetan erlatiboaren zati bakoitza kortexeteen artean emango da.

- (16) a. Persona alaco guztiac beardituez ostera confesadu, *pecatu* [confesadu ditueçan] *guztiac* [areanic ona] (Kap)
- b. [Orai Ebanjelioko, eta graziasko denbora ditzoso onetan ofrezizen diogun] *sakrifizioa* [Iaungoikoari] (BerM)
- c. *Donzella* [gelditu zenak] [peñan] kontatu zio Mariñelai (Lizarg)

2.1.2.4 Murrizgarritasuna

Semantikari dagokionez, erlatiboak murrizgarriak (17) edo ez-murrizgarriak (18) izan daitezke. Murrizgarrietan, erlatiboak ardatzaren erreferentzia murrizten

³ Gainerako menderagailuen kasuan, arau hori ez da hain indartsua: *-la* edo *-nean* duten adizkiak perpausaren erdian ere ager daitezke inolako arazorik gabe (Martínez-Areta 2011: 366), Tartasen adibide honetan bezala: *nic erranen dut guïçona dela arsto bat*.

⁴ Hidalgoren (1999) lanetik hartutako terminoa da.

du; adibidez, *alkandora urdina duen gizonak esan du hori* perpausean erlatiboak zehazten du zein pertsonari buruz hitz egiten den.

- (17) a. eguion erregutu leguiola conpañia [Silvero egoan] *aposentura* joaten (Laz)
 b. Ezta gizona ogi beretik biziko, baina [Iainkoaren ahotik ilkiten den] *hitz orotarik* (Leiz)
 c. Pontu hunetara ezta gaizki heldu [San Mateo Ebanjelistak ibentzen duen] *konparazino bat* (Ax)
 d. [Xahü eztiren] *khantoren* erraitia eta irakurtzia gaizki deia? (Belap)
 e. [Bataioak eman zigun] *graziaren* aumento espirituale bat (Elizalde)
 f. Eta ethorri zen egoterat [Nazareth zeritzan] *hiri batetarat* (Harand)

Ez-murrizgarrietan, mendeko perpausak informazio gehigarria edo azalpen bat ematen du, esaldi osoa ulertzeko beharrezkoa ez dena. (18-a)-n, adibidez, perpaus erlatiboaren bidez ez da zehazten zein alfertasun-motari buruz hitz egiten den, alfertasuna modu orokorrean baita gaia, eta mendeko perpausean azalpen osagarri bat aurkitzen dugu. Erlatibo ez-murrizgarrietan izen propioak izan daitezke ardatz (18-c).

- (18) a. Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zirimonia suertez, hekin batean khen zedin, [hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den] *alfertasuna* (Ax)
 b. Bekhatoria eta bekhatoresa zier minzo niz, neure buruari, eta mundu orori, [euskaraz egin dudan] *liburuto hontan* (Tartas)
 c. eta adora zezaten [throno gainean iarririk dagoen] *Iainkoa*, zioitela, Amen, Halleluia (LeizTest)
 d. Mezan daukagu presentean [irurgarren egunean iletarik resuzitatu zen] *Iauna* (BerM)

2.1.2.5 Ardatzaren semantika

Erlatiboaren ardatzaren semantikari dagokionez, aztertu dudana alderdia da izen hori biziduna ala bizigabea den. Euskararen corpusaren ezaugarriak kontuan hartuta, bizidunen artean *Jainko* edo *aingeru* bezalako izenak ere sartu ditut.

2.1.2.6 Luzera

Ezagun da sintagmaren konplexutasunak hitz-ordenari eragin diezaiokeela. Erlatiboan kasuan, perpausa bi eratara (izenaren aurrean edo ostean) kokatu ahal den hizkuntza batzuetan erlatiboaren konplexutasunak zerikusia du posizioare-

kin: adibidez, kokagune bat erabil daiteke perpausa oso motza denean bakarrik.⁵ Horiek horrela, galdera da ea euskaraz lotuta dauden perpausaren luzera eta erabiltzen den egitura.

Mendeko perpausaren konplexutasuna neurtzeko biderik errazena eta automatikoki egin daitekeena erabili dut: hitzak zenbatzea. Ontzat ematen dut, beraz, zenbat eta hitz gehiago, hainbat eta konplexuagoa izango dela perpausa. Jakina, ez du zertan horrela izan, eta hitz-kopuru bera duten perpausak ez dira beti konplexutasun berekoak: [*haren ama eta anaieak zeuden*] *lekorean* (LeizTest) eta [*bere nabusien mahainetik erorten diraden*] *apurretarik* (LeizTest) adibideetan bigarrena konplexuagoa da. Gehienetan, hala ere, hitz-kopurua konplexutasunaren adierazgarri aski ona da.⁶

Luzeraz gain, konplexutasunarekin lotutako beste ezaugarri bat ere aipatuko dut. Perpaus erlatiboa perpaus nagusiaren hasieran (19-a), erdian (19-b) edo bukaeran (19-c) joan daiteke. Perpaus batean txertaturik ez dauden erlatiboak (19-d) ez dira kontuan hartu.⁷ Oro har, perpausaren erdian daudenak motzagoak dira gainerako posizioetan agertzen direnak baino.⁸

- (19) a. *Populu* [ilhunbean zetzanak] argi handi ikusi ukan du (LeizTest)
 b. baina xakurrek ere [bere nabusien mahainetik erorten diraden] *apurretarik* iaten die.
 c. Eta ethorri ziradenean [Golgotha deitzen den] *lekura* (LeizTest)
 d. *Espiritu zeruco baçuc* [dagoçanac] [beti Iaungoico omnipotenten alabanzaan] (Kap)

2.1.3 Corpora

Erlatibo jokatuak ikertzeko erabili dudan corpora XVI. mendetik XIX. mendera arteko 29 testuk osatzen dute (testu oso luzeen kasuan zati bat hartu dut lagin gisa, behean adierazi dudan bezala):

- (i) Araba: Laz.

⁵ Horren adibide batzuk 3.1.2. atalean ematen dira.

⁶ Ingelesaren kasuan, esaterako, Wasow-en (1997) lanak erakutsi duen moduan, konplexutasuna neurtzeko hainbat metodok (funtsean, hitz-kopurua edo osagaien kopurua) emaitza oso antzekoak ematen dituzte.

⁷ Perpausaren hasieratzat jo dira hasieran partikula, juntagailu edo lokailu bat duten perpausak ere (*ezen* [*hark egin zuen*] *plaga guzizko handia izan da* LeizTest).

⁸ Erlatiboaren kokapenari, beste edozein sintagmarenari bezala, faktore gehiagok eragiten diote, ez bakarrik perpausaren konplexutasunak (galdegaia zer den, esaterako). Baina, ikusiko dugun moduan, horiek aztertu gabe ere, egitura txertatuen eta ez-txertatuen arteko aldea hobeto deskribatzeko balio du erlatiboaren posizioa aztertzeak.

- (ii) Bizkaia: VJ, Kap, Arz, Olaetx, Mogel (1-3. elkarrizketak), frBart (*Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko-gatz-ozpinduba*).
- (iii) Gipuzkoa: OA, Ubill (1. partea), Gerriko (1-6. atalak).
- (iv) Nafarroa: BerM, Elizalde, Mikelest, Lizarg (*Zenbait sanduen biziak asteaz datozinak*, lehenengo 25 sailduak).
- (v) Lapurdi: Mat, Ax, Haranb, Harand (San Mateo), Duh.
- (vi) Zuberoa: Tartas (*Onsa hilzeko bidia*), Belap, Oloroe, Mst (1. eta 3. liburua), Intxpe (*Apokalipsia, Iturriagaren Solastaldiak*).
- (vii) Erronkaribar: Ros, DoktrErr, Hualde, Mendig.

Testuetatik ateratako perpausen kopurua testu bakoitzeko 2.2. taulan zehazten da.

Erlatibo jokatugabeak testuetan oso maiztasun txikia duenez, corpora zabaltea beharrezkoa izan da analisirako adibide nahiko lortzeko. Guztira 254 perpaus aztertu ditut; gainerako egiturak deskribatzeko baino zertxobait gutxiago. Hauek dira, zehazki, erabilitako testuak (parentesietan testu bakoitzetik ateratako adibide kopurua zehaztu da): AñibEsk (18), Aranbill (12), Ax (2), Barrutia (2), BerM (7), Dasanza (1), EtxS (5), frBart (21), Harand (23), Kardab (37), Leiz (21), Lizarg (3), Mat (1), Mendib (23), Mogel (32), Munibe (2), Oloroe (8), OA (1), Pouvr (15), Ubill (19), Urkizu (1), Xurio (4). Adibideak bilatzeko partizipioaren bukaera erabili da (*-ikako, -iko, -tako, -dako*). Leizarragaren kasuan bakarrik partizipio hutsarekin egindakoak bildu ditut. Gainerako testuetatik partizipio adberbialekin eratutakoak atera ditut soilik.

Testu bakoitzeko perpaus erlatibo guztiak atera eta datu-basean gorde ditut (etiketatu gabeko corpora denez, eskuz egin dut lana). Anlisi kuantitatiboak egin direnean, datu horietan oinarrituta daude. Bestalde, corpus nagusiko datuak osatzeko, beste hainbat testu ere erabili dira (testu zaharrak –*TAV, ETZ*– edo ez hain zaharrak), baina batzuetan ez ditut corpus nagusia bezain zehatz aztertu.

2.2. **taula.** Aztertutako testuetatik atera ditudan perpaus erlatiboak.

Testua	Mendea	Eremua	Guzt.	IA	IO	AP	zein
Lazarraga	XVI	ARAB	114	56	0	1	57
Leizarraga		LAP	330	155	57	28	90
Ros	XVII-1	ERR	19	3	10	0	6
Materra		LAP	262	152	14	41	55
Beriain		NAF	310	159	32	41	78
Haranburu		LAP	140	110	11	13	6
Axular		LAP	204	155	6	25	18
VJ	XVII-2	BIZ	28	14	3	3	8
Kapanaga		BIZ	152	50	25	19	58
Tartas		ZUB	182	115	4	7	56
Belapeire		ZUB	211	114	22	9	66
Oloroeko kat.	XVIII	ZUB	198	108	25	13	52
Otxoa Arin		GIP	268	185	7	25	51
Arzadun		BIZ	37	11	10	3	13
Elizalde		NAF	33	16	1	3	13
Haraneder		LAP	186	68	23	29	66
Mikelestorena		NAF	153	147	2	4	0
Maister		ZUB	274	127	65	12	70
Olaetxea		BIZ	95	74	3	1	17
Ubillos		GIP	231	221	5	5	0
Lizarraga		NAF	292	68	45	82	97
Mogel	XIX	BIZ	104	66	24	9	5
Gerriko		GIP	154	141	1	10	2
Duhalde		LAP	266	217	13	20	16
Frai Bartolome		BIZ	186	168	0	11	7
Hualde Mayo		ERR	265	42	81	9	133
DoktrErr		ERR	41	7	12	1	21
Intxauspe		ZUB	221	122	15	27	57
Mendigatxa	XX	ERR	76	33	43		
Guztira			5032	2904	559	451	1118

2.2 Izen osteko eta izen aurreko erlatiboak

Erlatibizazioa askotan aztertu da euskal hizkuntzalaritzan (de Rijk 1998 [1972]; Trask 1984; Cid Abasolo 1987, 1994; Artiagoitia 1995; Oyharçabal 1997, 2003). Gehienetan ez dira egitura guztiak kontuan hartu, eta arreta gehien izen aurreko erlatibo “arruntean” jarri da. IOko erlatiboari dagokionez, gramatika zahar batzuetan aipatu zen. Hego Euskal Herrian gaitzesteko joera zegoen, Larraamendik (1729: 276-277), adibidez, hau zioen:

Notese en fin, que la Syntaxis destes relativos se ha de hazer de manera, que el nombre se posponga al verbo, y relativo; y assi esta oracion, la mano, que tengo, es prodigiosa, se ha de construir assi, *dedán escuá, miragarria da*; y no *escuá dedaná*, aunque alguna vez se habla desta suerte.

Ipar EHN, aldiz, guztiz normalizat hartzen zen. Adibidez, Gèzeren (2010 [1873]: 64) gramatikan hau irakurtzen dugu (antzeko iritziak zituen Intxauspek 1979 [1858] ere):

Cette forme [*forme pronominale* deitzen dio konplementatzailez osatutako aditzari] tient de l'adjectif, en ce qu'elle peut se mettre après le substantif (...); ex. le lit de l'homme qui est malade, *eri den gizounaren ohia*, ou bien *gizoun eri denaren ohia*; je l'ai donné à l'homme que vous avez vu, *ikhousi duzun gizounari eman dut*, ou *gizoun ikhousi duzunari eman dut*.

XX. mendearen hasieran aipatzekoa da Azkueren (1969 [1905-1906]: II, 61) oharra. Izan ere, onartzen du batzuetan (estiloagatik) komeni dela erlatiboaren eta ardatzaren ordena aldatzea:

Hay, sin embargo, ocasiones en que por la claridad conviene invertir la construcción que de suyo exige el empleo de este sufijo. *Jesusek guri agerturikako legeak baditu, bai, bere nekeak; baiña neke, ekusi dugun bezala, gure Jaungoikoak atsegin garbiz arintzen dituenak*: «la Ley que nos reveló Jesucristo tiene ciertamente sus penalidades, pero penalidades que, como hemos visto, aligera con puro consuelo nuestro Dios.» (Mendib. II- 100-1.)

El orden riguroso sería: *Jesusek..., baiña ekusi dugun bezala, gure Jaungoikoak atsegin garbiz arintzen dituen nekeak*. Mendiburu, en la manera de escribir su parrafo, no solo contribuyó a la claridad, sino a la elegancia de la expresión; pues de otra manera sonaría la misma palabra *nekeak* al final de dos miembros consecutivos de una frase.

Lan berriagoetan, salbuespen gutxi batzuekin, IOko erlatiboek ez dute oso zorte onik izan. Esanguratsua da de Rijk (1980: 536) testu zaharretako erlatiboek eskainitako lanean izen ostekoak “joskera bitxia” izenburupean aipatzea. Adibide batzuk eman eta horrela bukatzen du horien deskribapena: “Bitxia deritzaigun

joskera hau erdalkeriatzat jotzekoa ahal da? Ba-da halaxe uste duenik, baina nik ez dakit hala ote den. Har beza hitza nik baino gehiago dakienak”.

Oyharçabalen lana (1987) salbuespen horietako bat dugu.⁹ Tesian zehar lan horretako hainbat emaitza aipatuko ditut, baina ekarpen garrantzitsu bat nabarmendu nahi dut hemen: Oyharçabalek IOko erlatiboa hizkuntzaren beste edozein egitura bezala aztertzen du, ez bitxikeria bezala. Bere ustez ez dago batere garbi IOko egitura kalkotzat har daitekeen ala ez, baina, hala izanda ere, ikertu egin behar da. IOko erlatiboak Ipar EHko literaturan zein ahozko hizkeretan erabiltzen direla dio, nahiz eta askok gaitzetsi, frantsesaren eraginez sortu direla pentsatzen dutelako, agian:

On en [IOko erlatiboa] trouverait par exemple chez J. Hiriart-Urruty, journaliste bas-navarrais-labourdin du début de ce siècle, mais surtout dans le basque effectivement parlé aujourd’hui, même si des locuteurs interrogés sur ce type de constructions la jugent parfois fautive, on ne sait en vertu de quel décret (Oyharçabal 1987: 28).

Caminoren (1997: 473, 2003: 448) arabera ere, bizirik jarraitzen du IOko erlatiboak eremu batzuetan: gaur egungo Aezkoan entzuten da (*ele artzen diren geek, etxe iltzen dutenetan, toki ur denean*, adibidez), eta XX. mendearen bukaeran Zaraitzun eta Erronkaribarren ere erabiltzen zen. Bizkaian, gaur egungo Nerbioi ibarreko euskararen ere jaso dira egituraren adibide batzuk: *orri(k b)pai, orri(k) sien jittenu Kastañabaltzati etosanak* edo *kasula tapa gorridxe dekona, metaleskoa* (Zuloaga prestatzen).

Aitzineuskarari azken hamarkadako buruzko lanetan aipatzen dira IOko erlatiboak. Euskararen berreraiketak aitzineuskara oso hizkuntza-mota diferentea izan zela ondorioztatzera eramán zuen Lakarra (1995 eta ondoko lanak). Adibidez, euskara historikoaren SOV hitz-ordena eta horrekin lotzen dituen hainbat ezaugarri berri samarrak dira Lakarraren ustez. Ildo horretatik, SOV hitz-ordena duen hizkuntza “perfektuarekin” bat ez datozen euskararen ezaugarri batzuk antzinako hizkuntza-egoera haren aztarnak izan daitezkeela iradoki zuen (Lakarra 2005): beste askoren artean, IOko erlatiboak, izenaren ondotik agertzen diren genitiboak eta *-ko* erlazio-atzizkia. Lakarrak azpimarratu bazuen ere ezaugarri horien zerrenda berrikusi eta bertan agertzen direnak hobeto ikertu beharra dagoela, badirudi orduz geroztik IOko erlatiboak IAkoak baino zaharragoak direla

⁹ Hidalgo Eizagirrek ere kontuan hartu zuen IOko egitura hitz-ordenari buruzko lanetan (begiratu batez ere Hidalgo Eizagirre 2004, 2005). Bere emaitzak noizbehinka aipatuko badituz ere, Hidalgoren eta tesi honen helburuak eta oinarri metodologikoak oso ezberdinak dira, eta, hortaz, ez ditut bere ekarpenak zehetasunekin aztertuko.

eta IAkoen sorrera aldaketa tipologiko holistikoarekin lotuta dagoela onartzen dela (Martínez-Areta 2011; Reguero Ugarte 2013).

IOko erlatiboei buruzko aipamenak ez dira falta, beraz. Hala ere, testuen azterketa sistematikorik ez da egin, ezta egituraren ezaugarri gramatikalak deskribatu, eta bi egituretan zaharragoa zein den galderari erantzuten saiatu baino lehen, beharrezko deritzot horri.

Ikusiko den bezala, IOko erlatiboa testu askotan —beharbada pentsatu ohi zen baino gehiagotan— agertzen da, baina testuetatik ateratzen den irudia ez da guztiz argia: eremu geografikoen artean eta eremu baten barruan bariazio handia dugu. IOkoak XVI. mendean agertzen dira dagoeneko, baina ez testu guztietan. Araban eta Bizkaian XVII. mendearen erdira arte lekukotasun bakarrak Lazarragaren eskuizkribuko adibide bat eta Landucciren hiztegiko batzuk dira, baina gero Bizkaiko testuetan oso ohikoak dira. Ipar Euskal Herrian (EHn aurrerantzean), aldiz, XVI. mendetik aurrera jasota daude, eta egiturak gaur egun arte iraun duela dirudi. Nafarroan eta, batez ere, Erronkaribarren oso maiztasun handia zuten.

Emaizta koherenteagoak egituraren ezaugarri gramatikalen azterketak emango ditu, erakutsiz hitz-ordena ez dela IOko eta IAko erlatiboen arteko alde bakarra. Horiek dira diferentzia garrantzitsuenak: argumentu gutxiago erlatibitza daitezke IOkoan; IOkoak, dirudienez, maizago izaten dira ez-murrizgarriak; IOkoetan ardatzak maizago izaten dira bizidunak; IOko erlatibo hautsiak nahiko arruntak dira, baina IAkoak ez. Hurrengo ataletan erakutsiko dut IOkoak aposatuen antza duela IAkotik urruntzen den ezaugarrietan.

Oro har, beraz, testuetako datuek ez digute biderik ematen IOkoa zaharragoa dela esateko. Kontrakoaren —berriagoa izatearen— frogarik ere ez digute eskaintzen, baina testuen azterketan bildutako datu asko hurrengo kapituluaren baliagarriak izango dira argudiatzeko IAkoa zaharra dela eta IOkoa egitura aposatuetatik sortu zela.

Atal honen helburu nagusia, beraz, IOko erlatiboak deskribatzea da: hasteko, egituraren lekukotasunak aztertuko dira (2.2.1. atala) eta gero horren ezaugarri gramatikalak (2.2.2. atala), IAko egiturarekin konparazioan.

2.2.1 Lekukotasunak

2.2.1.1 Euskara Arkaikoa

Erdi Aroko lekukotasunetan ez da izen osteko egiturarik aurkitzen. Jakina, garai hartako oso datu gutxi heldu zaigu eta, beraz, ezin da inolako ondorio sen-

dorik atera. Izen aurreko erlatiboaren adibiderik zaharrenetako bat, zaharrena agian, 1464an eta 1476an jaso zen Arrasateko *Ydia[c] curri çatesquean çelaya* toponimoa dugu (Ormaetxea Lasaga 1996: 228-229). Perpaus erlatiboez osatutako *Satznamen* (aditz-sintagma edo perpaus osoa duten izen propioak) lekukotuta badaude ere (2.3. taulan zerrendatu dira batzuk), ia guztiak IAkoak dira eta, aipatutako Arrasateko horiek kenduta, ez oso zaharrak. IOko erlatibo (posible) bakarra da Asteraingo 1683ko *Unce erriaren ondoan dagona* (Salaberri Zaratiegi 2008).¹⁰

2.3. taula. Perpaus erlatiboa duten toponimo batzuk.

Toponimoa	Urtea	Lekua	Erreferentzia
Abadealsuaerorizaneco- loa	1713	Bakaiku	Salaberri Zaratiegi 2008
Ahuntzak jeixten diraneko zelaia	1991		Salaberri Zaratiegi 2008
Andres bota zaneko barga	1911		Salaberri Zaratiegi 2008
Artebakarradenarenaizearen azpicoaldea	1702	Azpirotz	Salaberri Zaratiegi 2008
Andrea galdu zan erreka	1893		Salaberri Zaratiegi 2008
Baraçe burua arte denecoa	1594	Aratzuri	Jimeno Jurío 1989
Basaurdia galdu zan erreka			Salaberri Zaratiegi 2008
Capanadenecobustiña	1769	Txulapain	Segurola 1987
Chubitoa deneco alorra	1599	Aratzuri	Jimeno Jurío 1989
Erreca bioc pacen diren lecuan	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Euridacarbea	1749	Kontrasta	López de Guereñu Gala- rraga 1989
Euridacargaina	1540	Kontrasta	López de Guereñu Gala- rraga 1989
Gorriti denecoa ychaurrondoa	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Faceria uncea dachiola	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Ganbela daneko txuloa / zuloa	1991		Salaberri Zaratiegi 2008
Gatxa ematen dakion iturria	1991	Unanu	Salaberri Zaratiegi 2008
Gizona galdu zaneko pagoa	1991		Jimeno Jurío 1993

¹⁰ Lakarrak (2005) *ur dirakiena* toponimoa IOko erlatiboen zahartasunaren aldeko argudioa bezala ematen du. Hala ere, ez du zehazten noizkoa den (ezta nongoa ere) eta ematen dituen erreferentzietan (Mitzelena 2011 [1985]; Segurola 1987; García de Albizu 1994) ez dut toponimo hori aurkitu (antzekoenak Mendarozketako 1776ko *Diraquian* eta *Iturri iraquina* dira). Nolanahi ere, sintaxiari dagokionez, lasai asko 'urak dirakian lekua' bezala uler daiteke (toponimoetan batzuetan gertatzen den kasu-atzizkiak galtzeaz begiratu Salaberri Zaratiegi 2008).

2.3. taula. Perpaus erlatiboa duten toponimo batzuk.

Toponimoa	Urtea	Lekua	Erreferentzia
Guibeladayzecana	1590	Ameskoa	Segurola 1987
Haurra galdu zan harria		Urnietea	Salaberri Zaratiegi 2008
Illadazancelay		Urkiola	Mitxelena 2011 [1985]: 370
Kokoaren behorra hil zeneko gaina			Salaberri Zaratiegi 2008
Lakunzarragalduzanzulue	1807	Etxarri Aranatz	Salaberri Zaratiegi 2008
Pareta deneko alorra			Salaberri Zaratiegi 2008
Soro txarra dana			Salaberri Zaratiegi 2008
Unce erriaren ondoan dagona	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Ura sartzean dan zuloa			Salaberri Zaratiegi 2008
Urdeak eçiten dire ondo	1666	Subitza	Jimeno Jurío 1987
Urdeak etziten diren euntzea			Salaberri Zaratiegi 2008
Urdiacezaten dericoa erraialde	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Ure sartzean dan sulua urzeramana		Gorbeia	Salaberri Zaratiegi 2008 Melero & Mugica 1994
Vi errecac pacen diren lecoam	1683	Asterain	Jimeno Jurío 1986
Ydiacurriçatesqueançelaya	1476	Arrasate	Ormaetxea Lasaga 1996
Zurak zeutzan zabala	1614	Oñati	Salaberri Zaratiegi 2008
Zurak zeutzan zelaia	1612	Oñati	Salaberri Zaratiegi 2008

Mendebaldeko testu zaharretan erlatibo askorik ez dago eta, *Viva Jesus* (ca. 1640), Kapanaga (1656) eta Mikoleta (1653) baino lehen, IOkoen lekukotasun bakarrak Lazarragaren adibide bat eta Landucciren hiztegiko batzuk dira (*Salmo Miserere*-n –Akesolo 1982– adibide anbiguo batez gain: *anima debana kontrizioa*).

Bizkaiaren kasuan nahiko deigarria da IOkorik ez agertzea, hurrengo mendean asko erabili zelako, aurrerago ikusiko dugun bezala. *Refranes y sentencias*-en, mendebaldeko euskara arkaikoa ezagutzeko daukagun iturri onenean, 18 IA-ko erlatibo daude, baina IOko bat ere ez:

- (20) a. [suric eztan] *lecuan* queheric ez (RS 53)
b. [iauxi din] *ezcurra* oroen su egur (RS 198)

- c. [ardi bat doean] *lecuti* oro (RS 223)
- d. [eshsean dagoan] *gacha* er[r]az da ezauten (RS 434)
- e. [erur asco dan] *urtean*, garia (RS 459)

IAko aurrekoez gain, bi erlatibo aposatu ere badira testuan, errima egiteko seguru-
ruenik:

- (21) a. *Gauçea* da laguneena / [ychadonaz datorrena] (RS 60)
- b. Ezta *gachic* / [aldiac ez daroeanic] (RS 221)

IAko erlatiboak beste hainbat testutan aurkitzen ditugu:

- (22) a. [bere ayde naguçi Ybargoyengoen / aurrean eguin eusan] *achacaba andia gaytic* (Andramendi, TAV 3.2.9)
- b. [sendo cenduan] *odolori* biurtu jaçu gaçatua (Urrexolako kantua, TAV 3.1.3)
- (23) a. [çure mesedeor[r]egana daducadan] *ob[l]igacjioagatj* (Debako Ana Urrutiaren 1596ko gutuna, ETZBB)
- b. [Çure mesedeorrec bida[l]du cjdan] *cartaren* herrepustaric (*ib.*)
- c. [memorjan daroeaçan] *gauçac* (fJZum)
- d. [berr ez tirean] *gauçaac* (fJZum)

(23)-ko adibideak bereziki interesgarriak dira, gutunetakoak baitira eta pentsa baitaiteke lekukotasun fidagarriagoak direla erlijiozko itzulpenak baino.

Araban IOko egituraren adibide batzuk aurkitzen ditugu. Lazarragaren eskuizkribua (eta, batez ere, *Artzain liburua*) erlatiboaz josita dago: testu horretan bakarrik IAko 56 erlatibo eta 57 *zein* erlatibo erabili zituen Lazarragak (erlatibo aposatu gutxi batzuk ere badaude testuan, *aditu euen os andi bat canputi etorrrena* esaterako). Eskuizkribu osoan, hala ere, IOko bat bakarrik dago (Lazarragaren eskukoa): *Guiçon [damaogaz eztaucana] / [conbersacioa gusto anditan,] / bioa porra batez arraitan* (B2).

IOko erlatibo batzuk Landucciren hiztegian lekukotzen dira. Hiztegiak normalean ez dira oso egokiak perpauis mailako sintaxia deskribatzeko, baina Landuccirenaren kasuan hitz batzuetarako euskarazko ordainik ez aurkitzeak perifrasiak erabiltzera behartu bide zuen berriemailea, eta erlatiboak askotan agertzen dira hiztegian. Asko erlatibo libreak dira: *bebedor*, esaterako, *ondo edaten deuen* erlatiboaren bidez itzuli zen. Interesgarriagoa da, hala ere, hurrengo sarrera: *bebedora* hitzaren euskarazko ordaina *andra edatẽ deuen* baita, hau da, izen osteko erlatiboa.¹¹ Horretaz aparte, honako hauek ere ematen dizkigu Lan-

¹¹ Araban, Bizkaian eta Gipuzkoako mendebal eta hegoaldean deklinabidean *a+a > ea* araua dugula ez da ahaztu behar: *gauza* edo *andra* determinatu gabeak dira eta *gauzea* edo *andrea*, aldiz, determinatuak.

duccik (bi adibide “C” eskuarenak dira, beraz, Mitxelenak –2011 [1958]a– dioenez, “A” eskuak erabiltzen zuen hizkera berekoak):

- (24) a. *guiçon* [lur asco daucana] (“C” eskua, arraygar, hazer raizes)
 b. *gauça* [esçiten dana] (caediza cosa)
 c. *gauça* [gorrisaiten debena] (“C” eskua, carmesi)
 d. *gauça* [erraz combatidu ditena] (combatible cosa)
 e. *gauça* [agarr daucana] (espinosa cosa)
 f. *gauça* [mereçietã deuena] (mereçedora cosa)
 g. *gauça* [escaytan dana] (pedigueña cosa)
 h. *andra* [ydoro deuena] (inuentora)

Nolanahi ere, IAko erlatiboak ugariagoak dira: *amadora de varones – guiçonã afiçonaytãdan andrea*, *aguada cosa – ura daucan gauçea*, *asoleado al sol – yguzquitã eguõ dã gauçea*, *herviente cosa – diraquian gauçea*, *olivar lugar – azeytunac daodẽ lecuca*, etab., baina aposatu bat bakarrik: *ayo que cria – ayoa criança emayte[n] deuena*.

Urgellek (2008) dioenez, Landuccirena bezalako bigarren mailako lekukotasunak ezin dira besterik gabe garai eta leku zehatz bateko hizkeraren islatzat hartu, eta kontuan hartu behar dira hiztegi-ereduaren eragina eta berriemailearen euskara- eta gaztelania-maila. Begi bistakoa da, Urgellek adierazi bezala, gure berriemaileak ez zekiela bereizten sarrera-hitza eta hura zehazteko sarreraren ondoan agertzen diren hitzak: kategoria gramatikala adierazten dutenak (*cosa* = adjektiboa, adibidez) edo bestelako informazio osagarria ematen dutenak. Hiztegitantza “kaskar” horri esker iritsi zaizkigu, hain zuzen, (24)-ren erako adibide gehienak. Itzultzailearen trebezia faltari egotzi behar zaizkio hitz-ordena arraroaren kasu gordin batzuk, *prudente cosa – prudente gauçea* adibidez. Baina IOko erlatiboen kasuan ez zuen erdarazko hitz-ordena itu-itsuan errepikatu, hitz bakarreko sarrerak baitira, eta *cosa* sarreraren parte bezala ulertu bazuen ere, *espinosa cosa* bezalakoak dauzkagu eta ez *cosa espinosa*. IOko erlatiboak agertzea, beraz, ezin zaio itzulpen-prozesuan erdarazko sarreraren forma izan zezakeen eraginari egotzi. Egitura horiek ez badira berriemailearen euskara-maila apalagatik agertu, IOko erlatiboa egitura emankortzat har daitekeela dirudi.

Beste galdera bat da ea erromantzearen eraginez azal daitekeen horien erabilera: Gasteizen egin bazen hiztegia, Mitxelenak (2011 [1958]a) proposatu bezala, kontuan hartzekoa da XVI. mendean, Landuccik hiztegia egin(arazi) zuenean, Gasteizen gaztelania segur aski ondo sartuta zegoela dagoeneko, eta pentsa liteke syntaxian ere izan zezakeela nolabaiteko eragina. Aurrerago ikusiko dugun

moduan, erromantzeen posizioa bereziki indartsua zen beste toki batzuetan ere oso hedatua zen IOko egituraren erabilera.

Nafarroako hainbat testu zaharretan aurkitzen ditugu IOko erlatiboak. Ezkontza-fedeko adibidea —[*Erromaco eliča sanduac*] *birtute [duenas]* (TAV 3.2.6)— erlatibo hautsia da, mendeko perpausaren zati bat (*Erromaco eliča sanduac*) erlatiboaren buruaren aurretik baitoa. IAko erlatiboetan ia ez da hori gertatzen, baina IOkoetan nahiko arrunta da geroagoko testuetan (batez ere Nafarroan, Erronkaribarren eta Bizkaian; begiratu 2.2.2.4. atala). XVI. mendeko *Credo*-n (Satrustegi 1990) beste adibide bat aurkitzen dugu: *non baytago esseriric bere ayta eterno [podere guztia duenaren] escuieco aldean*. Antzeko esamoldeak, *todo poderoso* esateko, beste testu batzuetan ere aurki daitezke (Belapeirerenean esaterako: *Ginco aita potere oro dianaren*).

Etxepareren poesietan erlatibo gehienak IAkoak izan arren, IOko hiru aurkitzen ditugu:

- (25) a. Desir hura conplitu du garacico naturac / Eta *haren adisquide* [oray bordelen denac] (Etxep)
 b. Horla erraytia errax duçu erho bocen vadaquiçu / *çure pena* [dioçunoc] nonbayt handi bideytuçu (Etxep)
 c. *Amoros* [secretuqui dena] (Etxep)

Etxauzek idatzitako gutunean IAko egituraz gain (*nitien arropa guciac*), adibide anbiguo bat daukagu: ... *çoin bayta gauça desiracen dudana*, IOkotzat edo aposatutzat har daitekeena.

Azkenik, Leizarraga dugu. Testamentu Berriko San Mateo eta Apokalipsia aztertu ditut, eta IOko erlatiboen maiztasuna handia da, % 27 (26). San Mateon % 24 da (93 adibidetik) eta Apokalipsian % 30 (119 adibidetik):

- (26) a. Hala *ene Aita* [zeruetan denak] ere eginen drauzue zuei
 b. Berriz konparatu da zeruetako resuma *gizon marxant* [perla ederren bilha dabilanarekin]
 c. *Populu* [ilhunbean zetzanak] argi handi ikusi ukan du
 d. Eta egotziren ditukeizte *labe* [daixekanera]
 e. Ezen badirade *deabruen espiritu*, [signoak egiten dituztenak], eta [lurreko eta mundu orotako regetera ioaiten diradenak]

IOko erlatibo bat askotan errepikatzen du Leizarragak: *ene/zuen Aita zeruetan denak*, (26-a) adibidean bezala. IAko egitura, *zeruetan den ene aita* edo antzekoa, ez du behin ere erabiltzen Testamentu osoan, baina bai batzuetan *aita zerukoa* (frantsesez: *Pere qui est és cieux* edo *mon Pere celeste*). Beranduagoko hainbat testutan ere agertzen da eta perpaus erlatiboa baino gehiago, esamolde ihartua edo

lexikalizatua izan daiteke, arestian aipatutako *ayta podere guztia duenaren* eta antzekoak bezala. Agerpenen kopuruari dagokionez, horiek kenduta ere, maiztasuna ez da asko aldatzen Leizarragaren testuan, % 22ra baino ez da jaisten. 2.2.2.2. atalean ikusiko dugun bezala, IOko erlatiboak ez-murrizgarriak izaten dira maizago, IAko erlatiboak baino. Horren adibide *Ene Aita zeruetan dena* izan daiteke: erlatiboaren bidez ez da aita guztien artean aita zehatz bat bereizten (zeruko aita bakarra omen delako), iruzkin bat gehitu baizik: esaldia ulertzeko beharrezkoa ez da, baina informazio osagarria ematen du. Beraz, *ene/zuen Aita zeruetan denak* motako erlatibo (erdi-)lexikalizatuak IOkoak izatea egituraren ezaugarriekin lot daiteke.

Halere, Testamentu Berriko IOko erlatiboen maiztasun handia nolabait azaldu beharra dagoela erakusten du egile beraren beste testu batek: ABC-k. Salaberri Muñoak (2014: 67) dioten bezala, Leizarragak liburuxka hori prestatzerakoan frantseseko ereduak bazituen ere, ez dirudi itzulpen hutsa denik edo behintzat “aldarrika daiteke bere ‘ukituaz’ tindatu zuela gure autoreak liburuttoa”. Erlatiboek dagokienez behintzat, ABC Testamentu Berrian ikusi dugunetik urruntzen da. IOko erlatiboen maiztasuna zeharo ezberdina da: 76 erlatibotik lau bakarrik dira izen ostekoak (hots, % 5). Gainera, bi erlatibo hitzaurrean daude (27-a)-(27-b), bat alfabetoa erakusteko taulan (27-c) eta liburuaren gorputzean bat bakarrik (27-d).

- (27) a. *Iesus Krist haren Seme* [guregatik mundura ethorri izan denaren]
 b. *Iesus Krist eure Seme* [gure arimen iguzki egiazko eta bakoitz, egun eta gau bethi argitzen duenaren]
 c. *Letra* [elkarri datxetzanak]
 d. Gizona da Filosofoen araura, *animal* [razoin duen] bat

2.2.1.2 XVII-XIX. mendeak

Ondorengo ataletan XVII-XIX. mendeetako datuak aurkeztuko ditut, eremu bakoitza aparte. Garai hartako testuek analisi kuantitatiboa ahalbideratzen dutenez, azterketa kualitatiboaz gain (orain arte garatu dudana bezala), IOko erlatiboek maiztasunari ere behatuko diot. Corpus-analisiaren emaitza nagusiak 2.4. eta 2.5. tauletan zerrendatzen dira. Hurrengo ataletan maiztasunaz hitz egitean, taula horietako datuei egiten diet erreferentzia.

2.4. taula. IOko erlatiboen maiztasuna, eremuka (ehunekotan). Eremu eta mende bakoitzeko IOkoen maiztasuna eremu eta mende horretako datuak bakarrik kontuan hartuta eman da. Adibidez, Bizkaian XVII. mendean % 30,8 dugu, eta horrek esan nahi du Bizkaiko XVII. mendeko testuetan IOkoak % 30,8 direla.

Eremua	Guzt.	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
BIZ	445		30,8	13,3	8,6	
ARAB	55	0,0				
GIP	560		3,6	2,2	0,7	
NAF	467		14,6	1,3	39,8	
LAP	974	26,9	6,9	24,4	5,7	
ZUB	713		10,2	27,0	9,6	
ERR	232		76,9		65,5	57,1

2.4. taulak, hala ere, iruzkina behar du. Izan ere, ikusiko denez, IOko erlatiboen maiztasuna hizkeraz hizkera aldatzen da, baina baita testuz testu ere (eremu eta garai bertsuko lekukotasunak kontuan hartuta). Euskara Arkaikorako deskribatu dudana egoera, beraz, ondoko testuetan errepikatzen da. Horregatik, 2.4. taula egituraren maiztasunaz ideia orokor bat egiteko baliagarria bada ere, datuak kontuz hartu behar dira, batzuetan oso maiztasun ezberdina duten testuak batera sartu baitira.

2.2.1.3 Araba

Landucciren eta Lazarragaren adibideez landa, Arabako euskarari ez dugu IOko erlatibo gehiagorik aurkitzen. Arabako euskaraz idatzitako XVII. mendeko testuetan —Portal, Iturbe, 1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak— ez dago IOko erlatiborik, ezta XVIII. mendeko Gamizen (Goikoetxea Maiza 1998) eta Albenizen (Altuna 1998) idazkietan ere.

2.2.1.4 Bizkaia

Aztertutako eremuen artean XVII. mendean IOkoaren maiztasunik handiena Bizkaian aurkitzen dugu (XVIII. mendean, aldiz, Ipar EHn). Proporziorik altuena Kapanagaren dotrinan dugu: erlatiboen heren bat IOkoa da (28). VJ-n (29)-(30), Mikoletaren elkarrizketetan (31) eta Zubiaren dotrinan (32) ere aurkitzen ditugu adibideak.

(28) a. Zeimbatetan aconsejeetan gaituzan *confessore* [prudente ondo informaduric dagoanac] (Kap)

2.5. taula. IOko eta IAko erlatiboen maiztasuna testuz testu (ehunekotan).

Testua	Eremua	Urtea	Guzt.	IA	IO
VJ	BIZ	XVII	17	82,4	17,6
Kapanaga		1656	74	66,2	33,8
Arzadun		1731	21	52,4	47,6
Olaetxea		1763	77	96,1	3,9
Mogel		1802	90	73,3	26,7
Frai Bartolome		1816	168	100,0	0,0
Otxoa Arin	GIP	1713	192	96,4	3,6
Ubillos		1785	226	97,8	2,2
Gerriko		1805	142	99,3	0,7
Materra	LAP	1623	166	91,6	8,4
Haranburu		1635	121	90,9	9,1
Axular		1643	161	96,3	3,7
Haraneder		1740	91	74,7	25,3
Duhalde		1809	230	94,3	5,7
Tartas	ZUB	1666	124	96,6	3,4
Belapeire		1696	195	83,8	16,2
Oloroeko kat.		1706	133	81,2	18,8
Maister		1757	192	66,1	33,9
Intxauspe		1857	137	89,1	10,9
Beriain	NAF	1621	191	83,2	16,8
Elizalde		1735	17	94,1	5,9
Mikelestorena		1751	149	98,7	1,3
Lizarraga		1793	113	60,2	39,8
Ros	ERR	1616	13	23,1	76,9
DoctrErr		XIX	19	36,8	63,2
Hualde Mayo		XIX	123	34,1	65,9
Mendigatxa		1902	76	43,4	56,6

- b. Bigarrena ecarri beguiz memoriara, *berba, eta obra* [egindituçanac] [goxerean] (Kap)
- c. Emon deigula *sustentu* [bear doguna] [arimaraco, eta gorpuçeraco] (Kap)

(29) Esan gure dau esse *becatari* [Iangoicoagana biortu ditesanay] (Vj)

(30) *Ayte gure* [Zeruetan zagozana] (Vj)

(31) Artu-eguisu beyñ *onaco trapu* [yquileac ecarri ditsanac] (Mikol)

(32) Cegas eguiten da Elexea? *Mundu guztico Christinau* [Iesusen fedea da Aita Santu Erromacoen obediencia dauquanacaz] eguiten da (ZubDot)

XVIII. mendetik aurrera datuak nahasiak dira: testu batzuetan IOko asko dau-de, baina beste batzuetan oso gutxi. Arzadunek IOko erlatibo batzuk erabili zituen (21 adibideetatik 10, baina batzuk oso antzekoak dira: *Leleengo gauza [bear dabena] [jakin Kristinauak]*, *Bigarren gauza [bear dabena] [jakin Kristinauak]* etab.). Olaetxearen dotrinan erlatiboen % 4 baino ez da IOkoa (hiru adibide besterik ez); hau da, aurreko mendean baino askoz ere gutxiago. De la Quadrak (Bilbao 1997) ez du bat ere (testuaren lehenengo 50 orrialdeetan behintzat). Aiaraldeko XVIII. mendearen bukaerako sermoietan (Ulibarri Orueta 2015) IOko erlatiboak gutxi gorabehera % 20 dira. XIX. mendearen hasieran, frai Bartolomek ez dakar adibide bat ere, baina Mogelen *Peru Abarka*-n erlatiboen % 25 izenaren eskuinean dago (beste lan batzuetan ere badarabil egitura hori).

2.2.1.5 Gipuzkoa

Gipuzkoako testuetan noizbehinka agertzen zaigu IOko erlatiboren bat. Zaharrena 1614ko *Sumario Brebe*-an (Urquizu 2009):

- (33) Gobernaduko deu Kongregazio au Kompañiako Ayta batek, Prefekto batek, Asistente bik, Sekretario batek, eta Konsiliarioak kongreganten numero arikin conforme, eta *beste ofiziale* [konbenizen diranen].

Ohi bezala, IAKoak aurkitzea errazagoa da:

- (34) [gota duen] *orduan*, buru chipia oy daduca choruan (Elduaingo 1619ko bertsoak, ETZBB)
- (35) Antoniok ta don Martin eta [or perdikatzen deban] *erretoreak* (Errezilgo Maria Artzallusen 1622ko gutunak Azpeitian, ETZBB)
- (36) [Oric ezten] *lequan*, acearia erregue (Isasti 71)
- (37) [Urtara maiz dijoan] *jarroa* laster da aussia (Isasti 85)

IOko erlatiboen adibide gehien Irazutzaren dotrinan aurkitu ditut: 21 erlatibotik 8 mota horretakoak dira. Aztertutako XVIII. mendeko beste bi egileek

—Otxoa Arin eta Ubillos— adibide batzuk badauzkate ere, izen osteko egituraren maiztasuna oso txikia da: handiena Otxoa Arinen testuan: % 3,6 (7 adibide; Ubillosek 5 adibide ditu). Lakarrak (1987) argitaratu zuen dotrinan (40) ere adibide bakan batzuk daude.

- (38) a. pekatu egin dedala amalau bider *emakume* [libreak, edo solterak diranakin] (OA)
 b. *pekatu* [egin danaren] damu sobrenaturala, edo egiazkoa izatea (OA)
 c. itaundu begio Konfessoreari, edo *beste gizon* [dokto, eta Jaungoikoaren bildurra debanari] (OA)
- (39) a. *Berbo, edo Itz* [beti dirauen] *ori* zer da? (Ubill)
 b. Nor da *Elizaren buru* [agiri ez dana]? (Ubill)
 c. euskeraz ze-agiak derizten, *Idolo, edo Jainko gezurrezko*, [Jainkoaren itxura ta figura itsusi utsa bai, baña Jainkozko izanik bat ere etzuenak] (Ubill)
- (40) Ez Jauna: eta dago obligatua Confesatcera *pecatu mortal* [orduan utcizuan] *ura*, orduan Confessatucituan guciaquin mortalac baciran (Oikiako dotrina, Lakarra 1987)

Beste hainbat testutan ere agertzen dira IOko erlatiboak: gutun batean (41), itzulpenak diren administrazio-agirietan (42)-(44) eta literatur lanetan (45). Berziki interesgarria da 1761ko Donostiako maitaleen gutunetako esaldi bat (41), testu informal batean jaso delako. Oro har, halere, Bizkaiarekin konparatzen badugu, IOkoen maiztasuna ez da oso handia.

- (41) *ygande* [juan danean] egun guapoa pasatu nuan (ETZ: 111-115)
- (42) etta *termino* [esan dogun] barruan joaten ezpadira (Arrasateko bandoa desertzioez, 1705, KG)
- (43) Bere buruaren jabea dan izate bat, locarrigabe edo libre jayoa, besteren mendean ez dagoana, ta besteri ecer zor ez diona, *guraso* [izatea eman diotenai] baicic (Españiaco uritar constitucionalen Cartilla civila, 1820, KG)
- (44) cobratu eta pagatu ditzala *contribucio* [bencituric daudenac] (Oiartzungo udal-erabakia, 1822, KG)
- (45) Baita goxo antxequak ere: eta *sagardo* [garratz txinpartak botatzen dituben] *ura*, azkeneko Amasorrañen saldu zan bezelakua, ura, ura gauza, ura zan ura, urik gabia... (Altzaga, KG)

Testuetan lekukotasun gutxi egon arren, badirudi IOko erlatiboa erabiltzen zela, Larramendik (1729: 276-277) hitz batzuk eskaintzen baitizkio: *dedán escuá*, *miragarria da* esan behar dela dio eta ez *escú dedaná*. Larramendik berak, IOko

egitura gaitzetsi arren, noizbehinka erabiltzen zuen (Hidalgo Eizagirrek —2004: 123— haren adibide batzuk ematen ditu), Larramendiren eraginpean idazten zuten beste idazle batzuek bezala: Lardizabal (Urgell 1999: lxxii), Kardaberaz, Mendiburu edo Ubillos.

Hala ere, XIX. mendean IOko erlatiboak testuetatik desagertuz doaz, eta Larramendiren iritziak zerikusia izan bide zuen. Horren adierazle da Irazuaren dotrina: IOko erlatiboak ezabaten dira XIX. mendeko edizioetan, ondoko adibi-deetan ikus daitekeen bezala. 1739ko eta 1797ko edizioen arteko alde handirik ez dago erlatiboen erabileran, lexikoan eta morfologian badaude aldaketa esanguratsuak (begiratu Lakarra 1985). 1830eko edizioan, ordea, IOko bat bakarrik salbatzen da ((50)-ko *obligazio dedana*), oharkabean igarota seguruenik.

- (46) a. Ateraco ditu garbiro *obra on* [eguin dituanac] (1739/1797)
 b. Ateraco ditu garbiro [eguin dituan] *obra onac* (1830)
- (47) a. Cer esan naidu *itz Amen*, [azquenean añaditzen dezun] *arc?* (1739/1797)
 b. Amen, [azquenean diozun] *itz arc* cer esan nai du? (1830)
- (48) a. Eman diazagula Jaungoycoac corputzarenzat *mantenimentu* [conveni zayona] eta animarenzat graciaren *mantenimentu* espirituala eta sacramentuac (1739)
 b. Eman diazagula Jaungoicoac corputzarentzat *mantenu* [conveni zayona] ta animarenzat graciaren *mantenu* espirituala ta sacramentuac (1797)
 c. Eman deigula Jaungoicoac [gorputzari dagocan] *mantenua*, ta animarentzat graciaren *mantenu* espirituala ta sacramentuac (1830)
- (49) a. Ezta tempora señalaturic, baicican bere capacidadearequin, eta *tempora* [confesatu gabe egon danarequin] conforme, bear du artu *tempora* [necesitatcen duana] (1739)
 b. Ezta dembora señalaturic, baicican bere capacidadearequin, eta *dembora* [confesatu gabe egon danarequin] conforme, bear du artu *dembora* [necesitatcen duana] (1797)
 c. Ezda dembora jaquiñic, baicic beguiraturic bere capacidadeari, ta [confesatu gabe egon dan] *demborari*, artu bear du [premia duan] *dembora* (1830)
- (50) Dadukat esperanza Jaungoikoagan, barkatuko dirala nere pekatu guztiak (...), egiten badet nere partetik *obligazio* [dedana], eta egin dezakedana, zeña dan penitencia egiazkoa. (1739)

2.2.1.6 Nafarroa Garaia

Nafarroako XVII. mendeko hainbat testu motzetan, aurreko mendean bezalaxe, noizbehinka aurkitzen ditugu IOko erlatiboak:

- (51) *çati* [nay duçunetan] (IruñOl)
 (52) *ogui* [beti dirauena] eçarten da may ontan (IruñOl)
 (53) *trasladu* [fede eguiten duena] (Leitza 1626, ETZ 45-47)
 (54) *Dolore andi eta damu* / [Daucana viotzean] (Philippe Andiaeren heriotzean 1665, TAV 3.1.28)

Beriainek maiz erabili zituen: *Tratazen da nola enzun bear den meza* liburuan erlatiboan % 15 inguru mota horretakoa da (*Doktrina*-n ere % 15 gutxi gorabehera).

XVIII. mendeko hiru egile aztertu ditut: Elizalde, Mikelestorena eta Lizarraga. Mikelestorenak IOko egituraren adibide bat baino ez dakar (% 1,3; Gipuzkoako erabileratik hurbil geratzen da, beraz). Elizalderen dotrina motza bada ere, IOko erlatibo batzuk badaude. Harrigarri gertatzen dira Lizarragaren testuak erlatiboan erabilerari dagokionez, aztertu dudan zatian adibideen ia % 40 IOkoa baita:

- (55) a. Nork konta *tormentu* [eman zitionak]? (Lizarg)
 b. ta au izan ze prinzipio *anitz milagro* [in zituenen] [urrengo denboran] (Lizarg)
 c. Itzuli ze Sandua negarres ez logratuas *martirio* [nai zuena] (Lizarg)

Aztertutako Nafarroako beste testuekin konparatuta, Lizarragaren proportzio hori ezohikoa¹² da, eta, horregatik, XVIII. mendeko datuak osatzeko, beste hainbat testu aztertu ditut, batez ere XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako sermoiak.¹³

IOko erlatiboak testu gehienetan aurki badaitezke ere (56)-(59), ez dira Lizarragaren testuan bezain ugariak. XVIII. mendearen bukaerako Martinez de Morentinen sermoietan, esaterako, 43 erlatibotik bost dira IOkoak; Ororbiako eskuizkribuetan 36 erlatibotik sei. Lizarragaren maiztasun handi horretatik hurbil testu bat bakarrik geratzen da: Goldaratzeko 1833ko sermoietan 90 bat erlatibotik erdiak gutxi gorabehera izen ostekoak dira. Oro har, beraz, XVIII. eta XIX. men-

¹² Elizalde eta Lizarraga egile nahiko jantziak ziren, eta agian ekialdeko hizkeren eraginaren bidez azal daiteke IOko erlatiboan maiztasuna. Caminoren (2003: 432) arabera, egile horien lanek ekialdeko hizkeren hainbat kutsu dute, Ipar EHko literaturaren garrantziaren eta ospearen ondorioz seguruenik, eta hainbat ezaugarritan ez datoz beti bat egile apalagoek idatzitako testuekin.

¹³ Baztango dantzen aurkako ediktua (1750, Ondarra 1982), Larrasoñako predikua (XVIII. m., ETZ 57-60), Muruzabalgo bildumatiko sermoi batzuk (XVIII. m., ETZ 82-91), Goñerrin aurkitutako predikua (XVIII/XIX. mendea, Ondarra 1990), Ororbiako eskuizkribuak (1756, 1758, 1769, ETZ 91-111), Martinez de Morentin-en sermoiak (Muskitz, XVIII. mendearen azken 30 urtetakoak, Lecuona 1973), Utergako XVIII. mendeko katixima (Ondarra 1980) eta Goldaratzeko 1833ko sermoiak (ETZ 207-229).

dearen hasieran Lizarragaren % 40tik oso urrun geratzen dira ia testu guztiak, eta, gehienetan, IOko erlatiboak % 10-15 inguru dira (Berriainen antzera, beraz). Nolanahi ere, bitxia da aldea hain handia izatea: kasu horretan ezin da testu-motaren eraginaren bidez azaldu, aski antzekoak baitira aztertutako testuak (sermoiak gehienak).

- (56) Jaquindu zue San Nicolasec *iru nescacha* [castidadea guardazem zutenec] peligrasentutela bere honrram conveniencia faltas (Larrasoñako predikuak)
- (57) eta infernue norendaco ein ze? Astoendaco? Ez por cierto, beicic *becatore* [glorie verdaderoas azenduric, eta beren salvacioas acenduric edo descudeturic, beren becatues arrepentitu nei estutenendaco] (Muruzabalgo bildumatiko sermoiak)
- (58) a. Animazen zuela Jangoicoac bere sieruo Abraham eramatera valore andiarequiñ *trabaju* [padezizenzituenac], eta *adbersidade* [esperazen zitzenac] (Goñerriko predikuak)
- b. aliqueta guelditu arte satisfaturic *injuria eta ofensa* [eguiñ diozcatenaz] (*ib.*)
- (59) a. *vecatu grave eta leve* [cometitudirenac] (Martinez de Morentinen sermoiak)
- b. memoriera ecarricea *vecatu* [cometitu dituen] *gucien* [azqueneco confesionetic presentecoraño] (*ib.*)

2.2.1.7 Lapurdi eta Nafarroa Beherea

Lehen aipatu bezala, Leizarragak sarri erabili zituen IOko erlatiboak Testamentu Berrian, baina askoz ere gutxiago ABC-an. XVII. mendeko Lapurdiko egileen IOko erlatiboen erabilera ABC-tik askoz hurbilago geratzen da, % 4 eta % 9 artekoa baita. Nire corpusetik kanpoko Lapurdiko testu (ia) guztietan aurki daitezke: Voltaire (*Hara non den mairou [chutiq daguena]; hare atçignean io çaq*), Etxeberri Ziburukoa, Gazteluzar...

Erljio-testuetatik landa 1664ko Kanboko Jean de Peruskiren gutunetan bi adibide interesgarri dira, lehenengoa IOko erlatiboa eta bigarrena erlatibo aposatua:

- (60) eta hala otoi gorainçi çure aizpa eta *ene emaste egiyazco* [dudannari], ene espos maiteari (PeruskiGut)
- (61) Gorainci *ene espos Mariatoari* [seculan yçanen dudannari] (PeruskiGut)

XVIII. mendean, badirudi Haranederrek Leizarragak bezain sarri erabili zituela IOak (erlatiboen % 24).¹⁴ Hala ere, *zuen Aita zeruetan denak* eta antzeko erlatibo erdi-ihartuak kenduz gero, maiztasuna asko jaisten da: % 7,6raino. Leizarragaren kasuan, testuan horrelako adibide gutxi direnez, ez diote maiztasunari hainbeste eragiten, baina Haranederren itzulpenean IOko erlatiboen erdiak (22tik 12 zehazki) horrelakoak dira, eta perpaus erlatiboak baino gehiago, esapide erabat lexikalizatuak izan daitezke.

XVIII. mendeko *Kadet eta Bettiriño*-n (Padilla-Moyano 2011) IOko egituraren adibide batzuk ere badaude:

(62) bidian gosetu zuian, eta yoan zuian *phico* [ya hostatua zen] *baten* azpira
phicoqueta

(63) camporat aurthiquitzen baitituzte *arrain* [deusic balio ez dutenac]

XIX. mendean, mendebaldean ez bezala, IOko erlatiboak ez dira desagertzen (Duhalde % 6 du, gutxi gorabehera) eta, Oyharçabalen arabera (1987), hizkera modernoetan ere entzun daitezke.

Beste testu-mota bat hartuta, IOkoak ez dira askotan agertzen *Le Dauphin* itsasontziko gutunetan (64). (64-a) Bibliaren pasarte baten bertso bat da eta oso estilo jasoaren itxura du, baina gainerakoak arruntagoak dira. IAko erlatiboak askoz ere gehiago agertzen dira gutunetan (65).

(64) a. Bai, diot lehenik izpirituala eta gero tenporala, zergatik hura gabe ez baikare *arbola* [idor fruiturik ekartzen ez duen] *bat* baizen, zeïña *arbola* [fruiturik ekartzen ez duena] kondentua baita pikatzerat eta zurat hartikitzerat. (LeDauphin 49)

b. Ethortzen bazare borondate on batez betea, entsaiatuko gare gauzen erremediatzerat, eta guk hizaren dugu zure alderako *bihotz* [ezagutu daukuzuna]. (LeDauphin 39)

c. *Zure amarotxi* [handizki hikustea desiratzen zaituenak] eta gure Haurra Mariak egiten daukitzute bere konplimenduak. (LeDauphin 39)

(65) a. Hanitz pena sofritu dut [zuk amari kausatu diozun] *xangrinaz* eta angelesek harturik etxatu ziztenen Espanijarat, [Lisibona erraten dioten] *portu batera* (LeDauphin 45)

b. [Haren konpaniatik ethorri diren] *gizonek* erran darokute, eta hor hartubak ditubelakoan, paga ezetzazun gaztiatzen darotzugu. (LeDauphin 38)

¹⁴ Haranederrek Leizarragaren testua ezagutzen zuen eta noizean behin bere itzulpenari jarraitu zion, Ruiz Arzalluzek (1987) erakutsi bezala. Gerta daiteke horrek erlatiboaren sintaxian nolabait eragina eduki izana.

- c. [Nik desiratzen darozkitzudan] *gaitzak* aise jasanen tutzu. (LeDauphin 7)
- d. Etsenplu hartzazu, eta ikusazu nola Jainkoak [zuk haren aldera iduki duzun] *konduita* bera zure aldera iduki duen. (LeDauphin 45)

Azkenik, Nafarroa Behereko testuetan IOko erlatiboak ere agertzen zaizkigu, Camino (2013: 149, 2016: 466) ohartu bezala:

- (66) a. hori da *aphezpiqu* [bere missionia errecebitu dutenen] autoritatiaren azpian (c. 1740)
- b. *ohoin* [etche bat arrotatu nahi lukeen] *batec* (1782)
- c. *guiçon* [penitencia handiric eguinez bici ciren] *batçuri* (*ib.*)
- d. *ogui* [galdeiten dugun] *houra* (1786)

Salbuespena Mongongo Dasanzaren *Laborarien abisua* da: 28 IAko erlatibo baino ez ditut hor aurkitu.

2.2.1.8 Zuberoa

Errefrauekin hasita, Zalgizenetan bi IAko erlatibo baino ez daude: *eztacussan beguic*, *ez nigarric*, adibidez. Belak ez digu inolako daturik ematen, erlatibo libre batzuk bakarrik baititu. Oihenarten errefrauetan, berriz, badaude IOko erlatibo gutxi batzuk (67), eta poesietan ere adibide bat edo beste dago (68).

- (67) a. *Belatz* [duana] ez utz hagati, *auztore* [jingei denagati] (Oih)
- b. Hire nahiz *gaitz* [jin zaikan] *horri*, errakok “Sancho, ungi ethorri” (Oih)

- (68) Ban’ ezdeustzat zuk dadukazu / [Nik] *neke* [hartzen dudana] (Oih)

Erronkari eta Zuberoa arteko gutunetan, bai Rosek, bai Etxartek idatzitakoetan IOko erlatiboak ugari dira. Hona hemen Etxarten batzuk:

- (69) a. *bothere* [behar dena] [goure erregue iaunaganic] (Etxart)
- b. *diferencia* [erran diren] *guciac* (Etxart)
- c. uda huntan bil ahal guitian bortuyan edo *berce leku* [ororen commode eta hun den] *batetan* (Etxart)

Guztira hamar IOko erlatibo atera ditut gutunetatik. Asko ez badira ere, haien ondoan ez da IAko erlatibo bat ere agertzen (*zein* erlatiboak, berriz, bai).

Tartasek, hala ere, IOko erlatiboaren oso adibide gutxi ditu, geroko egileek baino askoz gutxiago. XVII. mendearen bukaerako eta XVIII. hasierako testuetan adibideen % 17 IOkoa da, gutxi gorabehera. Maisterrek gehiago ditu: erlatiboen herenak IOkoak dira (ikusi beharko lirateke itzulpena izateak ez ote zuen zerikusirik maiztasun horrekin).

Aztertu ditudan Zuberoako azken testuak Intxausperen itzulpen batzuk dira: elkarrizketak eta Apokalipsia (Bonaparte ondareko eskuizkribuak dira, hots, XIX. mendearen erdialdekoak). IOko erlatiboak erabiltzen ditu bere itzulpenetan, baina batez ere Bibliarenean. Elkarrizketan adibide bat baizik ez dago. Alde hori testu-motarekin lotu behar da ziurrenik. Bidenabar, Leizarragarengan antzeko zerbait ikusi dugu: erregistro formalagoa duen Biblian asko erabili zuen, baina estilo askeagoa duen ABC-an askoz ere gutxiago.

Azkenik, XIX. mendeko Intxausperen (1979 [1858]) eta Gèze-ren (2010 [1873]) zubererazko gramatikak aipatu behar dira. Hego EHn Larramendik gaitzetsi zituen IOko erlatiboak, baina zuberotarrak ez ziren iritzi berekoak eta bi hurrenkera guztiz zuzenak direla pentsatzen zuten. Intxauspek (1979 [1858]: 445), adibide bat ematearren, hala zioen: “Les deux constructions [IAko eta IOko erlatiboak] sont régulières et consacrées par l’usage, mais celle qui met le substantif à la fin est plus ordinairement employée”.

2.2.1.9 Erronkaribar

Duela gutxi aurkitutako Erronkari eta Zuberoa arteko gutuneriari esker, XVII. mendeko Erronkaribarko euskara nolakoa zen jakin ahal izan dugu, eta, erlatiboek dagokienez, 13 erlatibotik 10 IOkoak dira. Halaber, aipagarria da Etxart zuberotarrak eta Ros erronkariarrak idatzitako perpaus batzuk oso antzekoak direla, ondoko adibideetan ikusten den bezala:

- (70) a. eçi orduan vortuetan edo *verçe lecu* [vear denean] vilgu eta vista eta acordu on vat eguin dadin (Ros)
- b. transportatuco eta ioanen guirela *leku* [behar den] *orotara* (Etxart)
- (71) a. *vi edo yrur guiçon* [vaquea deseaçen duenac] (Ros)
- b. *gende* [baquia maite dutenequi] (Etxart)
- (72) Eta *comissione* [equarri duç[u]ena] da diferente (Ros)
- (73) Hegun goyçean, Agustin Martin Uztarrozeacoac ygorri derautaçu *ynformacione* [eguin duena] [agot oñaren eta bere lagunen contra], çoyñ ygorcen diçut mensajero onequi (Ros)

Erronkaribarko XVIII. mendeko doktrinan (Gómez 1991) beste adibide bat aurkitzen dugu, berriro ere esamolde agian ihartuan:

- (74) *Ayta* [gueiza gucietan poder dionaren]

Bonaparte ondareko testuetan eta XX. mendeko hasierako Azkueren eta Mendigatxaren arteko gutunetan IOko erlatiboen maiztasuna oso handia da: % 60

gutxi gorabehera. Erronkaribarko testu horietan bakarrik IAko erlatiboak IOkoak baino gutxiago erabili ziren.

- (75) a. cerengatic zutaric tzu nontic erquin biar baitu *Caudillo* [governatu biar diona] [Ysrraeleco ene iria] (Hualde)
- b. Guisa berian perseguitu citzabein *Profeta* [ssen antzinetico izan zrener] (Hualde)
- c. izanen da semejatruc edo iduri *guizon ero* [fabricatu cion] *bati* [bere etsia ãria gainian] (Hualde)
- d. berce banec ebaquitian cein erramu edo osto arboletaric eta isartan ztein *lecu* [igari biar cionetic] (Hualde)

2.2.1.10 Jatorrizko testuaren eragina

Dagoeneko aipatu dut hainbatetan, testua itzulpena denean, jatorrizko testuak izan zezakeela zerikusia idazleak aukeratzen duen egiturarekin. Itzulitako testuen eta bere iturriari konparaketa sistematikoa tesi horren mugetatik kanpo geratzen bada ere, lekukotasunen azterketa amaitzeko, horren saio bat egingo dut, testu batzuetan itzulpenaren eragina zenbateraino nabaritzen den ikusteko.

Oro har, jatorrizko testuaren eragina bi eratakoa izan daiteke, zuzena eta zeharkakoa:

Direct effects amount to the exact reproduction of a matching structure, with outcomes ranging from ungrammatical glossing to frequency enhancement of a native construction. Indirect effects result in the priming of a particular construction, even in absence of a direct matching source for each instance in the translated text, and thus, again, in frequency enhancement (Gianollo 2011: 85).

Eragin zuzenaren ondorioak, beraz, mota askotakoak izan daitezke: egitura ez-gramatikala sortzea edo maiztasunari bakarrik eragitea. Horietan zentratuko naiz (zeharkako eraginak ere garrantzia izan dezake, baina neurtzeko zailagoa da).

Leizarragaren IOko erlatiboen maiztasun handia itzulpenaren eraginaren bidez azal daitekeen ikusteko, San Mateo ebanjelioaren euskarazko testua frantsezko bertsiorekin erkatu dut (1563an Genevan argitaratu zen *Nouveau Testament* erabili dut, Salaberri Muñoaren –2014– ustez Leizarragak erabili zezakeen edizioa). Jakina denez, Biblia beste hizkuntza batera itzultzeko oso testu berezia zen: ahalik eta fidelena izatea eskatzen zitzaion itzultzaileari. Horrek abantailak ditu hizkuntzaren historia aztertzeko, baina arazoak ere sortzen ditu:

Bible translations offer to the linguist a unique opportunity to investigate a natural parallel corpus characterized by a potentially optimal combination of factors,

among which the homogeneity of pragmatic contexts and the expected faithfulness on the part of the translator are of particular import to syntactic investigation. However, scholars are also well aware of the main impediment which often frustrates their attempts when dealing with this class of documents: faithfulness in translating sacred texts, because of the awe of the model felt by the translators and by the community they serve, typically proceeds so far as to override in many important respects the native characteristics of the translation's language (Gianollo 2011: 75).

Leizarragaren testuan kasu batzuetan euskarazkoan IOko erlatiboa badago ere, jatorrizkoan partizipio-perpaua, adjektiboa edo beste modifikatzaile bat dator. Adibidez:

- (76) a. Et voici *deux aveugles* [assis pres du chemin]
 b. Eta huna, *bi itsu* [bide bazterrean zeudenek]
- (77) a. en la salle du *principal Sacrificateur* [nommé Caiphe]
 b. *Sakrifikadore prinzipal* [Kaifas deitzen denaren] salara
- (78) a. et les ietteront en *la fournaise de feu*
 b. Eta egotziren dituzte *labe* [daixekanera]

Bi hizkuntzetan erlatiboak daudenean, erregularitasun interesgarri batzuk daude (2.6. taula).

2.6. taula. Erlatiboak euskaraz eta frantsesez San Mateo ebanjelioan.

	<i>qui</i>	<i>que</i>	<i>lequel</i>	<i>ou</i>
IO	31	–	2	–
IA	27	14	3	6

IOko erlatiboen kasuan, frantsesez *qui* izenordain erlatiboa erabiltzen da 33 perpauetik 31n, eta gainerako bi adibidetan bakarrik *lequel* izenordaina (*lequel* izenordaina oro har *zein* erlatiboen bidez itzuli zen, begiratu 3.2.3. atala):

- (79) a. Disans, Où est *ce Roy de Iuifs*, [qui est nay]?
 b. Zioitela, Non da *Iuduen rege* [iaio dena]?
- (80) a. parquoy *tout arbre*, [qui ne fait bon fruict], sera coupé, et ietté au feu
 b. beraz *arbore* [fruktu onik egiten eztuen] *guzia* pikatzen da eta sura egoizten
- (81) a. *le peuple* [qui gisoit en tenebres] a veu grande lumiere
 b. *Populu* [ilhunbean zetzanak] argi handi ikusi ukan du
- (82) a. A fin qui vous soyez enfans de *vostre Pere* [qui est és cieux]
 b. *Zuen Aita* [zeruetan denaren] haur zaretzat

IAko gehienak ere *qui* izenordainarekin agertzen dira frantsesez, baina, IOko erlatiboak ez bezala, beste batzuekin ere: *ou*, *lequel*, *que* (83) edo *dont* (84).

- (83) a. *les choses* [que vous oyez et voyez]
 b. [enzuten eta ikusten dituzuen] *gauzak*
- (84) a. ie retourneray en *ma maison* [dont je suis sorti]
 b. Itzuliren naiz *neure* [ilki naizen] *etxera*

Erregularitasun horiek nekez egotzi ahal zaizkio kasualitateari. Ez bakarrik Leizarragarengan, beste hainbat testutan ere (Ipar EHn batik bat) IOko egitura subjektuak (iragankorrek eta iragangaitzak) erlatibizatzeke erabiltzen da batez ere (zehatzago 2.2.2.1. atalean). Frantsesetik *qui* izenordaina subjektuak erlatibizatzeke erabiltzen da; beraz, ez da harrigarri perpauis horiek itzultzeke IOko erlatiboak aukeratzea. Pentsa daiteke, hala ere, IOko egituraren ezaugarri hori itzulpenak indartu bide zuela, nabaria baita Leizarragak testua ahalik eta leialena (itsuitsuan ez bada) emateko zuen joera, eta agian IOko erlatiboen maiztasun handia itzultzailearen izaeraren isla ere badela.

Aztertu dudana beste testu bat da Kapanagaren dotrina elebiduna. IOko erlatiboak gaztelaniarekin erkatu ditut, jakiteko ea itzulpenak bultza zezakeen hainbeste IOko erabiltzera. Egia da esaldi askok “hitzez hitz” itzuliak diruditela (85)-(88). Hitz-hurrenkera deigarria egiten da batez ere (85)-ren kasuan: IOko erlatiboa hautsia da, eta, gainera, mendeko perpauisa genitibo aposatu bat da. Ondorioz, ordena gaztelaniazkoaren berdin-berdina da. Gaurko hitz-hurrenkeran honela litzateke: [*aen etorrera santuari begira egozan*] *aita santuen arimaak*.

- (85) a. *arimaac aita santu* [veguitra Egozaneenac] [*aen etorrera santuari*]
 b. *las animas de los santos padres* [que estauan esperando su santo aduenimiento]
- (86) a. *Vnio, eta Cumplimentu graçiazco* [daucanagatic,] [guztien ganean]
 b. *Por la union y plenitud de graçia* [que tiene sobre todos]
- (87) a. *Vlertuagaz ondo Mâdamentu*, [gordeco doguzanac,] eta *Sacramentu*, [artuco doguzanac]
 b. Entendiendo bien los *mandamientos*, [que hemos de guardar], y los *sacramentos*, [que hemos de reçibir]
- (88) a. cerren confesadu daiez *pecatu*, [pena gueiago emaitê deusteenac], eta echi gura ditueçanac
 b. por que puede confesar *los pecados*, [que les dan mas pena], y dexarlos que quisiere estâdo confessados de antes

Leizarragaren itzulpenetan ikusi dugun bezala, batzuetan euskarazko IOak gaztelaniazko adjektiboan eta partizipio-sintagmen ordainak dira: *neçesario* (89), *bien ynformado* (90) edo *graves y justas* (92).

- (89) a. Emon deigula *sustentu* [bear doguna] [arimaraco, eta gorpuçeraco]

- b. Todo lo que es sustento necesario de cuerpo y alma
- (90) a. *confessore prudente* [ondo informaduric dagoanac]
 b. el discreto confessor bien ymformado
- (91) a. *Costumbre* [Obispaduan edo errian reziuituric dagoanagaz] conforme
 b. Conforme alas costûbres reciuidas en los obispados
- (92) a. Ea gurasoai obedecidu bagaric egondan, *gauça* [grabe, eta iustu da-
 nean]
 b. si ha desobedecido a sus padres en cosas graves, y justas

Hala ere, oraindik “hitzez hitzago” egin zitezkeen itzulpenak, erlatibo aposa-
 tuaren bidez, eta horren adibiderik ere aurkitzen dugu Kapanagaren testuan:

- (93) a. *guiçona* [daucana] [christoen fedea] cein confessadu, eta professadu
 eban Baupismuâ gordeetaco
 b. *Hombre* [que tiene la fee de Christo que professo en el bautismo]

Posible dirudi, beraz, itzultzaileak testua ahalik eta modu fidelenean eman
 nahi izatea eta IOko erlatiboan maiztasun handi hori neurri batean behintzat
 horren ondorioa izan daiteke (Leizarragaren kasuan bezala). Ez da ahaztu behar,
 hala ere, erlatiboan bi herenak izen aurrekoak direla (eta batzuetan, erdarazko
 ordenari jarraituz gero, IOko erlatiboa espero zitezkeen):

- (94) a. Zelan dira ziuru [fêdeac eracusten deuscuzan] *gauzaac*
 b. Que tan ciertas son *las cossas* [que la fe nos ensseña]
- (95) a. Gueure culpac parcatu deguiguçala, eta aec gati, [çordogun] *penaac*
 b. Perdon de culpas y de penas debidas por ellas
- (96) a. Zeinzuc dira [legue naturalac eracusten deuscuzan] *mandamentuac*
 b. Que son *los Mandamientos* [que laley natural nos dicta]
- (97) a. [legueac aguietandaben] *cassuetan, eta ocasiñoetan*
 b. *en los cassos, y ocassiones* [que manda la ley]

Posible da jatorrizko testuak itzultzailea bultzatzea egitura jakin bat aukera-
 tzeko. Arazoa da eragin hori neurtzea: atal honetan bi testuen kasuan jatorrizko
 testua eta itzulpena konparatzeko saioa egin dut, eta horren emaitzak ez dira oso
 argiak. Bi testuetan osagaien hurrenkera oso antzekoa denean, badirudi itzulpen-
 prozesuaren bidez azal daitekeela, baina, berez, ezin da ziur egon. Dударик gabe,
 euskal testuen artean itzulpenek duten presentziagatik, gai horretan sakontzea
 merezi du.¹⁵

¹⁵ Bigurik (1994) XIX. mendearen amaierako eta XX. mendeko itzulpen batzuk (gaztelaniatik
 euskarara) ikertu zituen ikusteko erdarazko erlatiboak emateko zein estrategia erabili zituztela
 itzultzaileek. Interesgarria izan liteke testu zaharragoekin ere antzeko saio bat egitea.

2.2.2 Ezaugarri gramatikalak

Atal honetan IOko eta IAko erlatiboen ezaugarri batzuk konparatuko ditut. Helburua da bi egitura, izen ardatzaren eta mendeko perpausen hurrenkeraz aparte, berdin-berdinak diren aztertzea.

Aipatu da batzuetan IOko egitura erabiltzen dela arrazoi estilistikoengatik; adibidez, esaldi batean bi erlatibo daudenean:

(98) Eta hil zedin [itsasoan ziraden] kreatura [bizitze zutenen] heren partea
(LeizTest)

Cid Abasoloren (1987) ustez, aldiz, IOko egitura erabiliz “zalantzagarritasuna” saihets daiteke (nahiz eta beste kasu batzuetan ere erabil daitekeen):

- (99) a. Buddisten liburu ezer balio ez dabenak beintzat badazaudaz.
b. Ezer balio ez daben buddisten liburuak beintzat badazaudaz.

Oyharçabal (1987: 30) saiatu da biak bereizten, baina ez du aurkitu bata edo bestea erabiltzeko bultzatzen duen faktorerik:

Ni l'intuition personnelle, ni les tests parmi les personnes libres de préjugés sur ce point, ne permettent avec certitude de caractériser les contextes où les deux types de construction apparaissent. Il semblerait que le phénomène soit lié aux conditions mêmes de production du discours et peut-être aussi, la chose n'étant pas contradictoire, au phénomène même de relativation, par thématisation su SN_{rel} de la constituante. L'antéposition du N-tête correspondrait à une mise en valeur de celui-ci, la relative n'étant qu'un moyen “annexe” de détermination.

Oyharçabalek aipatzen duen diskurtsoarekiko lotura hori, garrantzia izan ba-dezake ere, zaila da aztertzen testu zaharretan. Hemen, beraz, hainbat ezaugarri gramatikal hartuko ditut kontuan.

Gai hori aztertzeko, egituren deskripzioaz gain, beste arrazoirik ere bada: ezaugarri sintaktikoek agerpen kopuru hutsek baino hobeto adierazten dute egituraren emankortasuna. Aurreko atalean, testuen lekukotasunek nahiko irudi nahasia ematen dutela ondorioztatu dut. Ezaugarri sintaktikoei dagozkien datuetan erregulartasun gehiago daudela erakutsiko dut atal honetan.

2.2.2.1 Erlatibizatzen den argumentua

Keenan eta Comrieren (1977) arabera, perpaus erlatiboetan *Accessibility Hierarchy* hau betetzen da:

- (100) subjektua > objektu zuzena > zeharkako objektua > zeharkako kasuak
> genitiboa > konparaketaren objektua

Hierarkiaren ideia indartzeko, Keenanek (1975 *apud* Fox 1987) erlatiboen maiztasuna ikertu zuen ingelesezko testuetan, eta proposatutako hierarkiarekin bat datozela ikusi: subjektua maizago erlatibizatzen da objektua baino, objektu zuzena maizago zeharkakoa baino, etab.

Hierarkia horren hainbat modifikazio proposatu da, batez ere hizkuntza ergatiboak kontuan hartuta. Izan ere, Keenan eta Comriren jatorrizko formulazioan arazotsu gertatzen den subjektuaren kontzeptua erabiltzen da. Lehmann-ek (1984; 1986) hierarkia batean batzen ditu subjektu/objektu eta ergatibo/absolutibo oposaketak:

- (101) subjektua/absolutiboa > obj. zuzena/ergatiboa > zeharkako objektua, denborazko osagarriak, leku-osagarriak > bestelako osagarriak > adjuntuak

Horren arabera, hizkuntza ergatiboetan absolutiboa ergatiboa baino errazago erlatibizatzen da; akusatiboetan, aldiz, subjektua objektua baino errazago. Fox-ek (1987: 864) beste irtenbide bat proposatzen du: absolutiboa kokatzen du hierarkiaren goren puntuan (bai hizkuntza ergatiboentzat, bai akusatiboentzat), *Absolute Hypothesis* proposatuz (“S” subjektu iragangaitza da, “A” agentea eta “P” pazienteak): “Every language which has a strategy for relativizing must be able to relativize on at least S and P” (Fox 1987: 864). Hizkuntza ergatiboentzat eta akusatiboentzat ondorio ezberdinak dakartza horrek: “All languages must be able to relativize on S and P at least: for nominative/accusative languages, this means relativizing on S, A, and P. But for Dyrbal, a wonderfully ergative language (again, at least as analysed by Dixon), this means relativizing on only S and P” (Fox 1987: 865). Bere hipotesia zuzena dela erakusteko, ingelesezko ahozko corpus bateko estatistikak erabili zituen. Atera zituen datuak bat zetozen bere hierarkiarekin: P- eta S-erlatiboak askoz maizago agertzen dira A-erlatiboak baino.

Argi dago argumentu batzuk beste batzuk baino errazago erlatibizatzen direla (funtsean, kasu gramatikalak errazago gainerakoak baino), baina zehetasunen inguruan ez dira ikerlariak ados jartzen (litekeena da hierarkiaren puntu batzuk hizkuntzaren araberrakoak izatea). Ez dut auzia hemen konpontzeko asmorik, baina aipatu diren lanetan erabilitako metodoa —maiztasuna ikertzea— euskarazko datuei aplikatuko diet.¹⁶ Erlatibizatzeke erraza den argumentuak ez du zertan maiztasun altua izan (beste arrazoi batzuentatik gutxi erabili daiteke),

¹⁶ Cid Abasolo (1987) maiztasunean oinarritu da erlatibiza daitezkeen kasuen arteko hierarkia ezartzeko (datu zehatzak eman gabe, hala ere), baina multzoka sailkatzen ditu eta ez du egiten kasu gramatikalen arteko bereizketarik. Hierarkia hau proposatzen du euskararentzat: kasu gramatikalak > inesiboa > aditzak subkategorizatzen dituen kasuak > sozietiboa, benefaktiboa, genitiboa.

baina, orokorrean, maiztasuna erlatibizatzeke erraztasunaren isla nahiko ona dirudi (baina Gordon & Hendrick 2005 lanean adibidez ez direla oso egokiak iradokitzen da). Gainera, datu historikoak aztertzean, hierarkiaren bat ezarri nahi bada, datu kuantitatiboak kontuan hartzeak aukera bakarra dirudi.¹⁷

De Rijken (1998 [1972]) arabera, euskaraz honako hauek erlatibizatzen dira: absolutiboa, ergatiboa, datiboa, inesiboa, adlatiboa, ablatiboa eta instrumentala. Absolutibo eta ergatiboaren kasuan beti posible da erlatiboa egitea, gainerako kasuekin testuinguruaren eta beste faktore batzuen arabera izaten da (Cid Absoloso 1987; Oyharçabal 1987). Genitiboa batzuetan ere posible dela gehitzen du Oyharçabalek (1987):

(102) ni naiz galdez zaudetena (LeizTest)

(103) izena ahantzi dudan gizon batek erran daut (Oyharçabal 1987: 102)

Oyharçabalek (2003: 774) hierarkia hau proposatzen du euskararentzat:

(104) absolutiboa eta ergatiboa > datiboa > adberbio-sintagma subkategorizatuak > gainerako adberbio-sintagmak

Absolutiboaren eta ergatiboaren artean alderik ez dagoela argudiatzen du Oyharçabalek. Datiboa erlatibizatzeke apur bat zailagoa da:

Dative NPs can be quite easily relativized, but relativization of indirect objects, though possible for all speakers, doesn't seem to be as easy as for subjects and direct objects; for instance, more time is needed for processing this interpretation in examples out of context. On the contrary, dative NPs associated with psych-verbs are easier to relativize than indirect objects (Oyharçabal 2003: 774).

Beste kasu-markekin oso zaila izaten da, murriztapen asko dago, baina ez da guztiz ezinezkoa. Adibidez, erlatibizatzen den argumentuaren eta erlatiboaren ardatzaren funtzioa berbera izateak errazten du: *joaiten naizen jendeengana joan behar duzu zuk ere* (Oyharçabal 1987: 120). Oyharçabalek (2003: 774) aipatzen ditu murriztapen sintaktikoak (subkategoriazioa), morfologikoak (kasu-marka sinpleak eta konplexuak) eta testuinguruarekin lotutakoak (erlatiboak informazio ezaguna adierazten badu, errazagoa da).

Nire corpusean aurkitutako erlatiboak honako hauek dira:

(i) O-erlatiboa (objektu zuzena):

¹⁷ Aurrerago A, S eta O argumentuak bereiz tratatuko ditut, baina interesgarria da begiratzea aipatu ditudan lanetan proposatutako hierarkien artean zeinek hobeto deskribatzen dituen euskarazko erlatiboak. Iako erlatiboak bakarrik hartuta, Lehmannen edo Foxen hierarkiak hobeto uztartzen dira datuekin: erlatiboan % 84tan absolutiboa erlatibizatzen da (objektua % 46tan eta subjektua % 38tan), eta ergatiboa % 7tan. Aldiz, subjektuaren eta objektuaren artean ez dago alde esanguratsurik: % 44tan subjektua erlatibizatzen da eta % 46tan objektua. IOkoen kasuan, hierarkia biak egokiak dira: % 77tan absolutiboa dugu eta % 21ean ergatiboa, % 65etan subjektua eta % 43tan objektua.

- (105) a. Bigarrena ecarri beguiz memoriara, *berba, eta obra* [egindituçanac goxerean] (Kap)
 b. [Jaun Apezcupiac emaiten dian] *sacramentu bat* (Belap)
- (ii) S-erlatiboa (subjektu iragangaitza):
- (106) a. Lau lecu *arima* [zerura eztoaçaneenac] (Kap)
 b. Orduan ethor zedin Iesus hekin [Jethsemane deitzen den] *leku batetara*. (LeizTest)
- (iii) A-erlatiboa (ergatiboa):
- (107) a. *ogui* [beti dirauena] eçarten da may ontan (IruñOl)
 b. Zer ihardetsiren dük *Jinko* [hire bekatüak oro dakitzanari] (Mst)
 c. Cer pphensamentu behar du uken [meça modestki ençuten eztién] *gentez?* (Oloroe)
- (iv) L-erlatiboa (leku-kasuak).¹⁸ Gehienetan inesiboa (108-a). Oso gutxitan prosekutiboa (108-b), ablatiboa (108-c) edo adlatiboa (108-d).
- (108) a. ona, [ni nagoan] *lecura* (Land)
 b. [ardi bat doean] *lecuti*, oro (RS)
 c. [Ezin athera naitekeien] *oihanean?* (Ax)
 d. [zuk ioan behar duzun] *lekhu hartan* (Duh)
- (v) Datiboa: adibide gehien *iritzi* aditzarekin (109-c).
- (109) a. [Odola zarion] *emaztea* (LeizTest)
 b. Kanabera zarthatua eztu xehaturen, eta [kea darion] *lihoa* eztu iraungiren (LeizTest)
 c. [Judas Iskariote zeritzan] *amabi Apostoluetatik batek* (Ubill)
- (vi) Instrumentala (bost adibide corpus osoan):
- (110) a. [Zuhurretarik dilijentki informatu izan zen] *denboraren* araura (LeizTest)
 b. Bada [hemen mintzo garen] *etsamina* berexia hautatu den bekhaturantza edo prestugune haren gainean egiten da (Duh)
- (vii) Komitatiboa (adibide bat):
- (111) *ezpada* eruateko [artuemona daukagun] *andiki edo abadeen* etxera (Elizalde)

¹⁸ Hemendik aurrera erlatibizatzen diren argumentuen adibideetan IAko egitura bakarrik ematen da, geroago ikusiko den bezala, argumentu horiekin IOkoak oso urriak direlako.

IAko eta IOko erlatiboak ez dira guztiz berdinak bietan erlatibizatzen diren kasuei dagokienez, IAkoa argumentu gehiagorekin agertzen baita testuetan. Erlatibizazio-hierarkiaren posizio baxuenekin (leku-kasuak, datiboa, instrumentala) IAko erlatiboak posible dira, eta, leku-kasuekin behintzat, guztiz arruntak, baina IOkoaren adibide oso gutxi daude. Leku-kasuei dagokienez, corpus osoan IOko egituraren lau adibide baino ez ditut aurkitu (eta lautik hiru Erronkaribarren):

- (112) a. Nos baita bearra egin lei *domeka, eta jaiegun*, [bearrik ez egiteko esanta dagozanetan]? (Olaetx)
 b. berce banec ebaquitan cein erramu edo osto arboletaric eta isartan ztein *lecu* [igari biar cionetic] (Hualde)
 c. *egun* [karta eskribitu naunaren] biramenian (Mendigatxa)
 d. ezbazren erkiten *etse* [biltan zrenetik] (Mendigatxa)

Lizarragak ere baditu adibide batzuk (nahiz eta aztertu dudatan testuan ez agertu):

- (113) Eta ala nola erleak, *egun klaro* [iruzkia denetan], atrazen baitire txupazera loreen zumoa egiteko (Lizarg)

- (114) *Lenbiziko instante* [konzebizen denetik] aurra sabelean (Lizarg)

Instrumentalaren gainean egindako adibide urriak beti IAkoak dira. Datiboarekin testu batean (Mogelen *Peru Abarka*) bi IOko erlatibo daude bakarrik:

- (115) a. nik etxe batzubetan ikusi ditudan *oratzalle*, [zubek tenedoren izena emoten deutseezunak]
 b. *buruko kerizgarri*, [zuben auan sonbrelluba deritxona]

Adibide guztiak ez dira oso zaharrak (XVIII. eta XIX. mendeetakoak) eta IOko egitura asko erabiltzen diren hizkeretakoak (Bizkaian eta batez ere Nafarroan eta Erronkaribarren aurkitu ditut adibide gehien).

Ergatiboa eta absolutiboa arazorik gabe erlatibiza daitezke bi egituretan, baina maiztasunean aldeak daude: IOkoan ergatiboa maizago agertzen da IAkoan baino. 2.7. taulan ikus daitekeen bezala,¹⁹ IOkoen % 23tan ergatiboa erlatibizatzen da eta IAkoen % 7tan bakarrik. Alde hori bereziki nabarmena da Ipar EHko testuetan. Era berean, A-erlatiboak S-erlatiboak baino maizago izaten dira IOkoak Ipar EHko testuetan (2.8. taula). Adibidez, A-erlatiboen % 37 IOkoa da eta O-erlatiboen % 6 bakarrik. Hego EHko testuetan alde hori ez da hain handia.²⁰

¹⁹ 2.7. taulan (eta kapitulu honetako beste batzuetan ere) Erronkaribarko datuak aparte eman dira, eremu horretan IOko egiturak duen maiztasun oso altuagatik: % 60 baino gehiago, 2.2.1.9. atalean esan den moduan. Testu bakoitzeko datuak 2.9. taulan eman dira.

²⁰ Hego EHko testuen artean IOko erlatiboen % 5 baino gehiago dutenak bakarrik hartuz gero, argumentuen proportzioak Ipar EHN aurkitzen ditugunen antzekoagoak dira, A-erlatiboen

Oro har, beraz, IAko egitura absolutiboa erlatibizatze joera dugu eta IOkoan, aldiz, subjektua.

Diakronikoki, hizkuntza batek erlatiboak sortzeko dituen aukeretan aldaketak gerta daitezke: posizio berrietara zabaltzea edo, kontrakoa, murriztea (Romaine 1984; Hendery 2012). Euskarazko egituren kasuan, badirudi eremu batzuetan (Bizkaia, Nafarroa eta Erronkaribar) IOko egitura ergatiboa eta absolutiboa ez diren kasuetara hedatu zela edo hedatzen hasi zela. Dena den, datiboaren edo leku-kasuen gainean egindako IOkoaren oso adibide gutxi daukagu testuetan, eta argi dago IOko erlatiboak IAkoak baino murrizketa gehiago duela. IAkoen erabileran, aldiz, aztertu ahal dugun denbora-tartean ez da aldaketarik gertatu.

2.7. taula. IAko eta IOko erlatiboetan erlatibizatzen diren argumentuak (ehunekotan). Lehenengo hiru lerroetan testu guztietako datuak eman dira (egitura biak batera eta aparte), hurrengoetan Ipar EHko, Hego EHko eta Erronkaribarko testuetakoak.

Eremua	Egitura	Guzt.	O	S	A	L
GUZTIAK	IA/IO	3395	44,7	37,9	10,1	7,3
	IA	2838	47,1	36,7	7,6	8,6
	IO	557	32,3	44,2	22,8	0,7
IPAR	IA	1426	44,7	40,7	6,5	8,1
	IO	255	16,1	52,9	31,0	0,0
HEGO	IA	1327	50,5	32,7	8,9	7,9
	IO	156	50,0	32,7	16,7	0,6
ERR	IA	85	34,1	31,8	7,1	27,1
	IO	146	41,8	41,1	15,1	2,1

2.8. taula. Erlatibizatzen den argumentua eta erlatiboak: eremuen arteko aldeak. Argumentu bakoitzeko IOko erlatiboaren proportzioak eman dira (ehunekotan).

Arg.	GUZTIAK		IPAR		HEGO		ERR	
	Guzt.	IO	Guzt.	IO	Guzt.	IO	Guzt.	IO
O	1516	37,0	678	6,0	748	10,4	90	67,8
S	1288	19,1	716	18,9	485	10,5	87	69,0
A	343	37,0	171	46,2	144	18,1	28	78,6
L	248	1,6	116	0,0	106	0,9	26	11,5
Guztiak	3395	16,4	1681	15,4	1483	26,6	231	63,2

maiztasun nabarmen handiagoarekin: testu horietan A-erlatiboaren %57 IOkoa da, O-erlatiboaren %26 eta S-erlatiboaren %25.

2.9. taula. Erlatibizatzen den argumentua eta erlatiboak (IA, IO, aposatuak eta *zein*): testuz testu (ehunekotan).

Testua	Mota	Guzt.	S	A	O	L	Beste
Lazarraga	AP	1	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	IA	56	8,9	0,0	44,6	41,1	5,4
	<i>zein</i>	57	14,0	28,1	12,3	24,6	21,1
Leizarraga	AP	28	46,4	46,4	7,1	0,0	0,0
	IO	57	61,4	31,6	7,0	0,0	0,0
	IA	155	51,0	14,8	22,6	8,4	3,2
	<i>zein</i>	90	32,2	32,2	5,6	11,1	18,9
Ros	IO	10	30,0	10,0	60,0	0,0	0,0
	IA	3	66,7	0,0	0,0	33,3	0,0
	<i>zein</i>	6	0,0	0,0	16,7	50,0	33,3
Mattera	AP	41	53,7	36,6	9,8	0,0	0,0
	IO	14	35,7	42,9	21,4	0,0	0,0
	IA	152	38,2	3,9	54,6	3,3	0,0
	<i>zein</i>	55	56,4	12,7	1,8	12,7	16,4
Beriain	AP	41	36,6	17,1	46,3	0,0	0,0
	IO	32	25,0	12,5	62,5	0,0	0,0
	IA	159	35,2	2,5	59,1	2,5	0,6
	<i>zein</i>	78	10,3	20,5	14,1	26,9	28,2
Haranburu	AP	13	46,2	46,2	0,0	7,7	0,0
	IO	11	18,2	45,5	36,4	0,0	0,0
	IA	110	21,8	4,5	59,1	13,6	0,9
	<i>zein</i>	6	33,3	50,0	16,7	0,0	0,0
Axular	AP	25	28,0	40,0	32,0	0,0	0,0
	IO	6	16,7	50,0	33,3	0,0	0,0
	IA	155	38,1	1,9	43,2	12,9	3,9
	<i>zein</i>	18	61,1	16,7	5,6	5,6	11,1
VJ	AP	3	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0
	IO	3	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	IA	14	21,4	7,1	64,3	7,1	0,0
	<i>zein</i>	8	50,0	25,0	0,0	12,5	12,5
Kapanaga	AP	19	15,8	42,1	42,1	0,0	0,0
	IO	25	36,0	8,0	56,0	0,0	0,0
	IA	50	26,0	4,0	60,0	10,0	0,0
	<i>zein</i>	58	27,6	8,6	12,1	22,4	29,3
Tartas	AP	7	57,1	42,9	0,0	0,0	0,0
	IO	4	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	IA	115	47,8	0,0	44,3	6,1	1,7
	<i>zein</i>	56	58,9	19,6	3,6	12,5	5,4
Belapeire	AP	9	44,4	44,4	11,1	0,0	0,0
	IO	22	45,5	13,6	40,9	0,0	0,0
	IA	114	39,5	5,3	53,5	1,8	0,0
	<i>zein</i>	66	31,8	22,7	16,7	15,2	13,6
Oloroeko kat.	AP	13	53,8	30,8	15,4	0,0	0,0
	IO	25	40,0	52,0	8,0	0,0	0,0
	IA	108	28,7	2,8	66,7	1,9	0,0
	<i>zein</i>	52	40,4	28,8	9,6	7,7	13,5

2.9. taula. Erlatibizatzen den argumentua eta erlatiboak (IA, IO, aposatuak eta *zein*): testuz testu (ehunekotan).

Testua	Mota	Guzt.	S	A	O	L	Beste
Otxoa Arin	AP	25	48,0	48,0	4,0	0,0	0,0
	IO	7	71,4	14,3	14,3	0,0	0,0
	IA	185	31,9	10,8	45,9	10,3	1,1
	<i>zein</i>	51	27,5	11,8	0,0	25,5	35,3
Arzadun	AP	3	66,7	33,3	0,0	0,0	0,0
	IO	10	50,0	0,0	50,0	0,0	0,0
	IA	11	27,3	0,0	63,6	9,1	0,0
	<i>zein</i>	13	53,8	0,0	15,4	7,7	23,1
Elizalde	AP	3	33,3	66,7	0,0	0,0	0,0
	IO	1	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0
	IA	16	50,0	6,3	43,8	0,0	0,0
	<i>zein</i>	13	30,8	0,0	0,0	46,2	23,1
Haraneder	AP	29	37,9	44,8	13,8	3,4	0,0
	IO	23	78,3	17,4	4,3	0,0	0,0
	IA	68	42,6	8,8	23,5	23,5	1,5
	<i>zein</i>	66	18,2	48,5	7,6	16,7	9,1
Mikelestorena	AP	4	25,0	75,0	0,0	0,0	0,0
	IO	2	50,0	50,0	0,0	0,0	0,0
	IA	147	29,3	10,2	54,4	4,1	2,0
Maister	AP	12	50,0	41,7	8,3	0,0	0,0
	IO	65	55,4	24,6	20,0	0,0	0,0
	IA	127	38,6	7,9	48,0	5,5	0,0
	<i>zein</i>	70	25,7	34,3	7,1	14,3	18,6
Olaetxea	AP	1	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	IO	3	33,3	0,0	33,3	33,3	0,0
	IA	74	31,1	4,1	63,5	1,4	0,0
	<i>zein</i>	17	23,5	17,6	11,8	17,6	29,4
Ubillos	AP	5	60,0	40,0	0,0	0,0	0,0
	IO	5	40,0	60,0	0,0	0,0	0,0
	IA	221	26,7	14,0	37,1	5,4	16,7
Lizarraga	AP	82	31,7	32,9	34,1	0,0	1,2
	IO	45	28,9	6,7	64,4	0,0	0,0
	IA	68	44,1	0,0	36,8	19,1	0,0
	<i>zein</i>	97	13,4	14,4	5,2	30,9	36,1
Mogel	AP	9	44,4	33,3	22,2	0,0	0,0
	IO	24	12,5	45,8	33,3	0,0	8,3
	IA	66	13,6	12,1	60,6	10,6	3,0
	<i>zein</i>	5	40,0	40,0	20,0	0,0	0,0
Gerriko	AP	10	0,0	40,0	60,0	0,0	0,0
	IO	1	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	IA	141	28,4	11,3	59,6	0,7	0,0
	<i>zein</i>	2	50,0	0,0	0,0	50,0	0,0
Duhalde	AP	20	65,0	15,0	20,0	0,0	0,0
	IO	13	46,2	53,8	0,0	0,0	0,0
	IA	217	35,9	5,5	49,3	8,3	0,9
	<i>zein</i>	16	18,8	31,3	0,0	6,3	43,8

2.9. taula. Erlatibizatzen den argumentua eta erlatiboak (IA, IO, aposatuak eta *zein*): testuz testu (ehunekotan).

Testua	Mota	Guzt.	S	A	O	L	Beste
Fraibartolome	AP	11	27,3	36,4	36,4	0,0	0,0
	IA	168	49,4	10,1	32,7	7,1	0,6
	<i>zein</i>	7	57,1	0,0	0,0	42,9	0,0
DoktrErr	AP	1	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0
	IO	12	25,0	0,0	75,0	0,0	0,0
	IA	7	14,3	0,0	85,7	0,0	0,0
	<i>zein</i>	21	28,6	19,0	4,8	23,8	23,8
Hualde Mayo	AP	9	55,6	11,1	33,3	0,0	0,0
	IO	81	56,8	22,2	19,8	1,2	0,0
	IA	42	40,5	14,3	14,3	31,0	0,0
	<i>zein</i>	133	15,8	18,8	9,8	16,5	39,1
Intxauspe	AP	27	44,4	44,4	11,1	0,0	0,0
	IO	15	53,3	26,7	20,0	0,0	0,0
	IA	122	60,7	14,8	15,6	9,0	0,0
	<i>zein</i>	57	28,1	38,6	1,8	10,5	21,1
Mendigatxa	IO	43	18,6	7,0	69,8	4,7	0,0
	IA	33	21,2	0,0	51,5	27,3	0,0

2.2.2.2 Murrizgarritasuna

Jakina denez, euskarak ez ditu erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak gramatikalki bereizten, eta egitura bera erabiltzen da, murrizgarritasuna gorabehera (de Rijk 1998 [1972]: 139, Oyharçabal 1987: 192).

IOko erlatiboaren kasuan ez da gaia aztertu, hala ere. Argi dago, IAko erlatiboaren antzera, IOkoa erabil daitekeela erlatibo murrizgarriak (116) nahiz ez-murrizgarriak (117) ekoizteko:

- (116) a. Nork ere bada enzuten baititu ene hitz hauk, eta hek egiten, hura dut konparaturen *gizon zuhur* [bere etxea arroka gain batetan edifikatu duenarekin] (LeizTest)
- b. P. Ze frutu Zordeussagu amarrenari, eta premiziari, eta ceimbat. R. *Costumbre* [Obispaduan edo errian reziuituric dagoanagaz] conforme (Kap)
- c. Esan gure dau *christineu* [langoicoen gracion dagoanac] (VJ)
- d. Sacramentu bat da çoignec guiçonaren eta emaziaren artian *aliança* [saintu eta bethi iraing behar dian] bat eguiten beytu (Oloroe)
- e. Guisa berian perseguitu citzabein *Profeta* [ssen antzinetico izan zrenner] (Hualde)

- (117) a. ezen badakit *Iesus* [kruzifikatu izan denaren] bilha zabiltzatela (Leiz-Test)
- b. Vlertuagaz ondo *Mâdamentu*, [gordeco doguzanac], eta *Sacramentu*, [artuco doguzanac] (Kap)
- c. Sinhesten dut *Iainco* [aita bothere guztia duena], ceruaren eta lurraren eguilea baithan (Mat)
- d. Eztugu behar *khorpitz* [hiroquey den] bat maythatu, ez *goure edertarçun* [igaran behar diana] ppheretchatu (Oloroe)
- e. *Nire oe* [antxinako Eremutar, ta Padarrak gogor ta iguingarrijagorik euki ez ebeena] (Mogel)

2.10. taula. Erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak (ehunekotan).

Egitura	Guzt.	Murrizg.	Ez-murrizg.
IA	1611	97,8	2,2
IO	491	74,7	25,3

IAko erlatibo ez-murrizgarriak ez dira asko erabiltzen (nire corpusean % 2,2 bakarrik; begiratu 2.10. taula). IOkoak, aldiz, askoz maizago dira ez-murrizgarriak (% 25).²¹

Hala ere, aipatu behar da ez-murrizgarrien artean asko *Ginco aytá* [*pphote-re oro dianian*] edo *ene Aita* [*zeruetan denaren*] erakoak direla, eta horiek kenduz gero, ahuldu egiten dela IAko eta IOko erlatiboen arteko alde hori. Nolanahi ere, ez da ezinezkoa pentsatzea esapide horietan erlatiboa izenaren eskuinean dugula, IOko egitura garai batean erlatibo ez-murrizgarriak eratzeko erabiltzen zelako. Joera hori nabarmenagoa da Ipar EHko testuetan, zeinetan IOkoen % 37 ez-murrizgarria den (Hego EHn % 16 eta Erronkaribarren % 11).

2.2.2.3 Ardatzaren semantika

Aztertu dudan hurrengo ezaugarria erlatiboaren ardatzaren semantikari dagokio: biziduna ala bizigabea den.

Ardatzak bizidunak izaten dira IOko erlatiboetan maizago, IAkoetan baino. Testu guztiak kontuan hartuta, IOkoen % 37tan ardatza biziduna da, eta IAkoen % 18tan (2.11. taula). Hala ere, joera hori ez da oso nabarmena testu guztietan. Hego EHko testu gehienetan ez da betetzen. Kontrara, Ipar EHko egileek sarri erabiltzen dituzte IOko erlatiboak ardatza biziduna denean:

²¹ Testuetako adibide asko ez dira interpretatzen errazak, horrelakoak aparte utzi dira eta adibide argiak bakarrik hartu dira kontuan.

- (118) a. Bada *aniamalia* [adimendurik eztutenek] ere, behintzat erleek eta xinhaurriek, arrazoiñekin erranen derakute (Ax)
- b. *Populu* [ilhunbean zetzanak] argi handi ikusi ukan du (Leiz)
- c. Adoratzen zaitut *Iainko eta gizon* [sakramendu sindu hunetan erreal-ki eta dudarik gabe zarena] (Haranb)
- d. Zergatik Elizan *haur* [batheiatzen denak] egüz aita, eta egüz ama behar dütü? (Belap)

2.11. taula. Ardatzaren semantika IAko eta IOko erlatiboetan.

Eremua	Mota	Guztira	Bizidun	Bizigabe
IPAR	IA	248	14,5	85,5
	IO	227	51,5	48,5
HEGO	IA	238	21,8	78,2
	IO	141	26,2	73,8
ERR	IA	14	7,1	92,9
	IO	132	24,2	75,8
GUZTIAK	IA	500	17,8	82,2
	IO	500	37,2	62,8

2.2.2.4 Erlatibo hautsiak

IAko erlatiboaren artean egitura hautsien oso adibide gutxi dago. (119-a)-n, esaterako, postposizio-sintagma erlatiboaren ardatzaren atzetik dator. (119-b)-n, berriz, zeharkako objektua eta denborazko mendeko perpausa, erlatiboaren gainerako zatiekin batera joan behar dena, ardatzaren ostean agertzen dira. Horrelako perpausak oso urriak dira: aztertutako corpusean 14 adibide aurkitu ditut bakarrik (ezta ehuneko bat), horietatik sei Bizkaian eta lau Nafarroan (hots, IOko hautsien proportziorik handiena duten leku berberetan).

- (119) a. [egin direan] *pekatu guztiak* [atzerengo Konfesinorik] (Arz)
- b. *Ite Missa est, sinifiqueetan dau* [Christo gure iaunac esancituçan] *verbaac* [bere Aprostuai vidaldu cituçanean prediqueetâ Mundu guztiti] (Kap)

Askoz ere maizago aurkitzen ditugu IOko erlatibo hautsiak (120). Corpus osoan 79 adibide daude, IOko erlatiboaren % 14. Normalean “lekuz kanpo” dagoen zatia aditzaren atzetik kokatuta dago, baina buruaren aurretik ere ager daiteke (batez ere Erronkaribarren (120-i)-n bezala).

- (120) a. *ynformacione* [eguin duena] [agot oñaren eta bere lagunaren contra] (Ros)

- b. [gure errian] *gauza* [aconteçiçen direnez] (Ros)
- c. Itandu beguio bacoçac bere bioçari, contu eguiten dabela, dala *fiscal* [acusetan daben] *bat* [bere burua] (Kap)
- d. Persona alaco guztiac beardituez ostera confesadu, *pecatu* [confesadu ditueçan] guztiac [areanic ona] (Kap)
- e. [Orai Ebanjelioko, eta graziasko denbora ditzoso onetan ofrezizen diogun] *sakrifizioa* [Iaungoikoari] (BerM)
- f. [Jinkoak] *frütü* [debetatü zerionaren] iatia (Belap)
- g. *Donzella* [gelditu zenak] [peñan] kontatu zio Mariñelai (Lizarg)
- h. Tratatan du [abratsec] *dificultade* [deinaz] [bere salbacioniaren], eta aren amorioz gaiza guciuac renunciatan deinen premiumaz (Hualde)
- i. [Ardauntzian trabajatra] *obrero* [deitruc izan zrenen] parabola (Hualde)

Ez da kasualitatea (120)-ko adibide guztiak Hego EHkoak izatea. Izan ere, 2.12. taulan ikus daitekeenez, erlatibo hautsi gehien Erronkaribarko (adibide guztien % 30), Nafarroako (% 24) eta Bizkaiko (% 24) testuetan aurkitzen ditugu; Ipar EHn, aldiz, adibide bakan batzuk baino ez.

2.12. taula. Erlatibo hautsien proportzioak IOko erlatiboan (ehunekotan).

Eremua	IA	Hautsiak	IO	Hautsiak
NAF	390	1,0	80	23,8
BIZ	383	1,6	65	23,1
ERR	85	0,0	103	30,1
ZUB	586	0,3	131	2,3
GIP	547	0,2	13	0,0
LAP	857	0,0	124	0,8
ARAB	56	1,8	0	

Oyharçabalen (1987: 176-177) arabera, erlatibo libreetan perpaus hautsiak ohikoak dira. Ardatza agerian duten erlatiboetan ez bezala, egitura libreetan hitz-ordenaren murrizketa ez da hain sendoa, eta *etorri direnak etxera, kontent dira* motako perpausak guztiz gramatikalak dira. Oyharçabalek dioenez, erlatibo hautsiak ezinezkoak dira erlatiboaren determinatzailea *bat* edo *guzti* denean (**etorri diren batzu etxera* edo **etorri diren haiek etxera kontent dira*). Nik aztertutako testuetan IOko erlatiboetan, hala ere, aurkitzen ditugu horrelakoak (begiratu (120-c) eta (120-d) adibideak).

2.2.2.5 Perpausaren luzera

Oro har, IAko eta IOko erlatiboen artean ez dago alderik luzeran: IAko erlatiboek batez beste 3,7 hitz dituzte eta IOkoek 3,5.


Testuz testu begiratuta, bitan bakarrik aurkitzen dugu alde handiagoa (begiratu 2.13. taula): Duhalderenean (IA: 3,9 eta IO: 5,5) eta batez ere Mogelenean (IA: 3,7 eta IO: 6,4, (121)).

- (121) a. *buruko ule* [trenza gerriraño elduten jatana, ta zapi baga nun nai erabilli daikedana] (Mogel)
- b. Daukat Jangoikuak emonda *emazte otzan, baketsu*, [euli bati bere gaxik egingo ez leuskiona] (Mogel)


2.13. taula. IAko eta IOko perpaus erlatiboen luzera testuz testu. Erlatibo-mota bakoitzeko 10 adibide baino gehiago dituzten testuak zerrendatu dira.

Testua	Guzt.	IA	Guzt.	IO
Arzadun	11	3,2	10	3,0
Belapeire	114	4,2	22	3,0
Beriain	159	3,5	29	3,1
Duhalde	217	3,9	13	5,5
Haranburu	110	4,1	11	4,5
Haraneder	68	3,6	22	2,7
Hualde Mayo	42	3,2	81	3,5
Intxauspe	122	3,3	13	3,4
Kapanaga	49	3,5	25	3,2
Leizarraga	155	3,6	52	3,7
Lizarraga	68	2,9	45	2,6
Maister	127	3,5	64	3,5
Materra	152	4,1	13	4,2
Mendigatxa	33	2,8	43	2,2
Mogel	66	3,7	22	6,4
Oloroeko kat.	108	3,6	23	3,3

Hitz-kopuruen distribuzioa bi egituretan ere oso antzekoa da (2.1. irudia). Bietan gehien agertzen diren erlatiboek bi edo hiru hitz dituzte, IAkoen % 56k eta IOkoen % 61ek. Zenbat eta mendeko perpausa luzeago, orduan eta adibide gutxiago aurkitzen ditugu. Adibidez, sei hitzetik gora du IAkoen % 13k eta IOkoen % 12k. Hitz bateko perpausak ere oso urriak dira.



2.1. irudia. IAko eta IOko erlatiboan luzera. 1641 IAko erlatibo eta 514 IOko erlatibo aztertu ditut. Horregatik, biak konparatu ahal izateko, egitura bakoitzeko luzera jakin bat duten adibideen proportzioak adierazten dira irudian (adibidez, 4 hitz ditu IAko erlatibo guztien % 18k eta IOkoen % 15ek).



2.2. irudia. Hitz-kopuru bakoitzeko IAko eta IOko erlatiboan proportzioak (2155 erlatibo hartu dira kontuan, hitz bat dutenak 79 dira, 2 hitz: 907, 3: 991, 4: 630, 5: 357, 6-7: 338, 8-9: 92, eta >9: 51).

Hala ere, datuei beste era batera begiratuta, bi egituren artean alde txiki bat egon daiteke. 2.2. irudian ikus daiteke zenbat IAko eta zenbat IOko erlatibo dauden hitz-kopuru bakoitzeko. IOko erlatiboen proportzioa handiagoa da perpaus oso motzetan (hitz bat edo bi dutenetan) eta oso luzeetan (bederatzitik gorakoe-tan). Zehatzago, hitz bateko perpausetan, bi adibidetik bat IOkoa da; bi hitz dutenetan, heren bat. Erlatibo luzeagoetan askoz gutxiago dira IOkoak: hiru eta zazpi hitz artean dutenen kasuan IOkoak % 16-20 dira. Erlatiboa izenaren ondoan maizago agertzen da irudiaren aurkako muturrean ere, bederatzi hitz edo gehiago duten perpausen % 40 IOkoa baita. Emaidza esanguratsua da batez ere perpaus motzekin, halako asko baitaude eta testu gehienetan aurki daitezke (corpus osoan 213 adibide). Adibideei begiratuta (122), asko [ADJEKTIBOA *izan*] motakoak dira (*mortale dena*, *egiazko dana...*) edota [PARTIZIPIOA LAGUNTZAILEA].

(122) *aniamalia* [adimendurik eztutenek] (Ax), *khorpitz* [hiroguey den] *bat* (Oloroe), *goure arima* [hil eztaitianac] (Belap), *haur* [batheyatcen denac] (Belap), *eure Aita* [sekretuan dakusanak] (LeizTest), *Populu* [ilhunbean zetzanak] (LeizTest), *ardi* [artzainik eztutenak] (LeizTest), *suzko estang* [sufrez zaxekan] *batetara* (LeizTest), *confesiño* [eguin citueçan] *guztiac* (Kap), *haren buruçagui* [ikusten eztena] (Mat), *bertceren bekatu* [uquitcen gaituztenac] (Mat), *bekatu* [mortale dena] (BerM), *miserikordia*, *eta ondasun* [duzunagatik] (BerM), *iri* [entzutan zabeinec] (Hualde), *zati* [sobratu zrenetaz] (Hualde), *gaiza* [igaraiten diren] *eli batez* (Mst), *azkartarzün* [hun denik] (Mst), *konzienziako examina* [bear dana] (Arz), *amore* [digunagatik] (Lizarg), *milagro* [egin zituenak] (Lizarg), *Elizaren buru* [agiri dana] (Ubill), *Jaungoiko* [egiazko dana] (Gerriko), *izen* [neuk eztakidazanak] (Mogel)

Luzeen kasuan, aldiz, adibide gutxi dugunez, tentuz hartu behar dela uste dut. Arestian esandakoarekin bat dator datu hori, hala ere: badirudi XIX. mendeko egileek erlatibo luzeak izenaren ostean jartzeko joera bat dutela. Halere, XIX. mendeko testu gutxiegi aztertu ditut kontu orokorra den jakiteko, baina ez da ezinezkoa momentu batetik aurrera IOko egitura perpaus luzeak erlatibizatzeke espezializatzea. Egileen hautu estilistiko bat ere izan daiteke (kasualitatea izatea ere ezan da baztertu). Datu gehiago beharko lirarteke erabakitzeko.

IAko eta IOko erlatiboek perpaus nagusiaren bukaeran agertzeko joera argia dute (123): horrela da aztertutako adibideen erdietan baino gehiagotan, 2.14. taulan ikus daitekeen bezala.²² IOkoen kasuan zertxobait nabarmenagoa dirudi joera horrek: IOkoen % 67 doa amaieran eta IAkoen % 56. Ohikoa da, halaber,

²² Ezaugarri honetan IAko eta IOko perpausen ausaz aukeratutako lagin bat bakarrik aztertu da.

perpausaren hasieran aurkitzea (% 30 inguru), (124)-n bezala. Askoz gutxiagotan erlatiboa perpausaren erdian doa (125).

- (123) a. Çoing dira letcione hontaric [idoki behar diren] *profeytiac*? (Oloroe)
 b. Konparatu da zeruetako resuma, *mustarda bihi* [gizon batek harturik bere landan erein duenarekin] (LeizTest)
- (124) a. Eta huna, [hamabi urthez odol iariatzez eri zen] *emazte batek* gibeletik ethorririk hunki zezan haren abillamendu ezpaina (LeizTest)
 b. *Intenzio* [eramo bear dena] [Meza enzutera doaienean] (BerM)
- (125) a. baina xakurrek ere [bere nabusien mahainetik erorten diraden] *apurrretarik* iaten die (LeizTest)
 b. Eztugu behar *khorpitz* [hiroquey den] *bat* maythatu, *ez goure edertarçun* [igaran behar diana] ppheretchatu (Oloroe)

2.14. taula. IAko eta IOko erlatiboen posizioa perpaus nagusian (ehunekotan).

Mota	Guztira	Hasieran	Erdian	Bukaeran
IA	478	35,8	8,2	56,1
IO	198	29,8	3,0	67,2

2.2.3 IAko eta IOko erlatiboak: ondorioak

Nire lehenengo helburua izan da testu zaharretan agertzen diren IOko erlatiboak biltzea eta deskribatzea, azterketa hori ezinbestekoa baita perpaus erlatiboen historian aurreratzeko. Testuetako datuak aurkeztu ondoren, atal honetan emaitzak interpretatzen saiatuko naiz.

Ondorio inportanteenetako bat da IOko erlatiboa ez zela oso noizbehinka eta testu gutxitan agertzen zen bitxikeria, agerpen-kopuruagatik bakarrik arreta mezezi duen egitura baizik. Ugari dira IOko egitura lekukotzen duten testuak, eta testu askotan erlatiboen proportzio handi bat izenaren ostean doa, % 20tik gora testu hauetan: Kapanaga, Arzadun, Mogel, Leizarraga, Haraneder, Maister, Lizarraga eta Erronkaribarko testu guztiak.

Ikusi dugun bezala, testuen artean maiztasunean aldeak nabarmenak dira (eta batzuetan denboran eta espazioan nahiko hurbil dauden testuen artean). Dirudieenez, beraz, zenbaki hutsak ez dira oso fidagarriak, eta IOko gehien duten testuak arreta handiz begiratu behar dira garai eta leku bateko hizkeraren ezaugarriak eta egitura horren erabilera bultzatzen bestelako faktore batzuk ahal den neurrian bereizteko.

Kontuan hartu behar den lehenengo faktorea testu-generoa dela uste dut. Leizarragaren kasuan, nahiz eta bere testu guztiak erlijiozkoak izan, erlatiboen erabilerari dagokionez, ez dira berdinak Bibliaren itzulpenak eta beste helburu batekin eta dirudienez estilo apur bat askeago batean idatzitako *ABC* liburua. Antzeko zerbait gertatzen da mende batzuk geroagoko Intxauspereen itzulpenetan: Biblian askoz gehiago erabili zuen IOko erlatiboa elkarrizketetan baino. Badirudi, beraz, IOko erlatiboak estilo jasokoak-edo zirela, idazle horientzat bederen. Nolanahi ere, gauzak gehiago korapilatzeko, kontrako adibiderik ere bada: maila apalagoko testu askoz ere gutxiago daukagu, baina horrelakoetan ere aurki daitezke IOko egituraren adibide batzuk: Donostiako gutunetan edo Jean de Peruskiren gutunean. Horren harira, Zuberoa-Erronkari arteko gutunak ere aipatu behar dira. Horiek, hala ere, ez dira gutun pribatuak, ofizialak baizik, eta askotan erdaraz sortzen ziren administrazio-agirien kutsua dutela dirudi.

Generoarekin lotuta, testua itzulpena denean (eta euskarazko testu zaharren artean testu orijinalak ez dira larregi), gerta daiteke itzultzaileak jatorrizko testuarekiko “fidelegia” izatea eta baliabide gramatikal markatuak ohi baino gehiago erabiltzea. Horrek ez du esan nahi euskarazko IOko erlatiboak inguruko hizkuntzek dituzten egituren kalkoak direnik. Kasu horretan beste hizkuntzarekiko ukipenaren eragina zeharkakoa da: hizkuntzan existitzen den (baina ez nahitaez oso ohikoa den) egitura baten maiztasuna igotzea dakar. Bi testuekin —Leizarragaren San Mateo eta Kapanagaren dotrina— erkatu ditut orijinala eta euskarazko itzulpena. Kapanagaren, esaterako, IAko erlatiboak IOkoak baino ugariagoak izan arren, kasu askotan, testua jatorrizkoarekin konparatzean, ikusten da euskarazko testuak gaztelaniaren hitz-hurrenkera berbera duela. Eta ez da perpaus erlatiboengatik bakarrik, genitiboak eta *-ko* atzizkia duten sintagmak ere izenaren ostean jartzen baititu Kapanagak.

Bestalde, euskarazko adjektiboen inbentario murriztua dela eta, erdarazko adjektiboak IOko erlatiboen bidez euskaratzen zituzten idazleek askotan. Argi ikusten da hori testua itzulpena denean (Leizarraga, Landucci eta Kapanaga, esaterako), baina beste kasu batzuetan ere susma daiteke erdarazko adjektiboek bazutela zerikusia erlatiboaren eskuineko kokapenarekin. Adibidez, askotan agertzen den *behar dena* erlatiboaren azpian *necesario* edo antzeko adjektiboa egon daiteke. Erlijio-hiztegian ere nabaria da: *todopoderoso* edo *celeste* motakoak esateko IOko erlatiboak askotan erabiltzen ziren (*Aita zeruetan dena* edo *Aita podere guztia duena*) eta, dirudienez, esamolde (erdi-)ihartu bihurtu ziren erlatibo horiek azkenean. Testu batzuetan (Haranederrengan, esaterako) horrelakoak kenduz gero maiztasuna jaisten da, eta, batzuetan, asko.

Datuei beste era batera begiratuta, kasu batzuetan behintzat, IOko erlatiboa maiz agertu zaigu erromantzeak eragin inportantea zuen lekuetan, hiri handietako lekukotasunetan (Gasteizen Landucci, Bilbon Mikoleta, Donostiako gutuneko adibide bakarra, baina interesgarria) eta euskara galtzen ari zen eremu batzuetan: XIX. eta XX. mendeko Erronkaribarren eta Aiaraldean. Ez da ezinezkoa eremu horietan egoera linguistikoak hiztunak erdararekiko antzekotasun gehiago duen egitura bat erabiltzera bultzatu izana.

Diakroniara pasaturik, testuen urritasunak batetik, eta aztergai den egituraren izaerak bestalde —erlatiboak maiztasun gutxikoak dira berez, ez baitute derrigor agertu behar—, zail bihurtzen dute datuen interpretazioa. IOko erlatiboa bizirik zegoen (eta leku batzuetan bizirik dago oraindik), inolako dudarik gabe, Euskal Herriaren ipar-ekialdean. IOko erlatiboen maiztasuna nahiko koherentea da testuz testu, eta egileen arteko aldeak ez dira oso handiak. Zuberoan eta Erronkaribarren IOkoen maiztasuna altua da; Lapurdin baxuagoa, baina IOkoa sistematikoki agertzen da testu guztietan. Nafarroako testuekin arazo gehiago daude, baina lekukotasunak ez dira falta. Gutxien erabili ziren Gipuzkoan. Araban Landucciren adibide batzuk eta Lazarragaren bakarra dauzkagu bakarrik. Bizkaian egile askok erabili bazuten ere (batez ere XVII. mendean), testu batzuetan ez dira lekukotzen eta egileen arteko aldeak handi samarrak dira.

Lehen begi-kolpean, daukagun testu zaharrenetatik hasita lekukotuta daude IOko erlatiboak: Etxeparerengan zaharrenak, Leizarragarengan asko eta XVI. mendeko beste hainbat testutan (Arabian Landucci eta Lazarraga; Nafarroan ere adibide batzuk). Mendebaldeko datuak, hala ere, arazotsuak dira. Araban Landucciren lekukotasuna oso berezia da, eta harrigarria da Lazarragaren eskuizkribuan adibide bat bakarrik egotea. Bizkaian XVII. mendearen erdialdera arte ez dira agertzen. Nabarmenezkoa da batez ere *RS*-n ez agertzea: horko hizkerak ez badu islatzen XVI. mendeko hizkuntza-egoera, lehenagoko bat baizik (XV. mendekoa edo), IOko egiturarik ez egotea are esanguratsuagoa da. Pentsa daiteke, jakina, XVII. mendearen erdira arte lekukotu ez izanaren arrazoia datuen urritasuna dela, baina beste azalpen bat ere ezin da baztertu: garai hartan ez zirela erabiltzen, alegia.

Testu berriagoetan aurkitzen dugun egoerak ere interesa du. XVI. eta XIX. mendeen bitartean ipar-ekialdean IOkoen maiztasuna zertxobait jaisten bada ere, IOkoak mantentzen dira, nahiz eta IAko erlatiboak nagusitu. Erronkaribarren kasuan, IOkoen erabilera mantentzen da. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, IOkoen lekukotasunak gutxituz doaz. XIX. mendearen hasieran oraindik aurki daitezke, baina ez aurreko mendean bezain erraz. Oro har, beraz, ipar-ekialdeko hizkeretan

XX. mendera arte erabiltzen ziren (eta gaur egungo hizkera batzuetan ere entzun daitezke, markatuak badira ere). Mendebaldean eta erdialdean, aldiz, XVII. eta XVIII. mendeetan lortu zuten posizioa galtzen dute IOkoek. Hizkuntza idatzitik desagertzea gramatikarien gutxiespenarekin lot daiteke agian (Larramendi lehenengoan izan zen, gero Añibarrok eta beste batzuek iritzi bera errepikatu zuten), baina ahozko hizkuntzatik desagertzea beste era batera azaldu beharko da. Azken puntu horrek, hala ere, ikerketa gehiago merezi du: Bizkaian egindako ikerketa dialektologiko batzuetan ahozko hizkeran IOko egituraren adibide batzuk jaso baitira (Zuloaga prestatzen).

IOko erlatiboaren erabilera oso zabaldua zegoen, beraz, dialekto guztietan aurkitzen baita. Hala ere, xehetasunetan sartuta, atal honetan bildu diren adibi-deak interpretatzea ez da beti erraza: kontraesan asko daude eta maiztasunean ikusi ditugun aldeak ulertzeko azalpen posible gehiegi daude (estiloa, erromantzeen eragina, jatorrizko testuaren eragina...). Orokortze batzuk ematen saiatu naiz, baina agian beste metodo batzuk beharko genituzke egitura horren erabilera hobeto ulertzeko. Alderdi soziolinguistikoak sakonago ikertu beharko lirateke, beharbada: hemen ideia batzuk baino ez ditut gehiegi sakondu gabe aipatu: adibidez, badirudi hiriko hizkeretan IOko egiturak maiztasun handiagoa zuela. Testu zaharretako sintaxian itzulpenaren prozesuak izan dezakeen eraginaren azterketa ere egiteko dugu euskal hizkuntzalaritzan (itzulpenaren teoria kontuan hartuz); hemen (eta tesi honen beste atal batzuetan) saiakera bat baino ez dut egin. Azkenik, gehiegi aipatu ez dudana beste alderdi bat ere badago: testuen alderdi estilistikoak. Dударik gabe, antzekoak diren bi egituren artean egilearen hautuan horiek izan dezakete eragina, eragin hori zehaztea oso zaila bada ere. Tesi honetan, hala ere, alde batera utzi ditut estiloaren arazoa, gramatikaren ikerketa literaturarena baino hurbilago dudalako.

Beraz atal honen lehen ondorio nagusia da IOko erlatiboa testu zaharretan asko ageri arren, bildutako datuekin ezin dugula berretsi Martínez-Aretak (2011: 361) esandakoa: “zenbat eta atzerago goazen testu tradizioan, orduan eta sarriago agertzen zaizkigu honelako egiturak, NG [izena-genitiboa] zein NRel [izena-erlatiboa] motakoak”. Egia da XVI. mendean gehiago direla IOko erlatiboak XIX. mendean baino, baina XVI. eta XVIII. mendeak konparatuta, irudia askoz ere konplexuagoa da. Gainera, XVI. mendeko lekukotasun garrantzitsu batzuetan ez dugu egitura aurkitzen. Zaharragoa zein den auziari irtenbide proposatzeko, beraz, beste metodo batzuk behar dira. Horiek hurrengo kapituluaren gaietako bat izango dira.

Bigarren ondorioa hau da: ezaugarri gramatikalei begira, IOko erlatiboa ez zen IAKoaren ispilu-irudi hutsa, hainbat ezaugarritan urruntzen baitziren bi erlatibo horiek. Gainera, emaitzak aski koherenteak dira: testuen kontu estilistikoak, egile batzuen bitxikeriak eta, oro har, testuen fidagarritasuna gorabehera, ez dirudi IOko erlatiboa idazleek asmatutako baliabide artifiziala zenik, IAKo erlatiboaren pareko egitura gramatikala baizik. Horren froga testuz testu errepi-
katzen diren hainbat ezaugarri gramatikak direla uste dut, ez baita posible joera horiek kasualitatea izatea. Hauek dira, zehazki, ezaugarri gramatikalen azterketaren emaitza garrantzitsuenak:

- (i) Erlatibiza daitezkeen argumentuei dagokienez, IOko eta IAKo erlatiboak ez dira guztiz berdinak: (a) absolutiboa eta ergatiboa ez beste kasuak eta postposizioak IAKo egituran arruntak dira, baina IOkoan gutxi agertzen dira (eta bakarrik eremu batzuetan: Bizkaian, Nafarroan eta Erronkaribarren), (b) IOkoaren bidez subjektu iragankorra erlatibizatzeke joera dago.
- (ii) Erlatibo gehien murrizgarriak dira bi egituretan, baina badirudi IOkoak IAKoak baino maizago direla ez-murrizgarriak.
- (iii) Ardatz bizidunak IOko erlatiboan aurkitzen ditugu gehiago IAKoetan baino.
- (iv) IOko erlatibo hautsiak arruntak dira Bizkaian, Nafarroan eta Erronkaribarren, baina ez gainerako eremuetan. IAKo erlatiboak oso gutxitan dira hautsiak, baina, izatekotan, aipatu diren eremu berberetan.
- (v) Luzerari dagokionez, ez dago alde handirik bi egituren artean: IAKoan 3,5 hitz agertzen dira batez beste, eta IOkoan 3,7. Hala ere, IOko egitura erlatibo oso motzekin (1-2 hitz) edo oso luzeekin (9tik gora) IAKoa baino zertxobait gehiago erabiltzen da.

Hurrengo atalak erlatibo aposatuak lantzen ditu, eta ikusiko dugu IOko erlatiboek eta aposatuek antza dutela ezaugarri batzuetan. Emaitza hori garrantzitsua izango da proposatzeko bien artean lotura diakronikoa dagoela.

2.3 Erлатibo aposatuak

Atal honen helburua erlatibo aposatuak aztertzea da. Ahal denean, IA/IOko erlatiboekin konparatuko dira aposatuen ezaugarri bereziak hobeto ikusteko, batetik, eta IOkoen eta aposatuen antzekotasunak seinalatzeko, bestalde.

Hasteko, azaldu behar dut nolako perpausak hartzen ditudan aposatutzat. Oyharçabalek (2003) ardatzik gabeko erlatiboen hainbat klase bereizten ditu:

- (i) Ardatza ezabatu arren, testuinguruak argi uzten du zein den (*Oraintxe sartu dena nire laguna da*).
- (ii) Erlatibo generikoak (*Ez dakienak dakitenei galda bieziaie*).
- (iii) Predikatuak diren erlatiboak (*Liburu hau da lagunek iaz eskaini zidatena*).
- (iv) Erlatibo aposatuak.
- (v) Erlatibo extraposatuak.
- (vi) Esaldi osoa modifikatzen duten erlatiboak (*Zozotzat hartzen nau, gustatzen ez zaidana*). Oyharçabalek dioenez hiztun guztiek ez dituzte horiek onartzen.

Oyharçabalen arabera, erlatibo aposatuetan IS mugatu bati ardatzik gabeko erlatibo bat eransten zaio (126). IAko eta IOko egituretan ez bezala, beraz, erlatibo eta horrek modifikatzen duen IS ez daude sintagma berean. Elkarren ondoan daude eta bien artean ezin da beste hitzik sartu. Erlatiboak eta ISk kasu-marka berbera dute normalean: (126-a)-n absolutiboa eta (126-b) ergatiboa.

- (126) a. Baldin *presenteko denbora haur*, [orai eskuen artean duguna,] enplegatzen ezpadugu ongi (Ax)
- b. Baiña *zuk*, [Iainkoa miseriakordios dela diozunorrek], aditu behar dituzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere (Ax)

Erlatibo extraposatuak, Oyharçabalen definizioaren arabera, esaldiaren bukaeran doaz. Ez dute modifikatzen duten ISren ondoan egon behar, hau da, tartean hitz batzuk egon daitezke (127-a). Absolutiboa edo partitiboa dute beti erlatibo horiek eta absolutiboan edo partitiboan doan IS modifikatzen dute: (127-a) edo (127-b). Izenak beste kasu-marka bat badarama, zaila da erlatibo extraposatu bat eraikitzea (Oyharçabal 1987: 183), (127-c)-n ikusten den moduan. Aposatuen eta extraposatuen arteko alderik inportanteena, Oyharçabalen iritziz, hau da, hain zuzen: aposatuetan estraposatuetan baino kasu-marka gehiago ager daitezke.

- (127) a. *Zerbeit* gertatu zitzaien orduantxe [ederki lotsatu zituena] (Oyharçabal 2003: 806)

- b. Eta ez dut uste baden *emazterik* [ezetz ihardetsiko didanik] (Oyharçabal 2003: 806)
- c. ?*gizon batekin* joan nintzen, [bidea ongi ezagutzen zuena / zuenarekin] (Oyharçabal 2003: 806)

Hemen batera aztertuko ditut aposatuak eta extraposatuak. Izan ere, Oyharçabalen sailkapena ez da guztiz garbia. Argi dago perpausaren bukaeran ez daudenak aposatuak direla, eta IS eta erlatiboa elkarren ondoan ez daudenean eta perpausaren bukaeran agertzen direnak extraposatuak direla. Erlatiboa ISri zuzenean eransten zaionean eta biak amaieran doazenean zalantza egin daiteke, aldiz, aposatutzat (bi zatien artean beste osagairik ez dagoelako) ala extraposatutzat (bukaeran daudelako) hartu behar den, ondoko adibide hauetan bezala:

- (128) a. Mezan daukagun presentean *Iaungoikoaren Semea* [gizon egin zena] (BerM)
- b. Certaco dira *Espiritu Sainduaren çazpi dohaiñac* [lehembicico partean eçarriac direnac]? (Mat)

Horregatik ez dut aposatuen eta extraposatuen artean bereizketarik egingo, eta hemendik aurrera “aposatu” terminoa biei erreferentzia egiteko erabiliko dut.

Tesi honetan, beraz, erlatibo aposatuak honela ulertzen ditut: egitura horretan IS mugatu bat erlatibo libre batek modifikatzen du, bi sintagma horiek elkarren ondoan egon ala ez, eta perpaus nagusian bi sintagmek duten posizioa ere kontuan hartu gabe.

Hala ere, Oyharçabalek aipatzen dituen egitura horien ezaugarriak kontuan hartuko ditut azterketan. Hasteko, ardatzaren eta erlatiboaren posizioa perpaus nagusian (bukaeran dagoen ala ez) aztertuko dut, eta bi sintagma elkarren ondoan ala banatuta agertzen diren ere begiratuko dut. Gero, sintagmek dituzten kasu-atzizkiak (absolutiboa/partitiboa ala beste bat) deskribatuko ditut. Aposatuek egitura erdi-finko batzuetan agertzeko joera dutenez, perpaus horiek deskribatuko ditut ondoren. Gai horiek ikusita, IAko eta IOko erlatiboen kasuan aztertu ditudan ezaugarriak hartuko ditut hizpide hemen ere: maiztasuna, erlatibizatzen diren argumentuak, murrizgarritasuna, ardatzaren semantika, erlatibo hautsiak eta perpausen luzera.

2.3.1 Posizioa perpaus nagusian

Erlatibo aposatuek perpaus nagusiaren bukaeran agertzeko joera dute (2.15. taula): aztertutakoen %78 azken posizioan doa (129). Askoz gutxiago aurkitzen ditugu ardatza eta erlatiboa perpausaren hasieran (130), eta gutxien, erdian (131).

IA/IOko erlatiboekin konparatuta, bukaeran agertzen diren erlatibo aposatuen proportzioa handiagoa da.

- (129) a. Haur da *sacrificatçaille eternala*, [baquezco sacrificioa Calvarioco mendian oferendatu derautçuna] (Mat)
 b. Eskribitu ote deban *bersorik, edo paperik* [afizio torpea aditzera ematen debanik] (OA)
 c. Badira *demborac eta harouac* [igaraitera utzi behar ez tirenac] (Intxpe)
- (130) *Ethorkizuneko gauzak*, [fortunaren eskuan eta benturan daudezinak], nahi ditutzu oraidanik gobernatu (Ax)
- (131) Orduan ioan izan da *hamabietarik bat* [Iudas Iskariot deitzen zena] Sakrifikadore prinzipaletara (LeizTest)

2.15. taula. IA/IOko erlatiboen eta erlatibo aposatuen posizioa perpaus nagusian (ehunekotan).

Mota	Guztira	Hasieran	Erdian	Bukaeran
AP	395	17,5	4,8	77,7
IA	478	35,8	8,2	56,1
IO	198	29,8	3,0	67,2

Gehienetan erlatiboa ardatzaren eskuinean agertzen da, tartean beste hitzik egon gabe. Nik aztertutako testuetan 26 adibidetan bakarrik (406tik, % 6) banatzen dituzte beste hitz batzuek ardatza eta erlatiboa (132). Tartean agertzen den zatia sinplea izan ohi da (aditza eta/edo osagarri bat), normalean hitz batekoa edo bikoia.

- (132) a. Eta beha nezan, eta huna hodei xuri bat: eta hodei gainean *norbeit* zegoen iarririk [gizona irudi zuenik] (LeizTest)
 b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)
 c. Eta guztien buruan ikhas ahal dezakegu eta athera hunetarik, *erhoke-ria handia* dela, [guk geure buruan daramaguna], eta erraiten duguna (Ax)
 d. Razoe orregatik, bada, dago obligaturik penitentea zirkunstantzia ori, eta *onelako zirkunstantzia moeta guziak* konfesatzera [edozeinereko beste pekatu moetan arkitzen diranak] (OA)

2.3.2 Kasu-komunztadura

Erlatibo aposatuak gehienetan absolutiboan dagoen ISei lotzen zaizkie eta halakoetan erlatiboa ere absolutiboan doa. Beste kasu-marka bat baldin badu ardatzak, ohikoena da marka bera erlatiboari ere eranstea:

- (133) a. Egun hartan ethor zitezen harengana *Saduzeuak*, [resurrektionerik ezteela dioitenak], eta interroga zezaten (LeizTest)
- b. Baiña *zuk*, [Iainkoa miserikordios dela diozunorrek], aditu behar dituzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere (Ax)
- c. Ezta *maliziarik* eta ez *pensu gaixtorik*, [presuna alferrean ediren eztekeienik] (Ax)

Corpusetik ateratako adibideen artean gehien-gehienetan —adibideen % 86— ardatza eta erlatiboa absolutiboan doaz (2.16. taula), baina posible da bietan aurkitzea ergatiboa, partitiboa eta, gutxiago, beste hainbat marka ere.

2.16. taula. Ardatzean eta erlatibo aposatuan ageri diren markak (adibideen kopuruak eman dira).

Markak	Adibideak
ABS-ABS	389
PART-PART	19
ABS-PART	17
ERG-ERG	13
DAT-DAT	3
INES-INES	2
KOM-KOM	2
INS-INS	1
GEN-GEN	1
ABL-ABL	1
PART-ABS	1

Kasu berezia da absolutibo-partitibo konbinazioa:

- (134) a. Eta handik iragaiten zela Iesusek ikus zezan *gizon bat* peaje lekuan iarria [Mattheu deitzen zenik] (LeizTest)
- b. Nor izanen da zuetarik *gizona*, [ardi bat duenik]: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen ezтуena? (Leiz-Test)
- c. Othe lizateke *nehor* ere, [heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik]? (Ax)

- d. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)

Adibide gehien Leizarragak ditu (17tik 13), eta adibide bana Materrak, Axularrek, Beriainek eta Gerrikok. Behin partitibo-absolutibo bikote nahiko bitxia ageri da; zehatzago, Kapanagaren testuan:

- (135) Bere conuersaciño, edo platiqueetan esan cebeique *burlaco berbaric*, [besterenbat mindu, edo aserratu daiana] (Kap)

Gaur egungo testuetan kasu-marka ezberdina duten adibideak aurki daitezke. Oyharçabalen (1987: 184) arabera, horrelako adibideen artean ohikoena da ardatza ergatiboan eta erlatiboa absolutiboan egotea: *Gure Jainkoak, [beti xuxen dabilena], ongi gidatzen baitu*. Oyharçabalek dioenez, erlatibo aposatuak koma-arte bezala tratatzeko joera dago, eta horregatik falta da kasu-komuntadura. Rebuschik (2003: 468) esaten du komuntadura ez dela nahitaezkoa, baina ematen dituen adibideak XX. mendekoak dira. Nik aztertutako testuetan ez da komuntadura gabeko adibiderik ageri.

2.3.3 Aposatuak noiz erabiltzen diren

Corpusetik ateratako adibideak aztertuta, argi ikusten da erlatibo aposatua askotan egitura (erdi-)finko batzuetan erabiltzen dela. Esan daiteke egitura horren ezaugarri berezia dela: IAKo erlatiboak ez-markatuak dira, eta edozein testuingurutan dira egokiak, baina aposatuak agertzen diren testuinguruak murriztagoak dira. Badirudi diskurtsoaren antolaketarekin lotu behar dela erlatibo horien erabilera, eta lotura horiek deskribatzen ahaleginduko naiz. Hala ere, gaiak ikerketa sakonagoa behar lukeelakoan nago: ahozko hizkuntza kontuan hartzea beharrezkoa iruditzen zait eta, bestalde, euskarazko diskurtsoaren antolaketa edo informazio-jarioa ere ez dago behar bezala aztertuta (batez ere ikuspuntu diakronikotik).

Cid Abasoloren (1987) ikerketa aipatzekoa iruditzen zait hemen, erlatibo aposatuak (bere terminologian “pseudo-extraposizioa”) egitura batzuetan oso ohikoak direla ohartu baitzen, gehienbat *izan* edo *egon* duten perpaus existentzietan. Testuinguru hauek aipatzen ditu:

- *Zenbat, nor* eta antzeko galdetzaileak dituzten galderak: adibidez, Etxepareren *Nor da guiçon modorroa harçaz orhit eztena?*
- Beste zehaztugabeekin (*bat, asko, zenbait, zenbakiak...*): *Gorbeian artzain bat bizi zen Fernando zeritzana*.
- Ardatz plural murriztaileekin: *Baziren egunak bi litro edandakoak*.

- Ezezko existentzialetan: *Ez dago gizonik egia dionik, Ez dago inor egia dionik* edo *Ez dago egia dionik*.

Erlatibo horien erabilera ez da perpaus existentzialetara mugatzen, hala ere. Cid Abasolok (1987: 625) dioenez: “Baina oker geundeke pseudo-extraposizioa perpaus existentzialetara mugatzen dela pentsatuko bagenu. Perpaus horiekin askoz maizago erabiltzen da, hori bai, baina aditz nagusia edozein dela egin dezakegu pseudoextraposizioa”. Halere, aposatuak eta perpaus erlatibo arruntak guztiz berdinak ez direlako susmoa adierazten du Cid Abasolok, semantika nolabait aldatzen delako. Azterketa sakonagoa beharrezkoa dela esanez amaitzen du, baina bien arteko alde bat murrizgarritasuna izan daitekeela iradokitzen du, aposatuak ez-murrizgarriak izaten baitira.

Jarraian, nire corpusetik ateratako adibideen artean askotan errepikatzen diren egitura-mota batzuk deskribatzen saiatuko naiz. Cid Abasolok (1987) aipatutako existentziaz gain, beste perpaus-mota batzuk ere bereiziko ditut.

Hasteko, erakusleak edo *horra* motako adberbioak dituzten perpaus presentzialak ditugu, gehienetan [HORRA X, ... DENA] edo [HORI DA X, ... DENA] motakoak (136). Nahiz eta bi perpaus —perpaus nagusiaz, “aurkezleaz”, eta erlatiboaz— osatuak izan, proposizio bat adierazten da normalean. (136-b)-n, esaterako, esaten dena hau da funtsean: “Sakrifikatzaile eternalak bakezko sakrifizioa Kalbarioko mendian oferendatu derautzu”. Egitura horren funtzioa diskurtsoan erreferente berria sartzea dela dirudi (perpaus nagusiaren bidez), eta horren ezaugarri bat ematea (erlatiboan).

- (136) a. Haur da *bentura ona*, [ethorkizuneko bentura gaixtotik eta periletik begiratzen gaituena] (Ax)
- b. Haur da *sacrificatçaille eternala*, [baquezco sacrificioa Calvarioco mendian oferendatu derautçuna] (Mat)
- c. huna hek eta *bertze bortz* [irabazi izan ditudanak] (Harand)
- d. Hoiak dütüzüla *zelia eta lürra* [gizonaren zerbützüko kreatü dütüzünak], prest beitaude, eta egün oroz egiten beitie, zük manü emaiten deiezüna (Mst)
- e. Haur nüzüla *zure zerbütxaria*, [orotara prest nizana, nihauren bizitzerik zuretako baizik] (Mst)
- f. Eta *orra* [konsiderazio gai bat], [beti gogoan erabili bear deguna]: lau puntu oek iñoiz ere aztu bage (Gerriko)

Bigarren mota perpaus existentzialak dira (137). Eskematikoki honela adieraz daitezke: [BADA / BAZEN X, ... DENA / DENIK]. Gehienak *izan* aditzarekin eraikitzen dira. Ohikoa da ardatzean kuantifikatzaile eta zenbatzaile bat agertzea.

- (137) a. Othe lizateke *nehor* ere, [heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik]? (Ax)
- b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)
- c. Báda *beste tinta gorri bat* [oráno ederrágo déna] (Intxpe)
- d. Danen kasta galdubari ezarri eutsan Jaungoikuak maldezinoia: su-giak legez edo sierpiak legez pausu egiteko ta ibilteko. Bada, munduban bada *giza kastarik* [sugia legez dabilenic]: dantzaarijak dira (frBart)

Ingelesezko perpaus existentzialen (*There is a dog in the garden*) funtzioari dagokionez, “From a discourse point of view, the primary function of such clauses is apparently to introduce into the discourse a participant that is new to the hearer” (Dryer 2007: 241). Perpaus existentzialari perpaus erlatiboa gehitzen zaionean, mendeko perpausaren zeregina da diskurtsoan sartzten den erreferente berri hori lehenago esandakoarekin lotzea (Fox & Thompson 1990: 309).

Euskaraz antzeko zerbait dugula esan daiteke. (137-c) harturik, perpaus nagusian erreferente berri bat ezartzen da (*beste tinta gorri bat*). Beharrezkoa da, halere, aurretik esandakoarekin lotura egitea, eta funtzio hori, hain zuzen, du mendeko perpausak (*oráno ederrágo déna*, hau da, lehenago beste tinta eder bat aipatu da eta harekin konparatzeko esaten zaio hartzaileari). (137-d) adibidean antzekoa gertatzen da: erlatibo aposatuak zubia egiten du aipatutakoarekin.

Mota horren aldaera ezezko perpaus existentzialak dira (138). [EZ DA X-IK, ... DENIK] eskema duten perpaus horietan ez da erreferente berri bat sartzten, erreferente (klase) baten existentzia eza adierazi baizik.

- (138) a. Ehon ere *gaitzik* ezta [zuk khien eztirozunik] (Etxep)
- b. Ezta *gachic* / [aldia ez daroceanic] (RS)
- c. Ezta *maliziarik* eta ez *pensu gaixtorik*, [presuna alferrean ediren eztekeienik] (Ax)
- d. Norekin duzu egiteko esta *merkataririk* [hiri honetan nik ongi ezahutzen estudenik] (Volt)
- e. hanbatetarano non ezpaitzen *populurik ez rejionerik* [on irudi zaionaren araura Iainko berririk egiten etzuenik] (LeizTest)

Hurrengo perpaus-motari “definitzailea” dei dakioke. Horren eskema askotan da [X BAT, ... DENA]. Ardatzak artikulatu zehaztugabea darama eta erlatiboaren bidez ardatzaren erreferentea ezaugarritzen da. Definizioak ematean erabiltzen dira askotan, baina beste testuinguru batzuetan ere ager daitezke antzekoak.

Definizioen kasuan (139), (139-c) hartzen badugu, erreferente zaharraren kontzeptua (“aingeruak”) azaltzen da berri baten bidez (“espíritu zeruko batzuk”). Erlatiboak informazio inportantea ematen du, perpaus nagusian agertu den elementuari ezaugarri batzuk ematen baitizkio.²³

- (139) a. *Amore bat* nahi nuque [liadutanic eguia] (Etxep)
 b. Cer da comuniñoa? *Iateco espiritualbat* [sustenteetandabena arimea, eta emaiten deussana seculaco viziçea] (Kap)
 c. Ze gauza dira Angeruac? *Espiritu zeruco baçuc* [dagoçanac beti Iaungoico omnipotenten alabanzaan] (Kap)
 d. Zer uste düzü dela Ama Birjina? *Kreatüra dohatsü bat*, [merexi hanits diana], graziaz eta berthütez bethia, eta Jesüs Kristen ama (Belap)
 e. Zer da Komekazioa? *Jateko spirituale bat*, [arima sustentazen, eta bizi eternoa ematen duena] (Elizalde)
 f. Komulgazeko zaudenean, begiratuko duzu ongi, edo pensatuko, zertara zoazen, ta nor gana, edo nor datorren zu gana. Zu gana dator Jesus maitea, Jainko, ta Gizon egiazkoa, (...) *Jaun bat* [guzia dakiena, ondasunez betea, bazterrik bageko anditasuna duena] (Mikel)
 g. Jokua da *olgeeta bat*, berez, [inok bere kondeneetan ez dabena] (fr-Bart)

(140)-ko adibideak, (139)-koak ez bezala, diskurtso narratiboaren adibideak dira. Perpaus nagusian —gramatikalki objektu edo subjektu iragangaitz bezala— sartzen den erreferente berriaren funtzioa istorioa aurreratzea dela esan daiteke. Hemen ere mendeko perpausak ezaugarri bat ematen du, eta adierazten den informazioa berria da. Normalean hor esaten dena istorioa aurrera joan ahala inportante bihurtzen da, (140-c)-n bezala (erlatiboak ematen duen informazioarekin lotutako zatiak azpimarratu dira).

- (140) a. Eta handik iragaiten zela Iesusek ikus zezan *gizon bat* peaje lekuan iarria [Mattheu deitzen zenik] (LeizTest)
 b. Eta orduan bazuten *presoner notable bat*, [Barabbas deitzen zenik] (LeizTest)
 c. Eta huna, zen han *gizon bat* [eskua eihar zuenik]: eta interroga zezaten, ziotela, Sori da Sabbath egunean sendatzea? haur zioiten, hura akusa lezatenzat. (...) Orduan diotso gizon hari, Heda ezak eure eskua. Eta heda zezan, eta berzea bezain senda zedin. (LeizTest)

²³ Fox & Thompson (1990: 301) lanak perpaus erlatiboen bi funtzio nagusi aipatzen ditu: (1) karakterizazioa: erlatiboak erreferente berri bat ezaugarritzen du (*There's a woman in my class [who's a nurse]*), eta (2) identifikazioa: erlatiboak erreferente ezaguna identifikatzen laguntzen du. Perpaus definitzaileen kasuan argi dago karakterizazioa dugula.

Era horretako perpausak oso arruntak dira ipuin bati hasiera emateko: *Bazen behin...* Gauza bera beste hainbat eratara adieraz daiteke (141), baina Cid Abasoloren (1987: 623) arabera, (b) da naturalena eta erabiliena:

- (141) a. Fernando zeritzan artzain bat bizi zen Gorbeian.
 b. Gorbeian artzain bat bizi zen Fernando zeritzana.
 c. Artzain bat, Fernando zeritzana, bizi zen Gorbeian.

Azkenik, bokatiiboak ditugu, edo deia egitean izen propioei eransten zaizkien erlatiboak. Testuetan gehien agertzen dena otoitzeko *aita gurea zeruetan zaudena* formula ezaguna da, (142-d)-n bezala. Oro har, erlijio-testuetan behintzat, ohikoenak dira otoitzetan. Testuinguru markatuak badira ere, informazioaren jarioarekin lot daiteke horien erabilera: erlatibo aposatuari esker ardatza lehen posizioan dator, eta, dirudenez, hori da posiziorik nabarmenena. Erlatiboak, berriro ere, ezaugarri batzuk ematen ditu; hala ere, kasu horretan esan daiteke ez duela oso informazio inportantea adierazten, gehienetan ezaguna baita.

- (142) a. *Aingueru saindua*, [ene presunaren beguiratceco cargua laincoaren pietatez hartu duçuna] (Mat)
 b. *O Birjina Maria* [guziz urrikari gaitutzun]a, zeruetako erregina bade-rauzkitzut othoiz hauk (Haranb)
 c. *O Jesus* [krüzifikatü izan dena], gure bihotzuala jin baledi (Mst)
 d. Pater noster, *aita gurea* [çeruetan zagoçana] (Kap)

Aipatu diren lau perpaus-mota nahiko antzekoak dira diskurtsoaren antolaketari dagokionez. Bokatiiboak apur bat bereziak dira, nahiko markatuak baitira: erregistro jasoarekin eta testu-genero bereziekin (erlijio-testuekin) lotzen dira gehienbat, eta eguneroko hizkeran ez dirudite oso ohikoak. Gainerakoak, nahiz eta hemen idatzizko testuetan bakarrik ikertu, arruntagoak direla pentsa daiteke. Guztien funtzioa da diskurtsoan erreferente berri bat sartzea, batez ere presentazionalan eta existentzialan. Perpaus erlatiboaren bidez erreferente hori ezaugarritzen da. Karakterizazio-funtzioa du erlatiboak eta ez identifikazioarena; horregatik ez-murrizgarriak dira aposatuak askotan (Cid Abasolo 1987 ohartu bezala). Perpaus erlatiboak zeregin batzuk izan ditzake: aurreko diskurtsoarekin lot dezake erlatiboak erreferente berria, baina beste batzuetan informazio berria ematen du.

Deskribatu diren perpaus-motak eta aurreko atalean aztertutako kasu-komuntaduraren gaineko datuak lotuta daude. Esan bezala, ardatzak eta erlatiboak gehienetan absolutiboaren marka daramate. Horren arrazoia hau da: perpaus klase horietan aditz iragangaitza dugu askotan (*izan* edo *egon*), eta ardatza

eta erlatiboa horren argumentu bezala azaleratzen dira; beste batzuetan, objektu zuzen bezala agertzen dira (**edun* aditzarekin, baina ez horrekin bakarrik).

Azkenik, aipatzekoa iruditzen zait batzuetan IOko erlatiboak eta aposatuak antzeko testuinguruetan agertzen direla, honako adibide hauetan bezala:

- (143) a. *Bigarren intenzio* [Kristo gure Iaunak eramo zuena] (BerM)
 b. *Bigarren intenzioa* [eramo bear dena] (BerM)
- (144) a. Che cey ceurico choric nola ez dein eritan, ez ere eguitatan, ez graneroric ere ecuten, eta nola mantenatan tion *ssen Aitac* [ceurian dagonac] (Hualde)
 b. Guarda ztei onqui eguitiaz *ssen obra onac* guizonen antzinian ecus dazaicein finarequin, berce guisaz etzei errecibiten *ssen Aita* [ceurietan dagonaren] *ganic* bere premia (Hualde)
- (145) a. *Bertceren bekatuac* bertceren direlaric [gu ere uquitcen gaituztenac] dira bederatci (Mat)
 b. *Bertceren bekatu* [uquitcen gaituztenac] (Mat)

Mota horretako adibideak, hala ere, ez dira aurkitzen errazak. Horretan, IOko erlatiboak IAkoaren antza du: ez da testuinguru jakin batzuekin bakarrik lotzen, aposatuek egiten duten moduan.

2.3.4 Maiztasuna

Oro har, erlatibo aposatua nahiko arrunta da, eta aztertutako testu guztietan ageri da. Nire corpusean aposatuen eta IOkoen adibideen kopurua oso antzekoa da, eta, IOko erlatiboekin bezala, testuen arteko aldeak daude: batzuetan, oso ohikoa da; beste batzuetan, adibide bakan batzuk baino ez dira agertzen.

2.17. eta 2.18. tauletan hiru egituren –IAko, IOko eta aposatuen– maiztasuna konparatzen da. 2.17.-ean datuak eman dira eremuka: aposatu gutxien dugu Erronkaribarren, Gipuzkoan eta Araban (azken horretan Lazarragaren *Artzain liburua* baino ez dut kontuan hartu). Gehien, aldiz, Nafarroako eta Lapurdiko testuetatik atera ditut. Erronkaribarko testuen kasua interesgarria da: IOko erlatiboen maiztasuna oso handia bada ere, nahiko aposatu gutxi ageri dira testuetan. Gainerako eremuetan, nahiz eta korrelazioa oso sendoa ez izan, esan daiteke bi egituren agerraldien kopuruak antzekoak direla: adibidez, Gipuzkoan eta Araban bien lekukotasun gutxi ditugu, eta Nafarroan biak asko erabili ziren. Bi egituren arteko erlazio hori testuz testu aztertu behar da, hala ere: datuak eremuka begiratzeara orokortzeak formulatzeko lagungarria izan daiteke, baina ondorio okerrak ateratzeko arriskua ere badakar.

2.17. taula. Hiru erlatibo-moten maiztasuna: IOkoak, IAkoak eta aposatuak (ehunekotan), eremuen arabera banatuta.

Eremua	Guztira	IA	IO	AP
ERR	152	32,2	61,2	6,6
NAF	600	65,0	13,3	21,7
ZUB	785	74,6	16,7	8,7
LAP	1137	75,4	10,9	13,7
BIZ	494	77,5	13,2	9,3
GIP	600	91,2	2,2	6,7
ARAB	57	98,2	0,0	1,8

Testu bakoitzeko aposatuen maiztasuna 2.18. taulak erakusten du. Testuak IAko erlatiboaren proportzioaren arabera ordenatu dira: goian IAkoak ia bakarrik dituzten testuak ditugu, eta behean IAko gutxien dutenak. Aposatuen % 10 baino gehiago dutenak letra beltzez markatu dira. Aposatu gehien (IA/IOko erlatiboaren maiztasunarekin konparatuta) testu hauetan aurkitzen ditugu, beraz: Lizarraga (% 42), Haraneder (% 24), Kapanaga (% 20), Materra (% 20), Beriain (% 18), Intxauspe (% 17), *Viva Jesus* (% 15), Elizalde (% 15), Arzadun (% 13), Axular (% 13), Otxoa Arin (% 12) eta Leizarraga (% 12). Lizarraga kenduta, beraz,²⁴ % 10 eta % 20 artean geratzen da erlatibo aposatuaren maiztasuna testu horietan. Aurkako muturrean oso aposatu gutxi duten testuak ditugu (% 5 baino gutxiago): Lazarraga, Olaetxea, Ubillos eta Mikelestorena. Gainerako testuek % 5 eta % 10 artean dute: frai Bartolome, Gerriko, Tartas, Duhalde, Haranburu (ia % 10), Belaipeire, Oloroko katixima, Mogel, Maister, erronkarierazko dotrina eta Hualde Mayo.

Taulan goiko partean dauden egile asko Larramendiren ondokoak dira eta bere eraginpean idatzi zutenenak: Mikelestorena, Ubillos, Olaetxea, frai Bartolome eta Gerriko. Horiek kenduta, aposatuen erabilera zabalduta da. Salbuespenak Erronkaribarko testuak dira, eta, neurri txikiagoan, Zuberoakoak (Intxauspe, aztertu den testu berriena, kenduta): IOkoek maiztasun handiagoa dute aposatuek baino. Horiaz gain, Lazarraga ere salbuespenen artean sartu behar da, ez dituelako asko erabiltzen ez IOkoak, ez aposatuak (hala ere, gero ikusiko dugun bezala, *zein* erlatiboaren maiztasun oso handiarekin “konpentsatzen” du aposatuen falta).

²⁴ IOko erlatiboaren erabilera ere Lizarraga berezia zela esan dut (2.2.1.6. atalean): garaiko beste testu batzuetan baino gehiago erabiltzen zituen IOko egitura. Hemen ez dut testu gehiagorekin konparatu, beharbada komenigarria litzateke berriro ere Nafarroako testuen azterketan lekukotasun gehiago kontuan hartzea, aposatuen erabilera hobeto ulertzeko eta Lizarragaren maiztasun hori konparatu ahal izateko.

2.18. taula. Hiru erlatibo-moten maiztasuna: IOkoak, IAKoak eta aposatuak, testuz testu (ehunekotan). Testuak IAKo erlatiboaren proportzioaren arabera ordenatu dira. Aposatuen %10 baino gehiago duten testuak letra beltzez markatu dira.

Testua	Guzt.	IA	IO	AP
Lazarraga	57	98,2	0,0	1,8
Mikelestorena	153	96,1	1,3	2,6
Ubillos	231	95,7	2,2	2,2
Olaetxea	78	94,9	3,8	1,3
Frai Bartolome	179	93,9	0,0	6,1
Gerriko	152	92,8	0,7	6,6
Tartas	126	91,3	3,2	5,6
Duhalde	250	86,8	5,2	8,0
Otxoa Arin	217	85,3	3,2	11,5
Axular	186	83,3	3,2	13,4
Haranburu	134	82,1	8,2	9,7
Elizalde	20	80,0	5,0	15,0
Belapeire	145	78,6	15,2	6,2
Intxauspe	164	74,4	9,1	16,5
Oloroeko kat.	146	74,0	17,1	8,9
Materra	208	73,1	6,7	20,2
VJ	20	70,0	15,0	15,0
Beriain	232	68,5	13,8	17,7
Mogel	99	66,7	24,2	9,1
Leizarraga	240	64,6	23,8	11,7
Maister	204	62,3	31,9	5,9
Haraneder	120	56,7	19,2	24,2
Kapanaga	94	53,2	26,6	20,2
Arzadun	24	45,8	41,7	12,5
DoktrErr	20	35,0	60,0	5,0
Lizarraga	195	34,9	23,1	42,1
Hualde Mayo	132	31,8	61,4	6,8

2.3.5 Erlatibizatzen den argumentua

Erlatibo aposatueta ia beti subjektu iragangaitzak (146-a), iragankorrak (146-b) eta objektuak (146-c) erlatibizatzen dira (2.19. taula; testuz testuko datuak 2.9. taulan –58. orr.– eman dira). Adibide gehien S-erlatiboak dira (% 40). Antzeko proportzioan erlatibizatzen da ergatiboa (% 37). O-erlatiboak aurkitzen ditugu gutxien: adibideen % 22 dira. Aztertu diren 451 adibideetatik hirutan soilik dugu beste kasu-marka bat: bitan inesiboa (147) eta behin datiboa (148). Gainera, horrelako perpausak ez dira agertzen nahiko berandu arte (XVIII. mendera arte).

2.19. taula. Erlatibo aposatueta erlatibizatzen diren argumentuak, IAko eta IOko erlatiboarekin konparatuta (ehunekotan).

Egitura	Guzt.	O	S	A	Besteak
AP	451	22,2	40,4	36,8	0,7
IO	559	32,2	44,0	22,7	1,1
IA	2904	46,0	35,9	7,4	10,7

- (146) a. Ene espiritua alegueratu duçu, eta *ene arima*, [lehen hil cena], piztu (Mat)
 b. *Zuhaitz ttipiak*, [oraino errorik eztutenak], ezin athera ditzakezu (Ax)
 c. Atrarik Sazerdotea rebeztiturik sakristiatik Meza erratera, *lenbiziko itzak* [erraten dituenak] dirade (BerM)
- (147) a. *iudizioko egun izigarrian*, [neure eginak gatik kontu eman beharko dudana hartan] (Haranb)
 b. Bainan ethorriko da *denbora* [esposa khenduko zaioena] eta orduan dire barurtuko (Harand)
- (148) eta abisaturik Ziudadeko Jaunei, zela *bekatari pobre bat*, [etzegokiona] [armen itekoa], despeitu ze andik (Lizarg)

Oyharçabalek (2003: 797) ez ditu erlatibizazioaren murriztapenak aipatzen erlatibo aposatuak deskribatzean, baina bai erlatibo generikoetan, non, dirudienez, antzeko murriztapenak ditugun. Subjektuak eta objektuak erraz erlatibizatzen dira generikoetan, baina gainerakoak zailak edo ezinezkoak dira: **Etorri naizenetik joan behar zenuke* ‘You should go through the way I came’ (Oyharçabal 2003: 797). Hala ere, testu zaharretan horrelakoak agertzen direla dio, adibide hau emanik: *Otoitz eginen duzu zeure adiskide guziak eta [obligazino duzunak] gatik* (Haranb). Erlatibo aposatuei dagokionez, nire corpusean subjektuarekin eta objektuarekin egindako perpausez gain hiru adibide baino ez dira ageri; beraz, ez dirudi aposatuak testu zaharretan ohikoagoak direnik absolutiboa eta ergatiboa ez beste

kasuekin egindako erlatiboak. Kontrakoa esan genezake: XVIII. mendetik aurrera aukera berriak hasten dira agertzen.

2.2.2.1. atalean ikusi den bezala, IOko erlatiboan A, S eta O argumentuak erlatibizatzen dira gehienbat. IAkoetan leku-kasuak oso arruntak dira, eta bestelakoak (datiboa, adibidez) ere posible dira. Bestalde, IOkoak IAkoak baino maizago dira A-erlatiboak (batez ere Ipar EHko testuetan). Horiek horrela, perpaus erlatiboa sortzeko aukerari dagokionez, aposatuak IOko erlatiboen antza dutela esan dezakegu. Batetik, A-, S- eta O-erlatiboak agertzen dira (ia) bakarrik eta, bestalde, A-erlatiboen maiztasuna handia da: aposatuen % 37, IOkoen % 22, baina IAkoen % 7 bakarrik (2.19. taula). 2.20. taulan ikus daitekeen bezala, joera horiek bai Ipar, bai Hego EHko testuetan betetzen dira.

2.20. taula. Erlatibo aposatuetan erlatibizatzen diren argumentuak Ipar eta Hego EHko testuetan (Erronkaribar aparte utzita), IOko erlatiboarekin konparatuta (ehunekotan).

Eremua	Egitura	Guzt.	O	S	A	Besteak
IPAR	AP	224	12,9	46,9	39,3	0,9
	IO	255	16,1	52,9	31,0	0,0
	IA	1443	44,1	40,3	6,4	9,2
HEGO	AP	217	31,3	33,2	35,0	0,0
	IO	158	49,4	32,3	16,5	1,9
	IA	1376	48,7	31,5	8,6	11,2

2.3.6 Murrizgarritasuna

Oyharçabalen (2003) arabera, erlatibo aposatuak ez-murrizgarriak dira, horregatik (149-d) ez da onargarria:²⁵

- (149) a. Zuk aipatutako herriak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira.
- b. Herri tikiak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira. ('Little villages, those which have less than 500 inhabitants, are in a bad situation')

²⁵ Murrizgarritasuna horrela ulertzen du Oyharçabalek (2003: 804) : "Restrictive relatives are defined here as head modifiers that make the whole NP specific. When the NP is specific by itself, as, for instance, when the head is a proper noun, the relative is non-restrictive. But the same thing occurs when the whole NP is not specified, i.e. when the restriction carried by the relative isn't enough to make the NP specific (even if it contributes to the determination of the NP in a direct manner). This is why appositive relatives may follow specific, generic or indefinite NPs, but they cannot follow an NP whose head they make specific".

- c. Herri batzuk, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira. ('Some villages, which have less than 500 inhabitants, are in a bad situation')
- d. *Herriak, 500 herritar baino gutiago dituztenak, egoera txarrean dira.

Testuetan Oyharçabalek esandakoaren kontra doazen adibideak daude. Izen propio bat modifikatzen denean, argi dago erlatibo ez-murrizgarria dugula eta aposatuak askotan testuinguru honetan erabiltzen dira:

- (150) a. *Aingeru saindua*, [ene presunaren beguiratceco cargua laincoaren pietatez hartu duçuna] (Mat)
- b. *O Birjina Maria* [guziz urrikari gaitutzuna], zeruetako erregina bade-rauzkitzut othoiz hauk (Haranb)
- c. *O Jësüs* [krüzifikatü izan dena], gure bihotziala jin baledi (Mst)
- d. Pater noster, *aita gurea* [çeruetan zagoçana] (Kap)

Hala ere, beste kasu batzuetan ez dago oso argi. Egia da *bat* determinatzailea dagoenean erlatiboak ez duela zertan murrizgarria izan. (151)-n posible da erlatiboak informazio gehigarria ematea eta ez erreferentzia murriztea, baina (152)-n (*bat* determinatzailearekin) eta (153)-n (artikuluarekin) erlatiboa kenduz gero, esaldiek ez dute zentzu handirik (?? *Zer esan gura dau "kristiñaua"?* *Gizona*.) eta murrizgarritzat hartu behar dira. Erlatibo aposatu gehienak, beraz, normalean ez-murrizgarriak dira, baina salbuespen batzuekin.

- (151) a. Eta huna, zen han *gizon bat* [eskua eihar zuenik] (LeizTest)
- b. *Espiritu zeruco baçuc* [dagoçanac] [beti Iaungoico omnipotenten alabanzaan] (Kap)
- (152) a. Fedea manera onetan konfesazea da *gauza bat* [guzis Iaungoikoari agradazen zaiona], eta egiten duenaren dako probetxu anditakoa (BerM)
- b. Ceren baitaquit *iende añhitz* dela Euscal Herrian [itsasoan dabilanic] (Mat)
- (153) a. Zer essâ gura dau christiñaua? *Guiçona* [daucana] [christoen fedea] cein confessadu, eta professadu eban Baupismuâ gordeetaco (Kap)
- b. Alaber *arimak* [purgatorioan daudenak] sokorrazeko Iaungoikoak libra dizan ango pena, eta trabaju andi aietatik (BerM)

2.3.7 Ardatzaren semantika

Erlatibo aposatuen erdietan baino gehiagotan da ardatza biziduna (154), Iako erlatiboetan baino askoz maizago (2.21. taula). IOkoak eta aposatuak konparatu-

ta, bietan bizidunen proportzioa nahiko handia da, baina aposatuetan handiagoa. Aposatuen eta IA/IOko erlatiboen arteko alde hori nabarmena da bai Ipar EHko testuetan, bai Hego EHkoetan, nahiz eta azken horietan bizidunen proportzioa txikiagoa izan (Ipar EHko testuetan aposatuen % 67tan ardatza biziduna da, eta Hego EHkoetan, % 47tan).

- (154) a. Nor izanen da zuetarik *gizona*, [ardi bat duenik]: eta, baldin hura Sabbathoan lezera eror badadi, harturen eta altxaturen ezteua? (Leiz)
- b. Nork sinhetsi zukeien *Israeleko semeak*, [itsas-bazterrean, hain hertsura handian izan zirenak,] Faraonen eskuetarik itzuriko zirela? (Ax)
- c. Zeruetako Erresumak iduri du oraiño *gizon bat* [tratuan hari dena] eta [perla ederren bilha dabillana] (Harand)

2.21. taula. Ardatzaren semantika: erlatibo aposatuak IAko eta IOkoekin konparatuta.

Mota	Guzt.	Bizidun	Bizigabe
IA	500	17,8	82,2
IO	500	37,2	62,8
AP	451	57,2	42,8

2.3.8 Erlatibo hautsiak

Oyharçabal (1987: 176) ohartu bezala, ardatzik gabeko erlatiboetan hitz-ordena malguagoa da, burua lexikala duten erlatiboetan baino: menderagailua daraman aditzak ez du mendeko perpausaren azken posizioan agertu behar, eta perpausaren zati bat aditz horren ondoan ager daiteke. 2.2.2.4. atalean ikusi dugun bezala, IOko erlatiboen artean ere nahiko ohikoak dira erlatibo hautsiak (eremu batzuetan behintzat).

Erlatibo aposatuak direla eta, nik aztertutako testuak Oyharçabalen oharrekin bat datoz: adibideen % 14tan (55/407) perpausaren zati bat aditzaren ostean agertzen da, ondoko adibide hauetan bezala (erlatiboaren bi zati kortxeteen bidez bereizi dira):

- (155) a. *Simon* [erraiten dena] [Pierris] (LeizTest)
- b. P. Zer essâ gura dau christiñaua? R. *guiçona* [daucana] [christoen fede] (Kap)
- c. *lenengo gracie*, [eguiten gatucena] [Iangoicoen seme] (VJ)

IOko erlatiboen kasuan era horretako adibideak oso arruntak dira Nafarroan, Bizkaian eta Erronkaribarren. Aposatuei dagokienez, oso antzeko distribuzioa

dugu (2.22. taula): perpaus hautsien proportzio handiena ere Nafarroan (adibideen % 46), Bizkaian (% 30) eta Erronkaribarren (% 20) aurkitu dut. Gainerako eremuetan askoz txikiagoa da. Lapurdin, adibidez, egitura aposatuaren adibide asko atera ditut testuetatik, baina % 1,3 bakarrik dira hautsiak. Ezaugarri honi dagokionez ere, erlatibo aposatua IOko erlatibotik IAKotik baino hurbilago geratzen da, azken horretan perpaus hautsiak ia ez baitira lekukotzen.

2.22. taula. Erlatibo hautsiak: IAKo, IOko erlatiboak eta erlatibo aposatuak. Egitura bakoitzeko lehenengo zutabean egiturak duen adibide-kopurua adierazi da eta hurrengoan horietako zenbat diren hautsiak (ehunekotan).


Eremua	IA	Hautsiak	IO	Hautsiak	AP	Hautsiak
NAF	390	1,0	80	23,8	130	46,2
BIZ	383	1,6	65	23,1	46	30,4
ERR	52	0,0	103	37,9	10	20,0
ZUB	586	0,3	131	2,3	68	4,4
GIP	547	0,2	13	0,0	40	5,0
LAP	857	0,0	124	0,8	157	1,3
ARAB	56	1,8	0		1	0,0

2.3.9 Perpausaren luzera

Erlatibo aposatuen batez besteko luzera 5,8 hitzekoa da; beraz, IOkoak eta IAKoak baino luzeagoak dira (3,7 eta 3,5 dute horiek, hurrenez hurren). Aposatuen 20 adibide baino gehiago duten testuak hartuta, aposatuak sistematikoki luzeagoak dira IOkoak eta IAKoak baino (nahiz eta batzuetan aldea txikia izan): Axularren testuan 6,0 hitz dute aposatuek, eta 3,4 IA/IOkoek; Beriainenean 4,7 eta 3,4; Duhalderenean 8,5 eta 4,0; Haranederrenean 4,9 eta 3,4; Intxausperenean 4,9 eta 3,3; Leizarragarenean 4,1 eta 3,6; Materrarenean 6,7 eta 4,1; eta Otxoa Arinenean 7,8 eta 4,2.

2.3. irudian luzera bakoitzaren proportzioak ikus daitezke IA/IOko erlatiboentzat eta erlatibo aposatuentzat. Aposatuek, IAKo eta IOko egiturek bezala, gehienetan bi eta bost hitz artean dituzte (adibide guztien % 63), nahiz eta proportzio hori handiagoa izan IA/IOkoetan (adibideen % 84). Hitz bateko perpaus oso gutxi daude bi egituretan. Perpaus luzeagoetara pasaturik, ezberdin jokatzen dute egiturek. Aposatuen % 23k zortzi hitz baino gehiago du, baina IA/IOko erlatiboen % 4k bakarrik.

Esan daiteke, beraz, perpausaren luzera eta aposatuen erabilera lotuta daudela: perpaus luzeagoak ohikoagoak dira egitura aposatuan IA/IOko erlatiboetan



2.3. irudia. IA/IOko erlatiboen eta erlatibo aposatuen luzera. 456 aposatu eta 3463 IA/IOko erlatibo aztertu ditut. Horregatik, biak konparatu ahal izateko, egitura bakoitzeko luzera jakin bat duten adibideen proportzioak adierazten dira irudian. Adibidez, 4 edo 5 hitz ditu IA/IOko erlatibo guztien % 29k, eta aposatu guztien % 30ek. Zenbaki absolutuetan, hala ere, 4-5 hitz duten IA/IOko erlatibo gehiago dago, erlatibo aposatu baino.

baino. IAko eta IOko erlatiboen artean ere alde txiki bat dagoela esan dut IOko erlatiboari eskainitako atalean, baina diferentzia hori ez zen hemen bezain nabaria. Beste era batera esanda, ezaugarri honi dagokionez, IAko eta IOko erlatiboak elkarrengandik gertuago daude, IA/IOkoak eta aposatuak baino.

Konplexutasunaren efektua aposatuekin nabarmenagoa izatea horien sintaxiarekin lot daitekeela uste dut. IOko eta aposatuak berdinak dira ardatzaren eta mendeko perpausaren kokapenari dagokionez, baina prosodia ezberdina da. IOko erlatiboa txertatua da, baina aposatua ez, ardatza eta mendeko perpausa bereiz baitoaz. Horregatik perpaus luzeekin IOkoek ez duten abantaila dute aposatuek: ardatzaren eta perpausaren arteko tartea. Tarte horrek, hain zuzen, perpaus konplexuagoen ekoizpena eta ulermena erraz dezake. Gauza bera esan daiteke, hurrengo atalean erakutsiko dudan moduan, *zein* erlatiboari buruz: sintaxiari dagokionez, aposatuak dira horiek ere, ez txertatuak, eta asko luze samarrak dira.

2.3.10 Erlatibo aposatuak: ondorioak

Egitura aposatuan izen-sintagma mugatuari erlatibo librea eransten zaio. Erlatiboa gehienetan perpaus nagusiaren amaieran agertzen da, eta normalean erreferentzia egiten dion ISren ondo-ondoan, ardatzaren eta erlatiboaren artean hitz batzuk ager badaitezke ere. Egitura aposatua osatzen duten bi sintagmen

artean kasu-komunztadura dugu: aztertutako testuetan normalean biek marka bera daramate (gehien-gehienetan absolutiboa, baina baita partitiboa, ergatiboa eta beste batzuk ere). Salbuespena testu batzuetan (gehienbat Leizarragarenetan) agertzen den absolutibo-partitibo konbinazioa da.

Erabilerari dagokionez, IA/IOko erlatiboekin ez bezala, erlatibo aposatuek testuinguru jakin batzuetan agertzeko joera dute. Nire corpusean perpaus presentazionalak, definitzaileak, existentzialak eta bokatihoak dira ohikoenak. Alde batetik, horrek azaltzen du zergatik duten ardatzak eta erlatiboak gehienetan absolutiboa. Aipatutako perpaus-mota horietan aditz iragangaitza dugu (*izan* edo *egon*) askotan eta orduan ardatza eta erlatiboa horren argumentu bezala azalera-tzen dira. Beste batzuetan, objektu zuzen bezala agertzen dira (**edun* aditzarekin batez ere). Beste alde batetik, aposatuen erabilerari diskurtsoaren antolaketarekin lotuta dagoela dirudi: perpaus-mota horietan guztietan erreferente berri bat sartzen da diskurtsoan, eta erlatiboaren bidez ezaugarri batzuk ematen zaizkio.

Egituraren maiztasunari ere begiratu diot: hemen aztertutako testu guztietan agertzen dira aposatuak, egilez egile maiztasuna aldatzen bada ere. Adibide gehien Lapurdin, Nafarroan eta Bizkaian lekukotzen dira, Zuberoan eta Gipuzkoan zertxobait gutxiago daude, eta Erronkaribarren ez dira oso arruntak. Badi-rudi Larramendiren osteko Hego EHko testuetan aposatuen maiztasuna gutxituz doala, aposatu gutxien duten testu gehienak Bizkaiko eta Gipuzkoako XVIII-XIX. mendeetako testu batzuk baitira.

IA/IOko erlatiboetan aztertu ditudan ezaugarri batzuk ere deskribatu ditut. Erlatibizazioaren murriztapenak direla eta, aukera gutxi onartzen dira aposatuetan: corpuseko testuetan S, A eta O argumentuak erlatibizatzen dira ia beti (salbuespenak dira inesiboarekin egindako bi adibide, eta datiboarekin bat). Ez-murrizgarriak izaten dira aposatuak, salbuespenak aurki badaitezke ere. Jasotako adibideen proportzio nahiko handi bat erlatibo hautsiak dira (batez ere Nafarroako, Bizkaiko eta Erronkaribarko testuetan). Ardatzak askotan izaten dira bizidunak. Azkenik, IA/IOko erlatiboak baino luzeagoak dira aposatuak: 5,8 hitz dute aposatuek batez beste, eta 3,7/3,5 IA/IOkoek.

Hainbat alderditan aposatuak IOko erlatibotik hurbil geratzen dira. Egitura (erdi-)finko batzuetan agertzeko joera ez da ikusten IOko erlatiboen kasuan, baina perpaus-mota horiek IOko erlatiboekin ere posible dira eta batzuetan testu berean antzeko testuinguruetan aurki daitezke bi egiturak. Antzekotasun argiagoak gainerako ezaugarrietan aurkitu ditut, hala ere. Bai aposatuetan, bai IOkoetan, A, S eta O arazorik gabe erlatibiza daitezke, baina gainerako kasuak, guztiz ezinezkoak ez badira ere, oso gutxitan agertzen dira. Erlatibizatzen diren argu-

mentuen maiztasuna ere nahiko antzekoa da (eta bereziki, IAkoekin konparatuta, A-erlatiboen maiztasun erlatiboki altua izatea garrantzitsua da). Ardatzaren semantika dela eta, bai IOkoetan, bai aposatuetan bizidunen proportzioa IAkoetan baino handiagoa da. Erlatibo hautsiak bietan dira ohikoak (eta, gainera, eremu geografiko berberetan); IAkoan, aldiz, oso gutxitan aurkitzen ditugu. Bi egitura horiek luzerak bereizten ditu, aposatuak perpaus luzeagoekin erabiltzeko joera baitago eta IOkoak IAkoak bezala erabiltzen baitira; hau da, perpaus motzekin –2-5 hitzekoekin– normalean.

Ondorioz, erlatibo aposatua egitura nahiko markatua dela esan daiteke: testuinguru jakin batzuetan eta funtzio jakin batzuekin erabiltzen da. Bere ezaugarri gramatikalei dagokienez, IAko erlatibotik urrunago eta IOkotik apur bat hurbilago kokatu behar da.

2.4 Erlatibo jokatugabeak

Erlatibizazioaren irudi osoago bat emateko, erlatibo jokatugabeak aztertuko ditut atal honetan, aditz jokatua duten egiturekin konparatzeko. Bestalde, hitz-ordenaren azterketarako ere interesgarriak dira erlatibo horiek, jokatuak bezala, izenaren ezkerrean eta eskuinean joan baitaitezke.

Aditzari dagokionez, hainbat aukera ditugu: partizipio soila edo partizipio adberbialak (*-ta*, *-(r)ik*) agertzea. Lan honetan arreta gehien partizipio adberbialetan jarri dut. Erlazio-atzizkirik gabeko adibideak Leizarragaren kasuan bakarrik bildu ditut, testu horretan asko agertzen baitira (156). Leizarragak *-(r)iko* (ez *-(r)ikako*) gutxi batzuk besterik ez ditu (157).

- (156) a. *tenple* [eskuz egin] *haur*
 b. [odolez tintatu] *arropa batez*
 c. *gizon* [abillamendu preziosoz beztitu] *baten*
- (157) a. [Iainkoaren irudira eginiko] *gizonak*
 b. [zerutik igorritako] *Espiritu sainduaz*
 c. [edozein hiri handitarik idokiriko] *jendalde bat*

Horietaz gain, Lafittek (1991 [1944]: 230) beste aukera bat aipatzen du [PARTIZIPIOA-ko] erlatiboa (158). Artiagoitiak (1995: 115) dioenez, egitura hori Bizkaiko hainbat hizkeretan ere erabiltzen da. Nik aztertutako testuen, halere, ez dut horren adibide askorik topatu.

- (158) a. Atzo Martinek aipatuko gizona (Lafitte 1991 [1944]: 230)
 b. Ardoa edaneko andrea gaisotu egin da (Artiagoitia 1995: 115)
 c. Atxagak idatziko nobela berria itzel gustatzen zait (Artiagoitia 1995: 115)

Partizipio soila duten erlatiboei dagokienez, partizipioa izenaren ondoan dugunean, batzuetan zaila da bereiztea adjektibo bezala erabilitako partizipioak eta erlatibo jokatugabeak: *ardi errebelatua*, *lege eskribituak*, *gizon haserretuak* eta antzeko adibideak erlatibotzat edo adjektibotzat har daitezke (*gizon haserretuak* = ‘haserre(tu) diren gizonak’?). Horrelakoak oso ohikoak dira garai guztietako testuetan. Aldiz, aditzaz aparte beste elementu bat duten perpausak ez dira horren ohikoak, eta maizago agertzen dira ardatzaren aurretik atzetik baino. Gehienak aurkitu ditut Leizarragarengan (156) eta adibide bakan batzuk gainerako testuetan, eta gehienbat poesietan (159). Gero partizipio adberbialek partizipio hutsak ordezkatzeko dituztela dirudi: Haranederrek [*eskuz eginikako*] *tenpluetan* edo [*suan frogaturikako*] *urrea* bezalakoak baino ez ditu, Leizarragak erabili zituen partizipio hutsen ordezkariak.

- (159) a. [Sankta Methilderi Andre Birjinak hilziko orenkotz irakhatsi] *hirur othoitzak* (Haranb)
- b. Badakhusat klarki, [zuk egin] *liburuan*, / Merezi hainitzak, ditutzula zeruan (Haranb)
- c. Non duzu joan den mendean / Izatu dignitatea? / Non [Aitarekiñ glorian / Izatu] *majestatea?* (Gaszar)
- d. Zuen ardi eta bildots / Gustiak utz detzatzue, / [Zerutik jautsi] *Bildots bat* / Adoratuko duzue (Gaszar)
- e. Confesa baitare, aunque benialetaz confesa dein, [leinago eguin] *becatu mortale confesatiuetarit zomait* (Oloroe)
- f. Pœnitenciac [batheyaz gueroz eguin] *bekhatiac* ppharcacsen dutu (Oloroe)

Oyharçabalen (2003: 790) arabera, partizipio hutsarekin egindako erlatiboak “(...) represent the most usual realization of participial relatives”, baina, dirudie-nez, Oyharçabalek definizio zabalagoa erabiltzen du eta adjektibotik hurbilago direnak ere kontuan hartzen ditu. Horrela bada, litekeena da Oyharçabalek dioe-na nire datuekin bat etortzea, hitz bateko partizipio-perpausak ohikoak baitira. Ez, haatik, perpaus konplexuagoak: aztertutako testuetan zaila da horiek aurki-tzea.

Leizarragaren ez beste testuetatik, beraz, partizipio adberbialez osaturiko erlatiboak atera ditut bakarrik.²⁶ Partizipio horiei dagokienez, *-(r)iko* mendebal-dean aurkitzen dugu, eta *-(r)ikako* Nafarroan, Gipuzkoan eta Lapurdin. Zuberoan eta Erronkaribarren, *-(r)ik* partizipioa erabiltzen bada ere, erlatiboetan ez da ez *-(r)iko*, ez *-(r)ikako* lekukotzen; [-tu] partizipioa duten adibide batzuk, aldiz, bai, (159-e)-(159-f).

Bigarren partizipio-mota dela eta, *-ta* atzizki gramatikalizatuaren lehenen-go adibideak Lazarragaren eskuizkribuan agertzen dira (160). XVII. mendean eta XVIII.aren hasieran ere lekukotasun batzuk daude (161), baina maiztasun handia-go XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera hasten dira izaten. Hasieran *-ta* partizipioa mendeko perpausetan agertzen da bakarrik, gero bere erabilera *-(r)ik* partizipioa erabiltzen den testuinguruetara zabaltzen da, perpaus erresul-tatiboetara, adibidez (Krajewska 2012a). XVIII. mendean erlatibo jokatuabeetan lekukotzen da lehenbizikoz (162).

- (160) a. joan cidin floresta bateti aurrera, Clariani bacarric *ichita*, ceñac, ba-carric gueratu çala ecusen orduan (Laz)

²⁶ Partizipioek perpaus erlatiboetan eta adjektibo bezala duten erabilerak azterketa sakonago bat merezi duelakoan nago, baina beste lan baterako utzi behar dut.

- b. ceurc *ecusita*, / ez naxana min бага quexaetan, / baice justo naxala escaetan (Laz)
- c. Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur *eguinda*; / belaurico, barriz, çu, ene lind[a] (Laz)
- (161) a. Flandes aserrea / ori *ecusita* / Marte biurtu da / Echaien contra (KuartPhel)
- b. Arbola orrec irabazidáu *galdúta* eguán grazi-iâ (Urkizu)
- (162) a. [Jaungoikoari, edo beraren Majestadearen Santuren bati egindako] *botorik*, *edo promesik* (OA)
- b. Konfesoreak esan dezake [konfesioan enzun, edo aditutako] *pekatu-rik*, *edo beste gauzarik*, zeñetatik aitorleari datorkion kalterik? (Kardab)
- c. Eta [inork emandako] *tentazio edo bekatu-ako bideak* konfesatu bear ote dira konsentimentu edo lekurik eman ez danean? (Mogel)
- d. *Edari ez-titsu gozoa* / [Zerutik jatsitakoa] (Munibe)
- e. [Profetak lenago esanitako] *guzia* egin arteraño (Ubillos)²⁷

Erlatibo jokatuekin konparatuta, jokatu-gabeen erabilera murriztuagoa da. Hasteko, iragana edo erresultatiboa bakarrik adieraz ditzakete; adibidez, *suz beteriko* ‘suz bete zena/dena’ edo ‘suz beterik dagoena’ izan daiteke (baina ezin da, esaterako, etorkizuna adierazi). Bestalde, normalean ez dira ezeztatzen: *?atzo ez etorritako gizona* (testuetan salbuespen oso bakan batzuk badaude ere: [ez egi-niko] *pekatuba* Mogel). Cid Abasolok (1987), horretaz ohartuta, “iragan-baiezko erlatiboa” deitzen dio egiturari. Azkenik, argumentu gutxiago erlatibiza daiteke, hurrengo azpiatalean azalduko dudako moduan.

2.4.1 Erlatibizatzen den argumentua

Oyharçabalek (2003: 790-791) nabarmentzen du erlatibo jokatu-gabeetan subjektu iragankorrek erlatibizatzea posible bada ere, testuinguru anbiguoetan interpretazio markatua dela hori. Adibidez, *atzo ikusitako gizonak* perpausaren interpretaziorik naturalena objektuarena da, baina objektua agerian denean —*atzo ni ikusitako gizonak*— ergatiboa guztiz onargarria bihurtzen da. Objektuaz eta subjektuaz gain, beste kasu batzuk ere erlatibiza daitezke, adibidez inesiboa: *zu jaiotako herria*. Cid Abasolok (1987: 612) datiboaren adibide batzuk ere ematen ditu, *Lepoan labaina sarturiko urde bat zirudien*, kasu.

²⁷ Adibide honetan agertzen den *esanitako* forma dela eta, *-(r)iko* eta *-tako* partizipioen nahasketaren itxura du. Adibide bakarra da Ubillosen testuan eta KG-n ez da beste adibiderik ageri.

Nik aztertutako testuetan absolutiboa gehien erlatibizatzen da eta O-erlatiboak nagusitzen dira (erlatibo jokatuabeen % 72; 253 adibide aztertu ditut):

- (163) a. [hik behin ordenatu] *plazer* (LeizTest)
 b. [zuk emoniko] *sentenzi orrek* (Barrutia)

Adibideen % 21ean subjektua edo objektua erlatibizatzen da (iragankor edo iragangaitz izan daitezkeen aditzekin, testuinguruak ez badu argitzen objektua ala subjektua den):

- (164) *ogi* [plazerer betherikakoaz] (Aranbill)

Gutxien aurkitzen dugu subjektu iragangaitza (% 6):

- (165) a. [zerutik ethorri] *Aingeru bat* (LeizTest)
 b. [orai sorthurikako] *haur batzuk* (Harand)

Corpuseko adibide batean bakarrik (1/253) dugu beste kasu bat: datiboa (166). KG osoan bilatuta, ergatiboaren eta leku-kasuen lehenengo adibideak XVIII. mendearen bigarren erdian lekukotzen dira (167), eta *-ta* partizipioarekin lehenago *-rik* partizipioarekin baino. Ordura arte subjektu iragangaitz eta objektuarekin egindako erlatiboak bakarrik ditugu testuetan.

- (166) [goguan leku emondako edo pensamentuzko] *pekatubak* (frBart)

- (167) a. [Bear asko egindako] *gizon nekatu eta urteetan aurreratua* zalarik (Kardab)
 b. eta jarri zan Arbelaizen etxean [Caro Jenerala egondako] *leku berpe-rean* (Izt)
 c. [armadan itsasoz serbitzo andiak egindako] *gizonak* (Izt)

2.4.2 Hitz-ordena

Aztertutako adibide guztiak kontuan hartuta, % 9tan mendeko perpausa izenaren eskuinean agertzen da. Kontuan hartu behar da, halere, erlatibo jokatuabeak oso maiztasun txikia duela; beraz, estatistikak ateratzea zaila da testu gehienetan. Izen osteko erlatibo jokatuabe gehien testu hauetan aurkitu ditut: Leizarragaren testuan 21 adibidetik ([-tu] partizipioarekin eratuak) % 33 dira IOkoak (168); Aranbillagarenean 12 adibidetik % 41 (169); Kardaberazenean 37tik % 11; Mogelenean 25etik % 8; frai Bartolomerenean 21 adibidetik % 5; Xuriorenean IOko adibide bat dago, Barrutiarenean bat (170) eta Muniberenean bi. Izen aurreko jokatuabeak bakarrik aurkitzen ditugu gainerako testuetan (AñibEsk, Ax, BerM, Dasanza, EtxSar, Harand, Lizarg, Mat, Mendib, Oloroe, OA, Pou, Ubill).

- (168) a. *liburu* [barnetik eta kanpotik eskribatu] *bat* (LeizTest)
 b. *Emazte* [iguzkiaz inguratu] *bat* (LeizTest)

- c. *ezkonza saindu* [Iainkoaz ordenatu] *haur* (LeizTest)
- (169) a. *lur* [ilhun eta herioaren itzalaz estalirikako] *hartarat* (Aranbill)
- b. *konszienzia* [garbi eta boskarios betherikako] (Aranbill)
- c. *ogi* [plazerres betherikakoaz] (Aranbill)
- (170) *Bekatu* [oraingano egiñiko] *gustiak* (Barrutia)

Hain datu gutxiekin IOko erlatibo jokatuekin konparatzea zaila da. 2.23. taulan bi egituretan aztertu diren testuak zerrendatu dira, eta bien artean ez dirudi lotura askorik dagoenik. Oro har, joera orokorra da erlatibo jokatuabeak izenaren aurretik jartzea, jokatuak bietara erabili arren.

2.23. **taula.** IOko erlatibo jokatuabeen eta jokatuaren maiztasuna.

Testua	Jokatuak	IO (%)	Jokatuab.	IO (%)
Leizarraga	212	26,9	21	33
Beriain	191	16,8	7	0
Materra	166	8,4	1	0
Axular	161	3,7	2	0
Haraneder	91	25,3	23	0
Oloroeko kat.	133	18,8	8	0
Otxoa Arin	192	3,6	1	0
Ubillos	226	2,2	19	0
Mogel	90	26,7	32	8
Lizarraga	113	39,8	3	0
Frai Bartolome	168	0,0	21	5

Azkenik, aipatu behar da erlatibo aposatuak ere aurki daitezkeela, oso urriak badira ere: Beriainen testuan bi adibide aurkitu ditut (171). Beraz, erlatibo jokatuabeak eta *-en* menderagailua duten erlatibo jokatuak aukera berberak dituzte sintaxiari dagokionez: perpaus erlatiboa txertaturik ager daiteke, izenaren eskuintean edo ezkerrean, edo izenarekiko aposizioan. Diferentzia maiztasunean datza: aposatu jokatuabeak arraroak dira eta jokatuak, aldiz, oso arruntak.

- (171) a. *koroa* [errenes eginikakoa] (BerM)
- b. *gauza seinalatuak* [eginikakoak biktoriako monasterioko frailen denboran] (BerM)


2.4.3 Ardatzaren semantika

Oro har, 2.24. taulak erakusten duenez, erlatibo jokatuabeetan ardatzak bi zigabeak izaten dira. IAKo erlatiboek bezala jokutzen dute, beraz.

2.24. taula. Ardatzaren semantika: erlatibo jokatuabeak eta jokatuak (ehunekotan).

Mota	Guzt.	Bizidun	Bizigabe
Jokatuabeak	254	16,1	83,9
IA	500	17,8	82,2
IO	500	37,2	62,8

2.4.4 Perpausaren luzera



2.4. irudia. IA/IOko erlatiboen eta erlatibo jokatuabeen luzera. 257 jokatuabe eta 3463 IA/IOko erlatibo aztertu dira. Horregatik, biak konparatu ahal izateko, egitura bakoitzeko luzera jakin bat duten adibideen proportzioak adierazten dira irudian. Adibidez, 4 edo 5 hitz ditu IA/IOko erlatibo guztien %29k eta aposatu guztien %28k. Zenbaki absolutuetan, hala ere, 4-5 hitz duten IA/IOko erlatibo gehiago dago, erlatibo jokatuabe baino.

Erlatibo jokatuabeetan 3,4 hitz agertzen dira batez beste; beraz, IAko eta IOko erlatiboen antzera (3,5 eta 3,7, hurrenez hurren). Luzera ezberdinen distribuzioa ere IAko eta IOko erlatiboekin ikusi duguna da (2.4. irudia): erlatiboen erdiek baino gehiagok 2-3 hitz dituzte eta ia %90ek 2-5 hitz. Oso luzeak eta hitz batekoak oso gutxi daude. Erlatiboak perpaus nagusian hartzen duen posizioari dagokionez, erlatibo jokatuabeen eta IA/IOko erlatiboen artean ez dago alderik: aztertutako perpausen %60 amaieran doa, heren bat hasieran eta gutxien erdian.

2.4.5 Erlatibo jokatugabeak: ondorioak

Erlatibo jokatugabeak jokatuak baino askoz gutxiago erabiltzen dira. Aditzaren formari dagokionez, hiru aukera ditugu: partizipio soilak (batez ere testu zaharretan), *-rik* partizipioak (eremu geografiko guztietan, *-rikako* Lapurdin eta Nafarroan, *-riko* mendebaldean) eta *-ta* partizipioak (XVIII. mendeaz geroztik Bizkaian eta Gipuzkoan). Absolutiboa erlatibizatzen da gehienetan, eta beste kasuekin egindako adibideak (ergatiboa edo inesiboa) nahiko berandu agertzen dira. Gainerako ezaugarritan IAkoen antza dute erlatibo jokatugabeek. Perpau-saren luzera IA/IOko erlatiboek izaten duten berbera da. Ardatzaren semantikari dagokionez ere, antzekoak dira IAkoak eta jokatugabeak: erlatiboak izen bizigabea modifikatzen du gehienetan. Hitz-ordena dela eta, kasu gehienetan erlatiboa ardatzaren aurretik doa, baina badaude salbuespenak.

2.5 Zein erlatiboa

Atal honetan izenordain galdetzaileekin egiten diren perpaus erlatiboak deskribatuko ditut. IA/IOko erlatiboak aztertzean ikertu diren ezaugarriak interesatzen zaizkit hemen ere. Helburua da, egitura hori aztertzeaz gain, gainerako erlatiboekin konparatzea. Ikusiko den bezala, IAko eta IOko erlatiboen artean ezberdintasun batzuk badaude ere, alde txikiak dira, konparaketan *zein* erlatiboa gehitzen bada. Erlatibo aposatuekin alderdiren batean bat badator ere, ezaugarri nahiko ezberdinak dituzte.

Bestalde, *zein* erlatiboa interesgarria da bere ospe txarra dela eta. Egin daitekeen galdera da egitura hori idazleek edo itzultzaileek asmatutako kalkoa zen ala gehiago erregistro jakin batzuekin lotutako egitura bat, hizkuntzak duen beste edozein bezalakoa. Saiatuko naiz erakusten bigarren ideia hori zuzenagoa dela. Egituraren sorreraz eta hizkuntzen arteko ukipenaz, aldiz, hurrengo kapituluan hitz egingo dut.

Gramatika zaharretan izenordainarekin egiten den erlatiboa arazorik gabe onartzen zen. Esaterako, Larramendik izen osteko egitura gaitzesten bazuen ere, *zein* erlatiboa erabiltzea gomendatzen zuen erlatibo arrunta ezinezkoa denean, hau da, ergatiboa eta absolutiboa ez beste kasu guztiak erlatibizatu nahi direnean, harentzat bi kasu horiek bakarrik *-en* erlatiboan erabil baitaitezke.

XX. mendean, egiturak ez du ospe onik izan gramatikari askoren artean. Azkuek *barbarismo* deitu zuen *Diccionario*-n (1969 [1905-1906], s.v. *zein*); *Morfologia*-n (1969 [1923]: 490) “Conjunciones de calco alienígena” izenburupean aipatzen du, eta azpimarratzen du *nor*, *zer* eta *zein* euskaraz, hizkuntza erromantzeetan ez bezala, galdetzaile direla beti. Larramendi ere kritikatzan du Azkuek, ezin baitu ulertu nolatan hartu zuen *zein* erlatiboa euskara jatortzat. Ipar EHn antzeko iritziak aurkitzen ditugu: “nous n’hésitons pas à condamner ce charabia”, zioen Lafittek (1991 [1944]). Lafon (1999 [1966]) ados dago Lafittekin eta izenordainik gabeko egiturak (*bait-* bakarrik dutenak) erabiltzea gomendatzen du, *zein* erlatibo “astunak” saihesteko. Aurreiritziengatik ziurrenik, egituraren deskribapen gramatikal oso gutxi egin da. Salbuespen horietako bat Oyharçabal (1987) da: dioenez, hizkuntzalariaren papera gramatika deskribatzea da, ez epaitzea.

2.5.1 Lekukotasunak. Maiztasuna

Atal honen helburua da *zein* erlatiboaren lekukotasunak aztertzea. Hasteko, egituraren erabilera testu zaharretan deskribatuko dut. Ondoren, XVI. mendetik XIX. mendera bitartean *zein* erlatiboaren maiztasuna aztertuko dut. Azkenik,

XVI-XVIII. mendeetako gutunetan izenordainez osaturiko erlatiboen agerraldiak iruzkinduko ditut.

2.5.1.1 Euskara Arkaikoa

Egitura testu zaharrenetan lekukotzen da dagoeneko. *Arrasateko erreket*a-ko perpausa bereziki garrantzitsua da egituraren historiarako:

(172) Ganboarroc su emaytean / Asi dira, ta onegaz vrten daude beralan / *Oñeztar barruangoac* / [Çein erre ez citeçan] (ArrErr)

Mitxelena (2011 [1959]: 38) honela iruzkintzen du pasartea:

Çein erre ez citeçan. Guerra tradujo «los oñacinos de adentro para no quemarse» (p. 18); Gorostiaga, «los oñacinos refugiados dentro, para no quemarse» (p. 53). Es mejor ver ahí una oración de relativo, introducida por *çein*, que expresa una restricción: «los oñacinos de adentro que (= sólo aquellos que) no se quemaron». Es bien sabido que *erre citeçan* «se quemaron» era entonces completamente normal: cf. *Jagui çidin naguia erra çičan vria* «Leuantóse el perezoso, quemó la villa» (Garibay = RS 294), *Non eguin sidi?* «¿Adónde fue hecho?» (Micoleta), etc.

Mitxelenaren interpretazioaren arazoa da *zein* erlatiboak normalean ez direla murrizgarri (begiratu 2.5.5. atala), baina erlatibo ez-murrizgarri gisa ere zailtasunik gabe uler daiteke perpausa. Adibidea interesgarria da testu oso zahar batean agertzen delako –XVI. mendearen amaieran jaso da, baina lehenagoko ahozko tradizioetik dator (XV. mendearen erdialdekoa dela argudiatzen du Zuloagak 2011)— eta era horretako erlatiboak itzulpenetan eta antzekoetan bakarrik erabiltzen zirelako ustearen kontra doalako. Hala ere, ez da erraza beste interpretazio bat proposatzea. Helburuzko perpaus gisa ulertzeak ez dirudi zuzena, *zein* ez delako helburua adierazteko erabiltzen (*zeren* bai, Kapanagaren adibide honetan bezala: *Bigarrena ahoan, çerren iaungoicoac gorde gagiçan verba deungaetaric*).²⁸ Posibilitate bat da moduzko edo ondoriozko perpaustzat hartzea (‘de manera que no se quemaron’), (173)-ko adibideetan bezala. Horrelako perpausak agertzen dira mendebaldeko testuetan:

(173) a. P. Zemodutan bear doguz sinistu. R. *Ainmodutâ cein* fedeau bagaric iñor ez iustuyzan, ez saluadu leitean. (Kap)

²⁸ Hurbilena *zein* ezezko partikula da. Ulibarririk (2015: 218) aztertutako testuetan agertzen da, adibidez: *sein condena gaitean, sein guero negar eguin deguisun, sein galdu deguin, sein vencidu gaguiyesan...* Ulibarriren arabera, ezezko *ze* gehi **edin* aditzaren forma bat izan daiteke: **ze + din* (< *didin*). Ez dirudi partikula hori *Arrasateko erreket*a-n dagoenik, *ez* partikula agertzen baita. Ez litzateke ezinezkoa *zein*-ek bere ezezko esanahia galtzea eta helburuzkoa gordetzea, baina agian ez *Arrasateko erreket*a bezain goiz (XVIII. eta XIX. mendeetako testuetan ezezko balioa baduela kontuan harturik).

- b. cerren erria içanic *ain banatua*, eta daucana ecsagûçaac aimbat montaña, eta ach artean, *ceinda* acudidu ecin leien aimbat bider, cein bear leuqueen Elexetara (Kap)

Arazoa da, adibide horietan, *Arrasateko erreketeta*-koan ez bezala, esanahia zehazten duen beste osagarri bat agertzen dela beti (*ain modutan* edo *ain*). Nolanahi ere, posible da *Arrasateko erreketeta*-ko egitura eta (173)-koetan duguna lotuta egoatea, eta *Erreketa*-koa moduzkoaren eta erlatiboaren artean anbiguoaz izatea. Gai horretara hurrengo kapituluan itzuliko naiz, proposatzeko *zein* erlatiboa sorzitekeela lehenagoko egitura bat (*Arrasateko erreketeta*-ko modukoa, agian) erlatibo bezala “berrerabiliz” eta hizkuntza erromantzeek duten antzeko egitura bat sortuz.

Refranes y sentencias-en *zein* erlatiboa ez da ageri. Adibide bat, *non* izenordainarekin egindakoa, Britainiako kantuan dago (174). Etxeparek adibide bakarra du *zer* izenordainarekin (175).

- (174) *Guipuzcoa herrira* / [Non yçango baita beti becela buru / Nobleza guztiaren aniz estimatua] (BretKant)
- (175) Eztut eguyn *gayzquiric* vqheyteco perilic / Ezetare [cerengatic vehar dudan auciric] (Etx)

Leizarragaren eta Lazarragaren testuetan adibide asko aurkitzen ditugu. Lazarragaren kasuan adibide gehienak *Artzain liburua*-n daude, eta poesietan oso gutxi. Bestalde, *AL*-ko *zein* erlatibo asko bereziak dira. (176) adibideetan *zein* izenordaina duen perpausaren funtzioa ez da izen bati buruzko informazioa ematea, istorioa aurreratzea baizik. Adibide batzuetan, (176-d)-n esaterako, izenordainaren erreferentia aurreko perpausaren ere ez dago, eta, horregatik bakarrik, ezin da perpaus erlatibotzat hartu. Oro har, horrelakoetan *zein* izenordainak pertsona-izenordainaren funtzioa duela dirudi.

- (176) a. *Ecusiric*, bada, *Silviagaz_i* eocen arçaiac egoala negarrez, citecen espantadu, eta ecin pensadu euen cer al çatean causea, arean da itaundu eyoen artean. *Ceñac_i* manera onetan erançun eusten: (...)
- b. *Doristeoc_i*, bada, *ecusiric* bacarric gueratu çala, bere Silvia бага, acordadu eben aen esque joaten; *ceñac_i*, partietaco egoan egunean, Sirenari berva oec eguin eusan:
- c. *Silveroc_i*, au ençun eguian orduan, bere buruari ichi eusan lurrera jausten, *ceñagana_i* Silvia joan cidin lasterca, esaten eusala
- d. Onetan egun bat eta gau bat irago euen, solamente negar baje beste gauçaric eguite ez euela; *ceinçuc*, bigarren egunean, cerbait jan da

- loac artu cituan arbole fresco baçuen azpian, nun, loric goçoenagaz eocen orduan, aditu euen cantaetaz etorrela odeietati figura eder bat e. [Silveroc eta Doridoc]_i leengo bervaoc ençun eguien orduan, utra aseguin andia artu euen euren biocetan; *ceinçuc_i*, bertati norc bere espiluac eta ezpatac arturic, joan cirean Confusioco Esera

Erabilera horrek hizkuntza erromantzeetan (eta lehenago latinez) ohikoa zen *relatif de liason* delako testu-kohesioaren baliabidearen antza du. Hurrengo kapituluian (begiratu 3.2.2.2 atala) ikusiko dugun moduan, hizkuntza erromantzeek duten erlatibo mota batentzat behintzat (frantsesaren *lequel* erlatiboa edo gaztelaniaren *el cual*) proposatzen da *relatif de liason* motako egiturak zirela horren jatorria; testu-kohesiorako erabiltzen den baliabide batetik sortu zela, alegia. Horregatik dira interesgarri Lazarragaren adibide horiek. Zaila da, halere, jakitea euskaraz erabilera hori zabaldua ala egilearen bitxikeria zen. Pentsa genezake Lazarragaren inspirazio-iturri izan zitezkeen testuetan (artzain-liburuetan eta testuarekin lotutako beste testu-genero batzuetan; begiratu Bilbao *et al.* 2010: 3) ba-zeudela mota horretako egiturak eta *AL*-ren egileak testu horien estiloa imitatu nahian antzeko moduan erabili zuela *zein* erlatiboa.

Adibide horiek erdarazko testuen eraginez sortzearen alde egiten du gainerrako testuetan horrelakorik ez aurkitzeak. Bereziki nabarmena da Leizarragaren Testamentuan ez egotea (eta prosa narratibotik hurbilen geratzen den garai hartako testua da). Hor itxuraz antzeko egiturak topatzen baditugu ere, erlatibo arrunt bezala ere uler daitezke, Lazarragaren adibide batzuk ez bezala:

- (177) a. Berze konparatione bat proposa ziezen, zioela, Konparatu da zeruetako resuma, mustarda bihi gizon batek harturik bere landan erein duenarekin. Zein baita hazi guzietako xipiena, baina handitu denean, berze belharrak baino handiago da. (LeizTest)
- b. Haur, Iainkoaren konseillu arrastatuz eta probidentiaz emana hartu zindutenean, gaixtoen eskuz kruzifikaturik hil ukan duzue. Zein Iainkoak resusztatut baitu, herioaren doloreak laxaturik, zeren ezpaitzen posible hura harzaz, eduki ledin. (LeizTest)

2.5.1.2 Egituraren maiztasuna XVI-XIX. mendeetako testuetan

De Rijkek (2008: 499-500) hau idatzi zuen *zein* erlatiboaren erabileraz:

As for its presence in classical Basque literature, considering that this consisted largely of translations and adaptations of Romance originals, it is hardly surprising that the Romance relativization strategy was resorted to for rendering the involved

relative structures encountered in the originals. What is surprising is that such moderate use was made of this convenient strategy.

Erabilera “moderatua” zehazki zenbatekoa den finkatzea subjektiboa bada ere, nik aztertutako testu askotan hori baino zertxobait altuagoa dela esan daiteke (2.25. eta 2.26. taulak). Corpus osoan izen aurrekoak, ostekoak eta *zein* erlatiboak kontuan hartuta, adibideen % 24 izenordainekin egindakoa da.

Proporziorik handiena (% 35 baino gehiago) testu hauetan aurkitu dut: Hualde Mayo, Erronkariko *Doctrina Christiaia*, Lazarraga, Kapanaga, Haraneder, Lizarraga eta Arzadun. Txikiena, aldiz (% 10 baino gutxiago) hauetan: Axular, Duhalde, Mogel, Haranburu, frai Bartolome, Gerriko, Ubillos eta Mikelestorena (azken bi egileek ez dute egitura inoiz erabiltzen aztertutako zatietan).

Egitura oso gutxi duten testuak bi taldetan bana daitezkeela dirudi: batetik, XVII. mendeko Lapurdiko testu batzuk (Axular eta Haranburu), eta, bestalde, XVIII. mendearen erditik aurrerako hainbat testu, gehienak Hego EHkoak. Ondoko datuak ez dira hemen aztertu, baina *OEH*-ren (s.v. *zein*) arabera, XX. mendean erabilera nabarmen murrizten da.

2.25. taula. IA/IOko eta *zein* erlatiboen maiztasunaren bilakaera, Ipar eta Hego EHn (ehunekotan).

Eremua	Mendea	Guzt.	IA/IO	<i>zein</i>
IPAR	XVI	297	69,7	30,3
	XVII-1	526	85,0	15,0
	XVII-2	377	67,6	32,4
	XVIII	600	68,7	31,3
	XIX	438	83,3	16,7
HEGO	XVI	113	49,6	50,4
	XVII-1	267	70,8	29,2
	XVII-2	158	58,2	41,8
	XVIII	986	80,6	19,4
	XIX	412	96,6	3,4
ERR	XVII	19	68,4	31,6
	XIX	296	48,0	52,0

2.26. taula. Zein erlatiboen maiztasuna, egileka.

Mendea	Testua	Eremua	Guzt.	IA	IO	zein
XVI	Lazarraga	ARAB	113	49,6	0,0	50,4
	Leizarraga	LAP	302	51,3	18,9	29,8
XVII-1	Ros	ERR	19	15,8	52,6	31,6
	Materra	LAP	221	68,8	6,3	24,9
	Beriain	NAF	269	59,1	11,9	29,0
	Haranburu	LAP	127	86,6	8,7	4,7
	Axular	LAP	179	86,6	3,4	10,1
XVII-2	VJ	BIZ	25	56,0	12,0	32,0
	Kapanaga	BIZ	133	37,6	18,8	43,6
	Tartas	ZUB	175	65,7	2,3	32,0
	Belapeire	ZUB	202	56,4	10,9	32,7
XVIII-1	Oloroeko kat.	ZUB	185	58,4	13,5	28,1
	Otxoa Arin	GIP	243	76,1	2,9	21,0
	Arzadun	BIZ	34	32,4	29,4	38,2
	Elizalde	NAF	30	53,3	3,3	43,3
	Haraneder	LAP	157	43,3	14,6	42,0
XVIII-2	Mikelestorena	NAF	149	98,7	1,3	0,0
	Maister	ZUB	262	48,5	24,8	26,7
	Olaetxea	BIZ	94	78,7	3,2	18,1
	Ubillos	GIP	226	97,8	2,2	0,0
	Lizarraga	NAF	210	32,4	21,4	46,2
XIX	Mogel	BIZ	95	69,5	25,3	5,3
	Gerriko	GIP	144	97,9	0,7	1,4
	Duhalde	LAP	246	88,2	5,3	6,5
	Frai Bartolome	BIZ	175	96,0	0,0	4,0
	DoktrErr	ERR	40	17,5	30,0	52,5
	Hualde Mayo	ERR	256	16,4	31,6	52,0
	Intxauspe	ZUB	194	62,9	7,7	29,4

2.5.1.3 XVI-XVIII. mendeetako gutunak

Lekukotasunen azterketa amaitzeko, interesgarri iruditzen zait beste testu-mota bat ere aipatzea: gutunak, eta, batez ere, gutun pribatuak. Asmo literariorik gabeko testuak direnez, *zein* erlatiboaren erabilerari buruz datu interesgarriak eman ditzakete.

XVI-XVII. mendeetako gutunetan *zein* erlatiboa agertzen zaigu: adibide bat (178) Bertrand Etxauzen eskutitzean (1584), hiru (179) Simancaseko espioitzagutunetan (1598), eta, XVII. mendera pasaturik, bat (180) J. Peruskiren idazkian.

- (178) a. Batez ere arreposturic ezticit vqvhēn, [çonez pena baitut] (EtxauzGut)
- b. Othoi egiten darauçut çure berri hunen eta ayta amenez ezcribaciaz, [çoin baita gauça desiraçen dudana] (EtxauzGut)
- (179) a. Jauna emen izatu dena da *legat bat* [zoina etorri baita elizek erregeri eman behar dioten diruaren erreko-bratzera] (SimancasekoGut)
- b. Jauna: orai puntuan errezebitu dut presentarekin aurkituko duen *karta hori*, [zoina baita ene kusun kapitene Meriteinek bidaldua] (SimancasekoGut)
- c. *Egun* [zoin baita igandea] gonbidatu ditut sei ingles berririk neon denean lasterrenik sentitzen duenatarik (SimancasekoGut)
- (180) eta halaber gomendaçen derauçut *Mairatoa* [çeiña baita ene emastea yçanen ere bai secular] (PeruskiGut)

Administrazio-gutunetan ere erabiltzen ziren *zein* erlatiboak. 1616-1617ko Erronkaribar eta Zuberoa arteko gutunerian (181) eta 1680ko Urruña eta Hondarribia artekoan (182) nahiko ohikoak dira. Era horretako testuetan, halere, pentsa daiteke erdarazko esamoldeek eta testu ofizialen estiloak, oro har, eragina izan zezaketela.

- (181) a. Recebitu dut *çure guthuna*, [çoinetan escribatzen baiterautaçu nola dezir handia duciela guciec baque eta arcordu hun baten eçartera bi herri hoyen artian] (Etxart)
- b. ioan citezten behar bada limitoetara, *leku contenciozetara eta berce leku orotara* [çoinetara ikoussiren baitucie ioan behar duciela berce depputatu eta commissariequi] (Etxart)
- c. *Çure carta oquey eta vat garreneco yl onena* reçevitu dut oquey eta irur garrenean, [çoyntan scribazten didaçu en sustança nola ezten çure pareçera vista uqueteco bortuetan çure lagun diputatu eta gure erregue jaunaren diputatu vagueric] (Ros)

- d. *Çure carta yl onen lenean scribatua Atarrazen, recevitu nuen vorzgarreanean, [çoni verçe respuestaric eçin eman dirot vayçi azquen gutunean erraten niçuna]* (Ros)
- (182) a. *iruditçen çaiçu asquen lettraren aiçinecoas, [çina erremetitu baiquina-roçuen naçetan] baçindutella berhar çen segurança eta satisfactione guçia ez Lohitic chalupa han çiren hirur hotaric calteriq içateco* (Urruña-Hondarribia)
- b. *Chalupac errendatu ondoan, desiratcen baduçue, çerbait expedient on, hartuco dugu çuen habitanten ispirituaç ere Pausuan emateco, bisquitartean çenbait ordena urun *gouvernadoreaganiq* etorryco çaicu [çinary escribattu baitiogu]* (Urruña-Hondarribia)
- c. *Errecibitu dugu placer haundirequin *cuen hil hunen hogoieco letra*, [cina berantesiriq, orducotz eman baiquindioen letra bat *chaluparen iabeari*] [cinaren erepousta icatu baitugu hitces]* (Urruña-Hondarribia)

Datu gehien 1757an idatzitako eta *Le Dauphin* ontzian zihoazen Lapurdiko gutunek ematen dizkigute. Hainbatetan ageri dira *zein* izenordaina duten erlatiboak: guztira 40 bat adibide aurkitu ditut 24 gutunetan.²⁹ Horietako batzuek gutunetako formula erdi-finkoen itxura dute, (183)-ko adibideetan bezala. Rosen eta Etxarten eskutizetan ere badaude antzekoak (181). Hala ere, *Le Dauphin*-eko gutunetan ez dira falta bestelako adibideak ere (184), eta horiek egituraren eman-kortasunaren frogatzat har daitezke.

- (183) a. *Izatu dugu ohore ikusteko *zuk Monsieur Diharci, bikarioari, iskiribatu izatu diozun letra*, [zeinetan markatzen baitzinioen seigarren aldia zindubela] eta datatuba baitzen goan den abendoaren hamaseian, bai eta gerorrek ere errezibitu dugu zure letra* (Le Dauphin 11)
- b. *Eskribatzen dauzquitut presenteko bi lerro hauk zuri *ene osasunaren* markatzeko, [zeiña hagitz baita perfeta Jainkoari esker]* (Le Dauphin 28)
- (184) a. *Zure orde, *zenbait saratarrek*, [zeinek ikusi baitzaituzte], erran daukute osasun on bat zinduela* (LeDauphin 27)
- b. *Eta orai ere baditut hirur xume xantierean hasiak, eta *handi bat* badut hasi beharra ene kontuko egiteko, [zeinak 18 peza muntatuko baikitu]* (LeDauphin 27)

²⁹ Padilla-Moyanok (2015) ematen dituen datuen arabera, 20 eskuk idatziak dira erlatibo horiek, kasu batzuetan pertsona batek gutun bat baino gehiago idatzi baitzuen.

- c. Letra hau eskiribatzen darotzut zuri erraiteko errezebitu nuela zure letra *120 liberako letra sanjarekin*, [zeintaz pagatua izan bainaiz] (LeDauphin 5)

Gutunetako erlatiboen alderdi interesgarriena erabilera (itxuraz) okerrak dira. Era horretako perpaus gehienetan *zeinetan* forma aurkitzen dugu, inesiboak zentzurik ez duela. Gehienak gutunetako formulatan agertzen dira (186),³⁰ baina bestelako perpaus batzuk ere badaude (185). (185-a) adibidean, esaterako, absolutiboa eskatzen du perpaus erlatiboan dagoen aditzak, baina izenordaina inesiboan doa. Batzuetan mendeko perpausko izena ez da ezabatzen: esaterako, (186-b) adibidean *osasuna* izena ez litzateke beharrezkoa erlatibo arrunt batean. Kasu batzuetan zalantza egin daiteke erlatiboa dugun ala beste zerbait, perpausak ez baitio erreferentzia egiten perpaus nagusiko izen-sintagma bati, (185-c)-n bezala. Horiez gain, bi gutunetan absolutiboko *zeiña* azaltzen da espero zitekeen kasu-marka duen formaren orde (187). (187-a) adibidean, esaterako, izenordainak datiboan joan beharko luke, ez absolutiboan.

- (185) a. Salututzen zaitut ene bihotz guziaz, eta halaber salututzen zaituzte aizpa Nanak, [zeinetan Miarritzen baita neskato] (LeDauphin 15)
- b. Uste nuen orai baiño lehen satisfaktua izanen nintzela, [zeiñetan hamar ezkutu montatzen baitute] (LeDauphin 8)
- c. Markatzen darotazu eztuzula Qanigonekin izatu letrarik, bainan egin gintuben, [zeinetan aizpa Nana Miarritzen baitugu neskato Bodrirek] (LeDauphin 38)
- (186) a. Eztut faltatu nahi izatu presenteko okasione hau zuri ene eta famillaren osasuna berria zuri aditzerat eman gabe, [zeinetan baita ona Jainkoari esker] (LeDauphin 43)
- b. Eskiribatzen dauzkitzut bi lerro hauk zuri aditzerat emateko ene eta zure esposaren osasunaren berri, [zeiñetan osasuna baitugu zure haurrekin batean] (LeDauphin 8)
- c. Osasuna dut Jainkoari esker nere familia guziarekin, [zeinetan desiratzen bainuke zurea hala balitz denbora berean] (LeDauphin 22)

³⁰ Frantsesez erabiltzen ziren antzeko formulatan ere agertzen da erlatiboa. XIX. mendeko adibide hau aipatzen du Padilla-Moyanok (2015): *Mon tres cher frere, je l'onur de vous ecrire se dus mots de lettre pour vous faire savoir l'etat de ma santé, lequel est bonne Dieu merci*. Interesgarria da aipatzea frantsesez ere *lequel* erlatiboak arazoak sortzen zizkiela gutunen egile batzuei: Branca-Rosoff-ek (1990) erlatiboa oker duten XX. mendearen hasierako soldaduen gutunetako halako formulak aipatzen ditu: *J'ai reçu ta longue lettre du 28 auquel elle m'a fait grand plaisir*. Agian ez da harrigarria ikasketa askorik gabeko jendeak *lequel* erlatiboa oso ondo ez menderatzea, erregistro jasoko egitura baita frantsesez (Guiraud 1966; Auger 1995).

- d. Osasuna dut Jainkoari esker, [zeinetan desiratzen bainuke zure hala balitz zure konpainiarekin batean] (LeDauphin 33)
 - e. Ohore dugu zuri presenteko hunen igortzeaz, [zeinetan hirugarren aldia baitugu hau] (LeDauphin 24)
 - f. Ene seme maitea, ez tut faltatu nai izatu presenteko okasione huntan zuri bi lerro eskribatu gabe eta zuri ene osasuna berria gaztiatu gabe, [zeinetan baita ona Jainkoari esker] (LeDauphin 35)
 - g. Ene seme maitea, errezebitu dut zure letra, joan den abendoaren 5an egina, [zeinetan plazer eta atsegin izan baitut zure berri onen aditzeaz] (LeDauphin 40)
- (187) a. Joanis galant ungi erakurtzen eta meza laguntzen ikasirik, eskribatzen hari da, [zeiña letra hau hari sinarazten diot], eta nausia haiñitz kontent du (LeDauphin 49)
- b. Harismendyganik errezebitu tutzun zolak Gana Dargainganik ziren, [zeiña eman baitiozkat 140 libera] (LeDauphin 49)
 - c. Baliatzen naiz presenteko komoitate hunaz zuri satisfazione emateko, zenbat konsolazione eta bozkariorekin kausitzen naizen aditziaz zure osasunaren berriak, [zeiña satisfatu binaute zureganik errezebitu ditudan bortz letrek] (LeDauphin 49)
 - d. Errezebitu dugu zure letra xanja, 919 liberako bat [zeina plazer handia hartu baitut arribatu denean] (LeDauphin 19)

Oro har, beraz, XVIII. mendeko lapurtarrek, idatziz behintzat, *zein* erlatiboa erabiltzen zutela ondoriozta dezakegu. Halere, ikasiaren edo jasoaren kutsua du egiturak: inprimatutako testuekin konparaturik, badirudi gutunen egile askok, egituraren berri izan arren, ez zutela oso ondo menderatzen, eta horri egotzi behar zaio *zeinetan* edo *zeina* izenordainak deklinatzen ez diren markak balira bezala hartzea, eta inesiboa egokia ez den perpausetan ere sartzea. Beste horrenbeste esan genezake *zeina* izenordainari buruz, nahiz eta erabilera hori, dirudieenez, gutxiago hedatua zen.

Absolutiboa gutxien markatutako kasua izanik, agian ez da oso harrigarria forma hori edozein kasu erlatibizatzeke erabiltzea. Inesiboarenak, aldiz, azalpena behar du.

Esan bezala, *zeinetan* hori gutunetako formuletan askotan agertzen da. Eza-guna da hitzunik mota horretako esapide erdi-finkoak osorik edo ia osorik ikasten dituztela eta, hortaz, ez dituztela nahitaez hutsetik ekoizten behar duten guztietan. Gutun horien azterketan, Padilla-Moyanok (2015) eskutitzez eskutitz errepikatzen diren egitura “aurrefabrikatuen” (gutunetako hasierako formulak, agu-

rrak, etc.) ugaritasuna azpimarratzen du, eta iradokitzen horrek erakusten duela XVIII. mendeko Lapurdin bazegoela gutunak idazteko ohitura. Erlatiboetako *zeinetan* azaltzeko, formula hauek izan daitezke baliagarriak:

- (188) a. Izatu dugu ohore ikusteko zuk Monsieur Diharci, bikarioari, iskiribatu izatu diozun *letra*, [zeinetan markatzen baitzinioen seigarren aldia zindubela eta datatuba baitzen goan den abendoaren hamaseian,] bai eta gerorrek ere errezibitu dugu zure letra (LeDauphin 11)
- b. Recebitu dut *çure guthuna*, [çoinetan escribatzen baiterautaçu nola dezir handia duciela guciec baque eta arcordu hun baten eçartera bi herri hoyen artian] (Etxart-Ros)
- c. Recebitu dut *çure guthuna Ustarrotzeco iaun alcalde eta iuratieñ guthun eta informacionequi*, [çoinetan gainan iguorten dirauet respuestu messagier hunequi vorondate handirequi iusticia leyal eguitera ohoygnen contre] (Etxart)

Adibide horietan *zeinetan* agertzen da, inesiboa erlatibizatzen delako. Posible da *Le Dauphin* ontziko gutunen egile askok antzeko formula batzuk erdizka bakarrik ezagutzea eta, ondorioz, nahastea. Horretaz gain, kontuan hartuta, erabilera “oker” horiek ez baitira gutunetako formula finkoetan bakarrik agertzen, gerta zitekeen *zeinetan* duen esamolde bat bere sintaxia oso ondo ulertu gabe ikastea ((188)-ko adibideen motakoa, esaterako), eta gero izenordaina beste testuinguru batzuetara ere hedatzea, perpaus erlatiboaren markatzaile orokorra bezala beranalizatuta. Erabilera hori gero zabaltzen zen: jendeak jaso dituen gutunetan irakurritakoa idaztean errepikatzen zuen.³¹ Antzeko zerbait gerta zitekeen *zeina* izenordainarekin ere.

Inprimatutako testuetan ez dut antzeko adibiderik aurkitu, eta ez dirudi erabilera horrek arrakasta handirik izan zuenik, baina egitura erlatibo berri bihur zitekeen. Inesiboko izenordainari dagokionez, munduko hizkuntzetan ez da guztiz ezohikoa perpaus erlatiboaren markatzaile gisa hasieran inesiboa bakarrik erlatibizatzeke balio zuen izenordaina gramatikalizatzea. Alemanieraren dialekto batzuetan, esaterako, edozein kasu erlatibizatzeke erabiltzen da *wo* ‘non’ (Fleischer 2004). Inesiboko izenordaina forma orokor bezala orokortzea edo hedatzen hastea gerta zitekeen euskaraz ere. Kasu horretan, (185)-(187)-ko perpausak ez lirarteke akatsak, jakina, ezpada erabilera berri horren adibideak.

Egituraren erabilera bereziekin lotuta, Eibarko udal-ordenantzeta erlatiboak aipatu behar dira (189). Literatur-tradizioan aurkitzen dugunetik urruntzen

³¹ Eskutitzak idazten, gehienbat, praktikaren bidez ikasten zen: inguruan zeuden gutunak irakurrita eta horietan aurkitzen ziren formulak baliatuta (Padilla-Moyano 2015).

dira horiek ere, eta bai *zein* erlatiboaren, bai *bait-* aurrizkiaren erabileraz datu interesgarriak ematen dizkigute. Menderagailuari dagokiona 5.2. atalerako utzita, erlatibo horien berezitasuna *baita* hitzean datza: *bait-* gehi *da* aditza dirudien arren, elementu fosildua dela esan daiteke, askotan beste aditz batekin agertzen baita perpausean. Adibidez, (189-a)-ko *seina baita espada* hartzen badugu, *espada* da perpauseko predikatua eta *baita* horren funtzioa ez dago argi. Beharbada, testua idatzi zuenarentzat halakoa zen erlatiboaren egitura: [zeina baita MENDEKO PERPAUSA], non *zeina baita* erlatiboaren markatzaile den. Adibideren batean (189-d), halere, *baita* aditzaren funtzioa ere badu, baina testuan gutxiago dira halakoak. Adibide horiek iradokitzen dute, *Le Dauphin*-ekoen antzera, *zein* erlatiboa eguneroko hizkeraren parte ez bazen ere, ez zela erabat ezezaguna.

- (189) a. Jaunac, en resumidas quantas, onec esan gura dabena da ze est[ei]la izan inor bere atrebiduba da adelantauba elejizera alcateric *personaric* [seina *baita* espada persona onrrauba, ydalgua, aberaza da erraizac daucasana, da guison abonauba da oficio charric estaucana] (EibarOrd)
- b. baita ber[e] [gal]du estitian *gueure ama provinciakuan fueruac*, [seina *bait[a]* [con]beni jacusan gueure libertaderaco da pechupian es ego-teco] (EibarOrd)
- c. Baita bere, estaychala permitidu justiciac arzia da usaz[ia] [*taba*]cua *esaten deuzena rapè Franciacua*, [ceina *baita* daguan debecauta gueure erregueganic], bosteun ducaten multiaren azpichan da estableciduta dagozan penen beian, da izateco onelacuac desterraubac errichonetatic (EibarOrd)
- d. Baita bere, justicia-jaunac probinciaco erri gustietacuac bialdu daychela *urtebarrico ylian*, [ceina *baita* ustarrilian], urte gustietacuan, testimonio originala errico contu municipaletacua Gastelaco conseju errialera (EibarOrd)

2.5.2 Izenordainak

2.27. taulan ikus daitekeen bezala, gehienetan *zein* izenordainaren formak ditugu erlatiboetan; leku-kasuak erlatibizatzeke *non* ere nahiko arrunta da (190). Askoz urriagoak dira *noiz* (191), *nor* (192) eta *zer* (193).

- (190) a. *arbole fresco baçuen azpian*, [nun, loric goçoenagaz eocen orduan, aditu euen cantaetaz etorrela odeietati figura eder bat] (Laz: AL)
- b. Eta emazteak ihes zegian *desertu batetara*, [non baitu lekua lainkoaz apaindurik] (LeizTest)

2.27. **taula.** Erlatiboetan erabiltzen diren izenordainak.

Eremua	Guzt.	zein	non	noiz	nor	zer
ARAB	57	78,9	19,3	1,8	0,0	0,0
BIZ	108	95,4	2,8	0,0	0,0	1,9
GIP	53	94,3	5,7	0,0	0,0	0,0
NAF	188	83,5	14,4	0,5	1,1	0,5
LAP	251	97,2	2,8	0,0	0,0	0,0
ZUB	301	97,7	2,3	0,0	0,0	0,0
ERR	160	93,1	5,6	0,0	1,3	0,0

- c. ioan zen *Donapalaia*, [non baitzen orduan Nafarroako Parlameta] (Ax)
- d. Lür pian süz bethe den *lekhü bat* Iferniaren althian, [non arimek pena ezinago garratzaz pakatzen baitütie], eta zoñek bekhatien arau lüzaz iraiten baitie (Belap)
- e. *leku, edo puesto arrigarri bat*, [nun demonio guziak, eta beste kondenuatu guziak dauden, eta egongo diraden beti] (OA)
- f. Eta preso eguin ceinec Jesusi, eraman zabein *Caifasen etsiara*, zoin ta baicen pontifice urte cartan, [non ta escribãiac eta zarrac baizauden ssuntatruc] (Hualde)
- (191) a. joan cirean Confusioco Esera, nun eldu cirean irugarren *egunean*, [nox Sirenac eta Silbiac il bear even] (Laz: AL)
- b. Zer heltü zen hen Bazkoaren berrogei eta hamargarren *egünian*, [noiz Ejiptako erresümatik elkhü baitziren]? (Belap)
- c. ta Zerutik ikasirik erran zue *eguna*, [noiz bear zen il] (Lizarg)
- (192) a. Mundua mundu formaduzquero, / oy ez da jaiio *semeric* / ene ostein [nor içan dan / au baño guiçon firmeric] (Laz: A11)
- b. *neré Jaun dibinoak*, [nori nik konsagratu nion aurzututik ene birjinitadea] (Lizarg)
- c. Caur da *ene Seme maitia*, [nortan baitud ene complacimentu guciuac] (Hualde)
- d. Trinitate Saintuco vigarren persona dela *Semia* [norc proceditan vaitu Aitarenganic] (DotrErr)
- e. Jacobec engendratu cion Joseri, *Mariaren esposua*, [nortaric sortu cen Jesus], sobreicenez Cristo (Hualde)
- (193) a. Eztut eguyn *gayzquiric* vqheyteco perilic / Ezetare [cerengatic vehar dudan auciric] (Etxep)

- b. Silvero, bada, obato erregidu cegati çan, eseco andreac aguindu eusan Silviari, ceña çan Sirenaren conpañian egoana, eugui leguiala utra contu andia Silvero erregietez; [cegaz utra aseguin andia artu eben ala Silveroc nola Silviac], cegati utra on alcarri erexten (Laz: AL)
- c. *Irurgarren gauza*, [zerengatik egon bear baitugu atenzioreki, eta de-bozioreki] (BerM)
- d. Emaiten deuscula *grazia, eta indarra*, [çegaz confesseetan dogun fede christiñauena] (Kap)
- e. Bilatu *fin principala* [cetaraco sortuzan] (Kap)
- f. nola den *gauza* [zergatik egiten duen juramentua] (Elizalde)

Izenordainaren forma bereziei dagokienez, Bizkaian *zein eta/da/ta* formak aurkitzen ditugu, eta adibide gehien Kapanagak ditu (194). Erronkaribarren, aldiz, *non eta* (195) aurkitzen dugu. *non (e)ta* beste erabilera batzuekin Hego EHN agertzen da noizbehinka XVIII. mendeaz geroztik (196), baina erlatiboetan Erronkaribarren bakarrik.

- (194) a. *deuociñoau*, [ceinda da erraza, eta prouechu andizcoa] (Kap)
- b. Guero memoriara ecarri ezquero bere *pecatuac*, [ceinda da confessiñoen leelengo partea] (Kap)
- c. *Cinguluac* [ceinegaz, eta lotuten dan guerriti Sacerdotea] eracustê deuscu açoteac (Kap)
- d. Zegaiti, eze dira prinzipaleenac, eta *beste virtuteen sustraiac*, [ceinetaric, eta ernetan direan] (Kap)
- (195) fanen naz ssen antzinetic *Galilean*, [non ta bueltaten daiceid ssuntatra] (Hualde)
- (196) a. Ta ni añ eroa, non ta jakiñik infernuko tormentu oietara anima zekartela, orregatik munduko atsegin laburren ondoren txoratuta nentillen? (Kardab)
- b. Esta berze biderik zerurako; esta birtuterik, esta ontasunik batere, non ta esten goardazen lege gau (Lizarg)

Izenordaina mugagabea (*zein, zeinek, zeinetara...*) edo mugatuan (*zeina, zeinak...* aurrekariarekin numero-komunztaduran) joan daiteke. Ondoko lerroetan bi aukera horien nondik norakoak zehaztuko ditut, labur.

Leku-kasuekin izenordaina beti da mugagabea, inesiboan salbuespen gutxi batzuk badaude ere (eta gehienak Kardaberazek eta Mendiburuk dituzte):

- (197) a. Biz aski egungo aipatua zer den meza, *sakrifizio solemne bat*, [zeinean Jesu Kristo ofratzen baita bere Aita Jangoikoai ogiaren ta ardoaren

idurien pean sazerdotearen eskus majestade supremoaren honratan]
(Lizarg)

- b. Eldu naiz ya zure begien aurrean ifintzera *erregu mota bat* errazena, [zeñean ez dauka iñork ere zer esan, ezin egingo duela, bere neke, edo bearrakgatik] (Kardab)
- c. Lenbiziko Doktrinaren *Partea* [zeñean azaltzen dan Kredoan] (Mendib)
- d. Iakiteko duzu nahi baduzu sarthu Cartagena de ponaten sar zaite erditik eta idukazu ponatko leihorreat eta guardia egizu baxa bat baita erdian ankra [zoinen ikuziko duzu baxa eta muillazazu 6 brasetan eta emanen duzu probiza leihorreat] (Etxeberri Dorre)

Gainerako kasuekin, aldiz, dialektoaren eta garaiaren arabera da erabilera.

2.28. taulan testu batzuetako paradigmak bildu dira.

2.28. taula. *Zein* izenordain erlatiboaren paradigmak XVI-XVII. mendeetako testu batzuetan. Grisez singularra eta plurala bereizten direla markatu da. Gris argiak batzuetan bereizten dela (baina ez beti) adierazten du.

	Leizarraga		Axular	
	SG	PL	SG	PL
ABS	zein	zein	zein	zein
ERG	zeinek	zeinek	zeinek	zeinek
DAT	zeini	zeinei	zeini	
GEN	zeinen	zeinen		
INS	zeinez	zeine(za)z	zeinetzaz	
SOZ	zeinekin		zeinekin	zeinekin
MOT	zeinagatik	zeinakgatik	zeinengatik	zeinengatik

	Etxeberri Ziburukoa		Pouvreau		Haraneder	
	SG	PL	SG	PL	SG	PL
ABS	zein/a	zein/ak	zein/a	zein/ak	zein/a	zein/ak
ERG	zeinek/ak	zeinek/ak	zeinek/ak	zeinek	zeinek/ak	zeinek/ak
DAT	zeini		zeini		zeini/ari	zeini/ei
GEN	zeinaren	zeinen	zeinaren	zeinen	zeinaren	zeinen
INS	zeinaz	zeinez	zeintaz	zeine(ta)z	zeinaz/ez/etaz	zeinetaz
SOZ			zeinarekin			
MOT			zeinagatik	zeinakgatik	zeinagatik	

	Beriain		Lazarraga		Kapanaga	
	SG	PL	SG	PL	SG	PL
ABS	zein	zeinek	zeina	zeinzuk	zein	zeinzuk
ERG	zeinek	zeinek	zeinak	zeinzuk	zeinek	zeinzuk
DAT	zeinei		zeinari	zeinai	zeini	
GEN	zeinen	zeinen	zeinaen	zeinzuen	zeinen	zeinzuen
INS	zeine(za)s	zeines	zeinaz			
SOZ			zeinagaz		zeinegaz/ekin	zeinzukaz
MOT						

Bi sistema nagusi aurkitzen ditugu.³² Batean, mugagabea doa izenordaina; numeroa gorabehera, beraz, izenordaina ez da aldatzen (Axularrek sistema hori darabil). Bestean, singularra eta plurala bereizten dira. Bereizketa hori bi eratara gauzatzen da: *zeina* eta *zeinak* forma mugatuak erabilia (Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau) edo mendebaldeko *zein(t)zuk* berrikuntzaren bidez (Lazarraga, Kapanaga). Testu gehienetan, halere, nahastuta agertzen dira hainbat aukera, erlati-

³² Alberdi Larizgoitia & García García de los Salmones (1997, 1998)-en arabera, hiru eredu bereiz daitezke: (1) zaharra, izenordaina mugagabea, (2) XVIII. eta XIX. lapurterazko idazleena, mugatua, leku-kasuetan izan ezik, eta (3) XIX. mendeko bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleena, *zein* singularrean eta *zeintzu(e)k* pluralean. Saillkapen horri ñabardura batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola Lapurdin deklinabide mugatua mugagabearekin batera agertzen dela, edota *zein/zeintzuk* bereizketa XIX. mendea baino zaharragoa dela.

bizatzen den kasuaren arabera askotan, eta beste hainbatetan ageriko arrazoirik gabe.

Lapurdiko testuak direla eta, *OEH*-ren arabera (s.v. *zein*), “por lo que se puede deducir de formas no ambiguas, parece más general el empleo de formas determinadas (singular o plural) en los dialectos más centrales (guipuzcoano y labortano) y formas indeterminadas en los demás dialectos”. Leizarragak mugagabea du normalean: *zein*, *zeinek*, *zeini*, *zeinekin*, *zeinen*, *zeinez/zeinezaz*. Baina, mugatuaren adibideak ere baditu (198): datiboan (*zeinei*), motibatiboan (*zeinagatik/zeinakgatik*) eta bizidunekin ablatiboan (*zeinaganik*). Axularrek salbuespenik gabe darabil mugagabea. Izenordain mugatua Etxeberri Ziburukoaren eta Pouvreuren lanetan hasten da sistematikoki erabiltzen. Pikabearen (1993: 277-279) arabera, absolutiboa bakarrik kontuan hartuta, XVIII. eta XIX. mendeetan forma mugatua baino ez da agertzen testuetan. Hala ere, mugagabea (Pikabeak dioenaren kontra) ere agertzen da noizean behin absolutiboan, ergatiboan eta datiboan. Genitiboan mugatua dugu. Instrumentalean ere mugatua nagusitzen da, baina zalantza gehiagorekin.

- (198) a. Itsasoko baga dorpeak, bere bileniez hagon egiten dutela, *izar errebelatuak*, [zeinei aprestatua baitaie tenebretako ilhumhea eternalki] (Leiz)
- b. Othoitz egiten duzuelarik elkarrekin guregatik ere hitzaren bortha lainkoak ireki diezagunzat, Kristen misterioaren denuntiatzeko, *zeinagatik presoner ere bainaiz* (Leiz) othoitz egiten drauagu barkatu nahi drauzkiguan *gure faltak*, [zeinakgatik hire iujemendura zordun baikara] (Leiz)
- c. Eta othoitz zegion *gizon hark*, [zeinaganik ilki izan baitziraden deabruak] (Leiz)

Oro har, Axularren sistema txukuna salbuespena da. Nafarroan, Beriain bakarrik aztertu dut eta Axularrengandik hurbil badago ere, absolutiboan numeroa bereizten du: *zein* singularrean eta *zeinek* pluralean (bi adibidetan behintzat):

- (199) a. noiz jaizi baizen zerutik Aingeru bat ematera, berria ain ditxosoa, eta ona *Arzaiei*, [zeñek baizeuden irazarririk, beren ardien begirazen]
- b. Eliza erraten dudanean nai dut erran diradela *Kristioak*, [zeñek baitirade junto, eta konforme sinestatzean fedesko gauzak,] zeñen burua baita Aita sandua, hau da Eliza

Araban, daukagun adibide gutxien arabera, mugatua erabiltzen zen: singularrean *zeina* (200) eta pluralean *zeintzuk* (201). Landucciren hiztegian *cual con articulo sarrera ceyna* formarekin itzuli zen. Betolatzak *zeyna* eta *ceinzuc* erabi-

li zituen. Lazarragak ere mugatua zerabilen (beti, inesiboko *ceñetan* izan ezik). *AL*-n honako hauek aurkitzen ditugu: *zeña/zeinzuk*, *zeñak/zeinzuk*, *zeñari/zeñai*, *zeñaen/zeinzuen*, *zeñagaz*.

- (200) a. Silviac, bere joateagaz, niri bacarric ichiric emun deustan *pena*; [ceña dan ayn andia, ece uste dot, iraungo baleu denpora ascotan, liçateala parte niri eriocea laster emayteco] (Laz)
- b. saludadu cituan eta escatu cidin *arpa bat*, [ceña utra dulcero jaiten asi çan], manera onetan cantaetan ebela (Laz)
- c. Eta *Iesu-Kristogan bere Seme unijenito geure Iaunagan*, [zeina izan zan konzebidua Espiritu Santuen obraz] (Bet)
- (201) a. Onetan eoela, aditu euen etocela *jente asco* deadarrez, [ceynçuen erditan etocen Sirena ta Silvia], soca bategaz escu delicaduac loturic lepora (Laz)
- b. Adituric, bada, Silberoc leen esan dogunau, joan cidin *musico baçuen* esera, eta erregutu eusten leguioela lagun musica bat emaitera joaten; [ceinçuc esan eusaen baiez] (Laz)
- c. *Lelengo bostak* dira nezesidadekoak, edo errezibidurik, edo deseadurik [zeinzuk bagarik ezin iñor salbadu leitekean, hetxietan badituz menosprezioagaiti] (Bet)

Bizkaian mugagabeen deklinatzen zen izenordaina singularrean, baina izenordainak modifikatzen duen izenarekin egiten du numero-komunztadura, *zeintzuk* plurala erabiliz (202).

- (202) a. Cinguluac (ceinegaz, eta lotuten dan guerriti Sacerdotea) eracustê deuscu *açoteac* [ceinçucac açotadu ebeen Christo gure Iauna] (Kap)
- b. Dagoz lurrean barruan, *lau leko* [zeinzuei bean dagozalako deresten infernuak] (ZubDot)
- c. libretan garealaco peligru ascotarean ta tentacinoe *gueure arerioentariac*, [ceinzuc direan Mundue, Demoninoa ta Araguie] (VJ)

2.5.3 Menderagailua: *-en/bait-/zero*

Aditzak daraman menderagailua dela eta, hiru aukera ditugu: *-en*, *bait-* eta *zero*. Iraganeko adizkiak arazotsuak dira *bait-* erabiltzen ez den eremuetan, *zero* bezala edo *-en* balute bezala hartu baitaitezke. Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan *-en* nagusitzen da dudarik gabe (2.29. taula), baina inolako markarik gabeko adibideak ere badaude, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan (% 15 eta % 11, hurrenez hurren). *Zero* gehien testu hauetan aurkitzen dugu (2.30. taula): Rosen gutune-

tan sei adibidetik hirutan, Kapanaga (% 26), Hualde Mayo (% 18), Elizalde (% 15) eta Otxoa Arin (% 12). Iraganeko formak zero bezala hartuz gero, asko igotzen dira zenbaki horiek. Lazarragaren *Artzain liburua* hartuta, esaterako, *-en* marka adibideen % 11tan bakarrik agertzen da zalantzarik gabe, adibide gehienek iraganeko adizkia baitute. Kapanagaren dotrinan ere markarik gabekoak eta iraganekoak baturik, adibideen erdietan gutxi gorabehera bakarrik dugu menderagailua. Nafarroan eta Erronkaribarren, *bait-* gehien agertzen bada ere, *-en* duten adibideak edo inolako markarik gabekoak ere lekukotzen dira. Lapurdin eta Zuberoan *bait-* da ia aukera bakarra. XIX. mendetik aurrera oso gutxi dira markarik gabeko adibideak (Hualde Mayo kenduta).

2.29. taula. Menderagailuak *zein* erlatiboetan, eremuka (ehunekotan).

Eremua	Guzt.	<i>bait-</i>	<i>-en</i>	Iragana	Zero
ARAB	56	0,0	10,7	85,7	3,6
BIZ	108	0,0	58,3	26,9	14,8
GIP	53	0,0	71,7	17,0	11,3
NAF	188	48,9	7,4	37,8	5,9
ERR	152	48,7	3,3	30,9	17,1
LAP	248	99,6	0,0	0,0	0,4
ZUB	300	98,7	1,3	0,0	0,0

Mendeko perpausean aditza izenordainaren ondoan jartzeko joera dago (*zein baita/den...* edo *zein izan baita/den*), bai *bait-* aurrizkiarekin, bai *-en* atzizkiarekin, bai aditza markarik gabe (edo iraganean) doanean (203). *-en* marka *bait-* baino gehiagotan agertzen da posizio horretan (2.31. taula). Aditza perpausaren bukaeran *bait-* markarekin nahiko ohikoa da, baina ez hainbeste gainerakoekin.

- (203) a. Emaiten deraucu laincoaren garacia, eta *berretcen caritatea*, [cein baita gure arimaren bicitce eguijazcoa] (Mat)
- b. Sumo Pontifize Erromakoa Kristoen *Bikario*, *edo ordeko lurrean*, [zeñi gagozan guztiok obligauta obedezieta] (Olaetx)
- c. Iancidinean iassarri bidi belaurico, eta eguinbegui *deuociñoau*, [ceinda da erraza, eta prouechu andizcoa] (Kap)

2.30. taula. Menderagailuak *zein* erlatiboetan, testuz testu (ehunekotan), markarik gabeko adibideen maiztasunaren arabera ordenatuta.

Testua	Guzt.	<i>bait-</i>	<i>-en</i>	Iragana	Zero
Ros	6	50,0	0,0	0,0	50,0
Kapanaga	58	0,0	43,1	31,0	25,9
Hualde Mayo	125	40,0	4,0	37,6	18,4
Elizalde	13	46,2	30,8	7,7	15,4
Otxoa Arin	51	0,0	72,5	15,7	11,8
Arzadun	13	0,0	61,5	30,8	7,7
Beriain	78	93,6	0,0	0,0	6,4
Lizarraga	97	13,4	10,3	72,2	4,1
Lazarraga	56	0,0	10,7	85,7	3,6
Materra	55	98,2	0,0	0,0	1,8
Mogel	5	0,0	100,0	0,0	0,0
VJ	8	0,0	87,5	12,5	0,0
Olaetxea	17	0,0	76,5	23,5	0,0
Frai Bartolome	7	0,0	71,4	28,6	0,0
Gerriko	2	0,0	50,0	50,0	0,0
Belapeire	65	96,9	3,1	0,0	0,0
Maister	70	97,1	2,9	0,0	0,0
Intxauspe	57	100,0	0,0	0,0	0,0
Duhalde	15	100,0	0,0	0,0	0,0
DoktrErr	21	100,0	0,0	0,0	0,0
Oloroeko kat.	52	100,0	0,0	0,0	0,0
Leizarraga	88	100,0	0,0	0,0	0,0
Haraneder	66	100,0	0,0	0,0	0,0
Haranburu	6	100,0	0,0	0,0	0,0
Tartas	56	100,0	0,0	0,0	0,0
Axular	18	100,0	0,0	0,0	0,0

2.31. taula. Menderagailua eta aditzaren kokapena *zein* erlatiboetan: izenordainaren ondoan, perpausaren erdian eta bukaeran.

Marka	Guzt.	Ondoan	Erdian	Bukaeran
<i>-en</i>	128	77,3	19,5	3,1
<i>bait-</i>	709	60,1	24,4	15,5
Iragana	151	58,3	37,1	4,6
Zero	40	57,5	37,5	5,0

2.5.4 Erлатibizatzen den argumentua

IAko eta IOko erlatiboekin konparatuta, *zein* erlatiboak murriztapen gutxiago du: genitiboa, datiboa, soziatiboa eta beste postposizio batzuk arazorik gabe erlatibiza daitezke egitura horren bidez:

- (204) a. Ergatiboa (A):
Eta, ala, egun baten, *bere ugaçabari* licencia escatu jacan bere errira joateco, [ceñac utra damu andia artu eben Silveroen joateaz] (Laz)
- b. Absolutiboa (S):
Cer eguiten du gure baithan *hirurgarren sagaramenduac*, [cein baita gorputz saildua]? (Mat)
- c. Absolutiboa (O):
igo eben *bere ugaçabaren aposentura*, [ceña idoro eben isiric] (Laz)
- d. Genitiboa:
Eta adoratzen zuten hura *lurreko habitant guziek*, [zeinen izenak ez-paitirade eskribatuak] (LeizTest)
- e. Datiboa:
topadu çan *arçai bigaz*, [ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen] (Laz)
- f. Instrumentala:
Bekatu hura [ceinetçaz cutsaturic sortcen baicara, Adam gure lehen-bicico aitaren becatua dela causa] (Mat)
- g. Soziatiboa:
Da geure Aita Adanengandik heredatu genduan *pekatua*, [zeñarekin jaiotzen geraden guztiok mundura] (Olaetx)
- h. Motibatiboa:
Huna, ni naiz zuek galdez zaudetena: zer da *kausa* [zeinagatik hemen baitzarete]? (Leiz)
- i. Leku-kasuak (L):
- (i) Inesiboa:
hetaric çazpi principalenac hautatu ditut, baitira *çazpi aldiac* [ceiñetan gure salbatçailleac bere odol preciatua issuri baitçuen bere passioneco egunean] (Mat)
- (ii) Destinatiboa:
Bilatu *fin principala* [cetaraco sortuzan] (Kap)
- (iii) Adlatiboa:
Zegaiti, eze dira prinzipaleenac, eta beste virtuteen *sustraiac*, [ceinetaric, eta ernetan direan] (Kap)

Argumentu horietako batzuk gainerako erlatibo motetan ez dira onartzen edo baldintza berezi batzuk betetzen direnean bakarrik onartzen dira. Instrumentalarekin, soziatiboarekin, motibatiboarekin eta genitiboarekin egindako erlatiboen % 90ek baino gehiagok izenordain galdetzailea du (2.32. taula), eta datiboaren kasuan, % 55ek. Ondoren leku-kasuak, ergatiboa eta datiboa datoz (% 37 eta % 55 artean). Halere, O-erlatiboen % 5,4 bakarrik da *zein* erlatiboa, eta S-erlatiboen % 19,4. Testuen eta eremuen arteko aldeak ez dira nabarmentzekoak (testuz testuko datuak 2.9. taulan –58. orr.– eman dira).

2.32. taula. Argumentuak *zein* egituratan erlatibizatzen diren (*zein*, IOko eta IAko erlatiboak).

Arg.	Guzt.	IA	IO	<i>zein</i>
O	1600	83,5	11,1	5,4
S	1588	65,6	15,0	19,4
L	398	61,3	1,0	37,7
A	599	36,1	20,2	43,7
DAT	139	43,2	1,4	55,4
INS	59	8,5	0,0	91,5
SOZ	38	2,6	0,0	97,4
GEN	79	0,0	0,0	100,0
MOT	8	0,0	0,0	100,0

2.33. taula. *Zein*, IOko eta IAko egituretan erlatibizatzen diren argumentuak.

Egitura	Guzt.	S	A	O	L	INS	GEN	DAT	SOZ	MOT
IA	2904	35,9	7,4	46,0	8,4	0,2	0,0	2,1	0,0	0,0
IO	559	44,0	22,7	32,2	0,7	0,0	0,0	0,4	0,0	0,0
<i>zein</i>	1119	27,6	23,1	7,8	18,2	4,8	7,1	7,1	3,4	0,8

Argumentu batzuk, beraz, beti edo ia beti erlatibizatzen dira *zein* erlatiboaren bidez, bestelako egituretan ezinezkoak baitira. Hala ere, absolutiboa, eta batez ere objektuak, gehienetan IAkoetan edo IOkoetan aurkitzen ditugu, eta noizean behin bakarrik izenordainez eratutako egituran. 2.33 taulak erakusten du *zein* erlatiboetan subjektuak eta leku-kasuak erlatibizatzen direla gehien, baina *zein* erlatiboen % 8tan bakarrik erlatibizatzen dela objektua. IA/IOko erlatiboetan O-erlatiboen proportzioa handiagoa da.

Bestalde, erlatibo-mota hori, IA/IOko erlatiboak ez bezala, esaldi osoa aurrekaria denean erabil daiteke. Oyharçabalen (2003: 815) arabera, horrelakoak testu zaharretan aurkitzen badira ere, gaur egun ez dira oso ohikoak:

- (205) a. Silvero, bada, obato erregidu cegati çan, eseco andreac aguindu eusan Silviari, ceña çan Sirenaren conpañian egoana, eugui leguiala utra contu andia Silvero erregieteaz; [cegaz utra aseguin andia artu eben ala Silveroc nola Silviac], cegati utra on alcarri erexten (Laz: AL)
- b. Guero memoriara ecarri ezquero bere pecatuac, [ceinda da confessi-
ñoen leelengo partea] (Kap)
- c. Zeren iende gaixto batzuek, lehen nitzaz gaizki erraiten zutenek, erraiten omen dute orai ongi. [Zein baita seiñale gaixtoa]. (Ax)

2.5.5 Murrizgarritasuna

IAko eta IOko erlatiboen artean alde bat badago ere, murrizgarritasuna dela eta, nahiko txikia da (IOkoak, dirudienez, maizago dira ez-murrizgarriak). *zein* erlatiboak oso ezberdinak dira: % 80 gutxi gorabehera ez-murrizgarria da (2.34. taula).³³

2.34. taula. Murrizgarritasuna: IAKo, IOko eta *zein* erlatiboak.

Egitura	Guzt.	Murr.	Ez-murr.
IA	2099	97,7	2,3
IO	501	74,9	25,1
<i>zein</i>	410	18,3	81,7

Hala ere, murrizgarriak ere posible dira:

- (206) a. Ea secretoan egoan *gauça graberenbat* iragarri dabeenz, [ceinda eucan obrigaçiãoa secretoâ eduguiteco] (Kap)
- b. Sorguinac dira *iende thailu batçuc* [ceiñec (diotenez) arnegatcen baitute bere eguiazco Iaincoaz, fedez, leguez, errecibitu duten bathayoaz, aita-amaz eta Eliçaco gauça guztiez, eta guero hartcen dute bere iaun eta nabussi deabrua, adoratcen dute, cerbitçatcen dute] (Mat)
- c. *Berthüte bat*, [zoinzaz maithatzen baitügü gaiza ororen gainetik, beraren amorekatik; eta gure kristi lagüna gihaur bezala Jinkoa gatik] (Belap)

³³ Ezaugarri honetan eta hurrengoetan *zein* erlatiboen lagin bat baino ez da kontuan hartu. Murrizgarritasuna aztertzean, zalantzazko adibideak aparte utzi dira.

2.5.6 Ardatzaren semantika

Perpaus erlatiboaren semantikaz gain, ardatzarenak ere eragiten dio egitura-
ren aukerari. *Zein* erlatiboetan ardatzen % 40 biziduna da nik aztertutako testue-
tan, IAko erlatiboetan baino askoz maizago (2.35. taula).

2.35. taula. Ardatzaren semantika IA/IOko eta *zein* erlatiboetan.

Egitura	Guzt.	Bizidun	Bizigabe
IA	500	17,8	82,2
IO	500	37,2	62,8
<i>zein</i>	501	42,7	57,3

Oro har, erlatibizatzen den argumentuaren eta animazitatearen arteko lotura dago: aurreko azpi-atal batean esan dut objektuak gutxiago erlatibizatzen dira egitura horretan beste batzuetan baino. Horren azalpena ardatzen semantika-
rekin lotuta egon daiteke. Perpaus sinpleetan objektuak bizigabeak izaten dira, baina ergatiboko subjektuak normalean bizidunak, eta gauza bera gertatzen da perpaus erlatiboetan: objektua erlatibizatzen denean, ardatza bizigabea izaten da (IAko, IOko eta *zein* guztien % 90, (207)), baina ergatiboa erlatibizatzen denean, gehienetan biziduna da (208). Beraz, *zein* erlatiboan bi emaitza horiek lotuta dau-
de: objektu-erlatibo gutxi egotea eta ardatz asko bizidunak izatea.³⁴

(207) [nic egungo egunean çure contra eguin ditudan] *becatuac* (Mat)

(208) Eta ihardesten zuela *Iudasek*, [zeinek hura traditzen baitzuen], erran zezan,
Majistrua, ni naiz? (Leiz)


2.5.7 Perpausaren luzera

Batez beste 6,0 hitz dute *zein* erlatiboek (izenordaina kontatu gabe). Luzea-
goak dira, beraz, IA/IOko erlatiboak baino: 3,7 hitz bakarrik dituzte horiek. Egilez
egile begiratuta (2.36. taula), datuak koherente dira: hamar adibide baino gehiago
dituzten testuetan 4,7 eta 8,3 hitz tartean geratzen da *zein* erlatiboen batez bes-
teko luzera, eta testu guztietan izenordaina dutenak luzeagoak dira IA/IOkoak
baino.

³⁴ Galdera da ea ardatz bizidunekiko preferentziak eragiten duen objektuak ez erlatibizatze-
ko joera hori, ala alderantziz.

2.36. taula. *Zein* erlatiboen luzera, IA/IOkoko erlatiboekin konparatuta (*zein* erlatiboaren 10 adibide baino gehiago duten testuetan). Egitura bakoitzeko batez besteko hitz-kopurua eman da. Bi egitura konparatu ahal izateko, *zein* erlatiboaren izenordaina ez da aintzat hartu.

Testua	<i>zein</i>	IA/IO
Axular	8,3	3,4
Otxoa Arin	6,5	4,2
Tartas	6,4	3,8
Lizarraga	6,4	2,8
Leizarraga	6,3	3,6
Oloroeko kat.	6,1	3,6
Beriain	6,1	3,4
Maister	6,1	3,5
Kapanaga	5,9	3,4
Haraneder	5,8	3,4
Intxauspe	5,5	3,3
Hualde Mayo	5,3	3,4
Arzadun	4,9	3,1
Lazarraga	4,9	3,1
Olaetxea	4,7	3,5



2.5. irudia. IA/IOkoko eta *zein* erlatiboen luzera. 508 *zein* eta 3463 *-en* erlatibo aztertu dira. Horregatik, biak konparatu ahal izateko, egitura bakoitzeko luzera jakin bat duten adibideen proportzioak adierazten dira irudian. Adibidez, 4 edo 5 hitz ditu IA/IOkoko erlatibo guztien % 29k eta *zein* erlatibo guztien % 30ek. Zenbaki absolutuetan, hala ere, 4-5 hitz duten IA/IOkoko erlatibo gehiago dago *zein* erlatibo baino.

Dagoeneko esan bezala, IA/IOko erlatiboen erdiek bi edo hiru hitz dituzte; zenbatekoa igo ahala, mota horiek gutxiago erabiltzen dira. Aldiz, *zein* erlatiboak luzera guztiakin (hitz batekoak kenduta, oro har gutxi baitira) aurkitzen ditugu, baita perpaus luzeekin. *zein* erlatibo guztien % 26k zortzi hitz baino gehiago ditu, baina IA/IOko erlatiboen % 4k baino ez (2.5. irudia). Aposatuen antza dute, beraz: horien laurden batek ere zortzi hitz baino gehiago ditu.³⁵

2.37. taula. *Zein* erlatiboaren posizioa perpaus nagusian (hasieran, tartean edo bukaeran).

Egitura	Guzt.	Hasieran	Tartean	Bukaeran
IA	479	35,3	9,2	55,5
IO	196	28,6	5,1	66,3
<i>zein</i>	200	4,5	5,5	90,0

tean. Izen-modifikazioan eta adjektibo kanonikoetan, aldiz, bi multzoen ebaketa adierazten da. Adjektiboei dagokienez, kasurik arruntenean, *etxe handia* sintagman adjektiboak etheen multzoan azpi-multzo bat identifikatzen du. Izen-modifikazioa antzekoa dela esan daiteke: *katu-janaria* konposatuak *janariaren* azpi-multzo bat adierazten du, ‘katu kontzeptuarekin nolabaiteko harremana duen janaria’, hain zuzen (harreman horren izaera zehatza, azaldu bezala, pragmatikaren mende dago). Bi modifikazio-mota horien arteko aldea da adjektibo kanonikoek ezaugarri sinpleak adierazten dituztela eta izen-modifikazioan konplexuak, izate bat baino gehiago dagoelako tartean.

Lau kategoria horiek gauzatzeko baliabideei dagokienez, Nikolaevak eta Spencerrek (2010) ondorioztatu dute, salbuespenak salbuespen, hizkuntzek eskalari jarraitzen diotela: eskalako bi puntu berdin markatzen badira, tartean dagoena ere modu berean adierazten da (adibidez: $A = B = C \neq D$ konfigurazioa orokortzearekin bat dator, baina ez $A = C \neq B = D$). Jabetza modu batean eta modifikazioa beste modu batean adieraztea oso arrunta da egile horien arabera, bereziki naturala delako (erreferentzialtasunak banatzen ditu), baina bestelako konfigurazioak ere ez dira falta munduko hizkuntzetan.

4.2.3 Erlazio-atzizkiak

Izen-modifikazioa dela eta, euskarak hitz konposatuak erabiltzen ditu, baina ez horiek bakarrik: modifikatzaileak *-ko* atzizkiaren bidez sortzen dira askotan. Goian aipatutako erlazio-adjektiboen antza dute batzuetan *-ko* sintagmek, baina alde garrantzitsu bat ere badago: sintagma adberbialekin ere joan daiteke *-ko* atzizkia, eta erlazio-adjektiboak sortzeko erabiltzen diren markekin oso ezohikoa da hori.

Izenei eta/edo sintagma adberbialeki erantsitako esanahirik gabeko lotura-atzizkien bidez sortzen dira modifikatzaileak hizkuntza askotan. Oro har, ematen du mota horretako markak SOV hizkuntza eransleek erabiltzen dituztela askotan.

Turkieraz (Schroeder 1998) *-ki* morfema lokatibozko ISei eranstean zaie (2), denborazko edo lokatibozko postposizio-sintagmei (3), eta denbora edo lekua adierazten duten adberbioei. Antzeko morfemak hungarieraz ((4) adibidean adberbio batekin) eta finlandieraz ((5) adibidean postposizio-sintagma batekin) ere erabiltzen dira. Kaukasoko hizkuntza askotan ere aurkitzen ditugu antzeko markak. (6) adibidean, atzizkia datibo kasu-marka daraman izenari erantsita dago, eta (7) adibidean esiboari. Godoberi hizkuntzan lokatiboari ere lotzen zaio (8).

- (2) bahçe-de-ki ağaçlar
baratz-LOC-RM arbolak
'baratzetako arbolak' (Gunkel & Schlotthauer 2009: 53)
- (3) geri dönüş-lerin-den sonra-ki ilk yıl
atzera itzuli-POSS.3PL-ABL ondoren-RM lehenengo urtea
'haien itzultzearen ondoko lehenengo urtea' (Schroeder 1998: 206)
- (4) a ma-i találkozás
DET gaur-RM bilera
'gaurko bilera' (Gunkel & Schlotthauer 2009: 54)
- (5) Helsingin ja Turun väli-nen rautatie
Helsinki.GEN eta Turku.GEN distantzia-RM trenbidea
'Helsinki eta Turku arteko trenbidea' (Gunkel & Schlotthauer 2008)
- (6) babade žin-La-še řeni b-eq'ari
ama:ERG behi-DAT-ATTR ura N-ekarri
'Amak [behiarentzako ura] ekarri zuen.' (Akhvakh, Nakh-Daghestanian, Haspelmath 1996)
- (7) du-ge heL'ar-iše čilo
2SG-ESS ahoan-ESS-ADJZ hortza
'zure ahoko hortza' (Axaxdərə Akhvakh, Creissels 2010: 130)
- (8) bel-qi-šu ihur č'ikoar ida
mendi-DISTRIBUTIVE-ATTR laku:NOM polita izan:PRS
'[Mendiko lakua] polita da.' (Koptjevskaja-Tamm 2002: 151)

De Rijk (1998 [1993]) ohartu zen bezala, munduko hizkuntzei begiratzen badiegu, *-ko* atzizkiak ez du ezer berezirik. Japoniera, turkiera eta hungariera aipatu zituen antzeko morfemak dituzten hizkuntzen adibide bezala. Gainera, ikusi zuen, izenen modifikatzailei dagokienez, euskara bezalako hizkuntzen eta ingelesa bezalako artean aldea zein den, eta "hospitality scale" delakoa proposatu zuen (de Rijk 1998 [1993]: 379). Hizkuntza batzuetan postposizio-sintagma guztiak (edo PSren funtzioa dutenak, adberbio-funtzioa duten sintagma, alegia) arazorik gabe erabil daitezke izen bat modifikatzeko; beste hizkuntza batzuetan, batzuk bakarrik eta, eskalaren muturrean, izenen modifikatzaile gisa inolako PSrik onartzen ez duten hizkuntzak dauzkagu.

Ingelese, esaterako, postposizio-sintagma modifikatzaile bezala erabil daitezke inolako aldaketa formalik gabe: *mothers for peace, the road from Vitoria to Bilbao, bread from heaven*. Beste hizkuntza batzuek, euskarak kasu, ez dizkiete PSak izenei zuzenean erantzen, eta baliabide bereziak behar dira modifikatzaileak sortzeko: perpaus erlatiboak (jokatu gabekoak askotan) edo genitibo modu-

ko lotura-hizkiak.⁵ Euskaraz biak dira posible, De Rijk ohartu bezala: *batbederak elkharrentzat duzuen amodioa* (Duvoisin) eta *batbederaren elkarganako karitatea* (LeizTest).⁶

Gunkel & Schlotthauer (2009) lanean antzera aztertzen da modifikazioaren gaia. Egile horien arabera, modifikatzaileak bi multzotan bana daitezke: izenarenak eta aditzarenak. Aditzari dagozkionak hauek dira: adberbioak, adberbio-sintagmak eta perpaus adberbialak, adposizio-sintagmak eta kasu-marka jakin batzuk dituzten izen-sintagmak (lokatiboa eta instrumentala bereziki). Kontua da aditzaren modifikatzaile bat izena modifikatzeko erabili nahi denean (eta, alderantziz izenaren modifikatzaile bat aditza modifikatzeko), hizkuntza askotan aldaketa morfosintaktikoak gertatzen dira. Euskarazko *-ko* atzizkiaren funtzioa da, hain zuzen, aditzarekin erabiltzen diren sintagma batzuk izenaren modifikatzaile bihurtzea.

⁵ *Adjectivizer, linking morpheme, attributivizer, relational morpheme* izenak aurkitzen dira literaturan halako morfemak izendatzeko.

⁶ Erromantzez *de* batzuetan erabiltzen da antzeko funtzioekin. Euskararen eta erromantzeen arteko aldea da euskaraz testuinguru gehiagotara zabaldua dagoela erlazio-atzizkia. Adberbioek, esaterako, antzera jokatzen dute bietan: *atzoko ogia* eta *el pan de ayer*, *betiko laguna* eta *el amigo de siempre*, etab. Materiala adierazten denean, gaztelaniaz *casa de piedra* dugu, baina euskaraz instrumentala gehi *-ko*: *harrizko etxea*. Beste hainbatek, halere, erromantzez ez dute *de* behar: *un libro sobre literatura* eta *literaturari buruzko liburua*.

4.3 Erlazio-atzizkiaren erabileraz

4.3.1 Aingura gabeko erlazioak eta aingura-erlazioak euskaraz

Munduko hizkuntzetan ohikoa da egitura bat baino gehiago erabiltzea jabetza-modifikazioa erlazioak adierazteko, baita erlazio-mota batean egitura batzuk lehian egotea ere. Ingelesezt, aurreko atalean esan bezala, bi genitibo, konposizioa eta adjektiboak ditugu (4.1. taula). Beste adibide bat latina da. Latinez (Kuryłowicz 1964) genitiboa beste hainbat egiturarekin lehiatzen zen: jabetza-genitiboa adjektiboekin, definizio-genitiboa egitura aposatuarekin, nolakotasun-genitiboa bahuarihi konposatuarekin eta nolakotasun-ablatiboarekin.⁷

Euskaraz (4.2. taula) ere baliabide batzuk baditugu: genitiboa, I-I konposizioa, *-ko* atzizkia eta adjektiboa dira garrantzitsuenak. Aurrekoei *-dun* atzizkia eta I-Adj konposatuak ere gehitu behar zaizkie. Aingura-erlazioak adierazteko, genitiboa eta erlazio-atzizkia erabiltzen dira, baina aingura gabeko erlazioetan baliabide gehiago ditugu.

Erlazio-atzizkiaren eta beste baliabide batzuen arteko erlazioak oso konplexuak dira, eta hemen egin daitekeena baino ikerketa sakonagoa merezi dute. Atal honetan, beraz, arazoaren erakusgarri, baliabide horiek lotzen eta bereizten dituzten oinarritzko ezaugarri batzuk baino ez ditut aipatuko.

Genitiboaren eta erlazio-atzizkiaren arteko erlazioak bereziki korapilatsuak dira. Normalean ez dago zalantzarik genitiboa ala erlazio-atzizkia aukeratu behar den (Euskaltzaindia 1991: 202): egilea adierazi nahi denean (*gizonaren lana*), objektua (*etxearen erosketa*) edo jabea (*aitaren etxea*). *Euskal Herriaren adiskideak* eta *Euskal Herriko adiskideak* oso ezberdinak dira, Goenagak dioen bezala (1981: 155-156). Bi atzizkien arteko alderik inportanteena hau da: *-ko* izan daiteke generikoa edo espezifikoa, genitiboa beti espezifikoa da (begiratu orobat Zabala 1999: 129). Lafonen (1999 [1965]: 178) arabera, “*Etxeko jaun, katiximako kapitulu, eskolako athe, eskolako lagun désignent un maitre, un chapitre, une porte, un camarade d’une certaine sorte ou catégorie; mais katiximaren akhabantza ne désigne*

⁷ Magniren (2013) arabera, denbora igaro ahala genitiboa irabazten zihoan guztietan. Bestalde, latinez genitiboa-izena hitz-ordenatik izena-genitiboa ordenara gertatu zen aldaketa neurri handi batean aingura gabeko erlazioak adierazten zituzten genitiboen bidez gertatu zen: “After a long phase of constructional variation, NG structures definitely encroach on nominal modification and gradually replace adjectival constructions, thus becoming the preferred construction for non-anchoring relations. While adjectives recede towards prototypical functions, also starting to separate from nouns, constructions with postnominal genitives constantly increase their frequency (...). In this way, the gradual spread of NG constructions paves the way for the loss of the GN order and contributes to establish the new SVO typology of the Romance languages” (Magni 2013: 195).

4.1. taula. Aingura- eta aingura gabeko erlazioak adierazteko modu ohikoenak ingelesez (Magni 2013 lanean oinarrituta).

Erlazioa	Egitura	Adibidea
A	's genitiboa	<i>John's house</i>
	of genitiboa	<i>queen of England</i>
AG	I-I konposatuak	<i>summer holidays</i>
	's genitiboa	<i>woman's magazine</i>
	of genitiboa	<i>man of great influence</i>
	adjektiboak	<i>blue sky</i>

4.2. taula. Aingura- eta aingura gabeko erlazioak adierazteko modu ohikoenak euskaraz.

Erlazioa	Egitura	Adibidea
A	genitiboa	<i>Jonen etxea</i>
	-ko atzizkia	<i>atzoko afaria</i>
AG	I-I konposatuak	<i>talde lana</i>
	-ko atzizkia	<i>udako oporrak</i> <i>ospe handiko gizona</i>
	I-Adj konposatuak	<i>mutil begi handia</i>
	-dun	<i>praka gorridun mutila</i>
	adjektiboak	<i>zeru urdina</i>

pas une fin d'une certaine sorte". Horregatik, Goenagaren (2003: 288) arabera, hainbat kasutan ezinezkoa da genitiboa:

- (9) a. Fonetikako liburua, irakaslea, eskola, laborategia...
b. *Fonetikaren liburua, irakaslea, eskola, laborategia...

Hainbat kasutan, hala ere, oso hurbil geratzen dira. Goenagaren (2003: 290) arabera, "Zernahi gisaz, badirudi -KO izenlagunak onartzen dituzten izenak konkretuagoak direla —abstraktu/konkretu kontu hau oso badaezpadakoa bada ere—. Ondoko adibide hauetan, aldiz, "munduari buruzko kontzeptualizazio desberdinak ikus daitezke", Goenagaren hitzetan:⁸

⁸ Horrekin lotuta, agian ikertzea merezi duen galdera hau da: diakronian zein da joera —genitibotik erlazio-atzizkira ala alderantziz—, aldaketarik baldin badago? Leizarraga eta Haraneder konparatuta, irudi luke Leizarragak gehiagotan erabili zuela -ko:

- (10) a. munduko resuma guziak eta hetako gloria (LeizTest) > munduko erresuma guziak eta hekien gloria handia (Harand)
b. Zuek zarete munduko argia > Zuek zarete munduaren argia.
c. glorifika zezaten Israeleko Iainkoa > handiesten zuten Israelen Jainkoa.
d. tenpleko edifizioen hari erakustera > hari erakutsteko tenpluaren asentu ederrak
e. populuko Anzianoak > populuaren arteko zaharrak

- (11) a. Euskal Herriaren historia – Euskal Herriko historia
 b. Udalaren aurrekontuak – Udaleko aurrekontuak

Aurnague (1998)-en arabera, *-ko/-ren* alternantzia parte-osotasuna erlazioekin gertatzen da batez ere.

Arazoa gehiago korapilatzeke, batzuetan hitzaren arabekoak izaten dira atzizki batekiko edo bestearekiko preferentziak; *gorputz* izenarekin, esaterako (OEH, s.v. *gorputz*):

En cuanto al uso de los sufs. *-(r)en* y *-ko* en determinados contextos, resulta difícil establecer reglas o tendencias generales atendiendo al contexto, época o dialecto. Así por ej. con sust. como *atsegin, plazer...*; *neke, pena...* se documentan en proporción similar tanto *gorputzaren* como *gorputzeko*, independientemente de la época o dialecto. En el caso de *gaitz, gaixo, eritasun, osasun...* es notablemente más frecuente el empleo de *-ko*. Es tbn. más frecuente *-ko* con *parte, zati, atal...*; *behar, premia...*; *garbitasun...* La misma tendencia se observa en el caso de *sentidu, zentzu(n)*... en el que tbn. son algo más numerosos los ej. de *-ko*.

Jabetza adierazten duen *-dun* atzizkia dela eta, Azkaratek eta Altunak (1992) *-ko-ren* eta *-dun-en* arteko erlazioak aztertu dituzte eta erakusten dute batzuetan aukera batzuk ditugula modifikatzaile berberarekin:

- (12) a. begi urdineko mutila
 b. begi urdindun mutila
 c. mutil begi-urdina

Oro har, joera hau nabarmentzen dute: izena abstraktua denean *-ko* atzizkia nagusitzen da; konkretuekin, berriz, *-dun* da ohikoagoa (*zulo-handidun gazta*, adibidez). *Gorputz-atala/jantzia* + izenondoa motakoetan *-dun* sarriago agertzen da (*atorra dotoredun*), batez ere mendebaldeko testuetan.

[IZENA-ADJEKTIBOA] konposatu exozentrikoak ere aipatu behar dira. Nahiko emankorrak dira horiek euskaraz. Esanahia normalean ‘someone who has an N which is ADJ’ (Hualde 2003: 355) da (13-a), baina batzuetan metaforikoa izan daiteke (13-b).⁹

- (13) a. buru-handi, tripa-handi, begi-gorri, sudur-luze...
 b. aho-bero, aho-handi, esku-zabal

Azkenik, [IZENA-IZENA] konposizioa dugu. Oso emankorra da euskaraz: *txori-kaiola, talde-lan, lan-talde, atzerri-hizkuntza, basa-jaun, istilu-iturri* (Hualde 2003: 354).

f. abrestasunezko enganioak > aberatstasunen enganioak

⁹ Testu zaharretan aurkitzen ditugu adibide batzuk: *zinamoma urrin onak* (LeizTest), *gizon gogo onek, balsamu urriñ ona, lore usain ona* (EtxZib), *Lece aho meharra* (EtxZib). Interesgarria izan daiteke horrelakoen erabilera diakronikoki hobeto aztertzea.

4.3.2 Destinatiboaz eta *-ko*-ren etimologiaz

Erlazio-atzizkian zentratu baino lehen, *-ko* atzizkiaren destinatibo-adiera gogora ekartzea merezi du. Izan ere, ezin da erlazio-atzizkiaz hitz egin destinatibo erabat baztertuta. Batetik, badira bietara interpreta daitezkeen testuinguruak. Adibidez, Etxepareren *orazione igandeko* ‘igandeko orazionea’ ala ‘orazionea igandeko’ da? Ikus daitezkeen bezala, gaiak zerikusia izan dezake hitz-ordenarekin. Bestalde, gero ikusiko dugun moduan, destinatiboak *-ko* sintagma berezi batzuen (*gogoko* motakoak) jokoera ulertzen laguntzen du.

Testu zaharrenetatik, beraz, *-ko* morfemak, erlazio-atzizki bezala erabiltzeaz gain, destinatibo ere adieraz dezake:

- (14) a. eta dagoala denporea asignadur[ic] egun seigarren *eguneco* (Laz)
- b. *çure contentamentuco* (Laz)
- (15) a. *Guibleco* on dana *areco* gasso (RS)
- b. Mayaz yluna ta baguil arguia, *hurte gustico* oguia (RS)
- c. Oasun eçeyn baño obea *carzaroco* alabea (RS)
- (16) a. Orazione *igandeko* (Etxep)
- b. Gizonaren *probexuko* emazia bethi da (Etxep)
- (17) a. *Eguneko* eskatzen aizen ogiaz zer aditzen duk? (LeizKat)
- b. eta Sakramendu hunez *Elizako* egiten gara (LeizABC)
- c. gizonen *irudiko* egin izanik (LeizTest)
- d. eta *gure redenptioneko* behar ziraden gauza guziak konpliturik (Leiz-Kat)
- (18) a. *Arimaco* eta *gorputceco* behar ditugun guztiac (Mat)
- b. Iainco eternala, *çure* botherearen indarraz eguna eta gaua *guiçonaren probetchuco* creatu eta ordenatu dituçuna (Mat)
- (19) *Haurzaroko* orbaina, ezaba daite gaztaroko (OihPr 223)
- (20) a. Conseillua *sappharpeco*, guero ere aguerizco (Bela 14)
- b. Emazte ederra *bordeleco*, *guiçon* ederra *urkabeco* (Bela 20)

Ez da euskarak duen destinatiboaren¹⁰ marka bakarra. Caminok (2008: 120) Nafarroa Behereko euskarari buruzko lan batean dioenez, “ibilbide konplexua du atzizki destinatiboaren bilakaerak”, hainbat atzizki eta aldaera lehian zeudelako: *-ren* (21), *-ko*, *-tako* (22) (*-dako* *-n*- ostean (23)), *-tzat* (24), *-tzako* (25) eta *-rako* (26). *Guiristinoendacotçat* edo *guretakoizat* bezalako formak ere lekukotzen dira, lehenengoa Caminok aipatzen dituen 1762ko Bazkazaneko predikuetan; bi-

¹⁰ “Destinatibo” esaten dudanean, “prolatibo” edo “benefaktibo” ere barruan sartzen ditut.

garrena Barrutiak du. *Betiko* edo *sekulako* hitzen forma ezberdinetan ere ikusten da zeinen konplikatua den gaia (27).

- (21) a. Cherri gorri *haurren*, / Haraguia *jaunen* (Zalg)
 b. *Noren* ari aiz? lo *datzanaren* (Oih)
- (22) a. *guretaco* oguian (TAV 3.1.20)
 b. Nay nauzu zure *senarretaco*? (1626, *Contr.* 5.2.3)
 c. *çuretaco* nola enetaco (Laz)
 d. *Enetako* ohoin zira (Etxep)
 e. haren *desohoretako* den doktrina guzia (LeizSarrera)
 f. *emaztetako* amorio desordenatuak (Ax)
 g. Ni *certaco* iayo ninzan? (Suescun)
- (23) a. daucaçun gach *orrendaco* remedio emayten baxe (Laz)
 b. eta arc emun deust ezpata oec *çuendaco* (Laz)
 c. *zuiendako* egin ditut lurra eta zeruiak (Etxep)
 d. Biden ber<h>o, *choriendaco* (Bela)
 e. alaba *orrendaco* (Zum)
- (24) a. oençat castigua dan eta / *besteoençat* exenplu (Laz)
 b. Infernuetan / daoç *çuençat* grilluac (Laz)
- (25) a. Esaten da vlertudin moduan; cerren da *guztiêçaco* (Kap)
 b. Serren diñoe doctoreac goxeti xayguita dala ona *ossasunensaco* (Mikol)
 c. D.P. Esta au demporea *gorraensaco*, yndasuç, ferreruelua ta sombreroa (Mikol)
- (26) a. R. Bilatu fin principala *cetaraco* sortuzan. P. Ze *finetaraco* sortu zâ (Kap)
 b. R. Emon deigula sustentu bear doguna arimaraco, eta gorpuçeraco (Kap)
 c. Ogi bihia granererako eta lastoa surako (LeizTest)
- (27) a. Machin llamado seculaco (1437, Iruñea, Reguero Ugarte 2011) sekulakoz (Etxep), sekulakotz (Leiz), sekulareko (Laz) secularecoz (Laz), sekulakotzat (EtxZib)
 b. betiko (RS), bethiko (EtxZib), bethikotz (EtxZib, Pouv), betikotzat (Mendib, Duvoisin), betirako (XX. mendea)

Santaziliaren (2013: 272-273) arabera, bizidunekin, dialektoaren arabera, *-(r)entzat* eta *-(r)endako* erabiltzen dira gaur egun (biak lehenengo testuetatik lekukotuta); bizigabeekin, aldiz, normalean *-ra-ko*.

Kronologiari dagokionez, *-ren* eta *-ko* sinpleenak direnez, zaharrenak izan behar dira. Genitiboa orokorragoa da, ez baitirudi bizidunekin *-ko* inoiz posible

izan denik (baina *-tako* bai). Funtzio ezberdinak izan bide zituzten: genitiboa bizidunekin eta *-ko* bizigabeekin. Gero sortu ziren, batetik, genitiboaren gainean egindako formak (*-(r)entzat*, *-etako* eta *-(r)endako*) eta, bestalde, *-ko* atzizkiaren gainean eraikitakoak: *-ko-tz* eta *-ko-tzat*. Destinatiboaren funtzioarekin erabiltzen den *-(r)entzako* XVII. mendean agertzen da. Azkenik, *-rako* lehenengo testuetatik lekukotzen da (nahiz eta bere erabilera geroago hedatu zen).¹¹

Erlazio-atzizkiaren bi erabilera nagusi ditugu, beraz: erlazio-atzizkia eta destinatiboa. Galdera da ea argitzerik dugun bien arteko harreman diakronikoa zein den.

Lafonen arabera (1999 [1965]: 192), “On est passé facilement de *biharko lana* «le travail de demain» a *Badut lana frango biharko* «j’ai beaucoup de travail pour demain»”. Beraz, modifikatzailetik sortu zen destinatiboa, Lafonen ustez: izen-sintagmatik atera zen *-ko* atzizkia eta erabilera beregaina garatu zuen. [GEN-tzako] eta *-rako* atzizkientzat ere azalpen bera proposatzen da. [GEN-tzako] destinatiboa dela eta, halere, adberbioaren funtzioarekin lehenago agertzen da testuetan, izenen modifikatzailearekin baino.¹² Erlazioko eta destinatiboko *-ko* hartuta, corpuseko datuek ez digute laguntzen auzia argitzen, biak azaltzen baitira lehenengo testuetatik.

Lafonen proposamenaren arazoa da ez duela azaltzen nola sortu zen *etxe-ko* ‘etxerako’-ren eta *etxekoa* ‘etxean dagoena’-ren arteko kontrastea. Kontua da *bihar* bezalako hitzekin, berez etorkizuneko —edo, oro har, denborazko— esanahia dutenekin, *biharko lana*-tik *Badut lana frango biharko*-ra erraz pasa daitekeela, Lafonek dioten moduan, baina *bihar* adberbioaren semantikagatik. Ez du berdin funtzionatzen beste izen batzuekin: *gibelego mina* bezalako zerbaitetik abiatuta ez da horren erraz iristen *Guibeleco on dana areco gasso* (RS) bezalako erabilerara. Halere, Lafonen hipotesiak funtzionatzeko, proposa daiteke *-ko* destinatiboa *biharko* motakoetatik sortu zela, etorkizuneko edo helburuzko se-

¹¹ Aditz-morfologian ere aurkitzen dugu destinatiboa: nominalizazioetan eta etorkizuneko formatan. Etorkizuneko markaren sorrera hobeto ulertzen da destinatibotik abiatuz gero, erlazio-atzizkitik abiatuta baino: “Sans doute cette valeur des marqueurs *-ko* et *-en* dans le futur (...) est elle plus liée à la valeur destinative de ces marqueurs, qu’à leur caractère proprement génitif” (Oyharçabal 1987: 409-410). Mounoleren (2011: 313) arabera: “nous croyons que cette structure analytique exprimait au départ une destination du sujet – avec un participe intransitif –, ou du patient – avec un participe transitif –, et que ce n’est que dans un second temps qu’elle acquit valeur temporelle”.

¹² *-(r)entzako* atzizkia lehenbiziko aldiz XVII. mendeko Bizkaiko testuetan aurkitzen dugu (25). XVIII. mendean ere badaude adibide batzuk, baina Bizkaian eta Gipuzkoan oso ohikoa bihurtzen da XIX. mendeaz geroztik. Lehenengo adibideetan funtzio adberbiala du *-tzako* atzizkiak (destinatiboa). Izen-modifikatzaile bezala Haranederrek du lehenbizikoz: *pausuarentzako edo alferkeriarentzako amodioa* (HarandGudu). XIX. mendean adibide ugari agertzen dira hizkera guztietan.

mantika duten izen edo adberbio batzuekin, eta gero bestelako testuinguruetara (*etxeko* bezalakoetara) zabaldu zela.

Destinatiboaren eta erlazio-atzizkiaren arteko harremana argitzeko, *-ko* morfemaren etimologia izan daiteke baliagarria. Hainbat hizkuntzalari (Goenaga 1985, esaterako) ohartu ziren *mendiko etxea* bezalako *-ko* sintagmaren esanahia eta *mendian dagoen etxea* erlatiboarena berdinak direla. Lakarrak (2017) proposatzen du lotura hori diakronikoa izan daitekeela. Zehatzago, *-ko* eta *egon* aditza lotuta daude, eta *-ko* perpaus erlatiboetan erabiltzen zen *egon* aditzaren erroetik datorrela, azken kontsonantea galduta (**gon > go*) eta *go > ko* Trasken legearen bitartez. Gaur egungo erlatibo jokatuaren ordez (28-a), partizipioa duen egitura testuinguru egokia litzateke (28-b); mota horretako erlatiboak zaharrak dira (oraindik ere erabiltzen dira; begiratu 2.4 atala). (28-b)-ko egituran sintagma osoago bat ere ager zitekeen, edota kasu-marka duen izena. Horrela sor zitezkeen oinarrian leku-kasuak, instrumentala edo bestelako sintagma adberbiala dituzten *-ko* sintagmak.

- (28) a. etxean dagoen leihoa
 b. etxean egon leihoa
 c. etxeko leihoa

Zehatzago, *larraineko* vs *larraingo* (eta *eguneko* vs *egungo*) bereizketa azaltzeko, ondoko egituretatik abiatu beharko genuke:

- (29) a. *larrain-e go
 b. *larrain go

Mitxelenak honela azaltzen du kontraste hori:

Lo que sabemos de la lengua en siglos posteriores sugiere una explicación, que parece válida en términos generales: ya entonces se intercalaba una *-e* ante el sufijo cuando el tema nominal acababa en sonante. Pero ello sólo ocurría cuando el tema era nombre común, sustantivo o adjetivo sustantivado, o estaba considerado como tal: no cuando era empleado como nombre propio en el sentido preciso de la palabra: más gráficamente, *Larraineco(a)* era o se entendía como '(el) de la era', mientras que *Larraingo* significaba simplemente 'de Larrain' (Mitxelena 2011 [1969]: 511).

Lakarrak (2016) *-e* horri buruz hau dio: “bistakoa da ez dela sortzez epentesi arrunt bat eta baita genitiboko *-e*, lokatibo ezberdinetako «epentesia» —izatez, lehenagoko lokatibo orokorra— eta aditz zaharretako gehi zenbait partikula hasierako *e*-ren arteko «antza» ere ez dela halabehar hutsa”. (29-a) adibidean, beraz, *[IZENA-LOKATIBO go] genuke, eta (29-b)-n, *[IZEN PROPIOA go]. Izen propioen semantikagatik (leku-kasuekin leku-izenak erabiltzen dira asko) ez zuten lokatiboa behar. Adberbioetan ez da *-e* agertzen (*egungo*), adberbioek ezin dutelako

kasu-markarik hartu. Izen arruntetan, kontsonanteen ondoan epentesi bezala berriinterpretatu zen.

Erlazio-atzizkiaren diakroniaz hitz egitean, inesiboaren arazoa ere aipatu behar da. Euskalariak aspaldi konturatu ziren erlazio-atzizkia leku-kasuekin arazorik gabe konbinatzen dela, inesiboarekin izan ezik. Zehatzago, inesibo singularrari ezin zaio gehitu atzizkia (***mendianko*). Pluraleko edo mugagabeko formekin azken kontsonantea erortzen da, baina aurretik dagoen *-(e)ta*- geratzen da: *mendietako*, *menditako*, *mendi honetako*.

Inesiboaren arazoari Mitxelenak (2011 [1972]), eta aurretik, Trask ohartu bezala, Lhandek (1926), eman zion irtenbide dotore askoa, *mendiko* bezalako formen azpian inesiboa dagoela iritzita. [mendien-ko] *mendiko* bezala azaleratzen da: “lo que subyace a *mendi-ko* ‘del monte’ no es *mendi* + *-a* + *-ko*, es decir, tema + art. det. + *-ko*, sino *mendi* + *-a-n* + *-ko*, o sea, tema en inesivo determinado + suf. En otras palabras, **mendiango* se realiza en la superficie como *mendiko*” (Mitxelena 2011 [1972]: 106).

Traskek dioenez (1984: 192), *etxeko* formaren azpian inesiboa + *-ko* baldin badugu, Mitxelenak argudiatu bezala, erraza da azaltzea **semeko etxea* zergatik den ezinezkoa: bizidunekin *-gan* atzizkiaren edo *baita*- partikularen bidez sortzen da inesiboa.¹³ Horregatik *-gan* + *-ko* edo *baitan* + *-ko* posible izatea espero da. Oro har, nahiz eta forma horiek oso maiz ez diren agertzen, horrela da: *baitango*, *-ganako*¹⁴ testuetan lekukotzen dira (eta lehenengo testuetatik). Gainera, atzizkiaren lekuzko esanahia nondik datorren ere argitzen du proposamen horrek: atzizkiak berak ez du esanahirik, baina azpian dagoen inesiboak ematen dio lekuzko kutsu hori. Mitxelenak iradoki bezala, hipotesi hori testu zaharretan *barruangoak* bezalako formek indartzen dutela pentsa daiteke, lehenagoko egoera baten —inesibo eta *-ko* atzizkia bateragarri zirenekoaren— aztarnak izan baitaitezke (30).

(30) a. Orti Arregurengo (1283, Iratxe, Reguero Ugarte 2013)

b. Dota Ezquerrango (XIII. m., SJuan, Reguero Ugarte 2013)

¹³ Mitxelenak (2011 [1972]: 100) ideia bat ematen du bizidunen eta *-ko* atzizkiaren bateraezintasuna dela eta: “La razón histórica de este hueco en el paradigma es, al parecer, que *-ko* con nombres animados conservó —o adquirió— un valor derivativo, ante todo diminutivo (bien atestiguado ya en inscripciones aquitanas), que lo apartó por completo de *-ko* en los paradigmas de flexión nominal”. Halere, zaila da erlazio-atzizkiaren eta diminutiboaren arteko lotura horren aldeko argudiorik aurkitzea.

¹⁴ Bizidunekin *-gan* + *-ko* bilkurak ez du *-ganeko*, *-gango* edo *-gako* ematen (Trask 1984: 192), espero zitekeen bezala: *-ganako* bakarrik daukagu eta *-gana* adlatiboa du horrek azpian, nahiz eta esanahia inesiboarena izan. Trasken arabera *-gan* eta *-gana* neutralizatzen dira testuinguru honetan. Salbuespen bakarra, nik dakidala, *beregango* ‘berekiko, bere artean’ forma litzateke (aski berria: Mendiburuk du lehenbizikoz). Litekeena da *-ganako* forma jatorriz adlatibozkoa izatea, inesiboa eskatzen duten testuinguruetara zabalduta.

- c. behengo: In termino qui dicitur behengo landa (1177), Domicu beengo (1200), Nostra casa que ha nomne viengo echea (1260), Sancho garçia beyengoa (1350) (*OEH*)
- d. oñeztar barruangoac (ArrasErrek)
- e. Hurtealango murcoa (RS 191)
- f. osteango beste berbaen artean, gorpuceango araguioc (Laz)
- g. eguneango gure ogia (Bet), egunean eguneango geure ogia (Kap; antzekoak Bizkaian oro har)
- h. Yaungoikoaren alderako maitetasuna, beragango esperantza (AñibEsk, *OEH*),
- i. Nolaango lecuca, Alaango cobrua (Garibai, *OEH*)
- j. osteango (Mogel), urteango (AñibGer), bagaango (AñibEsk), verbaan verbaango (frBart) astian astiango (frBart), curutzeango (AMZabala) (Manterola 2015: 261)

Horiez gain, Zuberoako *etxen*ko formak ere indartzen du hipotesia.¹⁵ Zuberoako testu zaharretan *goizanko* ere agertzen da (*goizanko othoitzia* Belap, esaterako).

Hala ere, Manterolaren (2015: 259-262) arabera, *-n + -ko* forma guztiak ez dira iturri berekoak. Batetik, *etxen*ko arkaismoa litzateke (*etxen*, *soinen* inesibo mugagabe zaharraren formak bezala), eta forma horiek Mitxelenaren hipotesiaren aldeko argudioak dira. Mendebaldeko *barruango* edo *gorputzeango* formek, aldiz, berrikuntzak izateko aukera asko dituzte (arrakasta askorik gabekoak, gainera). Forma mugatuak dira, eta horregatik bakarrik oso zaharrak (erlatiboki) ezin dira izan. Manterolak proposatzen du *hango* erakusletik datorrela atzizkia forma horietan: *barruan ang*o > *barruango*, *gorputza ang*o > *gorputzeango*. RSeiko *hurtealango* forman ere *urte alango* genuke. Azkenik, *goizanko* sintagma *goizan* adberbio lexikalizatu batetik etor daiteke.

Lakarrak proposatutako etimologia onartuz gero, inesiboaren auzian ezer aldatzen duen galde dezakegu. Goian emandako eskeman inesiboa gehitzeak ez dirudi zaila:

(31) *larrain-e-n go

Artikuluaren sortzeaz Manterolaren esanak kontuan hartuta, artikulurik gabeko inesibo zaharra genuke hor (*etxen*ko forman agertzen zaiguna). Hala ere, inesiboaren marka galtzea nola edo zergatik gertatu zen ulertu gabe jarraitzen dugula

¹⁵ Camino (2009: 200): “Lokatiboan jokaturik dagoenean, inesiboaren atzizkia era zaharreen itsatsirik darama *etxe* hitzak Amikuzen: Arrüetan –*etxengo arthua* adibidean–, Bithiriñan, Martxüetan, Labetzen, Arbotin, Zohotan, Arberatzen, Zuberoako Etxarrin...; ordea, gainerako hitzen joko lokatiboan ez da inesiboaren atzizkirik ageri”.

dirudi. Argi dago inesiboa ezabatzea ez dela arazo fonologikoa (*hemengo* posible da eta); Traskek (1997: 242) esan bezala “it must represent a reformation”.¹⁶

Gauzak horrela, agian ez litzateke erabat burugabea pentsatzea inesiborik ez dagoela *-ko* sintagmen atzean. Traskek dio Mitxelenaren ideiak azaltzen duela *etxeko* bezalako sintagmek duten lekuzko kutsua. Hala ere, (29) eskeman ((32)-an errepikatua), inesiboa sartu gabe ere, espazioaren esanahia eman dezaketen beste bi elementu ditugu: *-e* lokatibo zaharra —gero genitibo bihurtu zena—, eta *egon* aditzaren erroa. Inesiboa ager zitekeen egitura horretan esanahi hori indartzeko (edo pleonasm bezala), baina *-ko* atzizkiaren ezaugarriak azaltzeko beharrezkoa behintzat ez da. (30)-ko formak azaltzea ere ez da horren zaila: batzuk [ADBERBIOA-ko] izan daitezke (*behengo* edo *osteango*; *barruango* ere horrela interpretatu daiteke) edo, Manterolak argudiatzen duen moduan, [IZENA hango] forma berriak.

- (32) a. *larrain-e go
b. *larrain go

Inesiboaren arazoa gorabehera, *etxeko* bezalako formen jatorrizko esanahia ‘etxean dagoena’ litzateke. Atalaren hasieran egindako galderara itzulita, nolatan sortzen da, bada, destinatiboarena? Lafonen azalpena aukera bat da, baina agian beste proposamen bat egin daiteke *-go-* erroaren familia kontuan hartuta, eta, zehatzago, *gogo* hitzan aurkitzen dugun semantika. *OEH*-ren arabera, *gogo* hitzak adiera hauek ditu: testu zaharretik lekukotuta ‘alma, espíritu; pensamiento, mente, memoria’ eta ‘deseo; voluntad’, eta, dirudienez, zertxobait berriagoa ‘intención, pensamiento; propósito’. Gramatikalizazioaren ikuspuntutik begiratuta, guztiak oso egokiak dira destinatiboaren moduko markaren jatorri bezala. posible da, beraz, destinatiboa sortzea erlazio-atzizkia sortu zen erro beretik, baina modu independentean (agian beste egitura batetik).¹⁷

¹⁶ *-ngo- > -ko-* bihurtzea *emeko* ‘hemengo’ forman gertatu da (Bizkaian *emeti* ere badago): “en los vizcaínos, además de ésta [= *hemengo*] es usada, con menor frecuencia, *emeko* (Añ, Astar II 122, Azc PB 320, Echa Jos 104, Laux BBa 100, Otx 111, Akas Ipiñ 18)”, baita *ebeco gauçacaz* (fJZum) ere.

¹⁷ Lafonek erlazio-atzizkia > destinatiboa norabidea proposatu zuen, eta Lakarraren hipotesian oinarrituta *-go- > erlazio-atzizkia* eta *-go- > destinatiboa* aldaketak plazara daitezke. Gertzen den posibilitate logikoa da destinatiboa > erlazio-atzizkia aldaketa. Ezagun denez, “markers of the grammatical cases (such as nominative, ergative, genitive) arise via the grammaticization of markers of less grammatical participant roles (such as instrument, benefactive, and various local relations, (...))” (Haspelmath 1989: 301). Heinek (1997b: 144), aldiz, genitiboak nola sortzen diren azaltzeko bide batzuk proposatzen ditu: *Y at X* (lekua), *Y from X* (iturria), *Y for/to X* (helburua), *X with Y* (konpainia). Adibide horiek erakusten dute genitiboak askotan leku-kasuetatik sortzen direla. Euskarara itzulita, erlazio-atzizkiak ez du esanahirik, destinatiboarena askoz ere konkretuagoa da, eta horregatik destinatibotik erlazio-atzizkirako bidea hobeto ezkontzen da gramatikalizazioari buruz dakigunarekin. Pentsa genezake hasieran ez zela modifikatzaile bezala erabiltzen, funtzio adberbiala zuela soilik (*zerbait egin biharko*). Izen baten ondoan askotan ager-

4.3.3 Erabileren sailkapena eta maiztasuna corpusean

Corpusean atzizkiaren erabilera aztertzeko, Trasken oinarritzko sailkapenari —flexionala eta deribazionala— jarraituko diot funtsean, flexionalaren barruan azpi-mota batzuk bereizita.¹⁸ Corpuseko datuak aztertzeko —bai maiztasuna, bai hitz-ordena deskribatzeko— egoki iritzi diot atzizkiaren erabilera nagusiak bost multzotan banatzeari, *-ko* lotzen zaion oinarriaren arabera:

- (i) Leku-kasuak oinarrian dituzten *-ko* sintagmak (leku-kasuaren marka agerian dutenak bakarrik): *Bilborako, mendietako, nireganako*. Soziati-boa dutenak ere multzo horretan sartu ditut.
- (ii) Instrumentala oinarrian dutenak (*zurezko*).
- (iii) Adberbio-sintagmak oinarrian dituztenak: adberbio simple (*gaurko*) eta konplexuak (*hitzez hitzeko*), partizipio-perpausak (*atzo etorritako*) eta postposizioak (*gatzik gabeko*).
- (iv) [IZENA-ko] motako segidak (*mendiko* edo *fedeko*).
- (v) Izen-multzoa oinarrian dutenak (*begi urdineko*).

Adberbio-sintagmen gainean eraikiak dira (i)-(iii) erabilerak. (iv) dela eta, diakronikoki ere adberbio-sintagma genuke horren azpian: aurreko atalean ikusi dugun bezala, lokatibo zaharra eta, agian, inesiboa du oinarrian. (v)-en kasuan, ikusiko den moduan, proposa daiteke adberbio-sintagmatik ere datorrela erabilerara hori.

[INSTRUMENTALA-ko], [IZEN-MULTZOA-ko] eta [IZENA-ko] apur bat zehatzago deskribatuko ditut ondoko ataletan: batetik, ikuspuntu diakronikotik berez badutelako interesa, eta, bestalde, hitz-ordena aztertzeko interesgarri diren hainbat kontu aipatzea merezi duelako.

Hori baino lehen, halere, labur deskribatuko dut aztertu dudana corpusean erabilera horien maiztasuna.

Oro har, XVI. mendetik XIX. mendera arte *-ko* moten proportzioak ez dira aldatu, 4.3-4.6. tauletan ikus daitekeen moduan. Beraz, lehenengo testuetarako *-ko*

tuz gero, atzizkiaren funtzioaren aldaketa ahalbideratzen duen testuingurua sor zitekeen: *lana biharko* edo *biharko lana* (cf. Etxepareren *orazione igandeko*). Destinatioa bi hitz lotzen duen atzizki bezala berrinterpretatu zen, eta bere esanahia ahuldu zen: hasieran *etxeko*-k ‘etxerako’ esanahia zuen agian, eta gero sortu ziren beste batzuk: ‘etxean dagoena’, ‘etxetik hartutakoa’ edo, azkenean, ‘etxearekin lotura duena’. Azaltzeko zailagoa —agian zailegia— da kasu-marka duten hitzetara zabaltzea, *etxerako* edo *etxetikoa* bezalakoak nola sortu ziren, alegia. Ez da nolanhiko aldaketa: morfologiaren ikuspuntutik erabat ezberdinak dira leku-kasuak (ablatiboa, adlatiboa, destinatioa...) eta sintagma osoa hartzen duen *-ko* atzizkia.

¹⁸ “Flexionala” eta “deribazionala” etiketak ez ditut erabiliko; izan ere, 4.3.9 atalean ikusiko dugun bezala, bien artean ez dago hainbesteko alderik.

atzizkiaren erabilera finkatuta zegoela dirudi, eta handik hona ez da asko aldatu. Salbuespen bakarra da atzizkiaren falta gaur egun nahitaezkoa den testuinguru batzuetan (4.3.6. atalean aipatuko dut hori).

4.3. taula. *-ko* motak egileka, ehunekotan (leku k. = leku-kasuak dituztenak, instr. = instrumentala dutenak, izena = [IZENA-ko] motakoak, adb = adberbio-sintagma dutenak, IM = izen-multzoa oinarri duten *-ko* sintagmak).

Testua	Guzt.	Leku-k.	Instr.	Adb.	Izena	IM
RS	44	4,5	9,1	36,4	47,7	2,3
Etxepare	29	17,2	20,7	10,3	51,7	0,0
Lazarraga	112	8,0	13,4	6,3	71,4	0,9
Landucci	89	6,7	28,1	1,1	64,0	0,0
LeizABC	97	23,7	33,0	11,3	29,9	2,1
LeizInt	108	18,5	44,4	4,6	26,9	5,6
LeizMat	192	28,6	10,9	5,7	52,6	2,1
Betolatza	22	9,1	31,8	4,5	54,5	0,0
Etxart	44	0,0	27,3	9,1	63,6	0,0
Ros	18	27,8	0,0	11,1	61,1	0,0
Matera	172	5,2	41,3	10,5	42,4	0,6
Beriain	130	6,9	20,8	3,8	63,1	5,4
Haranburu	184	10,3	21,7	15,8	51,6	0,5
VJ	36	5,6	13,9	5,6	75,0	0,0
Mikoleta	14	35,7	50,0	0,0	14,3	0,0
Kapanaga	160	8,1	16,3	11,3	62,5	1,9
Tartas	143	2,1	9,8	2,8	85,3	0,0
Belapeire	137	7,3	19,0	8,8	64,2	0,7
Oloroeko kat.	96	11,5	42,7	9,4	36,5	0,0
Otxoa Arin	156	3,2	28,8	5,1	62,8	0,0
Arzadun	73	4,1	16,4	9,6	69,9	0,0
Elizalde	46	2,2	30,4	2,2	60,9	4,3
Haraneder	192	27,1	7,8	5,7	57,3	2,1
Barrutia	48	10,4	4,2	12,5	72,9	0,0
Maister	132	22,0	28,8	4,5	43,9	0,8
Olaetxea	219	5,9	16,0	12,3	65,3	0,5
Ubillos	159	10,1	30,2	13,8	45,3	0,6
Lizarraga	115	3,5	27,8	5,2	62,6	0,9
Mogel	95	6,3	10,5	14,7	54,7	13,7
Gerriko	107	6,5	20,6	24,3	48,6	0,0
Duhalde	167	7,8	32,3	8,4	47,3	4,2
Fr Bartolome	134	12,7	22,4	8,2	50,7	6,0
DoktErr	51	17,6	9,8	0,0	72,5	0,0
Hualde Mayo	188	7,4	25,5	7,4	54,8	4,8

4.4. taula. *-ko* atzizkiaren motak XVI-XIX. mendeetan, ehunekotan (IM = izen-multzoa oinarri duten *-ko* sintagmak, leku k. = leku-kasuak dituztenak, izena = [IZENA-ko] motakoak, instr. = instrumentala dutenak, adb = adberbio-sintagma dutenak).

Mendea	Guzt.	IM	Leku-k.	Izena	Instr.	Adb.
XVI	693	2,0	17,6	49,6	22,8	7,9
XVII-1	548	1,6	7,7	52,7	27,4	10,6
XVII-2	490	0,8	6,7	69,2	15,9	7,3
XVIII	1236	0,8	11,2	56,8	22,8	8,3
XIX	742	5,0	8,9	52,7	22,8	10,6

4.5. taula. *-ko* atzizkiaren motak XV-XVII. mendeko hainbat testu laburretan.

Mendea	Guzt.	IM	Leku-k.	Izena	Instr.	Adb.
XV	20	0,0	15,0	80,0	0,0	5,0
XVI	27	3,7	7,4	74,1	0,0	14,8
XVII-1	59	1,7	6,8	67,8	15,3	8,5
XVII-2	44	0,0	2,3	54,5	20,5	22,7

4.6. taula. *-ko* atzizkiaren motak Ipar eta Hego EHn.

Eremua	Mendea	Guzt.	IM	Leku-k.	Izena	Instr.	Adb.
IPAR	XVI	426	2,8	24,2	40,8	25,1	7,0
	XVII-1	400	0,5	7,0	49,0	30,8	12,8
	XVII-2	280	0,4	4,6	75,0	14,3	5,7
	XVIII	420	1,2	21,9	48,3	22,4	6,2
	XIX	167	4,2	7,8	47,3	32,3	8,4
HEGO	XVI	267	0,7	7,1	63,7	19,1	9,4
	XVII-1	130	5,4	6,9	63,1	20,8	3,8
	XVII-2	210	1,4	9,5	61,4	18,1	9,5
	XVIII	816	0,6	5,8	61,2	23,0	9,4
	XIX	336	6,3	8,9	51,2	18,5	15,2

Kasu-markarik gabeko izena oinarrian duten sintagmak nagusi dira (adibide guztien erdiak inguru). Trasken (1984) iruzkinarekin bat dator datu hori: *etxe-ko* bezalakoetan inesiboa dagoela konturatzeko mota horretako adibideak oztopo izan zitezkeen ikerlarientzat Trasken ustez, atzizkiaren gainerako erabilerak baino usuagoak direlako. Bigarren geratzen dira instrumentalaren gainean erakitako sintagmak (adibide guztien laurden bat; 4.4. taula). Hurbil daude lekukasuekin egindakoak (%7 eta %17 artean). Adberbioekin, postposizioekin eta partizipioekin egindako sintagmak ez dira asko (%7-10). Izen-multzoen gainean eraikitako sintagmak oso bakanak dira. Corpus nagusiko testuez gain, XV-XVII. mendeetako hainbat testu ere aztertu ditut,¹⁹ eta antzera (4.5. taula) banatzen dira atzizkiaren motak.

Eremuen arteko aldeak (4.6. taula), oro har, ez dira oso nabarmenak, maiztasunean ez behintzat (hitz-ordenan ez nahitaez, begiratu 4.4 atala). Aipatu behar den alderdi bakarra [IZENA-ko] motari dagokio. Eremu guztietan bere maiztasuna oso handia da, baina bereziki Hego EHko testuetan. Neurri batean behintzat erlijio-terminoak (*fedeko artikulua*) egitura horren bidez itzultzeko joerari egozti behar zaio (ipar-ekialdean *fedezko* bezalakoak gehiago erabiltzen dira).

4.3.4 [INSTRUMENTALA-KO]

Erlazio-atzizkia askotan eransten zaio instrumentalari. Instrumentala normalean mugagabeen badago ere, salbuespen gutxi batzuk lekukotzen dira. Gehienak Leizarragak ditu (33), baina beste testu batzuetan (34) ere azaltzen dira noizean behin.²⁰

- (33) mahatsarnoazko signoan (LeizKat), bere hitzazko legerik (LeizSarrera), Espiritu sainduazko Baptismoa, harzazko bozkarioz, hire etxeazko zeloak nian niauk, Ene Paulen eskuazko salutationea, krutzeazko eskandaloa, Iau nazko remonstrationetan, Espirituazko karitatea, borz ogiezkota eta bi arrai-

¹⁹ Testu hauek dira: 1609an saritutako olerkiak, Zalgize, Amileta, Andramendi, Arrasateko erreketeta, BB, Belaren errefrauak, Beotibarko kantua, Britainiako Kantua, Egiaren Kanta, Felipe Prosperoren sortzea, Jaun Diaz Harokoaren eresia, Juan Lazkanoren kantua, Karlos V.aren eta mandazainaren arteko elkarriketa, Isastiren errefrauak, Martin Bañez Artazubiagakoaren eresia, Martin Ibanez de Labiero, Martin Portal *Romance del Santissimo Sacramento*, Matxin de Zalbaren eta Martin de San Martinen arteko gutunak, Mikoletaren poesiak, Milia Lasturkoaren eresia, Orazino debota, Pedro Abendañokoaren kantua, S. Frantziskoren Hirugarren Ordenaren profesatze-agindua, Salvea, Sandailia, Sevillako bertsoak, Elduaingo bertso iraingarriak, Tolosako ezkontza hitz emaitak, Urrexolako kantua, Zubia, Zumarraga.

²⁰ Horiez gain, *gauazko* askotan agertzen da (*gauazko ohoina* LeizTest, *gauazko dansek eta halako batzarre ilhunek* PouvFil, *gauazko ilhunbe hunetan* Mat, *gauazko laurgarren goardian* Harand), baina *gauaz* da gehien erabiltzen den forma; *gauaz* nahiko berria da OEH-ren arabera.

nezko mirakulua, Iainkoazko gauzetan, mahastiazko konparationea (Leiz-Test)

- (34) Ifernuazko Meditazionean, bideazko bekhatua, ene gauazko, eta egunazko ogia (Ax)

Adibide horietan modifikatzailea den izena definitua denez, aingura-erlazioa dugu, eta ezohikoa da *-zko* atzizkiarekin. Materiala, modua, instrumentua adierazten denean aingura gabeko erlazioak adieraztea da aukera bakarra.

Azkueren arabera (1969 [1905-1906]: 455, 1969 [1923]: 347-348), instrumentalak lau funtzio ditu *-ko* atzizkiaren aurrean agertzen denean: (1) *causa material* adieraz dezake (*urrezko, pozezko*), (2) *manera* (*oinezko*), (3) *medio* (ez dago oso argi zer esan nahi zuen, ematen duen adibidea *Janari gozoa pozagorik jatea geurrezkoa* da) edo (4) *denbora* (*gabazko, egunazko*).

Azkueren ohar hori interesgarria da, baina instrumentalaren funtzioen banaketa egunera daiteke. Igartuak eta Santaziliak (2013: 228) instrumentalaren ondoko balio hauek zerrendatzen dituzte: instrumentua (*giltzaz*), denbora edo iraupena (*bederatzi ilabetez*), kausa (*gure faltaz*), ergatiboaren ordezkia (*Alegueratzen da eguiaz* Leiz), egile pasiboa (*Gende prestu guciéz laudatua* Leiz), zeharkako objektua (*arintassunez accusa ahal neinde* Leiz), materiala (*Haguinac heçurrez ditu* Zalgiz), modua (*gogo onez*). Azkenik, garai batean instrumentalak konpainia ere adierazten zuen Igartuaren eta Santaziliaren arabera, baina testuetan funtzio horren azken aztarnak baino ez dira geratzen: *Esaiorrez (< orregaz?) topa nindin gradaetan* (Laz).

Funtzioen zerrenda horren laguntzaz nire corpuseko *-zko* sintagmak aztertu ditut. Materiala eta modua nagusitzen direla dirudi. Parte batean instrumentalaren funtzioen maiztasunarekin lotuta egongo da hori. Adibide asko sailkatzen zailak dira, baina funtzio guztiak agertzen direla esan daiteke, konpainiarena zailantzazkoa bada ere:

- Instrumentua: *ahozko predikationez* (LeizTest), *bere eskuezko obra* (LeizTest), *hitcezcó cofessinoa* (Mat).
- Denbora edo iraupena: *hamar astezko kontuaren gainean* (LeizTest), *gauazko ohoina* (LeizTest), *egun orozko delizioak* (LeizTest), *ene gauazko, eta egunazko ogia* (Ax).
- Kausa: *flacotasunezcó bekatuac* (Mat).
- Materiala: *tafetaezco benda bategaz* (Laz), *galcerdy cetazco baten barnean* (SeinichGut), *vidriosco copa onetati* (Mikol), *buztana lastozcoa* (Isasti), *heuskarazko koplá* (Etxep), *erdeeraazco ipui batec* (Laz), *odolezko izerdi* (Etxep), *beirazko itsaso* (LeizTest).

- Modua: *enojuzco verva oec* (Laz), *gizon naturazko* (Etxep), *presuna baquezcoac* (Mat), *Gizonen manamenduen eta doktrinen arauetzko gauza hauk* (LeizTest), *haren obedientia borondatezko batetara* (LeizKat), *egiazko iujia* (Etxep), *gezurrezko mirakulurekin* (LeizTest), *pietatezko obratan* (LeizTest).
- Zeharkako objektua: *gure bekatuezko dolu* (Etxep), *harrazko bozkarioz* (LeizTest), *erri negarrezko onetan*, *Bekhatuzko amoria* (Etxep), *soldadusco elia* (BBizk), *borz ogiezkota eta bi arrainezko mirakulua* (LeizTest).
- Gaia: *relijioezko obra baten* (Belap), *fedezko othoitza* (LeizTest), *ezpiritüzko othoitzetan* (Mst).
- Konpainia: *Aingeruezko konpainia* (LeizSarrera), *bere diszipuluzko konpainiarekin* (LeizTest).²¹

Kasu gehienetan -z eta -zko duten sintagmen arteko erlazioa gardena da. Horrela da batez ere -z atzizkiak instrumentua, denbora, materiala edo gaia adierazten duenean. Gainerakoekin ere askotan erraza da instrumentala zergatik agertzen den azaltzea. Adibidez, *egiazko* modifikatzailea *egiaz* adberbioarekin lotzen da (testuetan *egiazko* hitza *egiaz* baino maizago agertzen bada ere), adibide hauek iradokitzen duten bezala: *zinez eta egiaz elkhar maite dutenen arteko* (Ax), *behatu gabe eta konturik eduki gabe, noiz mintzo den egiaz eta noiz gezurrez* (Ax), *Aktio-ner hartan erakhustera eman zian, egiaz gizon zela* (Tartas), *Egiaz handi da nork ere...* (Pouv). Antzera, *gezurrezko* adibide hauekin erlazioa daiteke: *Gezurrez iuramentu baten egitea* (Ax) edo *Gaixtoak gezurrez dira alegera, eta egiaz triste* (Ax). Zertxobait zailagoa da *negarrezko*-ren kasua: testuetan *negarrez egon* da gehien agertzen dena, baina *negarrez beterik* edo antzeko zerbait imajina dezakegu, eta handik *negarrezko herria*-ra erraz pasa daiteke.

Kasu berezia dira ezaugarria adierazten duten modifikatzaileak: *dicha onezco semea* (Laz), *utra birtute andizcoa* (Laz); *gauça pisu guchisco[a]* (Land), *ur bizizko flubioak, usain onezko urrinetan* (LeizTest), *probetxu handizko gauza* (Pouv), *zelo onezko hira* (Ax). Izen-multzoko -ko sintagmen baliokideak dira horiek: *bertute handizko gizona = bertute handiko gizona*. Galdera egin daiteke instrumentala motibatua den. Kasu gehienetan badirudi baietz: *bertute handiz bizi* edo horrelako testuinguru bat imajina dezakegu *bertute handizko* sintagmarentzat.

Halere, batzuetan -z eta -zko duten hitzen arteko erlazioak konplikatuagoa dirudi, batez ere instrumentalak modua edo zeharkako objektua adierazten duenean (edo sailkatzeko zail diren beste adibide askotan). Esaterako, *haragizko* hartuta, *haragiz jantzi/beztitu* edo *haragiz egina* esapideak askotan agertzen dira testuetan, baina *haragizko bekatua*-rekin zuzenean lotzeko adibiderik ez dago. Pen-

²¹ Beharbada modu bezala ere uler daitezke adibide horiek.

tsa daiteke, beraz, hedadura semantikoa gertatu zela *haragizko pertsona* moduko erabileratik *haragizko bekatua* erakoetara. Beste adibide bat *bidezko* eta *ezinezko* izan daitezke. Lehenengoari dagokionez, [norbaiten/zerbaiten bidez] ohikoa da testuetan, baina ez dugu aurkitzen *bidezko* modifikatzailearekin lotuta egon liteke testuingururik (eta *bidezko* ‘justo’ dagoeneko Etxeparek eta Leizarragak dute). Bigarrena dela eta, *ezinez* adberbioa, [ADITZA ezinez] esapideaz gain, ez da testuetan asko agertzen (eta *ezinezko* XVII. mendeko Lapurdiko testuetan aurkitzen dugu).

Bestalde, izen gutxi batzuekin (gehienbat *Jainko* edo *aingeru*) *-zko* atzizkiak antzekotasuna adierazten du: “Le suffixe *-zko* a été, exceptionnellement, ajouté à un substantif désignant une personne, à celui qui désigne la divinité; on a ainsi obtenu un dérivé qui équivaut à l’adjectif «divin», *jainkoazko*, *jainkozko*, *jinkozko*” (Lafon 1999 [1965]: 177). Testu gutxitan aurkitzen ditugu horren adibideak: *Angeruzko ofizio hura*, *angeruzko bertutea* (Pouv), *Iainkozko izaitte bat* (Haranb), *zeure iainkozko zuhurzia* (Haranb) *izate Jangoikozko bat* (Oloroe).²² Horrelako adibideekin ez dago oso argi instrumentala duen izenarekin lotzerik dagoen (*jainkoz/jainkoaz* > *jainkozko*?). KG-ko XIX. mendera arteko testuetan, *jainkoz* oso gutxi agertzen da, eta ez dirudi *-zko* berezi horren iturria izan daitekeen adibiderik dagoenik (*Iainkoz ... konturik egin Ax*, *Iainkoz lagunduak Ax* edo *Iainkoz eta munduz erratzea merezi dutenak* Mat).

Bestalde, eta lehenengo testuetan dagoeneko, *-zko* baliabide oso emankorra zen erdarazko adjektiboak euskaratzeko, Leizarragaren adibide hauek erakusten dutenez (eta ez dira bere testuetan agertzen diren horrelako guztiak):

- (35) ignorantiazko exkusarik, gure naturaren arrazazko korrupzione gaixtobat, iustitiazko eta inozentiazko fruktu hiri plazent zaiketanik, eure klementiazko begiez, eure miseriakordiazko begiaz, errorezko eta ignorantiazko gathibutasunean, inperfekzionezko relikiak, Ielosiazko hitzaz, enormitatezko eta beilhakeriazko akusatione falsuetarik, dibinitate fantasiakozko bat, illusioniezko eta enganiozko botiga, Benediktionezko kopa, afliktionezko foroganza...

Ez dirudi *-zko* horiek *-z* duten izenetik sortu zirenik, ez bada izenetik zuzenean. Horrela, *-zko* atzizki neurri batean beregain bihurtu dela esan daiteke.²³

²² Lafonek aipatzen ditu artikulua duten instrumentalak. Halakoetan, halere, askotan ez da antzekotasuna edo halako zerbait adierazten: *Iainkoazko zure zelo handia* (LeizIntr) edo *Iainkoazko gauzetan*. (LeizIntr). OEH-n *jainkozko* hitzaren esanahi bezala *perteneciente o referente a Dios* ematen da. Hain zuzen, artikulua dagoenean gehiago da hori, Lafonek proposatzen duen antzekotasuna baino.

²³ Horren oihartzuna gaur egungo estilo-liburuetan (Petrirena 2011: 167, esaterako) aurkitzen dugu: *-zko* erabiltzea gomendatzen da bakarrik *-z* adberbio bat baldin badago oinarrian: horregatik *ohiko*, eta ez *ohizko* gomendatzen da.

Beste gai bat da zein den *-ko* eta *-zko* atzizkien arteko banaketa. Normalean txukuna (hau da, esanahiak motibatuta) den arren, batzuetan zentzu bera duten modifikatzailearekin *-ko* zein *-zko* aldaerak aurkitzen ditugu, *fedeko* eta *fedezko*, esaterako. Horren adibide bat dira goian aipatutako ezaugarria adierazten duten *probetxu handizko* motakoak, askotan instrumentalik gabe agertzen baitira.

Bestalde, elizarekin lotutako hitzek askotan erakusten dute alternantzia: *fede*, *gloria*, *kontrizio*... Hori ikus daiteke 4.8. taulan, non zerrendatzen diren nik aztertutako corpusean gehien agertzen diren izenak, lema estandarizatuaren forman. Lema askoren barruan aukera bat baino gehiago dago: *egia*-tik *egiazko* dugu bakarrik, baina hainbat izenekin bai *-zko*, bai *-ko* dutenak agertzen dira. Agerraldi gehien *fede* izenak du: *fedezko* eta *fedeko* ia parez pare agertzen dira corpusean. Horrez gain, *grazia*, *penitentzia* edo *bekatu* erakoek ere batzuetan *-zko* eta batzuetan *-ko* dute.

4.7. taula. *fedeko* eta *fedezko* aldaeren distribuzioa.

Eremua	<i>-zko</i>	<i>-ko</i>
BIZ	0	15
GIP	0	11
ARAB	0	1
LAP	14	3
ZUB	10	0
NAF	9	0
ERR	3	0

Oro har, badirudi EHren ipar-ekialdean instrumentala dutenak nagusi dira, eta mendebaldean *-ko* hutsa. Joera hori 4.7. taulak erakusten du, *fedeko* eta *fedezko* hitzekin (*-ko* eta *-zko* formak dituzten hitzan artean agerraldi gehien du *fede* hitzak). Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban *fedeko* aurkitzen dugu. Lapurdin testu zahar batzuetan *-ko* dugu (*Kristinoen fedeko Konfesionean LeizABC* eta *fedeco misterioen Mat*), baina *-zko* nagusitzen da. Azkenik, Zuberoan, Nafarroan eta Erronkaribarren *fedezko* dugu. Oro har, ekialdean batzuetan *-zko* aurkitzen dugu gainerako eremuetan *-ko* ohikoena denean: *biborazco casta* (Hualde), *escandalozco ocasioneric* (Hualde), *esparançazco acte bat* (Oloroe), *aita familiazkoa* (Tartas), *familiazco aitaren* (Hualde), *jüdiziozko egünian* (Mst).

Oro har, beraz, [INSTRUMENTALA-ko] erabilera dela eta, bi ondorio dira garrantzitsuenak. Batetik, badirudi askotan *-zko* modifikatzaileak *-z* duten hitzetatik urruntzen direla. Lexikalizazio-prozesua gertatu da hainbatekin: askotan *-zko* sintagmaren eta *-z* duen hitzaren arteko erlazioa, noizbait gardena, lauso(ago) bihurtzen da. Prozesuaren amaiera instrumentala gehi erlazio-atzizkia zena ad-

jektibo bihurtzea da, jabetza-modifikazio eskalaren (Nikolaeva & Spencer 2010) eskuinera mugituz. Horren beste alderdi bat dira 4.4. atalean ikusiko ditugun hitz-ordenan gertatu ziren aldaketak. Bestalde, baina, *-zko* atzizki neurri batean independente ere bihurtu dela esan daiteke. Testu askotan ia edozein izenetatik adjektiboak sortzeko baliabide oso hedatua zen hori.

4.8. taula. *-ko* eta *-zko* atzizkien erabilera gehien agertzen diren izenekin ([IZENA-ko] eta [IZENA-z-ko] bakarrik kontuan hartu dira).

Lema	Guzt.	-zko	-ko	Lema	Guzt.	-zko	-ko
egia	213	213	0	amorio	13	13	0
zeru	204	0	204	debozio	13	12	1
eliza	106	0	106	bekatu	13	6	7
mundu	84	0	84	aitzin	13	0	13
fede	67	36	31	plaza	13	0	13
infernu	57	0	57	matrimonio	12	0	12
bihotz	57	6	51	gezur	12	12	0
lur	50	3	47	gurutze	11	0	11
miserikordia	45	44	1	kontzientzia	11	2	9
heriotza	44	0	44	itsaso	11	0	11
juizio	43	5	38	aho	11	1	10
trinitate	40	0	40	purgatorio	10	0	10
eskuin	35	0	35	ebanjelio	10	1	9
lege	34	3	31	pasio	10	1	9
altare	33	0	33	kontrizio	10	4	6
haragi	32	32	0	konsagrazio	10	1	9
etxe	31	0	31	barne	10	0	10
gorputz	28	0	28	ondo	10	0	10
arima	23	0	23	borondate	9	9	0
grazia	22	19	3	erresurrezio	9	0	9
paradisu	22	0	22	bizitza	9	1	8
sabel	21	0	21	egunero	9	9	0
penitentzia	19	11	8	euskara	9	9	0
ezker	18	0	18	negar	8	8	0
buru	18	0	18	bataio	8	1	7
meza	17	0	17	espiritu	8	6	2
herri	17	0	17	bide	8	7	1
jainko	16	16	0	salbamendu	8	3	5
kanpo	16	0	16	burdina	8	8	0
goiz	15	0	15	testamentu	8	1	7
familia	15	5	10	guardia	7	0	7
arrazoi	15	14	1	justizia	7	3	4
egun	14	0	14	urte	7	0	7
su	14	12	2	erlijio	7	2	5
erresuma	14	0	14	arrats	7	0	7
gloria	13	4	9	zilar	7	7	0

4.3.5 [IZENA-ko]

Mitxelenaz geroztik ontzat ematen da *mendiko* formaren azpian inesiboa dagoela, agerian izena gehi *-ko* dugun arren. Atal honetan era horretako formen esanahia aipatu nahi nuke: adibide gehienetan inesiboaren aztarna sumatzen bada ere, batzuetan inesiboa ulertu beharrean, beste leku-kasu bat da azpian dagoena. Beste hainbatetan, ordea, inesiboarekin lotutako esanahirik ez da batere aurkitzen. Diakronikoki, 4.3.2 atalean ikusi dugun bezala, badirudi lekuzko esanahia jatorrizko egituratik datorrela (*-n* inesiboa tartean egon ala ez), baina momentu batetik aurrera [IZENA-ko] bezalako formak inesibotik urruntzen hasi ziren, eta interpretazio berriak sortu ziren.

Batetik, beraz, lekuzko esanahia duten adibideak ditugu. Gehienetan lekua edo denbora adierazten da (36-a). Adibidez, *aireko hegastiñak* (Harand) ‘airean dabiltzan hegaztiak’ dira, eta *arratseko orationea* (LeizABC) ‘arratsean egiten den otoitza’ da.

Askotan, hala ere, beste kasu-marka bat “berreraikitzea” egokiagoa da. De Rijk (1998 [1993]) *bihotzeko agurrak* eta *bihotzeti(ka)ko agurrak* esanahi berbera duten adibideak aipatzen ditu, baita Urteren (1900 [1712]) gramatikako hau ere: “du ciel *cerucoa* ou *ceruticacoa*”.

Testuetan ablatiboaren esanahia duten adibide gutxi agertzen dira (36-c); gehiagotan aurkitzen dugu adlatibo edo destinatiboarena (36-b). Ez da beti erraza zehaztea zein den atzean dagoen leku-kasua, eta askotan aukera bat baino gehiago dago (36-d). Antzera, *Bilboko trena* ez da nahitaez Bilbon dagoena, baina Bilbora doana edo Bilbotik datorrena.

- (36) a. lekua edo denbora:
 çarzaroco alabea (RS), neure esheco quea (RS), zure orduko doloriak (Etxep), ceure aposentuco bentanara (Laz)...
- b. helburua:
 ifernuko bidia (Etxep), zeruko bidea (BerM), Santiagoco videia (Land), hurte gustico oguia (RS, pan para todo el año), çure gogoco barriric (Laz), suko gehennara (LeizTest); suko ‘sutara botatzeko’ (Aezkoan, Camino 1997: 392)
- c. jatorria:
 ypirdico puza (RS)
- d. ambiguoak:
 neure esheco quea (RS, *-ean, -tik*), orazione igandeko (Etxep, *-ean, -rako*), Israeleko etxeko ardi galduetara (LeizTest, *-ean, -tik*), ian aintzineko othoitza (LeizABC, *-ean, -rako*)

Adibide horietan beraz, *-ko* atzizkiak adierazten duen erlazioa lekuarekin edo leku-aldaketarekin lotuta dago, baina zehazki nolakoa den testuinguruaren araberakoa da, hitzaren morfologiak ez baitu zehazten.

Beste alde batetik, lekuzko esanahirik gabeko erabilera dugu. Traskek (2003: 147) aipatu zuen arazoa, baina ez zion arreta askorik eman:

On occasion an adverbial source for the *-ko* phrase is difficult to identify: *ARGIA aldizkari-ko zuzendaria* ‘the editor of the magazine ARGIA’. Here *ARGIA aldizkaria* ‘the magazine ARGIA’ takes the suffix *-ko* even though there is no source: we cannot describe the editor as being ‘in’ the magazine (*ARGIA aldizkariaren zuzendaria* is also possible).

Erabilera hori deskribatzen zaila da, baina egilez egile errepikatzen dira adibide batzuk.

Batetik, denbora adierazten duen izenekin eratutako *-ko* sintagmak ditugu, *heriotzako puntua* erakoak (37). Ez dira *joan den asteko egunkaria* bezalakoak: ezin dira inesiboarekin edo beste leku-kasu batekin parafraseatu (*heriotzan, heriotzatik...?*). Gerta daiteke adibide batzuetan *-ko* atzizkiak destinatiboa markatzea (bestalde, *-tzeko puntuan* motako esapideekin nolabait lotuta egon daitezke).

(37) erioko phunduian (Etxep), erioçaco puntura (Laz), neure heriotzeko puntuan (Haranb), indizioko puntu (Haranb), Salua bano damnazeko perileko punduian (Etxep), geure eriozako horduan (Bet), gure heriotceco orenean (Mat), ene heriotzeko horduan (BerM), gure heriotzeko orenean (Haranb), iudizioko egunean (LeizTest), bestako lehen egunean (LeizTest), juizioko egunean (BerM)

Bigarren multzoan, izenaren eta modifikatzailearen arteko erlazioa nahiko lausoa da (38)-(39). Gisa horretako adibideetan badirudi aldaketa semantikoa gertatu dela, eta hasieran esanahia inesiboarekin zuzenean lotuta bazen ere, gero hautsi zela harreman hori. Adibidez, *etxeko* ‘etxean dagoena’ izan zen hastapeanean, baina denborarekin ‘etxearekin zerikusia duena’-edo bihurtu da (antzeko kasua *herriko* izan daiteke). Beste adibide bat *arimako* da. Askotan inesiboarekiko lotura argia da: *arimako eritasuna* ‘ariman dagoen eritasuna’ izan daiteke, baina *arimako gauzetan* (Ax) edo *arimako salbamendua* (Haranb) adibideetan ‘arimari dagokiona’ adierazten da.

(38) herioko mirakuluak (LeizTest), perfeccioneco conseilluac (Mat), separationeko letra (LeizTest), eriozako peligrurik (Bet), ynfernuco bildurra (Kap), othoitzeko etxea (Harand)

(39) fedeco misterioen (Mat), artikuluko fedekoak (Bet), gloriako deskansura (BerM), konsagrazioko itzak (BerM), khoroako arrosarioa (Haranb), resu-

rrektioneko gloriar (LeizTest), zienziako Doea (Bet), Virtute Caridedecoa (VJ), Acto Contricinoecoa (VJ), Curuceco altaran (Kap), Gloriaco esperanza (Kap), castidadeco votoa (Kap), concienciaco examinea (Kap), penitentiako sakramentütik (Belap)

Azkenik, *Garaziko herria* (Etxep) erako adibideak aipatu behar dira. Halakoe-tan aposizioan dira izen propioa eta izen arrunta (Lafittek 1991 [1944] *expletif* deitu zion):

- (40) Kalbarioko oianera (BerM), Olibeteko baratzean (Haranb), Kalbariako mendira (Haranb), Garaziko herria (Etxep), Italiaco ciudade batera (Laz), Due-roco riberara (Laz), Neftalingo lurra (LeizMat), Iudako lurra (LeizMat), Israeleko lurrerat (LeizMat), Olibatzetako mendirat (LeizMat)

Gauza bera esan daiteke *-ko* gabe ere: *Garazi herria*, baina kronologia ezberdinak ditugula ematen du. *OEH*-ren arabera (s.v. *mendi*):

Cuando va acompañado de nombre propio la expresión *-ko mendia* es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XIX: Leizarraga (Lc 19, 37 *Olibatzetako m.*), Matteredra (190 *Kalbarioko m.*), Larramendi (SAgust 15 *Tabor-eko m.*), Larreguy (I 236 *Ephraingo m.*), Añibarro (LoraS 40 *Alpesko m.*), Arana (SIgn 87 *Apeninoko mendiyak*), con excepción de algún ej. de Belapeyre (II 73 *Sinai m.*, pero II 49 *Kalbarioko m.*) e Iztueta (C 54 *Aldaba m.*, pero 135 *Hernioko m.*). A partir de esta época parece que se hace más frec. la construcción sin suf. *-ko*. Con todo, se encuentra *-ko mendia* en algunos autores, aunque alternando en la mayoría de ellos con la construcción sin suf. *-ko*.

Antzekoa gertatzen da *herri* hitzarekin: atzizkirik gabeko erabilera oso mugatua da *OEH*-ren arabera (BretKant *Guipuzcoa herrian*, baina *Donostiaco yrian*).

4.3.6 Erlazio-atzizkiaren falta

-ko atzizkia beti izan da nahitaezkoa izen-sintagmen modifikatzaileak egiteko?²⁴ Testu zaharretan hala dirudi, atzizkia falta duten oso adibide gutxi aur-

²⁴ Nominalizazioetan kontrako fenomenoaren adibideak ageri dira testu zaharretan: gaur egun *-ko* atzizkirik behar ez dutenak. Nominalizazioetan aditzaren argumentuen markak ez dira aldatzen (objektuarena izan ezik): *euskaraz mintzatu* > *euskaraz mintzatzea*. Hala ere, testu zaharretan *-ko* atzizkia agertzen da askotan. Adibidez, Leizarragak *baina eskuak ikuzi gaberiko iateak* du, baina Haranederrek ez zuen *-ko* erabili: *bainan eskuak garbitu gabe jateak*. Adibide gehiago hauek dira: *euskarazko minzatzea* (Ax), *orduko barurtzea ezta barurtze* (Ax), *Iainkoaren egiazko eta bidezko ezagutzea* (LeizKat), *Salbadorearen resuma eternaleratko sartzea* (LeizTest), *gure zuek baitharako sartzea, zure mundu hunetako egoiteak* (PouvImi), *espíritu saindua fitezco bidalceas* (Orazino debota). Beharbada testuinguru horretan *-ko* agertzen da objektua genitiboan doan arrazoi berberetatik: nominalizazioak izenak (edo gaur baino “izenago”) zirelako, eta izenen modifikatzaileak hartzen zituztelako (besteak beste, genitiboa eta erlazio-atzizkia duten sintagmak).

kitzen baitira. Lazarragaren *beste mundura bidea* (A24) da argiena (*mundurako espero da*):

- (41) Oean calentureac liquet / lagunic baneu aldean; / laster batean oy liracasket / beste mundura bidea. (Laz)

OEH-n, hala ere, nahiko gutxi agertzen den mendebaldeko *-ra bidea* egitura aipatzen da, eta lehenengo adibidea Lazarragarena da, hain zuzen. Nolanahi ere, egitura hori hizkuntzaren lehenagoko fase baten aztarna izan daiteke, non *-ko* atzizkia ez zen oraindik nahitaezkoa. Beste adibide (zalantzazko) bat RSko (542) hau da: *Vrrineric ospea / erricoa obea* (cf. *Urrungo insaurra* RS 344). Zalantzazkoa da, atzizkiaren falta aditzaren elipsiaren bidez azal daitekeelako agian.

Bestalde, Zabala (1999: 117-118) ohartu bezala, izen-sintagma aditzik gabe doanean (adibidez, izenburu batean), postposizio-sintagma izenaren eskuinean joan daiteke *-ko* atzizkirik gabe (42-a), edo izenaren aurretik atzizkiarekin (42-b). Sintagma bera perpaus baten barruan dagoenean nahitaezkoa da *-ko* atzizkia (42-c). Zabalaren arabera, inesiboak beti eskatzen du atzizkia: *lehorreko espezieak*, baina ***espezieak lehorrean*.

- (42) a. ibai-isurien handitzea euriteengatik
 b. ibai-isurien euriteengatiko handitzea
 c. Ibai-isurien euriteengatiko handitzeak uholdeak ekarri ditu

Oro har, testuetako datuak bat datoz ideia horrekin. Etxeparek, adibidez, *Harmak erioaren kontra* du. Izenburua denez, izen-sintagma isolatua da, eta *-ko* atzizkia ez da nahitaezkoa. Inesiboa, hala ere, Zabalak esandakoaren kontra, batzuetan agertzen da izenaren ondoan atzizkirik gabe: *Majistrua, zein da manamendu handia Legean?* (LeizTest); cf. *Nausia, zein da legeko manamendu handia?* (Harand). Leizarragaren Testamentu Berriko *Materien erideiteko taula*-n nahiko sarri agertzen dira *-ko* gabeko izenak (43). Hala ere, hitz-ordena aski berezia du testuaren zati horrek, hurrenkera alfabetikoaren eskakizunak eraginda seguruenik:

- (43) a. Disensioe Fariseuen eta Saduzeuen artean (LeizTest)
 b. Egoitza anhitz Iainkoaren etxean (LeizTest)
 c. Adbenimendua azken iudiziora (LeizTest)
 d. Konseillu Kristen kontra (LeizTest)

Postposizioei dagokienez, *kontra* erlazio-atzizkirik gabe agertzen da batzuetan, nahiz eta izenaren aurretik joan: *bere etsai ororen kontra biktoria ederbat* (Tartas) edo *desesperatzen eta despitatzen dirade Iainkoaren kontra blasfemiorekin* (LeizKat). Postposizio horrekin, beraz, badirudi *-ko* atzizkia garai batean ez zela beharrezkoa (gaur egun baietz ematen du).

Oro har, beraz, oso kasu gutxitan falta da erlazio-atzizkia testu zaharretan. Bere erabilerak ongi finkatuta zeuden lehen testuetarako. Horrek Traskek (1997: 241) esandakoa berresten du: “in all likelihood, this suffix is an ancient feature of the language; certainly it has been syntactically central since our earliest texts”.

Hala ere, lekukotasun zaharretan badago *-ko* batzuetan falta den testuinguru bat. Erlazio-atzizkia duten modifikatzaileak funtzio predikatiboan erabil daitezke (*zurezkoa da*), eta horrelakoetan atzizkia espero arren, batzuetan ez da agertzen lehenengo lekukotasunetan. Gehienetan instrumentalarekin gertatzen da. Adibide batzuk ditu Lazarragak (Bilbao *et al.* 2010: 165):

- (44) a. Ascotan, çu bacina pedernala, / edo ni sufriceco baninz *achez!*
 ‘Askotan, oxala zu bazina pedernala bezain gogorra, eta ni pedernalaren kolpea sufritzeko haitzez(koa) banintz!’
 b. escu batean necarrela / calçaidu *usez* errodela (B16: 3-4) ‘hutsez(ko)’
 c. *baba cigorrez* saldea (A24: 64) ‘lehorrez(ko)’

Lazarragaren edizioan adibide gehiago ematen dira (Bilbao *et al.* 2010: 165):

- (45) a. Eztoela latsara, *gatzez* duena oinzolara. / N’aille à laver la lessive qui a les pieds faits de sel / Que no vaya al lavadero quien de sal tiene la planta del pie (Oih, Prov. 166)
 b. Arozaren esea *zozes*, / *zozes* vere gaiches (RS)
 c. Sandailiac ateaditu *zirarrez*, / Nola *zirarrez* da ala *zendalez* (*Sandailia*, TAV 3.1.10)

Beste testu batzuetan ere ageri dira adibideak:

- (46) a. Eta zen haren murrailako bastimendua *iaspez*: baina Zibitatea bera zen *urhe purez*, beira pura irudi (LeizTest)
 b. Eta Zibitatearen murrailako fundamentak ziraden harri preziatu guziaz ornatuak: lehen fundamenta zen *iaspez*: bigarrena, *sapfirez*: herena, *xalzedonez*: laugarrena, *esmaraudez* (LeizTest)
 c. Ioanes hunek bada zuen bere abillamendua kamellu *biloz*, eta larruzko gerrikoa bere gerrunzean inguru (LeizTest) (cf. Haraneder: *Joanesek zuen, bada, bestimenda kamelu illezkoa zen eta larruzko gerriko batez zen gerrikatua*)
 d. Baina hire borondatea gabe eztiat deus egin nahi ukan *bortxaz* bezala ezlizenzat hire ungia, baina gogo onezko (LeizTest)
 e. Konsentimendu batetako eta *bakez* izateko (LeizTest)
- (47) Haguinac *heçurrez* ditu (Zalgiz 156)

- (48) a. I: Imajina elibat, erran nahi da gizon, eta emazte bere artian baliotako ükhen zütienen üdüriak *ürhez, zilarrez, zurez, harriz* eta *hanitz beste gaizaz* (Belap)
 b. Ez segur: zeren kristiek badakigü imajina hoiek *oihalez, zurez, edo harriz* direla (Belap)
- (49) a. Kristalez du belarra / Sudurr' oro zilarra / Mazelak xuri-gorri, / perla *hutsez* bidarra (Oih)
 b. *Harriz* da zure gogoa, / Ezpada gogorragoa (Oih)
- (50) haren manamenduen arauaz, *haragiz* ezpaikina bezala, bethi spiritualki bi-zitzea (Ax)

Beste kasu-marka batzuekin oso adibide gutxi daude, Etxepareren hau esaterako: *Othoi grazia egiguzu giren zuientarik*.

Irudi luke, beraz, garai batean instrumentala erabil zitekeela funtzio predikatioan, *-ko* gehitu gabe (*zurez da* eta *ez zurezkoa da*). Hala ere, aipatu behar da adibide horiek beste azalpen bat ere badutela: adibide guztietan instrumentalak materiala adierazten du ((46-d) salbu). Ez da ezinezkoa *eginiko* edo antzeko aditz bat elipsian egotea. Nolanahi ere, gaur egun halakoetara ere hedatua da *-ko*-ren erabilera.

4.3.7 [IZEN-MULTZOA-ko]

Erlazio-atzizkiak erabilera gehien-gehienetan adberbio-sintagma batetik izenen modifikatzaileak sortzen ditu. Batzuetan, hala ere, ez dago batere argi jatorrizko sintagma adberbiotzat hartzerik dagoen: *bihotz oneko neska, adineko pertsona* edo *bi urteko mutila* bezalako esamoldeak, kasu. Horiek aztertuko ditut atal honetan, hain zuzen.

Altubek (1929) aztertu zituen lehenbiziko aldiz, eta orduz geroztik *-ko* atzizkiaren gainerako funtzio guztiek baino askoz arreta gehiago erakarri zuen erabilera horrek. Trasken “deribazionala” deitu zuen, eta Goenagak “nolakotasunezko izenlagun”. Hemen, izen hobe baten faltan, “izen-multzoko *-ko* atzizkiaz” hitz egingo dut.

Trasken (1984: 208) ustez, adberbio-sintagmak hartzen dituen *-ko* atzizkiak eta izen-multzoak hartzen dituenak diakronikoki nolabait lotuta egon behar dute, baina gaur egungo hizkeretan oso ezaugarri ezberdinak dituzte. Gainerako *-ko* atzizkiaren motak ez bezala, izen-multzokoa ez dela guztiz produktiboa azpimarratu ohi da, eta atzizki deribazionaltzat hartzen da askotan —Mitxelena (2011 [1950], 2011 [1986], Trask edo Azkarate & Altuna (1992)—, *-dun*, *-tsu* edo *-kor* atzizkiak bezala. Halere, 4.3.9. atalean ikusiko dugun bezala, ez dirudi arrazoi as-

korik denik esateko izen-multzoekin aurkitzen dugun erlazio-atzizkia gainerako erabileretatik horrenbeste urruntzen denik.

Hurrengo atalean egituraren semantika eta sintaxia aztertuko ditut, baita testuetan aurkitzen ditugun lekukotasunak ere. Gero, adberbio-sintagmak eta izen-multzoak hartzen dituen *-ko* diakronian lotzeko proposamen batzuk egingo ditut, Trasken bien arteko harreman diakronikoa egon behar duela iradoki bazuen ere, ez baitzuen proposamen zehatzik egin.

4.3.7.1 Semantika eta sintaxia

Trasken arabera, atzizkiaren semantikari dagokionez, *-ko*-k, adberbio-sintagmei eransten zaienean, ez badu esanahirik (bere funtzioa kategoria gramatikala aldatzea da, besterik ez), izen-multzokoak esanahia omen du, nahiz eta “ahul eta aldakorra” (Trask 1985: 172) izan: “it has an elusive and variable but definitely non-null semantic value of its own, roughly ‘characterized by’, ‘appropriate for’, or ‘similar to’” (Trask 1984: 208). Ideia hori problematikoa da, hala ere. Beste hizkuntza batzuei begiratuta behintzat, esan daiteke *-ko* atzizkiak *bihotz oneko neska* sintagman ez duela esanahi gehiagorik, *atzoko afaria* sintagman duena baino. Ingelesezko *of* preposizioari buruz, kasu, ez da esaten *the queen of England* erakoetan genitibo “hutsa” dela, eta *man of great influence* bezalakoetan, berriz, esanahia duela. Gaztelaniazko *de* preposizioak ere antzeko erabilerak ditu. Azken batean, atzizkiaren funtzioa berbera da, oinarrian adberbio-sintagma bat ala izen-multzo bat egon: izenen modifikatzaile bat sortzea.

Egia da ezin zaiola *-ko* edozein izen-multzori gehitu: hiztun guztiek ez omen dute ***kotxe gorriko mutila* bezalakorik onartzen, baina murriztapenak ez daude atzizkiaren beraren semantikarekin lotuta, ezpada egitura osoaren semantikarekin. Arazo garrantzitsuena da, beraz, modifikatzaile horiek zer-nolako erlazioak adierazten dituzten, eta noiz den posible [IZEN-MULTZOA-ko] motako sintagma sortzea.

Lehenengo begi-kolpean, jabetza dela pentsa daiteke. Goenagak (1981: 152) azaltzen duenez, *bihotz oneko neska* sintagma *bihotz ona duen neska* bezala parafrasea daiteke; *etxe oneko neska*, aldiz, *etxe onean jaio zen neska* bezala, inesiboa tartean. Perifrasiekin, beraz, adberbioen eta izen-multzoen gainean eraikitako sintagmak bereiz daitezke Goenagaren ustez. Hala ere, jabetza adierazten duen parafrasia existitzea ez da nahikoa mota honetako sintagmak sortu ahal izateko, ez baita edozein jabetza-erlazio onartzen. Adibidez, Trask (1985: 171) ohartu bezala, ***kotxe gorriko mutila*, ***beso luzeko pilotaria*, ***ama ederreko mutila* edo ***begi urdineko andrea* ez dira existitzen, nahiz eta jabetza adierazi.

Arazo hori konpontzeko de Rijkek (1998 [1993]) eta Goenagak (2003) proposatu zuten utziezinezko (*inalienable*) ezaugarria adierazten dela *-ko* atzizkiaren bidez. De Rijken (1998 [1993]: 382) ustez, izenaren eta modifikatzailearen arteko erlazioak utziezinezkoa edo behintzat oso hurbilekoa izan behar du. Horregatik ***kotxe gorriko mutila* ez da zuzena, kotxea edukitzea ez baitugu hartzen jendearen berezko ezaugarritzat. Beraz, *-ko* modifikatzaileak sintagmaren ardatza den izenaren berezko ezaugarri bat zehazten du. De Rijkek (1998 [1993]: 382) aitortzen du, hala ere, erlazio horiek ondo definitzea zaila dela: “since closeness of relationship is a matter of degree, one should expect a grey area of intermediate cases where it is unclear whether this condition is met or not”. Adibide bat arroparen eta pertsonaren arteko erlazioa da: *jantzi gorriko gaztea* ez dute hitz-tun guztiak onartzen de Rijken arabera. Goenaga ere ohartzen da horretaz eta “gehixeago edo gutxiago” berezko ezaugarriari buruz hitz egiten du. Modifikatzaile horien sortzea, beraz, semantikak mugatzen du, baina zalantzarik pizten ez duten erabilera prototipikoaz gain, hitzunen intuizioaren eta testuinguruaren arabera onargarri izan daitezkeen adibideak ere baditugu.

Proposamen horrek egituraren esanahia zehazteaz gain, azaltzen du zergatik den beharrezkoa izen-multzoan adjektiboa edo beste elementu bat. Trasken arabera, erabilera horretan modifikatzaileak bi hitz izan behar ditu gutxienez, baina ez du azaltzen zergatik (eta gramatikan egitura batean hitz-kopurua zehaztea ez da oso ohikoa). Mitxelenak aipatu zuen arazoa, latinez antzeko zerbait gertatzen dela ohartuz:²⁵

Hay un punto en la brillante argumentación de Benveniste, por el cual pasa como sobre ascuas, que me parece necesitaría alguna mayor aclaración: de *ludus, risus, somnus, mos pueri* se llega con bastante naturalidad a *eloquentia hominis*, pero el salto a *homo magnae eloquentiae* no es demasiado simple. Ese genitivo de cualidad sufre una grave restricción, la imposibilidad de **homo eloquentiae*, además de que

²⁵ Izan ere, euskarazko egituraren antzekoak beste hainbat hizkuntzetan aurkitzen ditugu. Latinez (Benveniste 1962) gain, ingelesez edo erromantzez genitiboarekin sortzen dira (begiratu Koptjevskaja-Tamm 2004). Errusieraz antzeko egiturak *genitive modifier construction with an obligatory third term* deitzen dira, hirugarren elementu bat beharrezkoa delako. Leizarragaren itzulpenean euskaraz [IZEN-MULTZOA-ko] dagoenean, *de* preposizioa dago gehienetan frantsez:

- (51) a. itxura tristetako hipokritak bezala (ne soyez point d'un regard triste comme les hypocrites)
 b. fede xipitakoak (gens de petite foy)
 c. Zergatik publikanoekin eta bizitze gaixotakoekin (gens mal-vivans) iaten du zuen majistruak?
 d. halakotz da iraute gutitako (de petite duree)
 e. Zeinek prezio handitako perla bat (quelque perle de grand prix)

tiene a su lado, en variación no del todo libre, el ablativo de cualidad concurrente. No es distinta la situación en vasco (Mitxelena 2011 [1972]: 104).

Azaldu bezala, Goenagaren ustez, “gehixeago edo gutxixeago” berezko ezaugarria adierazten dute modifikatzaile horiek. Ezaugarri hori nola edo hala zehaztu gabe ez da ezer interesgarririk esaten, eta informaziorik garrantzitsuena adjektiboak ematen du, ez izenak. Esaterako, *bihotzeko mutila* (‘bihotza duen mutila’ esanahiarekin) esaten bada, ez da ezer berririk esaten (mutilek berez bihotz bat daukatelako). Aldiz, *bihotz oneko* esanda, adjektiboak zehaztapen bat gehitzen du. Adjektiboez landa, zenbatzaileak (52-a), plurala (52-b), genitiboa (52-c), erakuslea (52-d) edo bestelako izen-sintagma konplexu bat (52-e) ere erabil daiteke funtzio berekin.²⁶

- (52) a. [hiru hankako] mahaia
 b. [koloreetako] arrainak
 c. [Egur hezearen kearen koloreko] zerua
 d. [Adin honetako] haurrik ez dute onartzen ikastoletan.
 e. [Baserrian egiten dutenaren kalitateko] ogirik ez duzu kalean aurkituko.

Laburbilduz, izen-multzoaren gainean eraikitako *-ko* sintagmek modifikatzen duten izenaren erreferentearen berezko ezaugarri bat adierazten dute. Gainera, ezaugarri hori zehaztu behar da, izenari adjektibo edo bestelako modifikatzaile bat gehituta.

Egituren semantikari buruz hainbat ideia plazaratu diren bezala, egituren oinarrian zer kategoria sintaktiko dagoen ere proposamen batzuk ditugu: izen-multzoa (Trask 1985), izen-sintagma osoa (Artiagoitia 1998) eta determinatzaile-sintagma (Goenaga 2003).

Grammar of Basque-n horrela aurkezten du Traskek *-ko* atzizkiaren erabilera hori:

There exists a second type of *-ko* phrase, quite different from the paradigm cases described above and similar to descriptive genitives in other languages. Here the suffix is added, not to an adverbial, but to a determinerless NP; this sequence must consist of at least two words (with a few exceptions like *adineko*, *edadeko* ‘elderly, of age’), it must express a quality or characteristic, and there are obscure semantic restrictions (Trask 2003: 148).

These formations have no adverbial source: we cannot, for example, speak of a child who is ‘in three years’ (*hiru urtetan*), and even if we could the form is wrong: we would expect **hiru urtetako ume bat*. This last is impossible in the western

²⁶ Halere, (52)-eko adibide batzuen azpian adberbio-sintagmak izan daitezke, eta ez izen-multzoak.

varieties from which the example is taken, though it is possible in the east, and similar examples are found in early texts (Trask 2003: 148).

Traskek argudiatzen du *hiru urteko ume* daukagunez eta ez ***hiru urtetako*, oinarrian dagoena ezin dela izan sintagma mugagabe bat (*hiru herritako lasterketa* sintagman dagoena bezalakoa: *hiru herritatik pasatzen den lasterketa*). Proposatzen du izen-multzoa (edo *determinerless NP*, (53)) dela oinarria: izena baino gehiago, baina izen-sintagma baino gutxiago dena.²⁷

(53) [_{IS}[_{IM}[_{IOSASUN}][_{Adj}eder(r)]]][_{Mug-a}] (Trask 1985: 171)

Testuetako adibideak aztertzean ikusiko da deskribapen egokia dela. Gainera, egitura sintaktiko hori ondo ezkontzen da semantikarekin: erabilera horretan aingura gabeko erlazioak adierazten dira, eta modifikatzaileak ez dio erreferentzia egiten objektu zehatz bati, ezaugarri bati baizik, horregatik ez dago numerorik edo definitu-markarik.²⁸ Bi hitz baino gehiago izan behar duela dio Traskek (2003: 147), *itxurako* eta antzekoak kenduta. Goian azaldu bezala, hitz-kopurua egituraren semantikarekin hertsiki lotuta dago: izenaz gain beste zerbait behar da modifikatzailea zentzuzkoa izan dadin. Horregatik, izen-multzoa dugu oinarri, eta ez, esaterako, izena soilik eta, ondorioz, mota horretako sintagmak ditugu (Euskaltzaindiak 1991 ematen duen sailkapena da):

- (a) [IZENA-KO]: *itxurako pertsona, edadeko pertsona, hitzeko gizona*
- (b) [IZENA ADJEKTIBOA-KO]: *neurri gaitzekoa, gatz gutxiko emakumea*
- (c) [GENITIBOA IZENA-KO]: *ene adineko mutikoa, Afrikatarren itxurako arpegia*
- (d) [ZENBATZAILEA IZENA (IZENONDOA)-KO]: *hiru urteko haurra*

Goenaga (2003) ez dator bat Traskekin: uste du numero eta determinazio gabeko sintagmen ideia ez dela ondo ezkontzen (54)-ko adibideekin. (54-a)-n eta (54-b)-n numeroa badago, erakuslea eta *ber-* determinatzailea daukagulako. Bes-

²⁷ Artiagoitiak (1998: 46) modifikatzen du Trasken proposamena: izen-sintagmaren egituraren determinatzaile-sintagma gehitzearen ondorioz, egitura horren oinarria ez da izen-multzoa, Traskek proposatu bezala, baizik eta IS osoa. Artiagoitiak dioenez, munduko hizkuntzetan gertatzen dena kontuan hartuta, nahiko arraroa da deribazio-atzizki batek izen-multzoa hartzea (“nahiko argi uzten dute tarteko osagaiok ikusezinak direla interpretazioaren ikuspegitik edota kategoriahautapenaren ikuspegitik”, 1998: 46). Funtsean, Trasken eta Artiagoitiaren proposamenak balio-kideak dira, onartzen den ISren egitura aldatzen da bakarrik. Bidenabar, Artiagoitiak ohar batean esaten du izen-multzoekin (edo izen-sintagmekin, Artiagoitiaren azalpenaren arabera) Ipar EHN erabiltzen diren *-tako* formak (*bihotz onetako*) bere proposamenaren aurka doazela. Ez derrigor, halere: gero ikusiko dugun moduan, *-ta-* hori fosiltzat har daiteke, eta orduan ez luke numeroarekin inolako zerikusirik izango.

²⁸ Erromantzez aingura- eta aingura gabeko erlazioak *de* preposizioaren bidez adierazten bada ere, sintaxia apur bat aldatzen da: *la casa del profesor* eta *la casa de piedra* edo *un chico de ojos verdes*. Aingura gabeko erlazioetan modifikatzaileak ez darama artikulurik, ez baita definitua.

talde, (54-c)-n *itsasoaren koloreko* bezalako sintagmen azpian *itsasoaren kolorea* sintagma definituak egon behar du, eta ez *itsasoaren kolore*, Goenagaren ustez. Ondorioz, Goenagaren esanetan (2003: 84), “*etxe berriko* eta *indar handiko* numeroaren aldetik behintzat berdinak direla esango genuke”.

- (54) a. [DS [IS kolore] hon-] -(e)tako
 b. [DS [IS kolore] ber(a)] -(e)ko
 c. [DS itsasoaren kolorea]-ko

Arazoa da, nire ustez, Goenagak ematen dituen determinatzaile-sintagma osoa behar duten adibideetan (54-a)-(54-b) *-ko* adberbio-sintagmei dagoela erantsita. Horrela, *kolore honetako* modifikatzailea *kolore honetan* sintagmarekin lotzea posible da, eta *kolore bereko*, *kolore berean* sintagmarekin. Gainera, erakuslearen formak berak (*honetako*) oinarrian leku-kasu bat dagoela erakusten du. Bestela, (55-a)-n ikus daitekeen bezala, atzizkia *-tako* dela esan behar da, eta nahiko arbitrarioa dirudi. (55-b)-ko egitura sinpleagoa da. (54-c)-n, aldiz, kolore generiko batez hitz egiten dela pentsa daiteke, eta numeroa ez dela beharrezkoa.

- (55) a. [DS [IS kolore] hon-] -(e)tako
 b. [PS [I kolore] honeta-] -(e)ko

Goenagak emandako adibideak oso interesgarriak dira, hala ere, erakusten dutelako ez dela beti erraza bereizten adberbio-sintagmei eta izen-multzoei eransten den *-ko* atzizkia. Lehenagoko lan batean (Goenaga 1981) *etxe oneko* sintagmaren azpian adberbio-sintagma dagoela proposatu zuen Goenagak (*etxe onean* inesibodun batekin lotu ahal delako). Gero Zabalak (1999: 129) argudiatu zuen izen-multzokoa dela *etxe oneko*, *bihotz oneko* bezalaxe; bere ustez ez dugu inesiborik ez batean, ez bestean, bietan ezinezkoa delako plurala gehitzea (56). (56-b)-n “*-ko* daramanak, laguntzen duen izenaren kualitate bat txertatzen du”, eta (56-a)-n “nesken artean «mota» bat adierazteko balio digu *-ko* daraman laguntzaileak; «jatorria» da sailkapen horren irizpidea” (Zabala 1999: 129). Semantikoki ezberdinak badira ere, sintaxia berbera dute Zabalarentzat.

- (56) a. *Etxe *onetako/oneko* neskak dira Edurne eta Itziar
 b. *Bihotz *onetako/oneko* neskak dira Edurne eta Itziar (Zabala 1999: 129)

Halere, Goenagak (2003) erantzuten du adibide horien inguruan hiztunak ez daitozela beti bat intuizioetan, eta batzuek plurala onartzen dutela (56) adibidean. Aipatu den izen-multzokoaren eremu grisaren beste adibide bat genuke, alde batetik. Bestalde, diakronia ulertzeko pista garrantzitsuak ere ematen dituzte adibide horiek. Adberbioen gaineko eta izen-multzoaren gaineko erabilerak muturreko kasuetan oso ezberdinak badira ere, bietara interpreta daitezkeen adibideek erakusten dute mota batetik besterako bidea posible dela agian: *etxe onean* inesi-

boa duen sintagmatik sortu, baina *bihotz oneko* bezalako modifikatzaile bihurtu (4.3.7.3 atalean garatuko dut ideia hori).

4.3.7.2 Erabilera testuetan

XVI. mendetik aurrera lekukotzen da izen-multzoari eransten zaion *-ko*, baina nahiko maiztasun txikia du (atzizkiaren erabilera guztien % 1-3, corpus osoan guztira 60 bat adibide; begiratu 4.4. taula 221. orr.). Horregatik, atal honetan askotan *KG* corpus osoa erabili dut adibideak bilatzeko.

Testuetan agertzen diren adibideak aztertuko ditut, lau multzotan banatuta: [IZENA ADJEKTIBOA] dugunean, [ZENBATZAILEA IZENA], [GENITIBOA IZENA] eta [IZENA] bakarrik. Arreta gehien lehen motari emango diot, gehien erabiltzen delako.

[IZENA ADJEKTIBOA] Izena eta adjektiboa konbinazioa gehien agertzen da testuetan. Hona hemen XVI-XVII. mendeetako nire corpuseko adibide gehienak:

- (57) a. Iainko Aita bothere-guzitako (LeizABC), hain konplimendu handitako (LeizSarrera), itxura tristetako hipokritak (LeizTest), bizi beharrezko moien xipitako ofizioetan (LeizSarrera), boeita bat ungentu prezio handitakorik (LeizTest), prezio handitako perla bat (LeizTest), zure dohain onetako haur (LeizSarrera)
- b. misterio anditako sakrifizioa, gauza lastima anditakoa, berri kontentu, eta plazer anditako bat, bentura ain ditxa anditakoau, probetxu anditako gauza, exemplo bat konsiderazio anditakoa (BerM)
- c. hospe gextocoa (RS)
- d. conozenzia oneco perssonaen artean, vioz garbicoac, ain ardura andico negociobaten, afrontu gueiagocoa, afrenta andico verbaric (Kap)

Maiztasuna dela eta, *handitako* 9 aldiz aurkitzen dugu Leizarraga osoan, *onetako* 12 aldiz, *xipitako* 12, *gaixtotako* 22 (baina beti *bizitze gaixtotako* sintagman). Zenbaki horiek erakusten dute oso maiztasun txikiko egitura dela.

Ikus daitekeen bezala, bi aukeraz baliatzen da: *-ko* eta *-tako*. Azken aldeara Ipar EHko testu zaharrenetan lekukotzen da dagoeneko (Etxepareren *ditxatakoa*, esaterako). Bien distribuzioaz literaturan aurkitzen dugun aipu bakarra Azkaratek eta Altunak (1992: 108) egiten dute: batez ere Haranederren testuan oinarrituz, EHren ipar-ekialdeko testuetan *-tako* formek *-ko* ordezkatu dutela on-dorioztatu dute. Distribuzioa hobeto zehazteko, *KG* corpuseko adibideak aztertu ditut (gehien erabiltzen diren adjektiboen arabera):

- *handi* (gehien erabiltzen den adjektiboa da):

- *-ko*: *ain ardura andico negociobaten, afrenta andico verbaric* (Kap), *Hi arraza handiko, ni seme jauregiko, egur hori nork drauku hautsiko?* (Oih), *negozio grabe, ta inportantzia andiko batean* (OA). XVIII. mendearen bigarren erditik Bizkaian eta Gipuzkoan adibide asko daude. Zaraitzun ere aurkitzen dugu: *beteric perfumez edo unguentu precio andicoaz*.
- *-tako*. Lapurdin, Nafarroan eta Zuberoan erabili zen: *prezio handitako perla bat, fama handitako idola bat* (LeizTest), *humiltasun handitaco obra haur* (Mat), *probetxu anditako gauza* (BerM), *fama handitakorik* (Ax), *Aingeru sendo indar handitakoa* (EtxZib), *probetxu handitako abisu batzu* (Pouv), *maiestate handitako Iainkoa* (Haranb), *mereximentü handitako* (Mst). Erronkaribarren eta Aezkoan ere badago.
- *on*:
 - *-ko*: Bizkaian eta Gipuzkoan XVIII. mendetik aurrera adibide asko daude, lehenengoa Kapanagak du (*conozenzia oneco perssonaen artean*). Lapurdin baten bat azaltzen da: *zure plazer oneko eguna* (Pouv), *Ama zori onekoa* (Harizm). Lizarragak erabili zuen (*exenplu oneko, borondate oneko*). Zaraitzun ere badago: *conciencia oneco genden artean*.
 - *-tako*: Lapurdin adibide ugari daude (*ur usain onetakoak* LeizTest, *usain onetako zur mota guzitakorik* LeizTest, *usain onetakoez* Pouv, *iduri onetako muthil gazte bat* Ax). Lizarragak adibide gutxi batzuk ditu: *inklinazio onetako personak*.
- *eder*:
 - *-ko*: Pouvreauk du adibide bat (*itxura ederreko*). Gero, XVIII. mendearen bigarren erdian Gipuzkoan eta Bizkaian agertzen da (Mogel, Mendiburu...). Lizarragak adibide pare bat ditu.
 - *-tako*: *sabel-ederretako izaitetik* (Ax), *minzatze ederretako / Zpritu are hobetako* (Oih), *doai ederretako Turko bat* (AgirAst). Lizarragak ere adibide batzuk dauzka.
- *gaizto*:
 - *-ko*: zaharrena RS-n dago *aldi gextoan jai odo ospe gextokoa*; gero XVIII. mendearen bigarren erdian (Mogel *mutil lotsa gaistoko bat*, OA *itxura gaiztoko Jainkoak* Kardaberaz, Mendiburu...). Lizarragak adibide batzuk ditu: *arima zori gaixtoko*. Zaraitzun ere badago.

- *-tako*: gizon bizitze gaixtotako batek (LeizTest), *fin gaixtotako hitzak edo gogo gaixtozko obrak* (Haranb), *Ni nizan bezain zorigaitzetakorik* (Oih). Lizarragak adibide batzuk ditu: *ofizio bat opinione ta fama gaixtotako*. Erronkaribarren ere badago: *bici gasstotaco guente*.
- *gutxi*:
 - *-ko*: XVIII. mendearen bigarren erditik aurkitzen dugu (Mendib, Kardab, Mogel...).
 - *-tako*. Lapurdin badago adibiderik: *hain balio gutitako* (LeizKat), *eza-gutça gutitaco* (Mat), *bihotz gogorra eta ezagutza gutitakoa* (Ax); Nafarroan ere bai: *ain barbarorik, eta adimentu gutitakorik* (BerM), *fede gutitakoak* (Lizarg).

Bildutako adibideen arabera, beraz, Bizkaian eta Gipuzkoan *-ko* da aukera bakarra, Nafarroan *-tako* agertzen da gehienetan, baina *-ko* ere noizean behin. Lapurdin *-ko* oso gutxi erabiltzen da (Lizarragak, adibidez, ez dauka inoiz). Zuberotan ez dago adibide askorik. Oihenartek *-ko* baten bat badu ere, gero *-tako* agertzen da. Aezkoan eta Zaraitzun *-ko* eta Erronkaribarren *-tako* ditugu.

Egituraren emankortasunaz den bezainbatean, beste hainbat adjektibo ere aurki daitezke, horien maiztasuna askoz txikiagoa bada ere:

- *apur*: *fede aphurretakoa* (Ax)
- *txiki*: XVIII. mendetik aurrera (*erregalo pisu txikikoak* Mogel)
- *triste*: *itxura tristetako hipokritak* (LeizTest); *tristeko* XVIII. mendean Gipuzkoan
- *garbi*: *vioz garbicoac* (Kap), *dohatsu bihotz garbitakoak* (Haraned)
- koloreak: *esker beltzekoa* (Kardab), *ille zuri edo beltzeko guztia* (Uriarte)
- *gogor*: *lepo gogorrekoak* (Mogel), *biotz gogorrekoak* (AñibGero)
- *txar*: *itxura txarrekoa* (Mogel), *itxura txarreko atso zimurtu bat* (Mendib)
- *lodi*: *buru lodiko gizona* (Azkue)
- *labur*: *jende pazienza laburreko* (Mogel), *uste laburreko beldurtiak* (Kardab), *iraupen laburretako atsekabetarik* (Larreko)
- *bigun*: *bijotz biguneko bat* (Mogel)
- *luzeko*: XVIII. mendearen bukaera arteko adibide bakarra Lizarragak du: *Ungi hel dakianzat eta bizitze luzetako aizenzat lurraren gainean*

Oso gutxitan agertzen da adjektiboa konparatiboan: *estatu handiagotako* (LeizSarrera), *Emaitea hartzea baino dohain hobetako* (LeizTest) edo *Minzatze edurretako, / spiritu are hobetako* (Oih).

Egituren *handi, on* eta *gaizto* dira gehien erabiliak (euskal adjektiboen zerrenda berez oso luzea ez dela ahaztu gabe). Hala ere, esan behar da testu zaharretan adjektibo gehiago ere aurki daitezkeela. Leizarragak, (57-a)-koez gain (*guzi, handi, triste, xipi, on*), hauek ere baditu (guztira 12 adjektibo ezberdin aurki daitezke): *opinione falsutako, natura fierretako eta korrumpitutako, konditione eta sorte gaitzetako, iraute gutitako, adimendu sanotako espiritu bat, bihotz berantkorretakoak*. Horietako batzuk seguruenik testua itzulpena delako sortu ziren, baina, edonola ere, garai hartan egitura nahiko emankorra zela pentsatzera garamatzate. Egituren ager daitezkeen adjektiboen zerrenda denborarekin luzatuz doala ematen du (ez bada testuen izaerarekin lotura dagoela, zenbat eta berriago, hainbat eta gai gehiago ukitzen direlako, ez bakarrik erlijio-kontuak).

Semantikari dagokionez, Goenagaren eta de Rijken ideia egokia dela erakusten dute corpuseko datuek: sintagmaren burua den izenaren berezko den ezaugarria zehazten du *-ko* modifikatzaileak. Gehienetan halakoak adierazten direla dirudi:

- (i) ezaugarri subjektiboak (*garrantzi, probetxu, pisu, balio...*)
- (ii) ezaugarri fisikoak (*usain, prezio, pisu, kolore...*)
- (iii) pertsonen izaera (*pazientzia, ohitura, bizitza...*)
- (iv) gorputz-atalak (esanahi metaforikoarekin askotan): *begi oneko, buru argiko, esku handiko, bekoki gogorreko, lepo gogorreko*
- (v) objektuaren parte bat: *takoi fineko botak, kanoi motzeko eskopeta bat, adreilu gorriko txaleta*
- (vi) pertsonen objektuak, batez ere arropa: *traje ederreko gazteak, gorbata gorriko gizon lodikote bat*

(i) eta (ii) testu zaharretan agertzen dira dagoeneko, eta gainerakoek berriagoak dirudite. Gorputz-atalekin egindakoak direla eta, Axularrek *sabel ederretako* du,²⁹ baina bestela XVIII. mendearen erdialdean azaltzen dira hurrengo adibideak: *bihotz onetako gizonak* (XurioImit), *lepo gogorrekoak esku garbikoa* (MogelJAEra), *bihotz onekoak* (MendDeb). Pertsonak edo objektuak ezaugarritzen dituzten objektuak (objektuen parteak, arropa) dira agertzen azkenak.

Goian zerrendatutakoez gain, testuetan (eta dagoeneko XVII. mendean) bada erabilera prototipikotik aldentzen diren adibideak: *gauza lastima anditakoa* (BerM), *berri kontentu, eta plazer anditako bat* (BerM) edo *afrenta andico verbaric* (Kap). Horietan berezko ezaugarriaren kontzeptua apur bat lausoagoa da. Kapa-

²⁹ Hau da testuingurua: *Eta abstinenziatik, neurriz bizitzetik, sabel-ederretako izaitetik, eta pairatzetik heldu da debozinoa eta saindutasuna* (Ax).

nagaren adibidea hartuta, ez dirudi hitzen berezko ezaugarria iraingarriak izatea denik. Berezko ezaugarri bat zehaztetik pertsona batek edo gauza batek izan dezakeen ezaugarri bat zehaztera pasatzen dela ematen du. Beraz, denborarekin egitura apur bat hedatzen da, eta zentzu hertsian berezko ez diren ezaugarriekin ere posible da batzuetan. Testu zaharretan ezaugarri orokorrak, objektu guztiek edo gehienek dauzkatenak (tamaina, balioa...) nagusitzen dira, baina gaur egungo hizkuntzan *takoi fneko botak* edo *kristal lodiko edalontzi bat* bezalako adibideak erruz aurki daitezke. Objektu-klase hertsi batek (zapatak, kristalezko ontziak) duen ezaugarri bati buruz hitz egiten da. Nire ustez, hedakuntzaren beste seinale bat da hori. Beste bat, *hitz gutxiko* edo *bildur gutxiko* bezalakoak dira: *hitz* edo *bildur* ez dira ezeren ezaugarri. Gainera, *hitz gutxiko gizona* ezin da parafraseatu *eduki* aditzarekin.

Halere, *-ko* sintagmak eratzeke murriztapen batzuk gelditzen dira: bizidunekin ezin da modifikatzailea osatu: ***ama ederreko mutila* (*ama* definitua delako, eta ez da ondo ezkontzen semantikarekin, aingura-erlazioa ez dutelako modifikatzaile horiek adierazten).

[ZENBATZAILE IZENA] Zenbatzaileekin pisua (58-a), objektu baten parteak (58-b), adina (58-c) edo iraupena (58-d) adieraz daiteke. Hemen ere *-tako*-ren eta *-ko*-ren arteko alternantzia dugu. Testu zaharretan erabiltzen da dagoeneko.

- (58) a. çazpi libraco tremes andia (Laz)
 b. bi ahotako ezpata zorrotz bat (LeizTest), ganibet zorrotz bi ahotako bat (Oih)
 c. haur bi urthetako eta behereko guziak (LeizTest), urthe batetako haurra (Ax)
 d. ehun urthetako travaillua (Pouv)

[GENITIBOA IZENA] Konbinazio hori dela eta, *EGLU*-n (Euskaltzaindia 1991) ematen diren adibideak —*afrikatarren itxurako arpegia*, esaterako— oso antzekoak dira: *X-ren itxurako* (eta sinonimoak) edo *X-ren adineko*. Beste adibide bat *antzoko* eta *antzeko* dira. Lehenengoa Leizarragak du (*suaren anzoko mihi partituak*). *OEH*-ren arabera, *antzeko* Gipuzkoan eta Bizkaian XVIII. mendean agertzen da (*infernuko tormentuak edo aien antzeko Kardab*, *oturunz edo jate andi baten anzekoa dala Zeruko bizia* Ubill). Testu zaharretan adibide gutxi aurkitzen ditugu: *zure iduritako*, *bere irudiko*, *ene izenekoa*, *bere irudiko jenerationean* (Leiz-Sarrera), *Ukaraia besoa*, *arhan-lil'itxurako* (Oih). Gutxitan bada ere, beste batzuk ere agertzen dira:

- (59) eta *Iesusen fedeko* denaren iustificazale (LeizTest)
 (60) non eztezagun deus pensa, ez erran, ez egin, hire *obedientiatako*, eta hire *borondate sainduaren konplimentutako* gauzarik baizen (LeizABC)
 (61) *Jangoikuaren bildurrekua* (Mog)

Sintagma horiek batzuetan destinatiboaren kutsua dute: *arimaren probetxuko konpainiak* (Pouv) adibidea (62)-koekin lotu behar dela uste dut, eta *bere irudiko jenerationean* (LeizSarrera) edo *gizon iduritako Angeruaren* (Pouv) (63)-koekin. Antzekoak *norbaiten manuko*, *aginduko* edo *karguko* dira.

- (62) a. Eta nola: gure probetxutako ezten gauzarik Iainkoari eskatu behar gaitzaitza? (LeizKat)
 b. Iainco eternala, çure botherearen indarraz eguna eta gaua guiçonaren probetchuco creatu eta ordenatu dituçuna (Mat)
 c. Andre munduaren probetxutako iaioa, ardiats dezadazu grazia Iainkoaren aitziñean bekhatu gabe aurkhitzeko (EtxZib)
 (63) a. beztitu izan dela gure haragiz, persona batetan lizenzat Iainko eta gizon, gure irudiko (LeizKonf)
 b. Ni zure iduritako banendi nahiz zu ene iduritakotu zara, eta konplibedi zure borondatea (Haranb)

Destinatiboak *gogoko* edo *gustuko* bezalakoak ulertzen ere laguntzen du. Lehenengoa Lazarragak du dagoeneko: *çure gogoco barriric*. Bigarrena, *OEH*-ren arabera, genitiborik gabe Argainaratzek du (*Gauza gustuko enetzat, / Hanbat duzu kreatu.*), genitiboarekin Lavieuxville-n katiximan agertzen da (*Janari sobera bere gostukoak eta garastiegiak bilhatzea*). Sintagma horien arazoa Goenagak honela azaltzen du (2003: 287):

Aparteko iruzkina eskatzen dutela uste dut *neure gustuko*, *bere gogoko*, eta antzekoek. Izan ere, gauza bat da (a) eta beste bat (b):

- a. gustu handiko mutila zen Joseba (cf. Mutilak gustu handia du)
 b. Mariaren gustuko mutila zen Joseba (cf. Mutila Mariaren gustukoa da / *mutilak Mariaren gustua du)

Lehenbizikoan dudarik gabe mutilaren ezaugarri bat aipatzen da, beraz hemen aztergai ditugun horietakoa da. Bigarrenean, ordea, beste zerbait adierazten da.

Hala ere, Goenagak ez du zehazten zer adierazten den. (64)-ko adibideak ikusita, pentsa daiteke *gogoko* edo *gustuko* bezalakoak destinatiboa zuten sintagmatik sortu zirela.

- (64) a. Beldur nuzu lana eta langitia eztiren izanen zure gogoko (Tart)
 b. Jainkoaren gogoko ta adiskide egiten gaituan grazia (Ubilll)
 c. haren gogarako eta plazent diraten obrak (LeizForma)

Aipatzekoa da *-ko* destinatiboari ezin zaiola erlazio-atzizkia gehitu: ezinezkoak dira ***gogo-ko-ko* erakoak. Beraz, *gogoko* eta *nire probetxuko* bezalakoetan, *-ko*-k jatorriz destinatiboa adierazten bazuen ere, izenen modifikatzailea sortzeko momentuan erlazio-atzizki bezala berrinterpretatu zela dirudi.

[IZENA-KO] Batzuetan modifikatzailea izenaz bakarrik dago osatuta: *edadeko*, *adineko*, *itxurako*. [IZENA ADJEKTIBOA-KO] egiturarekin lotuta dago mota hori, gradu altua adierazten duen adjektiboa isilduta (izenaren arabera, *handi*, *on* ...). Adibide zaharrena Etxeparek du: *Egundano izan daia ni bai ditxatakorik* (cf. *ben-tura ain ditxa anditakoau* Ber). Besteak ez dira oso zaharrak: *adineko* eta *edadeko* XIX. mendean lekukotzen dira; *itxurako*, aldiz, XX.aren hasieran.

Euskaltzaindiaren (1987: 52) arabera, izenak abstraktua izan behar du (***hankako mahaia*, baina *hankadun mahaia*). Baieztapen horrek arazo bat du: mota horretako modifikatzaileak oso bakanak dira, eta edozein izen abstraktu ezin da horrela erabili. Sintagma gutxi batzuk bakarrik lexikalizatu dira modu horretan. Hori gertatzeko, hasteko, asko erabiltzen den [IZEN-MULTZOA-KO] erako sintagma batek existitu behar du, eta gero, adjektiboa ezabatuz sor daiteke *itxurako* bezalako modifikatzailea. *EGLU*-ko adibidea hartuta, *hanka ederreko mahaia* edo antzeko zerbaitek ez dirudi oso hautagai ona, eta *hankako* ez existitzea ez da, beraz, oso harrigarria.

Azkenik, *esaneke* edo *hitzeko* bezalakoak ditugu. Hemen jatorriz adjektiborik ez zegoela dirudi (*hitz oneko?*). Lehenbiziko lekukotasunak nahiko berriak dira:

- *esaneke* XIX. mendean hasieran lekukotzen da lehenbizikoz, *OEH*-ren arabera (*Zirian umerik esanekuenak* frBart).
- *hitzeko* (*OEH*-k *hitzetako* ere jasotzen du) ere XIX. mendean agertzen da (*Etzare hitzekoa, vous n'êtes pas un homme de parole* Dv). Mendiburuk *hitzeko gizonak* du (*OEH*-n ez da agertzen).
- *begiko*: *OEH*-ren arabera, XIX. mendean erdialdean azaltzen da lehenbizikoz.

4.3.7.3 Izen-multzoko *-ko* sintagmen sorrera

Atzizkiaren bi erabilera-klaseen (adberbio-sintagmak eta izen-multzoak hartzen dituen *-ko*) arteko erlazioak direla eta, Trasken ustez diakronikoki lotuta egon behar badute ere, gaur egun zeharo ezberdinak dira:

The two suffixes are undoubtedly cognate diachronically, but their behaviour is now so different that it is surprising that their separate identity has not previously been recognized (...). Presumably this is due to the morphological accident that a

definite singular inessive plus *-ko* yields the same surface form as a bare nominal stem plus *-ko*: e. g., *etxe onean* ‘in the good house’ + *-ko* – *etxe oneko*, while also *etxe on* ‘good house’ + *-ko* – *etxe oneko* (Trask 1984: 208).

Lotura diakroniko hori zer-nolakoa izan daitekeen ez du proposatzen, hala ere.

De Rijkek (1998 [1993]) *-ko* atzizkiaren erabilera guztiak adberbio-sintagmekin lotzen ditu (sinkronikoki zein diakronikoki), eta *mendiko* bezalako azpian inesiboa dagoen bezala, *bihotz oneko* sintagmak soziatiboa du (*bihotz onarekin*). Argudioetako bat da soziatiboarekin *-ko*-ren erabilera nahiko mugatua (*bihotz onekiko neska* edo *zazpi lagunetik taldea* ez dira posible) eta berezia dela. Erabilera guztietan, beraz, *-ko* bakarra dugu, eta izen-multzoko *-ko* ez da berezia de Rijken ustez.

Erlazio-atzizkiaren erabilera guztiak adberbio-sintagmekin (edota destinatiboarekin) diakronikoki lotzeak posible dirudi, baina ez nahitaez soziatiboarekin. Lehen arazoa da oso zaila dela soziatiboaren ezabatze hori azaltzea: fonologikoa behintzat ez da. Bestalde, dauzkagun testuetan behintzat, soziatiboa ez da asko agertzen de Rijkek proposatutako aldaketa ahalbidetu zitezkeen testuinguruetan. Erlazio-atzizkia soziatiboarekin gutxi erabiltzea horren ondorio izan daiteke.³⁰

De Rijkek proposatzen duen soziatiboarekiko loturaren ordez, beste azalpen batzuk proposa daitezke, izen-multzokoa inesiboarekin, instrumentalarekin eta *X gabeko* esapideekin lotuz.

Azkaratek eta Altunak (1992) *-tako* aldaera inesiboarekin lotu dute: *-tako* atzizkiak *-ko* ordezkatu zuela iradokitzen dute, inesiboa duten sintagmekin analogiaz. Haranederren adibideak ematen dituzte: *fedearen bozcariotan*, *hunnen abantailletan* edo *hunnen laudoriotan*. Izena eta adjektiboa duten sintagmetan ere aurkitzen dugu Haranederren testuan: *arropa churitan ibili*, *hitz estalitan mintçatu*, *herstura handitan içan* etab. *-tako*, beraz, *-tan* lokatibo mugagabea duten izenlagunekin analogiaz sortu zela, eta *-ko* ordezkatu zuela argudiatzen dute (Azkarate & Altuna 2001: 101). Gainera, “hau, mende horietan eta bereziki ekialdean izen-sintagma mugagabeak zuen hedadura gaur baino askoz handiagoaren beste lekuko bat baino ez dira” (Azkarate & Altuna 1992: 109).

Idea horiek harago eramanez, proposa daiteke izen-multzokoen jatorrian inesiboa duten sintagmak egon daitezkeela. Har ditzagun Leizarragaren adibide hauek: batetik, inesiboa duena –*Ezen ungentu haur prezio handitan saldu ahal*

³⁰ Soziatiboa *-ko* atzizkiarekin ez da oso ohikoa testuetan, de Rijkek dioen moduan, baina adibide batzuk badaude: *hirekilako bakeaz* (LeizABC), *bere etxeko guziekilako exerzitioa* (LeizABC), *harekiko plazera* (Ax), *elkharrekiko bizitzeari* (PouvFil), *gizonen elkarrekiko solhasak* (PouvImi), *Gasturekiko hankortarzunak* (Oih). *-gaz* markarekin ere noizbehinka agertzen da: *nigasco one-rechia* (Mikol), *araguiagazcoa* (Kap), *guzurragazko juramenturik* (Mogel).

zatekeen, eta eman paubrei— eta, bestalde, *-ko* modifikatzailea duena: *prezio handitako perla bat*. Batetik bestera pasatzea erraza da, *menditan* batetik *menditako* forma sortzen den bezala. Testuetan adibide gehiago aurkitzen ditugu, bai mugabeen, bai singularrean:

- (65) a. Eta *premia handian* dena faboratzeaz (EtxZib)
 b. Desir oro konpliturik *alegria handian* (Etxep)
 c. zeren gu bekatore gaixoak *hunelako on handian* partizipant egin baikaituk (LeizForma)
- (66) a. Guzia da *gure probetxu handitan* (LeizKat)
 b. Eta gertha zedin hek halakotz *duda handitan* ziradela (LeizTest)
 c. non egungo egunean Bearno guzian Iainkoaren hitza paisibleki eta *edifikazione handitan* predikatzen baita (LeizSarrera)
 d. *Probetxu handitan* gertha dakion (EtxZib)
- (67) a. cegaiti *utra manera andian* daçauen guztioç alabadu deuscue (Laz)
 b. Guiçon damaogaz eztaucana / conbersacioa *gusto anditan*, / bioa porra batez arraitan (Laz)
 c. Bay Iauna escandaliçaduagaz, edo *peliburu andian* dagoanari ez lagunduagaz (Kap)

Horrek ez du esan nahi *handitako* guztien atzean inesiboa dagoenik: adibidez, Leizarragak *maiestate handitako Iainkoa* ere badu. Hor zailagoa da inesiboa duen testuinguru bat proposatzea. Horrek erakusten du, bestalde, Leizarragaren garairako [IZEN-MULTZOA-ko] egitura finkatuta zegoela.

Inesiboarekin zuzenean lotuta dauden modifikatzaile batzuk sortuz gero (*prezio handitako* motakoak), analogiaz bestelako modifikatzaileak ere sor zitezkeen (68). Ikusi dugun bezala, EHko ipar-ekialdean *-tako* atzizkia erabiltzen da; beraz, beste sintagma batzuetara zabaldu baino lehen, berranalizatu behar zen: *-ta-*, inesiboarena zena, atzizkiaren parte balitz bezala ulertu zen ([*prezio handi*]tako), eta *-tako* atzizki beregain bihurtu zen. Aldaera sinpleagoa (*handiko*) erabiltzen den tokietan, analogiarekin nahikoa da (69).

- (68) a. *prezio handitan* > [*prezio handita*]-ko
 b. [*prezio handita*]-ko > [*prezio handi*]-tako (berranalisia)
 c. [*prezio handi*]-tako — fama/probetxu/X handi/txiki/X-tako (analogia)
- (69) a. *prezio handian* > [*prezio handi*]-ko
 b. [*prezio handi*]-ko > fama/probetxu/X handi/txiki/X-ko (analogia)

Gauzak horrela, *-tako* atzizkian *-ta-* hasieran mugagabearen marka bazen ere, gerora lotura hori galdu zen.³¹ Hori Leizarragaren adibide batzuetan argi ikusten da, *ezagutze gabetako* (LeizFor) edo *Espiritu sainduaren kontretako blasfemia* (LeizTest) erakoak baititu. Adibide horiek inportanteak dira, erakusten dutelako *-tako*-k (dagoeneko Leizarragarengan) ez daukala zerikusirik numeroarekin: adibide horietan *-ko* postposizio-sintagmei lotzen zaie (*gabe* edo *kontra*), ez izenei, eta horiek ezin dute numero-markarik hartu.

Bigarren ideiara pasatuta, *gabe* postposizioarekin *X gabeko* modifikatzaileak sor daitezke, inolako arazorik gabe. Testuetan adibide ugari daude: *adisquidebaco bicea*, *eguzquibaco laurenbatic* (RS), *altxagarri gabeko ogien*, *fermutate gabeko* (LeizTest), *indar gabeko kolera* (Ax), *fin gabeko* (Ax), *fin bako* (ZubDot), *probetxu gabetako*, *esker gabeko* (EtxZib), *sinheste gabetako*, etab. Egitura horrek gauza baten gabezia adierazten du, baina horrekin lotutako beste kategoria batzuk —oparotasuna edo urritasuna, kasu— jakitera ematea ez da horren erraza. Ez da ezinezkoa, beraz, “paradigma” osatzeko *X handiko* edo *X gutxiko* formak analogiaz sortzea.

Azkenik, *X handizko* bezalakoak ditugunez, galde daitezke zein erlazio dagoen horien eta *X handi(ta)ko* erakoen artean. Instrumentala dutenak asko agertzen dira testu zaharretan, bai Ipar EHn (70-a), bai Hego EHn (70-b).

- (70) a. ur bizizko flubioak, aspik garbizko ungentu prezio handitako boeita bat, usain onezko urrinetan, dohain onezko hazia, dohain onezko alianza hunetara (Leiz); ur eztizko ithurririk, kontu handizko dainuririk, iraupe handizko plazerik, usain onezko keak (Pouv); lizar finezko lanzez (EtxZib); borondate gaixtozkoa (Ax); ürrin honezko sakrifizio batez (Belap); hainitz manerazko izterbegien (Haranb); gayça importanziazo çonbaytetan (Oloroe)
- b. utra birtute andizcoa, dicha onezco semea, listra onezco dardoa (Laz); gauça pisu guchisco[a] (Land); prouechu andizcoa (Kap); ogueta amalau tiro, bronce onezcoac (EgiaK); durangoco gentea baçaut juižio guichizcoa da gueyaena (fJZum); gauza inportanziazo onetan (OA)

Semantikaren aldetik, berdinak dirudite bi aukerek. Ezin da ziur jakin zein den zaharragoa, baina instrumentala duten *-ko* sintagmak sortzeak askoz “errazagoa” dirudi: *zur* > *zurezko*, *ditxa onez* > *ditxa onezko*. Beharbada momentu batetik aurrera hitzunei instrumentala ez zitzaien gehiago beharrezkoa iruditzen, eta,

³¹ Bidenabar, *-ta-* deklinabidean aski berria denez (Mitxelena 2011 [1979]; Trask 1997; Manteola 2015), *prezio handitako* bezalako formak oso zaharrak ere ezin dira izan. Ez da ezinezkoa *-tako* aldaerak aldaera sinpleagoa (*-ko*) ordezkatu izana, baina posible da era horretako izenen modifikatzaileak erlatiboki berriak izatea.

hasieran instrumentalarekin zuten lotura semantikoa hautsi zenean, *-z-* erori zen, *X handi(ta)ko* erako batzuk sortuz.

4.3.8 *-ko* sintagmak eta adjektiboak

Atal honetako galdera da *-ko* sintagmek noraino hartzen dituzten adjektiboen ezaugarriak. Zehazki, bi aztertuko ditut: konparatibo- eta superlatibo-formak, eta gradu modifikatzaileekin (*oso, guztiz, nahiko...*) agertzea.

Baliabide biak emankorrak dira, baina semantikak determinatzen du noiz den posible horiek erabiltzea. Gaur egun *-ko* sintagma batzuek arazorik gabe onartzen dituzte *-go* eta *-en* konparazio-atzizkiak, eta *-egi* atzizkiarekin ere ager daitezke:

- (71) a. zentzuzkoago, oinarrizkoago, beharrezkoago, egiazkoagoa, bidezkoagoa, premiazkoagoa... (*EPG*)
 b. antzekoagoa, antzekoegia, azalekoagoa, erabatekoagoa, ezinbestekoago, nazioartekoago, benetakoagoa, benetakoagoa, begi-bistakoagoa, alferrikakoago, patxadakoagoa, ohikoegia, azalekoegia... (*EPG*)

Guztietan aingura gabeko erlazioak adierazten dira; aingura-erlazioekin ezinezkoa dirudi: **?atzokoagoa* (semantikagatik).

Testu zaharretan gutxi aurki daitezke konparatiboan edo superlatiboan dauden *-ko* sintagmarik, XIX. mendetik aurrerakoak dira gehienak. Leizarragak adibideren bat badu (72), hala ere. XVII-XVIII. mendeetako konparatiboaren adibide (ia guztiak) (72)-n zerrendatu dira; (73)-n, aldiz, XVII. mendeko testuetan agertzen diren superlatiboak eman dira. *-egi* atzizkia erlazio-atzizkiarekin batera ez da XIX. mendera arte agertzen (*moduzkoegia* Uriarte). Oro har, XIX. mendera arteko mendebaldeko testuetan oso adibide gutxi dugu, eta, dirudienez, prozesua aurreratuago zegoen ekialdean.

- (72) a. mirakuluzkoago, moldezkoago, moldezkoagorik (Leiz), premiazkoagoa (Pouv), egiazkoagorik (EtxSar), bakezkoagorik (Xurio), birtutezkoagoa, nekezkoagorik, ziñezkoagoa (Mendiburu), dudazkoagorik (Larregi)
 b. aitzinekoago (Leiz), gogokoago (Harizm), gogarakoago, gizonaren burutikakoago (Pouv), elkharren iduritakoagoak (EtxSar), gogarakoago (Xurio)
- (73) bidezkoena (EtxZib), gogarakoena (Haranb, Mat, Harizm, Pouv), itxurazkoenak, ohorezkoena, bakezkoenari, premiazkoena, beregainekoena (Pouv)

Adibideetan ikus daitekeen bezala, sintagma gehienek instrumentala daramate, adibide asko errepikatzen dira (*premiatzko*, *egiazko*, etab.), eta lexikalizazioaren seinaleztat har daiteke hori. Beste era batera esanda, badirudi *-ko* sintagma batzuk adjektibo arrunt bihurtu edo bihurtzen ari direla.

Izen-multzokoek, aldiz, ez dute konparatiboa edo superlatiboa onartzen: ***bihotz handikoagoa* motakoak ezinezkoak dira (baina *bihotz handiagokoa* esan daiteke). Salbuespena, elipsia pairatu duten sintagma batzuk dira, *gogoko* modukoak ((72-b)-koen artean batzuk horrelakoak dira). Horiek, argi eta garbi, lexikalizatuagoak dira.

Esan bezala, gradua adierazten duten modifikatzaileekin lotzea ere adjektiboan ezaugarrietako bat da. Gaur egun ohikoa da (74), baina XIX. mendera arteko testuetan horren adibide gutxi daude (75). Berriro ere instrumentalaren marka duten hitzekin maizago agertzen zaizkigu halakoak. Izen-multzokoekin ere posible da (76).

- (74) oso ideia zentzuzkoa, oso dudazkoa, oso beharrezkoa, guztiz beharrezkoa, guztiz ezinezkoa, guztiz premiazkoa, erabat legezkoa, hain garrantzizkoa, hain funtsezkoa, hain ohikoak, hain antzekoak, hain azalekoak, oso hurbilekoak, oso muturrekoak... (EPG)
- (75) a. oso arrazoiezkotik (Kardab)
 b. guztiz egiazkoa (EtxZib), guztiz premiazko (Kardab), guztiz egiazko, guztiz nekezkoa (Mendib), guztiz zorioneko oni (MogelJA), iduri guztiz ederrekoa (Mendib)
 c. txit jainkozkoa, txit premiazko (Kardab)
 d. hain ohorezko, hain premiazko, hain naturaleza onezkorik (Pouv), orren nekezko bizia (Mendib), gauza ain pisukoan (Mogel)
- (76) a. oso zapore onekoak, oso etorkizun ilunekoak, oso itxura dotorekoak, bertsolari gazte eta oso maila onekoak, oso itxura txarrekoak, oso pisu handikoak, oso hitz gutxikoa, oso konplexutasun handiko fenomenoak, oso balio handikoa, hain pazientzia gutxikoa (EPG)
 b. ain inportantzia anditakoak (BerM), ain probechu andicoa (Kap), hain zappore gaitzetakoa (EtxSar), konseju txit probetxu andikoa, imajiña milagrosoak, eta txit debozio andikoak (Kardab)

Beraz, aingura gabeko erlazioak adierazten dituzten sintagmek euren semantikagatik errazago hartzen dituzte adjektiboan ezaugarriak (adjektiboetatik hurbilago daudelako); eta, bestalde, adjektiboan ezaugarriak hartzea ez da *-ko* sintagma guztietan berdin gertatzen, eta hitz batzuk —batez ere asko erabiltzen direnak— lehenago mugitzen dira adjektiborantz.

4.3.9 Flexioa ala deribazioa?

Dagoeneko aipatu bezala, Trasken *-ko* atzizkiaren erabilerak bitan banatu ditu: batetik, flexioa dugu (adberbio-sintagmekin), eta, bestalde, eratorpena (izen-multzoekin).

Hizki batzuk deribazioan ala flexioan sailkatzeko zailak direla gai ezaguna da morfologiaren teorian. Irtenbide batzuk proposatu dira; hemen flexio-deribazio *continuum*-aren ideia eta hiru kategoriena aipatu nahi ditut. Kategoriatik gramatikala aldatzen duen flexioaren kontzeptuak ere zerikusia du erlazio-atzizkiarekin. Kontzeptu horiekin atzizkiaren ezaugarri batzuk hobeto ulertzen dira, eta, gainera, laguntzen dute erakusten *-ko* sintagmek, adberbio-sintagmen ala izen-multzoen gainean eraikita, oso ezaugarri antzekoak dituztela. Hori ez da agian horren harrigarria jatorri bera dutelako ideia onartzen badugu (izen-multzokoa adberbio-sintagmak hartzen dituen erabileratik sortu zela, alegia).

Bybee (1985, eta, beste batzuen artean, baita Plank 1998 lanak ere), kontuan hartuta flexioa eta deribazioa ez direla beti bereizten errazak, bien arteko *continuum* bat dagoela aldarrikatzen du. Nolanahi ere, baliabide morfologiko jakin bat *continuum* horretan kokatzeko irizpide batzuk badaude. Bi hizkien (edo hizki berberaren aldaeren) arteko diferentziak argitzeko baliagarriak dira, nahiz eta ez duten flexioaren eta deribazioaren banaketa argirik ematen, eta guztiek ez dute emaitza berbera eman behar morfema bat aztertzean: gerta daiteke irizpide baten arabera flexioa izatea, baina beste baten arabera deribazioa izatea (Bybee 1985: 82).

Jarraian, lan batzuetan (Bybee 1985; Plank 1998; Haspelmath & Sims 2010) aipatzen diren irizpide zenbait erabilia, euskarazko *-ko* atzizkia *continuum* honetan kokatzen saiatuko naiz, atzizkiaren lau erabilera bereiziz:

- (i) ADB – [ADBERBIO-SINTAGMA-ko] (oinarrian leku-kasuak, instrumentala, adberbioak, postposizioak dituztenak, eta baita [IZENA-KO] motakoak ere);
- (ii) IM – [IZEN-MULTZOA-ko];
- (iii) DEST – destinatiboa;
- (iv) I – *lekuko* edo *gerriko* bezalakoak.

Erlazio-atzizkia aztertzeko, honako ezaugarri hauek dira baliagarriak (irizpideetan, *-ko* mota bakoitzeko “bai”, “bai/ez” edo “ez” esaten denean, flexioari egiten zaio erreferentzia: “bai” = flexioa da):

- (i) Kontzeptu bera adieraztea (*same concept as base*, Plank 1998): flexioak ez dio eduki semantikoari eragiten. Ingelesez, *go* eta *goes* hitzek kon-

tzeptu berbera adierazten dute (flexioa), baina *bake* eta *baker* hitzek, kontzeptu ezberdinak (deribazioa). Tarteko kasuak ere badira: esaterako, ez dago guztiz argi *kind* eta *kindness* hitzek kontzeptu berari ala ezberdinari erreferentzia egiten dioten (Haspelmath & Sims 2010).

- ADB: bai/ez. Gehien-gehienetan bai. Hala ere, *-zko* duten sintagma batzuekin zalantzak izan daitezke: *beharrezko*, *funtsezko*, *ezinezko* edo *oinarrizko* nahiko abstraktuak dira, eta zaila da erabakitzea ea jatorrizko sintagmak kontzeptu bera adierazten duen beti (gainera, horiekin *-ko* gabekoak ez dira asko erabiltzen: *ezinez*, *beharrez*, etab.). Zalantza bestea batzuk hauek izan daitezke: *etxeko* (ez bakarrik ‘etxean dagoena’), *herriko* (‘popular’). Oro har, lexikalizaziorako bidean hasita dauden *-ko* sintagmak dira problematikoak (begiratu viii. irizpidea ere).
 - IM: bai/ez. Normalean bai, baita metaforikoki erabiltzen denean ere: *esku luzeko* (← *esku luzea du*) edo *bihotz gogorreko* (← *bihotz gogorra du*). Salbuespenak badira: *hitz gutxiko* bezalakoetan kontzeptuak ez dirudi berbera.
 - DEST: bai.
 - I: ez. *leku* eta *lekuko* bi gauza ezberdin dira.
- (ii) Abstraktua izatea (Plank 1998): flexioak esanahi abstraktuagoa du, deribazioak baino.
- ADB: bai. Atzizkiak ez du esanahirik.
 - IM: bai. Trasken (1985) arabera, kasu horretan konkretuagoa da esanahia (nahiz eta zail samarra den zein den zehaztea). Nire ustez, hala ere, ez du adberbio-sintagmei erantzen zaien *-ko* atzizkiak baino esanahi gehiagorik; funtzio sintaktiko bat betetzen du, baina ez du esanahirik.
 - DEST: bai/ez. Ez da aurrekoak bezain abstraktua (eta, kasu-markak hartuta, ergatiboa edo genitiboa baino konkretuagoa), baina nahiko abstraktua da hala ere.
 - I: ez. Ez da *-dun* edo *-tzaille* bezain konkretua, baina erlazio-atzizkiaren gainerako erabilerak baino gehiago bada. Hala ere, kontzeptu-mota ezberdinak adierazten ditu: pertsona, objektua, kolpea... eta, beraz, esanahi bat baino gehiago du.
- (iii) Derrigor agertzea (1) (*obligatoriness*, Plank 1998): flexio-ezaugarria derrigor agertzen da dagokion kategoria gramatikalean. Adibidez, aditz

jokatuek gaztelaniaz pertsonaren ezaugarria dute, eta ezin da ezaugarri hori kendu (ez da existitzen pertsona-ezaugarririk gabeko aditz jokaturik). Antzekoa da kasua eta numeroa izenetan latinez.

- ADB eta IM: ez. *-ko* ez da agertzen izenen modifikatzaile guztietan.
- DEST: ez. *-ko* ez da agertzen izen guztietan.
- I: ez. *-ko* ez da agertzen izen guztietan.

(iv) Derrigor agertzea (2). Bybeek (1985) dioenez, flexioa eta deribazioa bereizteko emaitza onenak Greenbergen (1960: 191) derrigortasunaren irizpideak ematen ditu. Horren arabera, flexio-morfemek testuinguru jakin batean derrigor agertu behar dute, eta ezin dira beste ezerekin ordezkatu. Beste era batera esanda, flexio-morfemak esaldiaren sintaxiak agerrarazten ditu. Ingelesezko *-ing* nahitaezkoa da *The duckling was swimming* esaldian, eta ezin da beste zerbaitekin ordezkatu egitura aldatu gabe; baina *-ling* atzizkia ez da inoiz beharrezkoa: *duckling* hitzaren ordez *goose* edo *duck* edo beste edozein izen soil erabil daiteke.

- ADB: bai. Nahitaezkoa da *Bilborako tren* edo *gaurko egunkaria* bezalako sintagmetan. Funtzio adberbiala duen sintagma bat izenen modifikatzaile bezala erabili nahi bada, *-ko* atzizkia eskatzen du sintaxiak.
- IM: bai/ez. Izen-multzoa izenen modifikatzaile bihurtzeko *-ko* erabili beharrean, *-dun* jar daiteke kasu batzuetan, gorputz-atalekin batez ere (Azkarate & Altuna 1992: 98), edo izen-adjektibo konposizioa ere posible izan daiteke. Adibidez, *begi urdineko mutila* esan beharrean, *begi urdindun mutila* eta *mutil begi-urdina* erabil daitezke. Beste kasu batzuetan, hala ere, ezin da ezerekin ordezkatu.
- DEST: ez. Ez du sintaxiak eskatzen, semantikak baizik. Funtzio bera duen *-rako* atzizkiarekin ordezkatu daiteke askotan, baina, nolahi ere, beste batzuetan aukera bakarra da (*biharko*, kasu).
- I: ez. Beste edozein izenekin ordezkatu ahal da (ingelesezko *duckling* bezala).

(v) Flexioak sintaxiarentzat garrantzia du (*relevance to the syntax*). Andersonen (1992) arabera, flexioak osagarri sintaktikoak elkarren artean lotzen ditu (komunztaduraren eta erregimenaren bidez).

- ADB eta IM: bai. *-ko* sintaxiarentzat garrantzitsua da, kategoria gramatikala aldatzen duelako eta modifikatzaile bat sortzen duelako.
 - DEST: ez.
 - I: ez.
- (vi) Esanahia konposizionala da flexioan (Plank 1998). Flexioak semantikan eragin berdin(tsu)a du beti, eta deribazioan oinarriaren arabera izan daiteke. Adibidez, ingelesez plurala oinarriaren arabera zertxobait ezberdina izan daiteke (*count nouns / mass nouns* bereizketan adibidez; Corbett 1999).
- ADB: bai.
 - IM: bai.
 - DEST: bai.
 - I: ez. Oinarriaren arabera da semantika.
- (vii) Flexioan, forma eta oinarriaren arteko lotura semantikoa gardena da, eta deribazioan lexikalizazioa gerta daiteke: eratorritako forma eta oinarria elkarrengandik urrundu daitezke (Plank 1998).
- ADB: bai/ez. Ematen du sintagma batzuek, batez ere *-zko* dutenek (*egiazko, gezurrezko, beharrezko, funtsezko, ezinezko, oinarrizko, gehiegizko*), beren oinarriarekin lotura mantentzen badute ere, beste batzuekin konparatuta (*zurezko, metalezko*), oinarrian duten sintagmatik zertxobait urrundu eta adjektiboetarantz hurbildu direla (maiztasunean ere nabaria da: *-ko* gabekoak ez dira asko erabiltzen). [IZENA-ko] motakoetan ere gertatzen da hori.
 - IM: bai/ez. Lexikalizazioa kasu batzuetan gertatu dela dirudi: *gogoko, esaneko, begiko, zorioneko*.
 - DEST: bai.
 - I: ez.
- (viii) Murriztapenik ez (*unlimited applicability*, Plank 1998): flexioan ez dago murriztapen arbitrario, deribazioan gerta daiteke. Flexioan bakarrik posible dira semantikak eragiten dituen murriztapenak. Adibidez, izen guztiek kasu guztien formak dauzkate (flexioa), baina ingelesezko *-es* femeninoa izen batzuei bakarrik erantsten zaie, baina ez guztiei, inolako arrazoi semantikorik gabe (deribazioa).

- ADB: bai. Salbuespen gutxi batzuekin, *-ik* adberbioak, esaterako.
 - IM: bai. Murriztuagoa da, baina murriztapenak semantikaren barruan kokatu ahal dira: ardatzaren berezko ezaugarriak adierazten dira egitura horretan. Halere, hainbatetan hiztunen arteko diferentziak egon daitezke, berezko ezaugarrien kontzeptua ezberdin ulertzeagatik.
 - DEST: bai. Semantikak mugatzen du, bizigabeekin bakarrik zen posible.
 - I: ez. Izen gutxi batzuek hartzen dute atzizkia.
- (ix) Flexioak ez du kategoria gramatikala aldatzen (flexio prototipikoak ez behintzat, begiratu beheherago). Deribazioak alda dezake (Plank 1998).
- ADB: ez. *-ko* atzizkiak adberbio-funtzioa duten sintagmak izenen modifikatzaile bihurtzen ditu: kategoria gramatikala aldatzen da.
 - IM: ez. Izen-multzoa izenen modifikatzaile bihurtzen du atzizkiak: kategoria gramatikala aldatzen da.
 - DEST: bai. Ez da aldatzen.
 - I: bai/ez. Normalean ez da aldatzen (izenetik izena, *leku* eta *leku-ko*).
- (x) Deribazioan gerta daiteke ezaugarri gabeko formarik ez existitzea (Plank 1998): *outskirt-s*, *a-broad* ditugu ingelesez, baina hizkirik gabeko formak ez dira existitzen. Ez dirudi horren adibiderik dagoenik *-ko* atzizkiarekin.

4.9. taulak laburbiltzen du esandakoa. Ondorio garrantzitsuena da adberbio-sintagmak hartzen dituen *-ko* eta izen-multzoak hartzen dituen ezaugarri ia guztietan bat datozela. Trasken (1985) banaketa garbiaren aurka doa hau: ez dago oinarri sendorik bata flexionala eta bestea deribazionala dela esateko, hemen aztertutako diren ezaugarriak dagokienez behintzat, oso antzekoak baitira. Destinatiboa ere flexioa da (beste edozein kasu-markak bezala jokatzen du), baina ezaugarri nahiko ezberdinak ditu; hau da, erlazio-atzizkia eta destinatiboa ez dira flexio-mota bera, biak izenak eratortzen dituen *-ko* atzizkitik urruntzen badira ere. Izenak sortzen dituen *-ko* atzizkiak, aldiz, ezaugarri gehienak deribazioarenak ditu.

4.9. **taula.** *-ko* atzizkiaren erabilerak flexio-deribazio *continuum*-ean.

	Irizpidea	ADB	IM	DEST	I
(i)	kontzeptu bera adieraztea	bai/ez	bai/ez	bai	ez
(ii)	abstraktua izatea	bai	bai	bai/ez	ez
(iii)	derrigor agertzea (1)	ez	ez	ez	ez
(iv)	derrigor agertzea (2)	bai	bai/ez	ez	ez
(v)	sintaxiarentzat garrantzitsua	bai	bai	ez	ez
(vi)	esanahi konposizionala	bai	bai	bai	ez
(vii)	lotura semantiko gardena	bai/ez	bai/ez	bai	ez
(viii)	murritzapen arbitrarioz ez	bai	bai	bai	ez
(ix)	kat. gramatikalaren aldaketarik ez	ez	ez	bai	bai
	flexioaren ezaugarriak guztira	5 (+2)	4 (+3)	5 (+1)	1

Esan bezala, erlazio-atzizkia eta destinatiboa ezberdinak dira, nahiz eta biak flexioaren barruan kokatu behar ditugun. Diferentzia hori dela eta, beste hurbilketa bat aipatzea komeni da. *Continuum* bat dagoela proposatu beharrean, hiru kategoria daudela aldarrikatzen da batzuetan (Booij 1996): eratorpena dugu batetik, eta, flexioaren barruan, berezko flexioa (*inherent inflection*) eta testuinguruaren arabeko flexioa (*contextual inflection*) bereizten dira (berezko flexioa deribaziotik hurbilago geratzen da):

Inherent inflection is the kind of inflection that is not required by the syntactic context, although it may have syntactic relevance. Examples are the category number for nouns, comparative and superlative degree of the adjective, and tense and aspect for verbs. Other examples of inherent verbal inflection are infinitives and participles. Contextual inflection, on the other hand, is that kind of inflection that is dictated by syntax, such as person and number markers on verbs that agree with subjects and/or objects, agreement markers for adjectives, and structural case markers on nouns (Booij 1996: 2).

Horren arabera, adberbio-sintagmei lotzen zaien *-ko* testuinguruaren arabeko flexioa litzateke. Izen-multzokoa ere mota horretakoa dela esan daiteke (baina ikus goian iv. puntuan esandakoa). Destinatiboa, aldiz, berezko flexioaren adibide arrunta da (leku-kasuak bezala).³²

³² Bereizketa hori interesgarria da ondoko orokortzeengatik ere: “The correct generalization appears to be that it is inherent inflection that can feed word formation” eta, bereziki, “contextual inflection tends to be peripheral with respect to inherent inflection” (Booij 1996: 11). Ondoko adibideko (a)-(c) hitzen egitura posibleak dira, baina ez (d).

- (77) a. [word-derivation](-contextual/-inherent) – leku-ko-ak, leku-ko-arekin
 b. [word-inherent]-derivation(-contextual) (euskaraz ezin)
 c. [word-inherent]-contextual – etxe-ra-ko
 d. ? [word-contextual]-contextual – **etxe-ek-ko

Aipatu diren irizpideen artean arraro samar geratzen dena kategoria gramatikaren aldaketarena da: *-ko* atzizkiak deribazio bezala jokatzen du, kategoria gramatikala aldatzen duelako. Ezaugarri hori askotan aipatzen da flexioa deribaziotik bereizteko, baina Haspelmathek (1996) argudiatu bezala, flexioaren barruan kategoria gramatikala aldatzen duten baliabide morfologikoak (*word-class-changing inflection* edo *transpositional inflection*) ere sartu behar dira. Izan ere, Haspelmathek (1996) erakutsi du flexioaren mota hori pentsatu ohi zen baino arruntagoa dela.

Ohikoenak dira partizipioak (aditzetik adjektiboa sortzen denean) eta *masdar* edo gerundioak (aditzetik izena). Hungarieraz izenetik adjektiboa erator daiteke ('having X' esanahiarekin). Turkieraz, aldiz, adberbioetatik adjektiboak sortzen dira (euskarazko *-ko* ere antzekoa da). Haspelmathentzat flexioa erregularra, orokorra eta emankorra da. Deribazioa, aldiz, irregularra, defektiboa eta ez-emankorra. Ezaugarri horiek mailaz mailakoak direnez, bien artean *continuum* bat dago. Kategoria aldatzen duen flexioa ez da flexio prototipikoa, baina, Haspelmathen ustez, askoz hurbilago dago flexiotik deribaziotik baino.

Atal honetan esandakoa laburbilduta, *-ko* atzizkia, erabileraren arabera, flexiotik edo deribaziotik hurbilago geratzen da. Flexioaren barruan kokatu behar da adberbio-sintagmak eta izen-multzoak hartzen dituen *-ko* eta destinatiboa adierazten duen *-ko*, baina bi klase horiek ez dira berdinak: lehenengoa testuinguruaren araberako flexioaren adibide da (eta kategoria gramatikala aldatzen duenaren adibideak ere) eta destinatiboa berezko flexioarena. Erlazio-atzizkiari buruz esan ohi denaren aurka, ez dago erlazio-atzizkiaren erabilerak flexioan eta deribazioan banatzeko nahiko motiborik: ezaugarri ia guztietan berdin jokatzen dute. Izenak sortzen dituen *-ko* deribazionala da. Aldi berean, erabilera flexionalen barruan, batzuetan deribazioaren ezaugarriak dituzten hitzak edo hitz-multzoak aurkitzen ditugu. Horrela, *-ko* duten modifikatzaile batzuk (bereziki instrumentala duten batzuk) adjektiboen ezaugarriak hartzen ari dira.

Erlazio-atzizkia kasu gramatikalekin bateragarria ez izatea lot daiteke (d)-ko murriztapenarekin. Semantika aipatu da (adibidez, [PARTITIBOA-ko] konbinazioak ez luke zentzu handirik izango), baina arrazoi estrukturalak ere badaude: kasu gramatikalak eta *-ko* testuinguruaren araberako flexioa dira, eta ez dira bateragarri.

4.4 Hitz-ordena

Atal honetan *-ko* sintagmaren eta izenaren arteko hitz-ordena aztertuko dut: modifikatzailea-izena hurrenkera (izen aurrekoa, IAkoa) ala izena-modifikatzailea (izen ostekoa, IOkoa) dugun.

Testu zaharretan, *-ko* atzizkiarekin burua-modifikatzaile zein modifikatzaile-burua hitz-ordenak aurkitzen ditugu. Lafonen (1999 [1965]: 176) arabera:

Les deux génitifs et les formations en *-ko* qui viennent d'être mentionnées s'emploient le plus souvent comme déterminant de substantif, et, dans cet emploi, se placent normalement devant le substantif qu'ils déterminent. Mais ils sont parfois placés après ce substantif, par analogie avec les adjectifs épithètes (*BSL*, LIX, 7-8). Or le 2e génitif et les formations en *-ko* se placent beaucoup plus souvent que le 1er génitif après le substantif déterminé.

Lafonek aipatzen duen adjektiboekiko lotura garrantzitsua izango da hitz-ordenan erregulartasunak aurkitzeko. Funtsean, saiatuko naiz erakusten zenbat eta *-ko* sintagma bat hurbilago gertatu adjektiboetatik, orduan eta aukera gehiago dituela izenaren ostean agertzeko.

Adjektiboetatik hurbiltasun hori neurtzeko, *-ko* sintagmak adierazten duen erlazio-mota —aingura edo aingura gabekoa— izango da inportantea (begiratu 4.2. atala). Aingura gabeko erlazioa adierazten duten *-ko* sintagmek izenaren ostean agertzeko joera handiagoa dute, adjektiboetatik hurbilago direlako. Adibidez, *-zko* modifikatzaileak, salbuespen oso bakan batzuekin, aingura gabekoak dira, eta izena-modifikatzailea hurrenkerarekin maiz aurkitzen ditugu. Antzeko zerbait gertatzen da izen-multzoko *-ko* sintagmekin. Aingura-funtzioa duten sintagmak (batez ere definituak direnean, erakusle batekin, adibidez), aldiz, izenaren ezkerrean doaz normalean.

Adjektibo bihurtuta edo bihurtze-bidean dauden *-ko* sintagmak bereziki maiz agertzen dira izenaren ostean. Beste era batera esanda, *-ko* sintagma batzuk lexikalizatzen dira, hiztunaren hiztegian osorik gordetzen dira eta ez dira momentuan *-ko* gehituta sortzen. Lexikalizatu ahala, noizbait adberbio batekin zuzenean lotutako *-ko* sintagmak independizatzen dira, eta haien semantika jatorrizko adberbiotik urrun daiteke. Horren hainbat adibide ikusi ditugu aurreko atalean. Honetan, aldiz, lexikalizazioak hitz-ordenan duen eragina aztertuko dut.

4.4.1 Erdi Aroa

Perpauis erlatiboekin ez bezala, lekukotasunen azterketa Erdi Aroan has dezakegu, garai hartako agirietan jaso ziren euskarazko lekuen eta pertsonen izenetan *-ko* sintagma asko aurkitzen baititugu; honako hauek esaterako:

- (78) a. Garcia Baçterreco (1227, SJuan)³³
 b. Bazterreco ardança (1164, Iratxe)

Hitz-hurrenkerari dagokionez, antroponimoetan burua-modifikatzailea da, Salaberri Zaratiegik (2003: 121) dioen bezala: “Euskal Herriko dokumentazioan toki izengoitiek *de* preposizioa izan dute erdaraz eta leku genitiboaren hondarkia euskaraz; hau daraman sintagma beti giblean ezarria dago, inoiz ere ez aitzinean”.

Erdi Aroko dokumentuetan *-ko* atzizkia dakarten antroponimoak toponimoak baino ugariagoak dira, baina nahiko datu daude toponimoetan modifikatzaile-buru hurrenkera ohikoagoa dela ondorioztatzeko, (78-b)-n bezala. Izan ere, (78)-eko adibideak erakusten duen pertsona- eta leku-izenen arteko oposaketa beste hitz batzuekin ere aurki daiteke (79)-(80). Regueroren (2012) arabera, izen ondoko *-ko* antroponimoetan aurkitzen da bakarrik.

- (79) a. una huerta en el hexido de Urrutico esalde (1482, Cierbide 1994)
 b. Garcia Urrutiquo (1283, Iratxe)
- (80) a. iriondoco soroa (TAV, 2.2.4)
 b. Semeno Çuarrondocoa (1227, SJuan), iaun Orti Ataondoco (XIII, SJuan)

Salbuespena da *Gabarvide Oyanecoa* (1284, OEH, s.v. *oihan*). (81-b) ere salbuespena izan daiteke, *mendiko* modifikatzailea izenaren ondotik agertzen baita. Hala ere, Mitxelena (2011 [1953/1973]) azaltzen duenez, kasu horretan *-ko* atzizkia hipokoristikoa izan daiteke: horren itzulpena “el montecillo de...” edo “del monte de...” izan daiteke; oro har, *mendiko* hitza askotan agertzen da leku- eta pertsona-izenetan, eta beti ez dago garbi *-ko* atzizkiaren funtzioa zein den. (81-c)-n diminutiboa da ziur aski (cf. *Mendizorrotza*), (81-d), errata ez bada, biak dauzkagu.

- (81) a. Miguel periz mendico (1366, NAO)
 b. vineam que est in loco quem bascones vocant Ygurai Mendico (1085, Leire)
 c. Mendico Çorroça (1213, SJuan)
 d. Gonsalu Mendico co (1140, Iratxe)

³³ Atal honetako adibideak, besterik adierazi ez bada, Reguero Ugarte (2011) lanetik hartu dira. Laburdurak: Iratxe – Colección diplomática de Iratxe, SJuan – Donibane Jerusalemgo Ordena, Leire – Leireko monasterioko dokumentuak, NAO – Nafarroako Artxibategi Orokorra, Orreaga – Orreagako saroi-zerrenda.

Aldiz, askotan agertzen diren *goiko* edo *beheko* motakoak izenaren aurretik edo atzetik doaz, eta zaila da erabakitzea zein ordena nagusitzen zen (gerora ere ohikoa da modifikatzaile horiek izenaren ostean aurkitzea):

- (82) a. el noguedo de Goyco Essea (1258, Iratxe)
- b. termino qui dicitur behengo landa (1117, *OEH*)
- c. Johan Peroz Guaraycocheco (1366, Salaberri Zaratiegi 2003: 120)
- (83) a. Ezpeleta beerecoa (1284, Orreaga)
- b. Urquieguia Beerecoa / Urquieguia Garaycoa (1284, Orreaga)
- c. Lander erreca beerecoa / garayacoa (1284, Orreaga)
- d. que'l dizen Ossagarte goyticoa (d.g., Irantzu)

Erdi Aroko lekukotasun horiek bi erataria interpreta daitezke: (1) izen osteko kokapena nagusitzen zen, eta izen aurrekoa noizbehinka bakarrik erabiltzen zen (kopurutan, leku/pertsona bereizketa kontuan hartu gabe; hala da ziur aski dauzkagun datuetan), edo (2) pertsona-izenetan izen osteko modifikatzaileak aurkitzen ditugu eredu erromantzeari jarraitzen zitzaiolako (edo joera unibertsal-edo bati, genitibo-izen hitz-ordena duten hizkuntza askotan ere abizenak izenaren ondotik baitatoz). Martinez-Aretak (2011: 361), nahiz eta izen ostekoa zaharra dela aldarrikatu, ere seinalatzen du arazoa:

Leku genitiboak, beraz, NG-rako joera nabarmenagoa erakusten du. Hala ere, genitibo hau Erdi Aroan ageri den kasu gehienak egitura patronimikoak dira, eta ez dakigu kasuotan zein neurritan jokatzen duen rol bat erromantzeak, edo egituraren izaera semantikoak berak. Izan ere, egitura patronimikoetan jabego genitiboak ere NG hurrenkera agertzen du: *Guarcea Ansorena*, *Sanso Urarquarena* (Iratxe, XIII. mendea).

4.4.2 Testuak

Atal honetan corpuseko datuak aztertuko ditut. 4.10. taulak testu bakoitzeko emaitzak aurkezten ditu. Batetik (taularen bigarren zutabean), IOkoen proportzioa eman da *-ko* sintagma guztiak kontuan hartuta (parentesien artean zehaztu da adibide guztien *-IA*koen eta IOkoen kopurua). Hurrengo zutabeetan, IOkoen maiztasuna *-ko* atzizkiaren erabilera-motetan zerrendatu da: (1) leku-kasuekin, (2) instrumentalarekin, (3) adberbio eta postposizioekin, (3) izena gehi *-ko*, eta (5) izen-multzoa hartzen duen *-ko*. Datu horiek xeheago iruzkinduko ditut hurrengo azpi-ataletan.

4.10. taula. IOko hitz-ordena eta *-ko* atzizkiaren motak. Egile bakoitzeko lehenengo zutabean IOko *-ko* sintagma guztien maiztasuna (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAkoak eta IOkoak batera), hurrengo zutabetan zenbat IOko dauden mota bakoitzean zehaztu da.

Testua	Guzt.	Leku-k.	Instr.	Adb.	Izena	IM
Lazarraga	26,8 (112)	0,0 (9)	0,0 (15)	0,0 (7)	37,5 (80)	0,0 (1)
Landucci	10,1 (89)	0,0 (6)	24,0 (25)	0,0 (1)	5,3 (57)	
Betolatza	22,7 (22)		14,3 (7)	50,0 (2)	23,1 (13)	
RS	4,5 (44)	50,0 (2)	25,0 (4)	0,0 (16)	0,0 (21)	0,0 (1)
VJ	41,7 (36)	0,0 (2)	20,0 (5)	0,0 (2)	51,9 (27)	
Mikoleta	35,7 (14)	20,0 (5)	42,9 (7)		50,0 (2)	
Kapanaga	25,6 (160)	20,0 (10)	53,8 (26)	42,9 (21)	16,0 (100)	0,0 (3)
Arzadun	27,4 (73)	0,0 (2)	58,3 (12)	37,5 (8)	19,6 (51)	
Barrutia	6,3 (48)	0,0 (5)	0,0 (2)	0,0 (6)	8,6 (35)	
Olaetxea	22,4 (219)	0,0 (13)	71,4 (35)	14,8 (27)	14,0 (143)	0,0 (1)
Mogel	20,0 (95)	0,0 (6)	10,0 (10)	21,4 (14)	9,6 (52)	76,9 (13)
Fr Bartolome	13,4 (134)	0,0 (17)	26,7 (30)	18,2 (11)	4,4 (68)	62,5 (8)
Otxoa Arin	28,2 (156)	0,0 (5)	46,7 (45)	25,0 (8)	21,4 (98)	
Ubillos	6,9 (159)	0,0 (16)	22,9 (48)	0,0 (22)	0,0 (72)	0,0 (1)
Gerriko	8,4 (107)	0,0 (7)	31,8 (22)	7,7 (26)	0,0 (52)	
Etxepare	13,8 (29)	0,0 (5)	33,3 (6)	0,0 (3)	13,3 (15)	
LeizMat	5,2 (192)	1,8 (55)	9,5 (21)	0,0 (11)	5,9 (101)	25,0 (4)
LeizABC	17,5 (97)	0,0 (23)	46,9 (32)	0,0 (11)	0,0 (29)	100,0 (2)
LeizSarrera	17,6 (108)	0,0 (20)	35,4 (48)	0,0 (5)	3,4 (29)	16,7 (6)
Materra	18,0 (172)	0,0 (9)	36,6 (71)	0,0 (18)	5,5 (73)	100,0 (1)
Haranburu	10,3 (184)	0,0 (19)	47,5 (40)	0,0 (29)	0,0 (95)	0,0 (1)
Haraneder	8,9 (192)	11,5 (52)	13,3 (15)	0,0 (11)	5,5 (110)	75,0 (4)
Duhalde	4,2 (167)	0,0 (13)	11,1 (54)	7,1 (14)	0,0 (79)	0,0 (7)
GutZub	29,5 (44)		83,3 (12)	0,0 (4)	10,7 (28)	
Tartas	1,4 (143)	0,0 (3)	7,1 (14)	0,0 (4)	0,8 (122)	
Belapeire	8,8 (137)	0,0 (10)	19,2 (26)	41,7 (12)	1,1 (88)	100,0 (1)
Oloroeko kat.	3,1 (96)	0,0 (11)	2,4 (41)	11,1 (9)	2,9 (35)	
Maister	0,8 (132)	0,0 (29)	2,6 (38)	0,0 (6)	0,0 (58)	0,0 (1)
Beriain	20,0 (130)	0,0 (9)	59,3 (27)	0,0 (5)	7,3 (82)	57,1 (7)
Elizalde	23,9 (46)	0,0 (1)	64,3 (14)	100,0 (1)	3,6 (28)	0,0 (2)
Lizarraga	19,1 (115)	0,0 (4)	50,0 (32)	16,7 (6)	6,9 (72)	0,0 (1)
Ros	16,7 (18)	0,0 (5)		0,0 (2)	27,3 (11)	
Hualde Mayo	0,5 (188)	0,0 (14)	2,1 (48)	0,0 (14)	0,0 (103)	0,0 (9)
DoktErr	7,8 (51)	0,0 (9)	80,0 (5)		0,0 (37)	

4.4.2.1 Etxepare

Etxepareren testuan lau adibidetan aurkitzen dugu erlazio-atzizkia izenaren ostean (84), gainerako 27 adibideetan modifikatzailea izenaren aurretik doa (85).

(84) Bernard Exeparekoak, orazione igandeko, erregeren aduokatu bidezko eta nobleari, gizon naturazko

(85) ifernuko garrian, ezkerreko aldetik, haien armadako gizon sendoen balentia, odolezko izerdi, bekhatuzko amoria, Bihozeko pausua, gure arteko amoria, egiazko iujia, Garaziko herria...

Bitan erabili zuen *-ko* hutsa izenaren eskuinean: *Bernard Exeparekoak* eta *orazione igandeko*. Lehenengoa lehen ere ikusi dugun pertsona-izenaren adibidea da. Bigarrena, izen ondoko adibidetzat hartu arren, ez dago guztiz argi nola interpretatu behar den: *-ko* atzizkiaren erabilera “arrunta” bezala — ‘igandeko orazionea’—, ala destinatibo bezala — ‘orazione igande(ra)ko’. Are gehiago, artikulua falta denez, ezin dugu jakin ‘[orazione igandeko]’ ala ‘[orazione] [igandeko]’ —egitura aposatu bezala— ulertu behar den.

Gainerako bi adibideetan *-zko* atzizkien konbinazioa dugu: *erregeren aduokatu bidezko eta nobleari* eta *gizon naturazko*. Esanahia dela eta, *bidezko* hitzak Etxeparerenean ‘recto, justo’ esan nahi du *OEH*-ren arabera (beste testu batzuetan ‘justo, legítimo, conforme a derecho; conveniente, correcto’ izan ohi da esanahia). Adjektibo lexikalizatua dirudi: *bidez* adberbioarekin lotura ez da guztiz gardena esanahiari dagokionez. XVI. eta XVII. mendeetako testuetan ere *bidezko* normalean izenaren atzean kokatzen zen: Leizarragak zazpi aldiz du izen osteko modifikatzaile bezala, eta behin bakarrik izenaren aurretik; Etxeberri Ziburukoak bi aldiz erabili zuen, eta bietan izenaren eskuinean jarrita, eta Haranbururen adibide bakarrak ere izena-modifikatzailea ordena du. Bestalde, izenaren ostean agertzea *noble* adjektiborekin koordinatuta egoteak ere eragin zezakeen (koordinazioaren adibide gehiago hurrengo atalean emango ditut).

Antzekoa da *naturazko* modifikatzailearen kasua. *OEH*-ren arabera ‘natural, auténtico, como es debido’ esan ohi du. Altunak (1980) Etxeparerena ‘bien nacido’ bezala interpretatzen du. Oinarrian duen *naturaz* adberbioaren erabilerari begiratzen badiogu, Leizarraga, esaterako, ‘por naturaleza’ adierazteko baliatu zen (*Ezen naturaz guziak gara maradikatuak*, kasu). Handik *naturazko* sintagma-*ra* (‘natural’) erraz pasatzen da (*iudu naturazkoak* dakar Leizarragak, *naturazko legea* Etxeberri Ziburukoak), baina gainerako adieretan —‘behar bezalako’ edo ‘benetako’— esanahia zertxobait hedatzen edo aldatzen da. Izan ere, Etxepareren adibidean ‘natural’ adierak ez du zentzurik, eta ‘bien nacido’, Altunak proposa-

tu bezala, edo, agian errazago, ‘behar bezalako, benetako’ ulertu behar da: *Ezta gizon naturazko hala egiten duiena*.

4.4.2.2 Leizarraga

Leizarragaren erlazio-atzizkiaren erabilera aztertzeko, perpaus erlatiboekin egin dudanaren antzera, hemen ere hiru testu-zati konparatu ditut: San Mateo (LeizMat), *ABC* (LeizABC) eta Testamentuko sarreraren bi parte —Joana Albretekoari eskaintza eta *Heuskaldunei*— (LeizSarrera). Horien artean alde batzuk daude testu-generoari dagokionez. San Mateo itzulpena da, eta jatorrizko testuak baldintza zezakeen; gainera, ez denez edozein testuren itzulpena, Bibliarena baizik, erregistro jasoa erabil zezakeen itzultzaileak. Eskaintza eta *Heuskaldunei* atala ez dira itzulpenak, baina, nolana ere, oso testu formalak dira. *ABC*, azkenik, bere historiaz asko ez dakigun arren, itzulpena izatekotan, nahiko itzulpen librea izan zitekeen; gainera, hurrei zuzendua zen, eta ez zeukan Bibliaren itzulpenak dakarren ahalik ere fidelena izateko obligaziorik.

Hirurak aztertuta, testuen arteko aldeak aurkitu ditut *-zko* atzizkien jokoeran, baina ez erlazio-atzizkiaren gainerako motetan: Testamentuan gutxiago agertzen dira izenaren eskuinean instrumentala duten *-ko* sintagmak. Bestalde, *-zko* atzizkiaren maiztasuna, gainerako *-ko* motekin konparatuta, ez da berdina hiru testuetan: San Mateon 21 aldiz aurkitzen ditugu *-zko* duten sintagmak, eta *-ko* eta *-zko* guztira 192 aldiz; beraz, adibideen % 11k du *-zko*. *ABC*-n handiagoa da proportzio hori (32/97 % 33), eta sarrerako zatietan handiena (48/108, % 44). Zaila da hori azaltzea, *-zko* atzizkiaren maiztasunak gutxi gorabehera berdina izan behar-ko bailuke.

Instrumentala gehi *-ko* aparte utzita, IOko *-ko* gutxi agertzen dira: Testamentuan izenaren eskuinean dago [IZENA-ko] motakoen % 6, eta leku-kasua dutenen % 1,8. Horien artean, *aita zeru(eta)ko* esamoldea dugu (86-a), pertsona-izenak (86-c) eta pare bat aldiz *Bethlehem Iudeako* toki-izena.

- (86) a. Aita zerukoak (3 aldiz), ene Aita zeruetakoak (LeizTest)
 b. Bethlehem Iudeakoan (LeizTest)
 c. Antipater Idumeakoaren Seme (LeizSarrera), Iesus Profeta Galilean den Nazareteko (LeizTest)

Aita zeruetako adibideari dagokionez, izenaren ondotik agertzea ez doa atalaren sarreraren esandakoaren aurka: leku-kasuek askotan aingura-erlazioak adierazten dituzte, baina ez beti. Horren adibide izan daiteke *aita zeruetako*: ez du hainbeste adierazten Jainkoa aurkitzen den toki zehatza, bere ezaugarri bat bai-

zik. Bai *Aita zeruetako*, bai gehiago agertzen den *Aita zerukoa* Bibliako esamoldeen frantsesezko ordaina da *mon Pere celeste*.³⁴

Izen-multzoa duten *-ko* sintagma batzuk ere agertzen dira izenaren atzetik:

(87) Iainko Aita bothere-guzitako, Iainko Aita bothere-guzitakoaren (LeizABC), guzizko exzellentia perfektionetako bat (LeizSarrera), haur bi urthetako eta beheko guziak (LeizTest)

-zko atzizkia, berriz, askoz ohikoagoa da izenaren ostean: batez ere *ABC*-n (% 47) eta Testamentuaren sarrerako ataletan (% 35). San Mateon, hala ere, *-zko*, *-ko* bezalaxe, gehien-gehienetan izenaren aurretik doa, bi salbuespenekin: *gauza bidezkoa* eta *Iainkoaren hitza egiazko* adibideetan. Beste bi testuetan adibide gehiago daude:

— *ardurazko*: *zenbeit berze ene adiskideren sollizitatze ardurazkoak*. Aztertu ez diren testuaren zatietan beste adibide bat ere badu Leizarragak (*Ezen tristitia handia, eta tormenta ardurazkoa dudala neure bihotzean*), eta behin izenaren aurretik darabil (*gure arimen ardurazko etsaiei deabruari, bekatuari, haragiari eta munduari garaitzeko*).

— *bidezko*: *Iainkoaren hira eta mendekio iustoz eta bidezkoz*.

— *berri on eta dohain onezkoagatik*: izen-multzoko *-ko* sintagmaren antzekoa da, nahiz eta *-zko* izan, *-ko* hutsaren ordez. *OEH*-k “(El, lo) que es para bien” itzulpena ematen du.

— *dolorezko*, *graziazko*, *gloriazko* eta antzekoak ere baditugu (*graziazko sei* aldiz erabili du IOan eta bitan izenaren aurrean):

- (88) a. gordaillu dolorezkoa
 b. sekulako izate gloriazkoan, irudi gloriazkoa
 c. bere ontasun gratiazkoz, bere miseriakordia gratiazkoagatik,
 d. gratia mirakuluzkoetarik, haren berthute guzizko exzellentia eta mirakuluzkoa
 e. baratze plazentiazkotik

— *egiazko*: izenaren ostean gehien erabiltzen den sintagma da. Hitz hori bietara agertzen da Leizarragarengan, izenaren eskuinean eta ezkerrean. Aztertutako testuetan bi aldaerek maiztasun bera dute (17 IOko eta 15 IAKo daude):

- (89) Iainko egiazkoaren, gure Aita egiazkotan, bere iujemendu iustoz eta egiazkoz, adimendu klaroz eta egiazkoz, regla xuxenbat eta egiazko bat, Iainkoaren zerbitzu egiazkoa, Iainkoaren zerbitzari egiazkoak,

³⁴ 1563an Genevan argitaratutako edizioan.

fundament egiazkoa eta bakoitza, Iesus Krist eure Seme gure arimen iguzki egiazko eta bakoitz...

— *zelo Iainkoazkoaz*: antzekotasuna adierazten duen *-zko* aurkitzen dugu hor.

IAko modifikatzaileen adibide batzuk (90)-n ematen dira. Ikus daitekeen bezala, izen aurreko eta izen osteko *-zko* modifikatzaileak antzekoak dira semantikaren aldetik (eta dagoeneko esan bezala, batzuk izenaren ezkerrean zein eskuintean agertzen dira).

(90) bere Aitaren adoptionezko haur, ahozko predikationez, Aingeruezko konpainia, aitatasunezko begi, borondate sainduaren arauetzko gauzarik, naturaren arrazazko korrupzioe gaixto bat, hamar astezko kontuaren gainean, gutan gure bekatuezko dolu penitentiatakobat, gure bihotzezko tauletan, bizi beharrezko moien xipitako ofizioetan, egiazko dolurekin, egiazko intelektua, egiazko finera, eta eure egiazko ezagutzera, egiazko deklarazalerik, Iainkoaren egiazko zerbitzuaz, bizitzezko eta egiazko hitza, heuskarazko translatione, Heuskarazko hitzak, heuskarazko translatione, Iainkoaren eszientiazko gako, gezurrezko ilhunbeari, Iainkoaren gloriatzko klaretateak, hire hiratzko thesauraz...

Hala ere, IAkoen eta IOkoen artean badago diferentzia bat: tipoa-alea maiztasuna (*type-token frequency*). Izen ostekoak gehiago errepikatzen dira, 12 tipo ezberdin (33 agerraldi). Izen aurrekoak, aldiz, *egiazko* eta *euskarazko* kenduta, behin bakarrik agertzen dira (33 tipo, 49 agerraldi guztira). Ez dira nahiko adibide zenbakiak fidagarriak izateko, baina esango nuke IAkoa emankorragoa dela Leizarragarengan, tipo-maiztasuna handiagoa duelako; IOkoak, aldiz, lexikalizazioaren ezauzgarriak erakusten ditu, *-ko* sintagma batzuk behin eta berriro agertzen baitira.

Nabarmentzea merezi duen beste alderdi bat da *-zko* duten sintagma asko adjektibo batekin koordinaturik doazela: *iustoz eta bidezkoz, egiazkoa eta bakoitza, klaroz eta egiazkoz, exzellenta eta mirakuluzkoa*. Gerta daiteke beste adjektibo bat egoteak zerikusia izatea *-zko* sintagmen kokapenarekin: biak izenaren alde berean jarri nahi badira, aukera bakarra da erlazio-atzizkia duena adjektibo arrunt bezala erabiltzea, kontrakoa —adjektiboa izenetik ezker jartzea— ezinezkoa baita euskaraz. Bat aurrean eta bestea atzean jartzeak ez dirudi ezinezkoa, baina Leizarragarengan behintzat zaila da aurkitzen.

Oro har, Leizarragaren testuetan aurkitzen ditugun *-ko* sintagmen kokapena aurreikusitakoarekin bat dator: IOko posizioan gehien agertzen dira *-zko* eta izen-multzoko modifikatzaileak. Leku-kasuak eta [IZENA-ko] salbuespen gutxi batzuekin izenaren aurretik doaz (eta salbuespen nahiko markatuak dira: *Aita*

zeru(eta)koa eta bitan pertsona-izenetan). Adberbioek eta aposizioek IAko kokapena dute beti.

4.4.2.3 Araba

Landucciren hiztegian aukera guztiak aurkitzen ditugu *-ko* atzizkiarekin: gehienak izenaren aurretik doaz (91), baita ondotik ere (92), eta, gainera, aposatuak ere badaude (93). Izen ostekoen maiztasuna nahiko handia da: % 10 (aposatuak kontuan hartu gabe). Atzizkiaren bi erabilera bakarrik agertzen dira izenaren eskuinean: instrumentalarena (% 24) eta [IZENA-ko] (% 5).

- (91) a. yssasoco almirantea, Santiagoco videa, ardaotaco picheroa...
 b. burniazco gauçea, azerozco ballestea, çerazco blandoea, suzco voto-ya, sedasco capulloa, caracolezco escalera, burniazco ylçea, narruzco correa, espatasco ysgrimea, çerazco entorcha, jaquinezco guaçea, canasco jocuac, miracuruzco gauçea, miracuruzco gauçea, soldatazco mutila, soldatazco nescatoa, vidriozco erredom[e]a
- (92) a. ancora ysasoco, cardenale erromacoa, gauça çerucoa, gauça esquecoa, arraunça corrincoa
 b. çapata ylariscoa, andra ysçegozcoa, costilla ezpinazocoa, cota mallazcoa, chapea metalezco[a], gauça pisu guchisco[a]
- (93) esquadrea guerracoa, axcorea egurretacoa, croçea epizticoana, muçuac surretacoac, popea navioco[a], hostua ele]ga[xacoa

Lazarragak *-zko* oso gutxitan erabili du: eskuizkribu osoan 15 agerraldi bakarrik daude. Erlazio-atzizki duen sintagma izenaren aurrean doa salbuespenik gabe:

- (94) amarezco erregue jauna, amoriozco erregue jauna, asecabazco salsea, dicha onezco semea, enojuzco verva oec, erdeeraazco ipui batec, erregalozco tendaric, muguer-arritzco bioça, concenciazco traturic, listra onezco dardoa, malla finezco cotea, seda finozco calcea, tafetaezco bendaATEGAZ, urregorritzco tablaetan, urregorritzco letra baçugaz

Adibide askotan instrumentalak materiala adierazten du (*seda finozco, urregorritzco, tafetaezco, asecabazco...*), modu-instrumentala ere badago: *enojuzco, amarezco, amoriozco*. Bitan instrumentala duen izen-multzoko modifikatzailearen motakoak ditugu, *onezko* adjektiboarekin. Antzeko sintagmek izenaren ostean agertzeko joera dute beste hainbat testutan, baina hemen aurretik doaz.

Instrumentala duen aldaera ez bezala, [IZENA-ko] motakoak askotan agertzen dira izenaren ostean, eta nahiko maiztasun handiarekin: 30 adibidetik % 38tan.

Adibideak banan-banan aztertuta, hala ere, izen osteko *-ko* atzizkiaren erabilera oso mugatua dela ohartzen gara:

- (95) – Larrosa maiacecoa
 – Ene laztan biozeqoa
 – ardao çuri San Martingoa
 – Belagai Butroecoa
 – Gaztelu Guebaracoan
 – Joan Lopez jauna Çuaçuco
 – Jaun Cerucoa (24 aldiz)

Gehien erabili dena *Jaun Cerucoa* da (kontrako ordenaren adibideak ere bada-kartza testuak: bitan *Ceruetaco Jaunari*, sei aldiz *Ceruco Jaunac*, eta behin, beste testuinguru batean, *ceruco irargui çuria*). Lau adibideetan toponimoak agertzen dira. Egituraren nolabaiteko emankortasunaren adierazgarri izan daitezke *Larrosa maiacecoa* (testuan behin *mayaceco lora ederraena* ere bada) eta *Ene laztan biozeqoa* adibideak. Orokorrean, beraz, esan daiteke Lazarragaren testuan izen aurreko egitura nagusitzen dela, eta izen ostekoa nahiko murriztua dela. Harri-garri samarra da *-zko* izenaren aurretik erabiltzea beti.

Betolatzak 22 adibide ditu guztira, eta bost dira izen ostekoak, adberbioarekin bat, *-zko* bat eta gainerakoak izenekin:

- (96) a. biziza betikoan
 b. artikulu fedekoak
 c. Paskua Erresurreziñokoetan
 d. erri negarrezko onetan
 e. eguzari guardetakoetan

Bai *betiko*, bai *fedeko -ko* sintagmak gero askotan agertuko dira testuetan (eta askotan IOan). Azken adibidea, hala ere, —*eguzari guardetakoetan*— nahiko bitxia da, nominalizatutako aditzekin ez baita oso ohikoa izen osteko hitz-hurrenkera (nahiz eta izen-sintagma bezala nominalizazioek ez duten ezer berezirik).

Instrumentalarekin *-ko* zazpi aldiz agertzen da testuan; *erri negarrezko onetan* da izen ondoko egituraren adibide bakarra. Gainerakoak hauek dira: *entendimenzuzgo doea*, *fortalezazko doea*, *konsejuzko doea*, *luxuriazko pekatuetan*, *miserikodiasko amea*, *sabiduriazgo doea*. Gehienetan modua adierazten duen instrumentala dugu (*luxuriazko* eta *miserikodiasko* dira garbienak, baina besteak antzera interpreta daitezke), eta guztiak erlijio-hiztegiarekin lotuak. Azkenik, Betolatzak egitura aposatuaren adibide bakan batzuk ditu (Lazarragarenean ez dira ageri halakoak): *mandamentuak Iaun goikoaren legekoak*, *areriak arimakoak* edo *senti-duak gorpuzekoak*. Guztiak testuinguru berean agertzen dira: atalaren hasieran,

zerrenda bat baino lehen, *Sentiduak gorpuzekoak dira bost* edo *Areriak arimakoak dira iru*.

Oro har, beraz, erlazio-atzizkiaren hiru klase agertzen dira IOko posizioan Arabako testuetan (4.11. taula): gehien izenekin eta instrumentalarekin (Lazarragarengan izan ezik), eta behin *beti* adberbioarekin.

4.11. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Araban.

Mota	Guzt.	IA	IO
Izena	147	75,5	24,5
Adberbioa	7	85,7	14,3
Instrumentala	46	84,8	15,2
Leku-kasua	13	100,0	0,0
Postposizioa	3	100,0	0,0
IM	1	100,0	0,0

4.4.2.4 Bizkaia

Bizkaiko eta Gipuzkoako testu zaharretan Erdi Aroko dokumentuetan ikusi dugun fenomeno bera errepikatzen da: pertsonen izenetan *-ko* atzizkia izenaren atzetik doa (*Milia Lasturco*), baina bestela (izen arruntetan edo leku-izenetan) gehienetan izenaren aurretik (*Lastur-co torre gorea*), salbuespen batzuk dauden arren (*oñeztar barruangoac, ardao Madrigalga*):

- (97) a. Milia Lasturco, Marina Arraçolaco, andra Maria Balda-co, andra Ojanda Gabiola-co (MLastur)
 b. Lastur-co torre gorea
- (98) Done Johane Garaçicoec (1415, TAV 4.2.1, Matxin de Zalbaren eta Martin de San Martinen arteko gutunak)
- (99) a. jaun Peru Abendañococ (Pedro Abendañokoaren kantua)
 b. gorpuceco lau araguic
 c. Aramaioco contrara
- (100) a. oñeztar barruangoac (ArrErr)
 b. cantoeco çarçayqueran
 c. Oçaetaco jaun gazteac
- (101) ardao Madrigalga (Sandailia)
- (102) Jaun Diaoz Arocoa (TAV 3.1.14)

RS-en izen aurrekoa nagusitzen da (103), nahiz eta izen osteko egituraren adibide batzuk egon. Guztira, 44 adibideetatik bi bakarrik dira izen ostekoak (% 4,5):

bat adlatibo-destinatiboarekin (baina aingura gabeko erlazioa adieraziz) *çaldi çelaracoa* (*el caballo para silla*); bestea instrumentalarekin, *hurte erurrezco*.

(103) balizco oleac, betico ytoguinaç, hurte gustico oguia, ygazco lapurroc, ypir-dico puza, gorpuz guztico mina...

Oro har, *-zko* atzizkia oso gutxi agertzen da; bost adibide daude testuan eta horietatik bat izen ostekoa:

- (104) a. lastozco buztana, amucozco buztana, hurrezco atea
b. hurte erurrezcoa, garizcoa

XVII. mendean, *-ko* sintagmak izenaren eskuinean askoz maizago agertzen dira. VJ-n % 40 inguru IOkoak dira, Mikoletaren elkarriketetan heren bat eta Kapanagaren dotrinan laurden bat. XVIII. mendean, testu gehienetan adibideen % 20 gutxi gorabehera IOkoak dira (baina Barrutiak % 6 ditu bakarrik). XIX. mendean maiztasuna zertxobait jaisten bada ere, IOko *-ko* sintagmak ez dira guztiz desagertzen.

4.12. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Bizkaian (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAKoak eta IOkoak batera).

Mota	RS	XVII	XVIII	XIX
Izena	0,0 (21)	24,0 (129)	14,4 (229)	6,7 (120)
Adberbioa	0,0 (6)	7,7 (13)	21,2 (33)	5,9 (17)
Leku-kasua	50,0 (2)	18,8 (16)	0,0 (18)	0,0 (23)
Postposizioa	0,0 (10)	72,7 (11)	0,0 (9)	50,0 (8)
Instrumentala	25,0 (4)	47,4 (38)	65,3 (49)	22,5 (40)
IM		0,0 (3)	0,0 (1)	71,4 (21)

[IZENA-ko] motari dagokionez, XVII. mendean adibide guztien laurdenak daude izenaren ostean, % 15 XVIII. mendean eta % 7 bakarrik XIX.enean (4.12. taula). (105)-n ikus daitekeen bezala, adibide asko (edo gehienak) erlijio-hiztegikoak dira. XVIII. mendean Arzadunek eta Olaetxeak ere erabiltzen dituzte. XIX. mendean gutxiago dira (baina aztertutako testuak ez dira dotrinak).

- (105) a. Kapanaga: voto castidadecoa, exerçio Virtutecoacaz, Sacramêtu penitenciacoan, Neure Angueru Goardacoa, Ayta sâtu Eromacoac, escubitur ezquerrecoan, beste persona elexacoac gati, vme familiacoacaz, Mandamentu elexacoac, Espiritu zeruco baçuc, Sacramentu comunio-coa
b. Mikoleta: persona sospechacoa
c. VJ: vssu erracoacora, Acto Contricinoecoa, Acto Fedecoa, Esperanzacoa eta Caridedecoa, Virtute Caridedecoa, Virtute Esperanzacoa,

Obra Misericordiecoa, misterio Santissime Trinitadecoa, Encarnacioneoa, Eriozacoa, Passinoeoa, Mandamientu Iangoicoen leguecoa, frutu bedeinquetu zure sabelecoa, Mandamientu Iangoicoen leguecoa eta Ama Elexa Santacoac, Santissimu Sacramentu altaraco, Ama Elexa Santacoac

- d. Arzadun: akto kontrizinokoa, berba konsagrazinokoak, Sakramentu Santu Eukaristiakoan,
- e. Olaetxea: Sakramentu Santu Ordeakoa, bere akto kontrizinoekoa, Sakramentu Santu Oleaziñoekoa, Sakramentu Santu Penitenziakoa, pena Sentidukoa, pena Dañukoa, Sakramentu Santu Penitenziakoa, examiña konzienziakoa

IOko modifikatzaile askok *-zko* atzizkia dute, (106)-(107). Testu askotan IOen proportziorik handiena dute horiek (adibidez, Kapanagaren *-zko* adjektiboen erdiak IOkoak dira, eta Olaetxearen % 70). Gehien agertzen da *egiazko*, gaztelaniazko *verdadero* adjektiboaren ordaina. Kapanagak, adibidez, bederatzi aldiz darabil, eta behin bakarrik izenaren aurrean.³⁵ Olaetxeak eta Arzadunek inoiz ez daukate *egiazko* izenaren aurrean. Sintagma asko bi eratara agertzen dira, Kapanagarengan adibidez *miserikordiazko* lau aldiz izenaren ondoan dugu, eta bitan aurrean.

- (106) a. Kapanaga: arâçazco coroêa, eguiazco (premia eguiazcoagaz, premia eguiazcoagaz, laungoico eguiazcoen...), obra misericordiazcoac, estatu graçiazcoan
- b. Mikoleta: pare bi fraca miesascoac, lau alcandora euren ydun lechuguillascoacas, fraca terciopelo acuchilladuscoac
- c. VJ: Obra virtutescoac eta honac

³⁵ Bidenabar, gaztelaniaz ere *verdadero* adjektiboaren izenarekiko kokapena aldakorra da, Kapanagaren dotrinako adibide hauek erakusten duten moduan: *hombre verdadero – guiçon eguiazcoa, verdadera necesidad – Premia eguiazcoagaz, La verdadera penitencia – Penitencia eguiazcoa*. Hizkuntza erromantzeetan adjektiboak izen aurrekoak eta izen ostekoak izan daitezke (Salvi 2016): gehienetan kokapen bakoitzak esanahi zehatz batekin dago lotuta (normalean, izenaren ostekoek identifikazioaren funtzioa dute, eta aurrekoek ezaugarri bat ematen dute), eta adjektibo guztiak ezin dira bietara agertu. Askotan, halere, zaila da gaia aztertzea; Jensenek (1994: 42), esaterako, okzitanierari buruz hau dio: “La place de l’adjectif épithète par rapport au substantif qu’il modifie es essentiellement un problème d’ordre stylistique ou rythmique qui ne se prête pas à une analyse grammaticale”. Latinez biak posible baziren ere, izen aurrekoa, oro har, ohikoagoa zen, baina aldatzen joan zen preferentzia hori, latin arruntean izen osteko adjektiboen maiztasuna igotzen baita (Lapesa 2000 [1975]). Gaztelaniaz (Martínez 2006) adjektiboa bi kokapenetan agertzen da, baina maiztasuna aldatu egin da: XVII. mendetik aurrera izen osteko posizioa indartzen doa (XIII. mendean adjektiboa-izena adibideen % 60tan erabiltzen zen, eta XXI.ean % 81ean). Agian gaztelanian jazo ziren aldaketa horiek izan zuten euskarari nolabaiteko eragina. Gai horretan –euskaraz eta hizkuntza erromantzeetako adjektiboekin gertatzen dena konparatzea– sakontzea mereziko luke.

- (107) a. Olaetxea: egiazko (IO 13, IA 0), graziazko (IO 4, IA 0), Jangoikozko (IO 1), mirarizko (IO 2), miserikordiazko (IO 5, IA 0)
 b. Arzadun: egiazko (IO 6), miserikordiazko (IO 1, IA 1)

Izen-multzoaren gainean eraikitako adibide gehien XIX. mendean aurkitu ditut, eta gehienak izenaren ostean doaz. XVII. eta XVIII. mendeetakoak, aldiz, izenaren aurrean daude kokatuta. Adibide batzuetan izen-multzokoa beste adjektibo batekin koordinatuta agertzen da: *gizon baldres, zantar, aziera txarrekuentzat* (Mogel), *gizon prestu ta biotz onekua* (Mogel) edo *dantza desonestubagorik ta lotsa gitxiagokorik* (frBart).

Testu batzuetan IOko adberbioen proportzioak handia badirudi ere, *betiko* adberbioa da horrela erabiltzen den ia bakarra (*urreko* da bigarrena: *pekatu mortaleko okasinoe urrekuak* frBart, esaterako).

Kapanagak *bako* postposizioa duten modifikatzaileak izenaren ostean jartzen ditu askotan: *miser cordia fin bacoagan, podere finbacoagan, desseo orde a baco bat iaateco, eta edateco*. Gaztelaniaz *infinito* eta *desordenado* agertzen dira hiru adibide horietan: *miser cordia ynfinita, en poder ynfinito* eta *Apetito desordenado â comer y beuer*. Gutxiago erabiltzen du *kontra* posizio horretan: *codiziac honestidaden contracoac, eta aziendenac* edo *codizia, eta desseo Iustizien contracoac, edo modu gwestocoac*. XIX. mendean ere agertzen dira halakoak: *emakume ezkondu bagakuak* (frBart), *arima bildurti ta gatz bagako bat* (Mogel), *beso kaltebagako ori* (Mogel), *atso arima bagako txar onek* (Mogel).

Leku-kasuak dituzten modifikatzaileei dagokienez, oso adibide gutxitan doaz izenaren ostean:

- (108) *señale ateticoacaz* (Kap, *por señales exteriores*), *neure pensamentu egû onetaco guztiac* (Kap), *gueure ogui egunean eguneangoa* (Kap), *dozena erdi bocader surretacoac* (Mikol), *geure ogi egunean eguneangoa* (Arz)

Kapanagaren *neure pensamentu egû onetaco guztiac* berezia da, aingura-erlazioa adierazten duten IOko *-ko* sintagmen oso adibide gutxi aurkitzen baitira.

4.4.2.5 Gipuzkoa

4.13. taulan ikus daitekeen bezala, instrumentala duten *-ko* sintagmak izenen ostean erabiltzen dira gehien Gipuzkoako testuetan: Otxoa Arinen testuan % 47 dira IOkoak, Ubillosenean % 23, eta Gerrikorenean % 32.

Berriro ere *egiazko* da ohikoena; beste batzuk dira hauek: *arrazoizko* (OA, Gerriko), *dudazko* (OA), *gezurrezko* (Ubill) eta *graziazko* (OA), *ekarraizko* (Ubill, *Lege naturala edo ekarraizkoa*), *jaungoikozko* (Gerriko, 'divino') eta *miserikordiazko* (OA). *Egiazko* eta *gezurrezko* izenaren aurrean ere aurki daitezke (bigarrena mai-

zago izenaren ezkerrean). Izenaren ezkerretara agertzen direnen artean bariedade handiagoa dagoela dirudi: *urrezko*, *zurezko*, *harrizko*, *haragizko*, *euskarazko*, *ja-torritzko*, *borondatezko*, *berezko*...

4.13. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Gipuzkoan (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAKoak eta IOkoak batera).

Mota	XVIII	XIX
Izena	12,4 (170)	0,0 (52)
Adberbioa	4,5 (22)	9,1 (22)
Leku-kasua	0,0 (21)	0,0 (7)
Postposizioa	12,5 (8)	0,0 (4)
Instrumentala	45,1 (71)	31,8 (22)
IM	0,0 (1)	

[IZENA-ko] motari dagokionez, Bizkaian ikusi ditugunen antzekoak dira IOak; hau da, gehienak erlijio-hiztegiari lotutakoak. Guztiak Otxoa Arinen tes-tuan aurkitu ditut (Ubillosek eta Gerrikok halakoak izenaren aurrean jartzen di-tuzte beti):

(109) Sakramentu Baptisteriokoa, bizi-tza tenporako onetan, Bost beatz eskuie-ko oetan, Akto Esperantzakoa, Sakramentu Eukaristiakoa, Akto Fedekoa, Esperanzakoa, eta Karidadekoa, Akto Fedekoa, Akto Karidadekoa, Sakra-mentu Konfesiokoak, beste itz dibina konsagrazioko aen birtutez, Akto kontriziokoa, Aita Santu Romakoa (OA)

Postposizio eta adberbioen artean, izenaren ostean aurkitzen ditugu *bage* (OA, *bizi-tza fin bageko artan*), *sekulako* (OA, *pena sekulakoa*), *betiko* (Gerriko) eta *hurko* (Gerriko).

4.4.2.6 Lapurdi

Lapurdin izen ostean ohikoenak dira instrumentalaren eta izen-multzoaren (110) gainean egindako *-ko* sintagmak (4.14. taula). XVII. mendeko datuak eta Lei-zarragarenak nahiko antzekoak dira, baina XVIII-XIX. mendeetan IOkoen maiz-tasuna jaisten da.

(110) gizon fede aphurretakoak (Harand), gizon fede gutitakoa (Harand), seme bat bere iduritaco (Mat)

Instrumentala duten modifikatzaileen artean, izenaren ostean maizenik *egiazko*, *fedezko* eta *miserikordiazko* aurkitzen ditugu. Gainerakoak behin edo bitan baino ez dira agertzen aztertutako testuetan:

4.14. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Lapurdin (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAKoak eta IOkoak batera).

Mota	Leiz	XVII	XVIII	XIX
Izena	4,4 (159)	2,4 (168)	2,4 (110)	0,0 (78)
Adberbioa	0,0 (11)	0,0 (21)	0,0 (7)	0,0 (1)
Leku-kasua	1,0 (98)	0,0 (28)	11,5 (52)	0,0 (13)
Postposizioa	0,0 (16)	0,0 (26)	0,0 (4)	7,7 (13)
Instrumentala	33,7 (101)	40,5 (111)	13,3 (15)	11,1 (54)
IM	40,0 (10)	50,0 (2)	75,0 (4)	0,0 (7)

- (111) a. Materra: presuna baquezcoac (2 aldiz), obra verthutezcoac, eguiazco (9), Articulo fedezcoac (10), misericordiazco (5)
- b. Haranburu: Gauza bidezko guzietan, zeure bulhar birginazkoan, Gure Iainko botherezkoak, egiazkoa (2), Iaun espantuzkoa, esperanza zinezko bat, Artikulu fedezkoak, O Birjina loriazkoa!, oren izigarrizko hartan, miserikordiazkoa (5), geure ezteustasunaren aithorzeko agudezia neurrizkoa, bekhatore ondikozkoa, andre pietatezkoa, Zirkunzisione dolorezkoaren
- c. Haraneder: bestimenda kamelu illezkoa, karga pisuak eta ezin jasanezkoak
- d. Duhalde: egiazko (2), sentimendu Jainkozkoak, bizitzerik Jainkoskoena, joko sobraniazko, afekziona ta estekamendu sobraniazkorik

Leku-kasua dutenak gehien-gehienetan izenaren aurrean joaten dira, *zeruetako* edo *zerutikako* (biak Haranederrenak) kenduta. Beste hizkeretako hainbat testutan —eta Leizarragarengan— azaltzen den *zeruko* hitza Materrak du bakarrik Lapurdin (*aita cerucoaren seme bakoitça* eta *Iainco aita cerucoari*). [IZENA-ko] egituran atzizkia oso gutxitan agertzen da izenaren eskuinean: aipatu den *aita zeruko*a esapidean eta toki-izenetan, batik bat (adibidez, *Bethlehem Iudeakoan* Leiz).

Duhalderen testuan *kanpo* postposizioa behin agertzen da izenaren atzetik: *bertze denbora-iragaitz premiaz kanpokoetarik*.

4.4.2.7 Nafarroa Garaia

Nafarroan ere *-zko* da izenaren eskuinean gehien aurkitzen dugun modifikatzaile-mota, eta nahiko maiztasun handiarekin, *-zko* duten sintagma guztien erdiak izenaren eskuinean baitaude (4.15. taula). Ohikoenak berriro ere *egiazko*, *fedezko* eta *miserikoardiazko* dira (Lapurdin bezala):

- (112) a. Beriain: libru debozioskoak, pasio doloreskoa, heriotze doloreskoa, egiaskoa (10 aldiz), itzak konsagraziokoak, obra miserikordiaskoak, Salmoak Penitenziaskoak
- b. Elizalde: Artikulo Fedeskoak (5), zeure begi miserikordiasko oiek, Obra Miserikordiaskoak (3)
- c. Lizarraga: leku inmundiziaskoan, ogi ordioskoa, eguraldi on bakeskoak, zur earreskoa, egiaskoa (8), gorputz aragiskoa, idolo arriskoak ta metaleskoak, lagun gaixtoen gaitz kutsusko abasto, kontxa urreskoan

4.15. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Nafarroan (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAkoak eta IOkoak batera).

Mota	XVII	XVIII
Izena	7,3 (82)	6,3 (95)
Adberbioa	0,0 (4)	33,3 (7)
Leku-kasua	0,0 (9)	0,0 (5)
Instrumentala	59,3 (27)	54,3 (46)
IM	66,7 (6)	0,0 (2)

[IZENA-ko] mota dela eta, noizean behin agertzen da izenaren ostean, baina maiztasuna ez da handia (% 6-7). Hauek dira adibideak:

- (113) a. Beriain: tenpestade dilubioko andihura, Eliza sandu Erromakoak, itzak konsagraziokoak, Martirolojio Erromakoaren, San Antonino Florenziakoak, Erregia Portugalekoa
- b. Elizalde: Bazkoa Garizumakoan,
- c. Lizarraga: pobreza biotzekoareki, aren ondasun etxeko ta kanpoko guziak, korona gloriakoa, bere Aingeru guardiakoa, argitasun zeruko bat admiragarria

Izen-multzoen eta adberbioen gainean egindako *-ko* sintagmak ere batzuetan izenaren ostean doaz (IMkoak, hala ere, Beriainek bakarrik ditu eskuineko posizioan), nahiz eta horien maiztasuna, oro har, ez den oso handia:

- (114) a. bizize sekulakoa (Elizalde), beraren Birjinidade garbi betirokoa (Lizarg)
- b. gauza inportanzia anditakoak (BerM), gauza lastima anditakoa (BerM)

4.4.2.8 Zuberoa

Zuberoan, oro har, *-ko* modifikatzaileak nahiko gutxi agertzen dira izenaren ostean (4.16. taula). XVII. mendean aurkitzen ditugu gehien, batez ere Etxarten gutunetan (% 30); gainerako testuetan askoz gutxiago daude: Belapeirek % 9 ditu, eta Tartasek % 1,5 bakarrik.

4.16. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Zuberoan (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAkoak eta IOkoak batera).

Mota	Etxart	XVII-2	XVIII
Izena	10,7 (28)	1,0 (209)	1,1 (93)
Adberbioa		41,7 (12)	9,1 (11)
Leku-kasua		0,0 (13)	0,0 (40)
Postposizioa	0,0 (4)	0,0 (4)	0,0 (4)
Instrumentala	83,3 (12)	15,0 (40)	2,5 (79)
IM		100,0 (1)	0,0 (1)

Izenaren ostean gehienetan doaz *-zko* sintagmak eta *betiere* adberbiotik eratorritako modifikatzailea. Etxarten 1616ko gutunetan 12 aldiz agertzen da *-zko*, eta bi aldiz bakarrik izenaren aurrean: *bi berce baquezco personnequi* eta *graciazco ourthiaren*. Izenaren ostean, aldiz, *egiazko* eta *bidezko* aurkitzen ditugu. IOkoen adibide guztiak hauek dira:

- (115) a. Etxart: *arcordu bidescoric* eta *eguiascoric*, iaun *eguiascoa* eta *bidescoa*, *accordu eguiascoric*, *eguia* eta *leguia eguiascoa*, *baque osso* eta *eguiasco baten*, *arcordu* eta *baque eguiascoric*, *repos eguiasco baten*
- b. Belapeire: *Jinko egiazko*, *kristi egiazkoaren*, *saintü egiazkoez*, *obra miserikordiazkoak*, *Birjina saintiaren misterio dohatsü*, *alagera*, edo *penazko zonbaitetan*
- c. Tartas: *aita familiazkoa*

XVIII. mendean maiztasuna jaisten da. Oloroeko katiximan *-ko* sintagmen % 3 bakarrik doa izenetik eskuin (*gayça importanciazco çonbaytetan*, *spiritu bethiereco*, *Andredana Maria martchocouan*), eta Maisterreanean % 1 baino ez (adibide bat: *libertate egiazkorik*).

4.4.2.9 Erronkaribar

1616ko Zuberoa eta Erronkari arteko gutunetan izen osteko *-ko* atzikiaren adibide batzuk aurkitzen ditugu Rosek idatzitakoetan (4.17. taula). Guztiak [IZENA-ko] motakoak dira; bitan leku-izenekin eta hirutan datak ematean:

- (116) – gobernadore jaunari eta abbade Santa Engraçiacoari
 – Agustin Martin Uztarrozeoac
 – Çure azquen gutuna urrietaren oguey eta vorz garrenecoa
 – Çure guthun abentuco çazpi garrenecoa
 – Çure gutun abentuaren emereçu garrenecoa

Interesgarria da gutunetan *-zko* bat ere ez aurkitzea (ez izenaren aurretik, ez ondotik).

4.17. taula. Izen osteko *-ko* sintagmen proportzioak Erronkaribarren (parentesien artean adibideen kopurua zehaztu da, IAkoak eta IOkoak batera).

Mota	Ros	XIX
Izena	27,3 (11)	0,0 (140)
Adberbioa		0,0 (14)
Leku-kasua	0,0 (5)	0,0 (23)
Postposizioa	0,0 (2)	
Instrumentala		9,4 (53)
IM		0,0 (9)

Geroko Erronkaribarko testuetan (Hualde Mayo eta *Doctrina Christiaia*) bakarrik agertzen da *-zko* izenaren ostean, eta oso noizbehinka: *ein deuri cidarrezco* (Hualde), *Articulo fedezcoac* (DoktErr) eta *medrachu ilavete conzezionezcoac* (DoktErr).

4.4.2.10 Orokorrean

Oro har, IOko *-ko* sintagmen maiztasun txikiena ekialdeko testuetan aurkitu dut (Zuberoan % 6, Erronkaribarren % 3), eta handiena mendebaldekoetan eta Nafarroakoetan (% 20 inguru). Hala ere, motaz mota begiratu behar da, erlazio-atzizkiaren erabilera guztiek ez baitute berdin jokatzeko hitz-hurrenkerari eta banaketa geografikoari dagokienez (4.18., 4.19. eta 4.20. taulak). Oro har, izenmultzoa eta instrumentala duten modifikatzaileak maizenik azaltzen dira modifikatzen duten izenaren ondotik (adibide guztien % 40 eta % 31, hurrenez hurren; 4.19. taula). Gutxien, aldiz, leku-kasuen gainean egindakoak: % 3,5 bakarrik.

IOko *-ko* sintagmen artean askoz maizago agertzen dira instrumentala dutenak (4.20. taula): IOko guztien % 52k eta IAkoen % 18k *-zko* atzizkia dute. Kontrakoa gertatzen da leku-kasuekin egindako modifikatzaileekin: IAkoen artean % 12k du leku-kasu bat, baina IOetan bakarrik % 3k.

4.18. taula. *-ko* atzizkiaren izen osteko erabilera: eremuen arteko aldeak (adberbioak eta postposizioak batera eman dira; parentesien artean adibideen kopurua zehazten da, IAKoak eta IOkoak batera).

Eremua	Guztiak	Leku-k.	Instr.	Adb.	Izena	IM
ARAB	19,7 (223)	0,0 (15)	14,9 (47)	10,0 (10)	24,0 (150)	0,0 (1)
BIZ	20,9 (823)	6,7 (60)	45,8 (131)	19,6 (107)	14,4 (499)	57,7 (26)
GIP	15,2 (422)	0,0 (28)	33,9 (115)	7,1 (56)	9,5 (222)	0,0 (1)
NAF	20,3 (291)	0,0 (14)	56,2 (73)	18,2 (11)	6,6 (182)	40,0 (10)
ERR	3,1 (257)	0,0 (28)	9,4 (53)	0,0 (16)	2,0 (151)	0,0 (9)
LAP	10,8 (1112)	3,7 (191)	31,0 (281)	1,0 (99)	3,3 (516)	32,0 (25)
BN	13,8 (29)	0,0 (5)	33,3 (6)	0,0 (3)	13,3 (15)	
ZUB	5,6 (552)	0,0 (53)	13,7 (131)	17,1 (35)	1,8 (331)	50,0 (2)

4.19. taula. *-ko* atzizkiaren motaren eta hitz-ordenaren arteko erlazioa. Erlazio-atzizkiaren mota bakoitzeko, IAKoen eta IOkoen proportzioak eman dira (ehunekotan).

Mota	Guzt.	IA	IO
IM	69	59,4	40,6
Instrumentala	814	68,2	31,8
Postposizioa	127	89,0	11,0
Adberbioa	203	90,6	9,4
Izena	2055	91,8	8,2
Leku-kasua	398	96,5	3,5

4.20. taula. Erlazio-atzizkiaren motak IAKo eta IOko modifikatzaileetan (ehunekotan).

Ordena	Guzt.	Leku-k.	Instr.	Adb.	Izena	IM
IA	3164	12,1	17,5	9,4	59,6	1,3
IO	502	2,8	51,6	6,6	33,5	5,6

[IZENA-ko] mota dela eta, Arabako eta Bizkaiko —batez ere XVII-XVIII. mendeetako— testuetan IOko *-ko* sintagmen adibide gehien aurkitu dut (Arabako testuetan % 24, Bizkaikoetan % 14). Oro har, aurreko ataletan ikusi dugun bezala, erlijioarekin lotutako hiztegian dira ohikoen.

Izen-multzoa hartzen duten *-ko* sintagmek izenaren eskuinean agertzeko joera dute. Adibide gehien Bizkaiko eta Lapurdiko testuetan bildu dira, eta IOkoen proportzioa oso handia da (% 57 eta % 32, hurrenez hurren).

Postposizioa duten *-ko* sintagmei dagokienez, eskuineko posizioan gehienetan *gabe/bage* eta (gutxiago) *kontra* agertzen dira. Bizkaiko eta Gipuzkoako testuetan bakarrik aurkitu dut (salbuespena Duhalderen adibide bat da).

Adberbioen gainean egindako *-ko* modifikatzaileek izenaren aurretik agertzeko joera dute. Hala ere, *betiko*, *betiereko* eta *sekulako* hitzak askotan izenaren ondoan jartzen dira, batez ere Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Zuberoako testuetan.

Erlazio-atzizkia leku-kasuei lotzen zaienean, oso gutxitan kokatzen da izenaren eskuinean: corpusean aurkitutako adibide gehienetan *zeruetako* edo *zerutikako* erabili da (Jainkoari erreferentzia eginez).

Instrumentala duten *-ko* sintagmak askotan dira izen ostekoak. Maiztasun txikiena Erronkaribarko eta Zuberoako testuetan aurkitu dut. Handiena Nafarroako testuetan dugu: adibideen erdiak inguru daude izenaren eskuinean. Bizkaian eta Araban ere askotan izenaren ostean doaz modifikatzaile horiek (testu gehienetan % 20-60). Lapurdin XVI. eta XVII. mendeetan ere handi samarra da proportzioa (% 30-40, salbuespena Leizarragaren San Mateo da), baina gero jais ten da (Haranederrek % 13 du, eta Duhalde % 11). Zuberoako eta Erronkaribar ko egileek, salbuespen gutxi batzuekin, izenaren aurretik kokatzen dituzte (baina Etxarten gutunetan kontrakoa gertatzen da).

4.21. taula. *egiazko* modifikatzailearen erabilera: IOkoen proportzioak KG-n XVI-XIX. mendeetako Hego eta Ipar EHko testuetan.

Eremua	Mendea	Guzt.	IO (%)
HEGO EH	XVII-1	1	100,0
	XVII-2	6	100,0
	XVIII-2	352	50,9
	XIX	362	81,8
	XIX-2	308	80,2
IPAR EH	XVI	138	47,8
	XVII-1	68	38,2
	XVII-2	162	24,7
	XVIII-1	123	35,8
	XVIII-2	184	29,9
	XIX-1	55	16,4
	XIX-2	392	32,1

Maiztasun handiena *egiazko*-k du: nik aztertutako testuetan 213 adibide agertzen dira (konparatzeko, hurrengoak —*miserikordiazko*-k— 44 agerraldi ditu bakarrik). Halere, datu gehiago lortzeko, KG-n azertu dut modifikatzaile horren erabilera. Hego EHko testuetan IOkoen proportzioak handiagoak dira Ipar EHkoetan baino: Hegoaldeko testu gehienetan adibideen erdiak baino gehiago doaz izenaren ostean; Iparraldekoetan, normalean, % 20-30 (4.21. eta 4.22. taula). No-

lanahi ere, Iparraldeko testu zahar batzuetan nahiko maiz agertzen da izenetik eskuin: Leizarragaren testuetan % 48, Materrarenean % 48, Belapeirerenean % 52 eta Etxeberri Ziburukoarenean % 70.

Erlazio-atzizkia duten modifikatzaile batzuk maizago agertzen dira izenaren eskuinean; beste batzuk, aldiz, oso gutxitan. Modifikatzaile batzuen lexikalizazioaren seinaleztat har daiteke hori. Maiz erabiltzen direnen *-zko* modifikatzaileen artean, hauek dute IOkoak izateko joera: *egiazko*, *miserikordiazko*, *fedezko* edo *graziazko*, baina ez, esaterako, *haragizko* edo *gezurrezko* hitzek (4.23. taulan adibide gehiago eta datu zehatzak eman dira).

Atzizkiaren gainerako motei begiratuta (4.24. taula), hitz askotatik eratorritakoak beti agertzen dira izenaren aurretik. Adibide bat *mundu* lemapean bildu direnak dira (*munduko*, *mundu honetako*, etab.): 128 agerraldi dituzte guztira, eta beti doaz izenaren ezkerrean. Gauza bera gertatzen da *infernu*, *lur* edo *heriotza* lemekin. Aldiz, *beti(ere)* adberbiotik, *gabe* postposiziotik edo *fede*, *altare* edo *zeru* izenetik sortutakoak noizean behin izenaren ostean aurkitzen ditugu (nahiz eta, *-zko* sintagmekin konparatuta, IOkoen maiztasuna txikiagoa izan).

4.22. taula. Izen osteko *egiazko* modifikatzailearen maiztasuna XVI-XIX. mendeetako testuetan *KG*-an (testuen laburdurak *KG*-koak dira). Bost adibide baino gehiago dituzten testuak hartu dira kontuan. Letra beltzez XVI. eta XVII. mendeetako testuak seinlatu dira. Hegoaldeko testuen kasuan lerroa grisez dago.

Testua	Mendea	Guzt.	IO (%)
ArrueGGenobeba	XIX-2	5	100,0
ArrueGilla	XIX-2	21	100,0
ZubiaDoktrina	XVII-2	6	100,0
AntiaAsiskoa	XX	42	95,2
IturzaetaAzalduerak	XIX-2	39	94,9
OlaetxeaDotrina	XVIII-2	14	92,9
AgirreAerakusBirjina	XIX-1	155	89,7
UriarteBibliaI	XIX-2	97	87,6
ZabalaSermoiakI	XIX-1	40	87,5
LardizabalBerriko	XIX-2	75	84,0
MikelestorenaZerura	XVIII-2	6	83,3
UbillosEkarlea	XVIII-2	34	82,4
LegazIkasbidea	XIX-2	10	80,0
BaraziarMeditazione	XVIII-2	18	77,8
LarramendiTestuak	XVIII-2	13	76,9
AnibarroGero	XIX-1	92	76,1
GoietxeFableak	XIX-2	8	75,0
IztuetaDantza	XIX-1	67	71,6
JohanategiBenoat	XIX-2	14	71,4
EtxebZibuManual	XVII-1	10	70,0
AranbillagaImitazionea	XVII-2	6	66,7
AnonimIrakasdea	XIX-2	5	60,0
ElizanburuMHirur	XIX-2	32	56,3
EgiategiEkheia	XVIII-2	19	52,6
BelapeireKatexima	XVII-2	23	52,2
LaphitzBisaindu	XIX-2	8	50,0
MihuraImitazionea	XVIII-2	18	50,0
MogelJAerakasle	XVIII-2	149	49,0
Leizarraga	XVI	137	48,2
MaterraDotrina	XVII-1	23	47,8
HaranederEbanjelioa	XVIII-1	51	45,1
MendiburuDebozioa	XVIII-2	32	43,8
MonhoOlerkiak	XIX-1	12	41,7
HiribarrenEgia	XIX-2	5	40,0
HaranburuDebozino	XVII-1	14	35,7

4.22. taula. Izen osteko *egiazko* modifikatzailearen maiztasuna XVI-XIX. mendeetako testuetan KG-an. Bost adibide baino gehiago dituzten testuak hartu dira kontuan. Letra beltzez XVI. eta XVII. mendeetako testuak seinlatu dira. Hegoaldeko testuen kasuan lerroa grisez dago.

Testua	Mendea	Guzt.	IO (%)
JoanategiSainduen	XIX-2	23	34,8
KardaberazDebozino	XVIII-2	100	34,0
DuvoisinBibleaII	XIX-2	121	33,9
GazteluzarEgia	XVII-2	31	32,3
XurioImitazioea	XVIII-1	47	31,9
ArbelbideIgandea	XIX-2	20	30,0
IntxauspeHilabetia	XIX-2	28	25,0
LarregiBerriko	XVIII-2	77	24,7
EtxebSaraGazteriari	XVIII-1	25	24,0
LapeireKredo	XIX-2	49	22,4
ArxuBonaparte	XIX-2	5	20,0
HiriUrruGontze	XIX-2	46	19,6
AzkueRLatsibi	XIX-2	16	18,8
PouvreauFilotea	XVII-2	88	14,8
ArgainaratzDeboten	XVII-2	7	14,3
AxularGero	XVII-1	21	14,3
HarispeKarmela	XIX-2	8	12,2
DuhaldeMeditazioeak	XIX-1	42	7,1
MaisterImitazionia	XVIII-2	50	6,0
XahoAzti	XIX-2	11	0,0
DakonagerreAtheke	XIX-2	8	0,0
TartasOnsa	XVII-2	5	0,0

4.23. taula. Gehien erabiltzen diren *-zko* modifikatzaileak eta hitz-ordena. Testuetan agertzen diren *-zko* duen modifikatzaile bakoitzari lema “estandarizatua” esleitu zaio, hitzen aldaera ezberdinak batera aztertu ahal izateko. *-zko* atzizkia-rekin agertzen den lema bakoitzeko IAkoen eta IOkoen proportzioak eman dira (ehunekotan). Bestalde, bakoitzaren agerraldi-kopurua corpusean eta “testuak” zutabeen zenbat testutan aurkitu diren adierazi dira.

Lema	Guzt.	Testuak	IA	IO
egia	213	23	38,5	55,4
miserikordia	44	13	31,8	61,4
fedea	36	7	47,2	52,8
haragia	32	8	96,9	3,1
grazia	19	7	31,6	68,4
jainko	16	4	81,3	18,8
arrazoi	14	3	42,9	28,6
amorio	13	7	84,6	7,7
debozio	12	5	91,7	8,3
gezur	12	2	91,7	8,3
su	12	7	100,0	0,0
penitentzia	11	7	90,9	9,1
borondate	9	5	100,0	0,0
egunero	9	8	100,0	0,0
euskara	9	4	100,0	0,0
burdina	8	2	100,0	0,0
negar	8	8	87,5	12,5
bide	7	6	14,3	85,7
bihotz	7	4	100,0	0,0
zilar	7	1	85,7	14,3
bekatu	6	4	100,0	0,0
espiritu	6	3	100,0	0,0
harri	6	4	83,3	16,7
urre	6	4	83,3	16,7
arantza	5	4	80,0	20,0
familia	5	2	80,0	20,0
juizio	5	2	100,0	0,0

4.24. taula. Gehien erabiltzen diren *-ko* sintagmak eta hitz-ordena (*-zko* dutenak izan ezik). Testuetan agertzen den *-ko* sintagma bakoitzari lema “estandarizatua” esleitu zaio, hitzen aldaera ezberdinak batera aztertu ahal izateko. *-ko* atzizkia-rekin agertzen den lema bakoitzeko IAkoen eta IOkoen proportzioak eman dira (ehunekotan). Bestalde, bakoitzaren agerraldi-kopurua corpusean eta “testuak” zutabeen zenbat testutan aurkitu diren adierazi dira.

Lema	Guzt.	Testuak	IA	IO
betiere	23	5	69,6	30,4
fede	38	11	71,1	28,9
gabe	38	13	71,1	28,9
beti	39	7	82,1	17,9
altare	33	13	84,8	15,2
zeru	308	27	86,4	13,6
lege	31	11	87,1	12,9
kontra	24	8	91,7	8,3
egun	55	22	92,7	7,3
sekula	30	11	93,3	6,7
etxe	32	14	93,8	6,3
bihotz	51	14	94,1	5,9
eliza	106	19	94,3	5,7
eskuin	35	12	94,3	5,7
ezker	18	12	94,4	5,6
sabel	23	13	95,7	4,3
kanpo	26	10	96,2	3,8
mundu	128	24	100,0	0,0
infernu	57	19	100,0	0,0
lur	48	14	100,0	0,0
heriotza	44	14	100,0	0,0
trinitate	40	10	100,0	0,0
juizio	38	14	100,0	0,0
herri	32	10	100,0	0,0
gorputz	31	14	100,0	0,0
arima	26	12	100,0	0,0
paradisu	23	10	100,0	0,0
aitzin	21	11	100,0	0,0
buru	19	11	100,0	0,0
goiz	18	6	100,0	0,0
meza	18	8	100,0	0,0

4.4.3 Hitz-ordena: ondorioak

Erlazio-atzizkiak sortzen dituen modifikatzaileen kokapenean hainbat faktorek eragiten dute. Semantika garrantzitsua da: adierazten dena aingura gabeko erlazioa bada, litekeena da izenaren eskuinean erabiltzea, aingura-erlazioekin, salbuespen bakan batzuekin, ez da hori gertatzen. Beste alde batetik, *-ko* sintagma guztiek, semantikaren aldetik antzekoak izanda ere, ez dute berdin jokatzeko, batzuek joera handiagoa baitute izenaren ostean joateko. Lehenago ere aipatutako *-ko* sintagmen lexikalizazioaren beste alderdi bat da hori: adjektibo tipikoen ezaugarri batzuk hartzen dituzte *-ko* sintagma batzuek, eta, azkenean, beste edozein adjektibo bezala hasten dira erabiltzen, baita hitz-ordenari dagokionez ere. Azkenik, hizkeren arteko aldeak ere baditugu: oro har, zenbat eta ekialderago, orduan eta izen osteko *-ko* sintagma gutxiago.³⁶

Perpau erlatiboetan bezala, *-ko* atzizkian ere hizkuntza erromantzeen nolabaiteko eragina ikus daiteke: ez horrenbeste modifikatzailearen kokapenean, baizik eta *-ko* sintagmen ugaritasunean. Erlazio-atzizkia (soila edo *-zko* konbinazioa) oso baliabide arrunta zen erdarazko adjektiboen ordainak sortzeko.

IOko *-ko* sintagmak agertzen dira dagoeneko testu zaharrenetan (eta lehenago, Erdi Aroko pertsona-izen batzuetan). Galdera da, beraz, zein den zaharragoa. Ez da erabat ezinezkoa izen osteko ordena zaharragoa izatea, baina, erlatiboekin bezala, zaila litzateke azaltzea zergatik sortu zen beste hurrenkera. Aldiz, izen aurreko posiziotik abiatzen bagara, ez da oso zaila azaltzea nola hasi ziren *-ko* sintagma batzuk izenaren osteko kokagunean jartzen: adjektiboekiko analogiaz, edo, zehatzago esanda, *-ko* sintagma adjektibo prototipiko bezala hartuta. Izenen modifikatzaileen eta adjektiboen ezaugarriak kontuan hartuta, aldaketa naturala da, jabetza-modifikazio eskalaren elkarren ondoan kokatuta baitaude, 4.2.2. atalean ikusi dugun moduan. Hitz-ordenaren aldaketa hori, halere, ez zen erabat burutu: gehien instrumentala duten *-ko* sintagmekin, baina horiekin ere ez guztiz.

XIX. mendean oraindik oso ohikoak ziren izen osteko *-ko* sintagmak (4.25. taula). Gaur egun, aldiz, izenaren aurretik erabiltzeko joera nagusitzen da (nahiz eta ahozko hizkeran agian ohikoagoa izan izenaren eskuinean jartzea). Perpau erlatiboekin gertatu zena —izen osteko hurrenkera baztertzea— *-ko* sintagmekin ere gertatu da, baina beranduago.

³⁶ Aipatzekoa iruditzen zait, bestalde, perpau erlatiboetan ez bezala, erlazio-atzizkiaren jokiera nahiko koherentea dela testuz testu. Eremuen arteko aldeak badaude, baina modu logikoago batean antolatuta (funtsean, mendebaldea eta erdialdea vs ekialdea). Zaila da horren azalbide bat aurkitzea.

4.25. taula. IOko *-ko* sintagmen proportzioak Ipar eta Hego EH (ehunekotan). Parentesien artean adibideen kopurua eman da (IAkoak eta IOkoak batera).

Mendea	IPAR EH	HEGO EH
XVI	11,8 (423)	17,7 (260)
XVII-1	15,8 (400)	20,3 (128)
XVII-2	5,0 (279)	29,0 (210)
XVIII	5,0 (420)	20,3 (787)
XIX	4,2 (166)	13,7 (336)

4.5 Genitiboaren hitz-ordena

Izenen modifikatzaileen hitz-ordenaren azterketa osatzeko, genitiboak erakusten duen bariazioa ere aipatu behar da.

Genitiboaren lekukotasun gutxi daude Erdi Aroko dokumentuetan. Gehienetan izenaren aurretik (117) dator genitiboa, baina pertsona-izenetan, *-ko* atzizkia-ekin bezala, izenaren ostean ere agertzen da (118).³⁷

- (117) a. *pieça clamada Ançare soroa* (1396, Iratxe)
 b. *Orçiren çorita çaharra* (1284, Orreaga)
 c. *Lope iaun Ortire semea* (1125, Iratxe)
 d. *Orcire çorita* (1110, Leire)
- (118) a. *Guarcea Ansorena* (1247, SJuan)
 b. *Sanso Urraquarena* (XIII, Iratxe)

Testu zaharretan izenordainak aurkitzen ditugu maizenik izenaren eskui-
 nean, eta, batez ere, otoitzeko *aita gurea* sintagman. Testuz testu begiratuta, *aita gurea* eta *gure aita* aldaeren distribuzioa honakoa da:

- *Aita gurea*: Betolatza, Beriain, VJ, Zubia, Kapanaga, Otxoa Arin, Kardaberaz, Urkizu, Mogel, Elizalde, Olaetxea, Larramendi, Mendiburu, Ubillos, Lizarraga, Erronkaribar.
- *Gure aita*: Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Materra, Argainaratz, Belapeire, Maitie, Tartas, Haraneder, Oloroeko kat., Larregi, Mogel, Larramendi.

Banaketa oso argia da: Ipar EHN *gure aita* dugu, eta Hego EHN *aita gurea* (Larramendik eta Mogelek bi erataraz dituzte). Nire ustez, otoitz horren gaztelaniazko eta frantsesezko edo gaskoierazko bertsioekin lotu behar da hori. Gaztelaniaz

³⁷ Atal honetako Erdi Aroko adibideak Reguero Ugarte (2011) lanetik hartu dira. Laburdurak: Iratxe – Colección diplomática de Iratxe, SJuan – Donibane Jerusalengo Ordena, Leire – Leireko monasterioko dokumentuak, Orreaga – Orreagako saroi-zerrenda.

izena-izenordaina hurrenkera duen *padre nuestro* sintagmaren ordaina *aita gurea* da. Frantsesez, alabaina, bestelakoa da hitz-ordena —*notre père*— eta, halaber, euskarazkoan *gure aita* dugu. Gaskoiera zaharrea ere (Jensen 1994) genitiboko izenordaina izenaren aurretik kokatzen da normalean, nahiz eta ostean jartzea posible izan: “La postposition du possessif semble parfois dictée par les exigences de la rime, mais elle se trouve également dans des textes en prose, où son emploi répond autant à un désir de variété qu’à un besoin d’insistance” (Jensen 1994: 116). *Aitagure* zaharren ezaugarriak aztertzean ondorio bera ateratzen du Ariztimuñok (2015: 22):

Bada koherentzia geografiko osoa duen ezaugarri bat, ordea, ziurrenik ez datorrena euskalkiekin bat, erdarekin baizik: izenaren eta genitiboko izenordainaren arteko ordena. Hegoaldean *aita gurea* da aukera bakarra; Iparraldean, *gure aita*. Gaztelaniazko (eta latinezko) otoitzean I-Gen izatea eta frantsesezko nahiz okzitaniara zaharrekoetan Gen-I ordena kausitzeak zerikusia duke.

Aita gurea-z gain, Etxepareren adibide batzuk ere aipatu behar dira:

- (119) a. Bere buruia egin dizi *iuje iustiziaren* / zu miserikordiaren refujio zinenaden
 b. Berze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren / Eta gero obororik punzela ezin dirate / zu anderia ama zira birjinarik ieinkoaren / Eta geroz *erregina zeru eta lurraren*.

Genitiboa izenaren eskuinean bitan dugu adibide horietan: *iuje iustiziaren* eta *erregina zeru eta lurraren*. Lehen sintagma determinatu gabea da (genitiboa duen sintagma predikatua da, eta, ezaguna denez, testuinguru horretan askotan falta da artikulua testu zaharretan). Determinatzaileak lagungarri izaten dira, hala ere, halakoetan egitura sintaktikoa zein den zehazteko: [*iuje iustiziaren*] ala [*iuje*] [*iustiziaren*] dugun (artikuluak jarrita: [*iuje iustiziaren*]a eta [*iujea*] [*iustiziarena*]). (119-b)-ko adibidean aposizioa ere azalpen posiblea da (aditza elipsian egon daiteke: *erregina [zira] zeru eta lurraren*). Aposizio bezala ulertzea ez dela horren zentzugabekoa erakusten dute (119-b)-ko beste bi adibideek: [*ama*] *dira [zenbait haurto xipiren]* eta [*ama*] *zira birjinarik [ieinkoaren]*. Bestalde, adibide horietan genitiboak destinatiboaren (benefaktiboaren, zehatzago) adiera ere izan dezake ([*ama*] *dira [zenbait haurto xipirentzat]*). *Iuje iustiziaren* eta *erregina zeru eta lurraren* sintagmetan ere ez da erabat ezinezkoa genitiboak destinatiboaren funtzioa izatea. Beraz, Etxepareren adibide horiek, interesgarriak izanagatik ere, ez digute argudiorik ematen genitiboaren izen osteko kokapena fenomeno zaharra dela esateko.

Bizkaiko eta Arabako testuetan nahiko ohikoa da izen osteko genitiboa, izen aurrekoa guztiz nagusitu arren. Izenordainez gain, izenekin ere aurkitzen dugu,

baita perpaus erlatiboekin ere (120). Ereku berean genitiboa aposizioan ere lekukotzen da (121).

- (120) a. Ama enea seme baga (Laz)
 b. Dotrina christiñauena, Lau lecu arima zerura eztoaçaneenac, arimaac aita santu veguira Egozaneenac aen etorrera santuari, Abundanzia ondasun guztiena, eta erremedioa gach gustiena (Kap)
 c. arrepentimentu aen Divine Magestadea ofendidu daudeneenagas (VJ)
 d. Memoria ene gasaben trapuycusleac eroan eguisanena (Mikol)
 e. arima Aita Santuenak (Arz)
- (121) a. erremedioa gach gustiena (Kap)
 b. gosea, eta egarria iusticiena (Kap)
 c. dolorea pecatuena (VJ)

Nafarroan ere aurki daitezke adibideak:

- (122) a. Gozo eta kontentu arimarena (BerD)
 b. digun osasuna arimarena, eta gorpuzarena, eta birtuteak, eta ondasunak salbazeko bear ditugunak (BerM)
 c. Agitz ze deboto Sanduen, ta Aingeruen, prinzipalki Maria Santisimaren: eta guzien gañetik Jesu Kristo Jangoiko-gizonaren (Lizarg)
 d. beldur emastekiarenas (Lizarg)

Lapurdiko eta Zuberoako testuetan, aldiz, oso gutxitan agertzen da izen osteko genitiboa. Leizarragak baditu batzuk, baina beti Testamentuaren gaien aurkibidean (123), eta, hitz-ordenari dagokionez, oso berezia da parte hori, ordena alfabetikoaren eskakizunak askotan bultzatu baitzuen egilea egitura ezohikoak erabiltzera.

- (123) mahai Iainkoarena eta deabruarena; argi munduarena; onherizte munduarena; ordenanza aitzinekoenak eta Fariseuenak; Maiestate Kristena... (LeizTest)

Lapurdiko testuen artean, salbuespena Etxeberri Ziburukoa da: bere testuetan nahiko ohikoak dira izen osteko genitiboak, batez ere lerroen amaieretan, errimogatik ziurrenik. Izenordainekin (124) zein izenekin (125) erabiltzen du hitz-ordena hori. Antzeko adibideak oso noizbehinka beste testu batzuetan ere azaltzen dira, baina inoiz ez Etxeberri Ziburukoarengan bezain ugari. Genitiboa ez da egile horren sintaxi bereziaren adibide bakarra, Oyharçabalek (2002), egile horren testuak hizpide, beste hainbat *étrangeté syntaxique*-ekin batera aipatzen du genitiboa (hitz-hurrenkerari dagozkion beste batzuk dira adjektiboak izenaren aurrean edo zenbatzaileak izenaren aurrean jartzea).

- (124) a. Arren, bada, Espiritu / animo emaillea, / berthutera Zuk anima / zazu *bihotz enea* (EtxZib)
- b. Zure handitasunari *ttipitasun eneak*, / Ezin itzul diotzoke ideki oho-reak (EtxZib)
- c. Zeren largatu zaitudan, ontasun fin gabea, / Eta kreaturetara eman *gogo neurea* (EtxZib)
- d. San Tomasek ezagutu / zuen bere hobena, / eta Iaunari eskatu / *barkhamendu harena* (EtxZib)
- e. Zure esparantzan (Iainko puxanta) lehorrera, / Partitzen gare *bizitze geureen* salbatzera (EtxZib)
- (125) a. Ezen ukitze bera du sentitzen gehiago / Mundu beherean *kolpe dar-doarena* baño (EtxZib)
- b. O Iongoiko, Prinze eta Erregeen lehena, Arren goberna dezazu *bihotz Erregerena* (EtxZib)
- (126) a. Zure gana heldu gara, / *Ama Ienkoarena*, / Har gaitzatzu gerizera, / Guarda gaitza ketzuna (Argain)
- b. Jinkoak *frütü debetatü zerionaren* iatia Eden deitzen zen baratzian, edo lürreko Paradüsian (Belap)

Erlatiboekin eta *-ko* sintagmekin konparatuta, beraz, izen osteko genitiboak lekukotuta badaude ere, nahiko adibide gutxi dauzkagu (eta are gutxiago *aita gurea* erakoak kenduz gero). Horiek horrela, zail bihurtzen da datu horien azalpena ematea. Izan daitezke eskuineko genitibo horiek hitz-ordena zaharraren azken aztarnak? Hori horrela balitz, oso interesgarria litzateke, izena-genitiboa hurrenkera duten hizkuntzek oso salbuespen gutxiekin aditza-objektua hurrenkera ere badutelako (Dryer 2011). Ezinezkoa ez da, baina agian ez da azalpenik sinpleena. Sinesgarriagoa egiten da *aita gurea* motakoak gaztelaniaren hitz-ordenaren eraginpean sortzea, gaztelaniaz genitiboa izenaren ostean erabiltzen baita izen osoekin eta izenordainekin ere noizean behin, eta handik apur bat —ez gehiegi, halere— hedatzea. Beharbada izen osteko beste modifikatzaile batzuk existitzeak lagundu zuen: askotan *-ko* sintagmak eta genitiboak antzeko funtzioa dute; beraz, *-ko* izenaren eskuinean jartzea posible zenez, analogiaz genitiboetara ere zabal zitekeen aukera hori (horrek izen osteko genitiboaren distribuzio diatopikoa ere azalduko luke, IOko erlazio-atzizkia gehienbat mendebaldean eta erdialdean aurkitzen baitugu).

4.6 Izen-sintagmen barruko hitz-ordenaz, oro har

Orain arte hitz-ordenarekin lotutako hiru gai aztertu ditut: erlatiboen, genitiboen eta *-ko* sintagmen izenarekiko kokapena. Emaitza horiek biltzea da atal honen helburua. Galdera da ea hiru egituretan gertatzen dena nolabait lotuta dagoen.

Maiztasunarekin eta distribuzioekin hasiko naiz. Aurreko ataletan iruzkindu ditudan emaitzak 4.26. taulan ikus daitezke. Erlatiboei eta *-ko* atzizkiari dagozkien datu berberak ematen dira 4.1. irudian.

Izen osteko *-ko* sintagmei eta erlatiboei dagokienez, testuak hiru talde nagusitan bana daitezkeela ikus daiteke irudian. Banaketa hori eremu geografikoekin —Ipar HE, Hego EH eta Erronkaribar— bat dator, gero aipatuko ditudan lau salbuespenekin.

Dirudenez, gainerako testuetatik urrunen Erronkaribarreko hiru lekukotasun geratzen dira: IOko erlatibo asko eta IOko *-ko* gutxi dituzte. Halere, aipatu behar da XVII. mendearen hasierako Rosen gutunetan *-ko* nahiko sarri agertzen dela izenaren ostean, eta ezaugarri horretan XIX. mendeko Erronkaribarko testuetatik urruntzen dela; horren arrazoia, lekukotasun zaharragoa izateaz gain, testu-motan ere bila daiteke agian.


Irudiaren ezkerreko aldean *-ko* atzizkia duen sintagma izenaren ondotik nahiko maiz jartzen duten egileak ditugu. Erlatiboei dagokienez, ez dago batasun handirik: testu batzuetan askotan agertzen dira IOkoak, beste batzuetan gutxi. Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako testuak dira horiek.

Azkenik, hirugarren taldean, Ipar EHko testuak ditugu gehienbat: *-ko* sintagmak normalean izenaren ezkerrean agertzen dira horietan; erlatiboen erabilera, aldiz, Hego EHko testuetan baino zertxobait koherenteagoa da: testu gehienetan aurkitzen ditugu, maiztasunean aldeak badaude ere.³⁸ Zuberoako testuak irudiaren eskuineko ertzetik hurbilen agertzen dira, *-ko* atzizkia oso gutxitan azaltzen delako izen osteko posizioan.

³⁸ Materra eta Leizarragaren ABC Ipar EHko gainerako testuak baino ezkerreago agertzen dira, Hegoaldeko testuetara hurbilduz. Bidenabar, irudi horretan bereziki nabarmena egiten da ABC-ren eta Testamentuaren arteko aldea.

4.26. taula. IOko erlatiboen eta IOko *-ko* sintagmen maiztasuna konparazioan (egitura bakoitzeko IOkoen proportzioa eman da, ehunekotan).

Eremua	Testua	IO <i>-ko</i>	IO erl	IO gen
BIZ	VJ	41,7	17,6	+
	Kapanaga	25,6	33,3	+
	Arzadun	27,4	47,6	+
	Olaetxea	22,3	3,9	
	Mogel	19,4	26,7	
	frai Bartolome	13,3	0,0	
ARAB	Lazarraga	26,3	0,0	+
GIP	Otxoa Arin	32,8	3,6	+
	Ubillos	6,8	2,2	+
	Gerriko	8,3	0,7	
NAF	Beriain	20,3	16,8	+
	Elizalde	24,4	5,9	
	Lizarraga	20,0	39,8	+
ERR	Ros	23,8	76,9	
	DoktErr	7,8	63,2	
	Hualde Mayo	0,5	65,9	
LAP	LeizMat	5,2	26,9	
	LeizABC	17,5	5,3	
	Mattera	18,0	8,4	
	Haranburu	10,3	9,1	
	Haraneder	8,9	25,3	
	Duhalde	4,2	5,7	
ZUB	Tartas	1,4	3,4	
	Belapeire	8,8	16,2	+
	Oloroeko kat.	3,1	18,8	
	Maister	0,8	33,9	



4.1. irudia. IOko erlatiboen eta IOko *-ko* sintagmen maiztasuna konparazioan.

Talde horretan, Ipar EHko egileez gain, aipatutako lau salbuespen agertzen dira. “Lekuz kanpo” dauden horiek dira RS, frai Bartolome, Gerriko eta Ubillos; beraz, alde batetik, aztertu dudan mendebaldeko testurik zaharrena (baina, testu-generoari dagokionez, nahiko berezia), eta, beste alde batetik, testu berrienak (Larramendiren ostekoak). Dirudienez, Hego EH gainerako egileekin joan beharren, *-ko* atzizkiaren eta erlatiboaren sintaxiari dagokionez, Lapurdikoetatik hurbilago geratzen dira.


Genitiboaz den bezainbatean, izenaren eskuinean Hego EHko (Erronkaribar tartean) agertzen da gehienbat. Aipatzekoa da izen osteko genitiboa duten testu gehienetan izenordainak bakarrik daudela posizio horretan. Izenak, aldiz, mendebaldeko testuetan bakarrik joan daitezke izenaren ostetik.

Oro har, beraz, *-ko* atzizkiaren, genitiboaren eta erlatiboaren jokaerak testuetan erregularitasunak aurkitzeko balio du. Geografiarekin gehien lotuta *-ko* atzizkia eta genitiboak dira; erlatiboetan, dagoeneko askotan esan dudan bezala, bariazio gehiago dago eremu bereko testuen artean. Hala ere, ez dago lotura sinplerik hiru egituren artean: adibidez, eremu edo testu batean IOko erlatibo asko badago, orduan IOko erlazio-atzizki eta genitibo asko dagoke. Lotura egon daiteke *-ko* atzizkiaren eta genitiboaren artean, izenaren eskuinean *-ko* asko duten testuetan, aukera gehiago daude genitiboa ere kokapen bereberean joan dadin.


Esandakoari dimentsio diakronikoa emateko, 4.2. irudia izan daiteke baliagarria. Aurreko irudian emandakoa bitan banatuta agertzen da, XVI-XVII. mendeetako datuak eta XVIII-XIX. mendeetakoak bereizita. Testuen kopurua oso handia ez dela kontuan hartuta (eta bestelako hainbat faktorez ahaztu gabe), esan daiteke badagoela alde interesgarri bat egoera zaharragoaren eta berriagoaren artean. XVI-XVII. mendeetako testuak elkarrengandik hurbilago agertzen dira, nahiz eta salbuespenik egon bazegoen. Diferentzia txikiko gunek horretan Beriain, Materra, Leizarragaren *ABC*, Haranburu eta Belapeire koka genitzake. Apur bat urrunago, geografikoki ere muturrekoak diren testu batzuk ditugu (mendebaldekoak, Tartas) edo beste arrazoi batengatik bereziak (Leizarragaren Testamentua, RS). Hala ere, bi testu bakarrik gelditzen dira benetan urrun: Rosen gutunak eta Bizkai hego-mendebaldeko *Viva Jesus*.

Datu berriagoak biltzen dituen irudian, hala ere, zailagoa litzateke horrelako erdialdeko gunea marraztea. Ez bada kasualitate hutsa, dialektoen bereizte diakronikoaren beste alderdi bat genuke. Fonetikaz edo morfologiaz dakigunarekin bat dator hori: denboran zenbat eta atzerago egin, orduan eta txikiagoak dira hizkeren arteko aldeak (Mitzelena 2011 [1981]; Lakarra 1986, 2011; Camino 2011).

IOko *-ko* sintagmen eta erlatiboen maiztasuna (XVI-XVII. mendeak)



IOko *-ko* sintagmen eta erlatiboen maiztasuna (XVIII-XIX. mendeak)



◇ Hego EH ■ Ipar EH ⬠ Erronkaribar

4.2. irudia. IOko erlatiboen eta IOko *-ko* sintagmen maiztasuna: XVI-XVII. eta XVIII-XIX. mendeetako testuak konparazioan.

Beharbada syntaxian ere antzeko zerbait gertatu zen. Erлатiboeti eta *-ko* atzizkiari dagozkienek, behintzat, hori iradokitzen dute.

Egin daitekeen beste galdera bat da ea hitz-ordenari eragiten dioten faktoreak berberak edo antzekoak diren hiru egituretan. Oro har, testuen azterketak erakutsi du nahiko ezberdinak direla, bakoitzean egiturarekin zerikusia duten alderdi semantikoek edo sintaktikoek garrantzi handiena baitute.³⁹

Erlatiboetan hainbat faktore identifikatu ditut. Gramatikalen artean, erlatibizatzen den argumentua zen inportanteena (IOko eta IAKo egiturek preferentzia ezberdinak dituzte). Bestalde, testu-generoak eta erregistroak eragina izan zezaketen. Erlazio-atzizkiari dagokionez, faktore nagusiak dira sortzen den modifikatzailearen semantika eta erabileraren maiztasunarekin lotutako lexikalizazioa. Genitiboaren kasuan adibide oso gutxi daude testuetan, eta erregularitasun bakarra pertsona-izenordainen eta izenen arteko aldea da: izenordainak izenak baino askoz maizago agertzen dira izenaren eskuinean.

